

Ur Apalategi Idirin (arg.)

Belaunaldi literarioak auzitan

Utriusque Vasconiae / Laboratoire de recherches en
langues et littératures romanes. Études basques,
espace caraïbe

© Ur Apalategi Idirin (arg.)

© Utriusque Vasconiæ

Lehen argitaraldia: Donostia, 2005eko urria

ISBN: 84-934066-2-7

Lege-gordailua:

Azala: Ur Apalategi Idirin

Maketazioa:P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE

Ategorrieta Hiribidea, 3-3. 20013 Donostia.

Tel.: 943-270433

Banatzaila: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

Ur Apalategi Idirin (arg.)

Belaunaldi literarioak auzitan



Liburu hau Ur Apalategi Idirinek zuzenduriko
KRITIKA LITERARIOA
sailean argitaratzen da

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
1. BELAUNALDI LITERARIOAZ	11
Paulo Iztueta Armendariz: “Belaunaldiaren kontzeptua tradizio soziologikoan”	13
Fito Rodriguez: Belaunaldiak edo eskolak? Euskal literaturaren pedagogizatzea eta haren ondorioei buruzko gogoeta	49
Jon Kortazar: “Belaunaldi literarioa; Kontzeptu ahistorikoa”	59
Iratxe Retolaza Gutierrez: “Literatur generoak eta belaunaldiak”	67
2. BELAUNALDIAK	89
Iban Zaldua: «Sandwich-aren sindromea»	91
Txomin Peillen: «Euskal idazle izatea 1950-1960 urteetako hamarkadan»	119
Ibon Egaña: “Poetak lubakietan. Periferiatik erdigunerantz”	149
Jon Casenave: “ <i>Eskualduna</i> astekariaren «gizaldi gaztea» (1877-1888)”	167
Lourdes Otaegi: “Gerra aurreko belaunaldia: Olerkariak”	185
Aurelia Arkotxa: «Oihenarten <i>L’Art Poétique basque</i> »	209

Hitzaurrea

Belaunaldi literarioek euskal letretan duten tokiaz hausnartzeko asmoz kongresu bat antolatzeko ideia azken bi urteotan prentsa bitartez garatuz joan den eztabaidaren beroan sortu zitzaidan. Interes handiz irakurri nituen Iban Zaldua, Jon Alonso, Juanjo Olasagarre, Karlos Linazasoro, Mikel Hernandez Abaitua eta aitortuki edo aitorgabeki belaunaldi hartakoak bide zirenen iritziak. Izan ere, normalean halako kontzeptuekin gertatzen ez den bezala, idazleak beraiek izan baitziren belaunaldi hitzaz baliatu zirenak ezinegon kolektibo bat izendatzeko orduan. Badakigu, jakin, idazleak izatez (idazletzaren mitologia okzidentalak hala eskatzen duelako erromantizismoaz geroztik) bakartiak direla, «sailkagaitzak». Eta izan bada *ethos* profesional horretatik hitz egin duen frustrazioaren belaunkiderik eztabaida horretan esku hartu dutenen artean. Denegazio mekanismo inkontziente eta susmagarri bati jarraiki, ausaz, egozten zitzaien belaunkidetza ozenki ukatu dute azken (mohikano?) hauek. Baina, orohar, esan dezakegu hemendik aurrera «tropela», «sandwitch», «galdua» ala «frustrazioarena» izenarekin ezagutuko dugun belaunaldiko idazleek lotsarik gabe heldu diotela kontzeptuari, arma berri bat bihurtzeko asmoz, antza. Zerbaitek bultzatuko zituen baina idazle hauek, belaunkide barik gutxienez «garaikide» diren idazle hauek, punk iraultzaren garaian nerabe edo gaztetxo izan ziren

idazle hauek (eta zer urrunagoa belaunaldiaren kutsu korporatista kolektibistatik punk izpiritua baino?), zerbaitek bultzatuko zituen baina, nioen, lerroak tinkatzera eta talde gisa gizarteak zor liekeen ezagupena eskatzera. Nago azalpena epidemiologikoa dela. Hau da, idazle gazteago batzuek Lubaki banda osatu ez balute, eta halako ospe (edo bederen hauspo) mediatikoa jaso ez balute ez zatekeela gertatuko halakorik.

Jakina, nire begirada, hasiera batean bederen, idazlearena izan zen eta ez unibertsitariarena. Alegia, nire aurreneko begirada guztiz afektiboa eta epidermikoa izan zela. Ni neu, idazle gisa non kokatzen nintzen, izan ere? Denegazio erreflexua nola cow-boyak errebolberra ateran nuen nire argudioen zorrotik. Agudoegi? Ni ez nintzen Lubaki bandakoa (adinez eta lehen lanen argitaratze datari zegokienean asimilagarria bihur banintekoen ere), ez horixe. Ez nuen parte hartu talde horren ezein argitalpenetan, ezta ezein bileratan ere, nahiz kideetako batzuekin harremanak izan nituen (*Gauak eta hiriak* Xabier Mendigurenek Harkaitz Cano eta beste zenbait lubakitarrei eman zien irakurtzeko, artean argitaragabea zela, eta beraien irakurketa txosten batzuk oraindik etxean ditut artxibaturik). Ez izanki partaide ez nuen nahi belaunaldi izaera aitortua izan zekion Lubakiri. Hori guztia zera ondorioztatzeko, belaunaldiaren kontzeptuan idazlea deseroso sentiarazten duena berari (pertsoneki, eta oso modu nartzisikoan) aitortzen zaion toki eskasa dela. Hobe beraz, apika, Zalduak eta enparauek egin bezala, belaunaldi kontuetan aitzindari eta eragile izatea autoko bosgarren gurpil bilakatzea baino. Historiak esango du, dena den, zer joko den belaunaldizat eta nor non kokatuko den azkenean, baina kontua zen liburuaren atari honetan, zertzelada hauen bitartez, belaunaldi kontzeptuaren aurreko idazlearen funtzionamendu psikologikoa partez behintzat argitan jartzea.

Belaunaldi literarioa Jainkoa bezala da. Ez da existitzen (objektiboki, zientifikoki), baina bere ideia existitzen da eta errealitatean badu eraginik. Eta hori dela eta ikerketa zientifikoarentzat ekai bihurtzeko zilegitasuna ikusten nion. Hortik kongresuaren xedea. Akta liburu honetan irakurleak aurkituko duena hausnarketa kolektibo bat da, baina anitza. Baionako fakultatean, 2005eko otsailaren 11n ospatu zen «Belaunaldi literarioak auzitan» izeneko kongresua, Paueko eta Aturri Herrietako Unibertsitateko *Laboratoire de recherches en langues et littératures romanes, études basques, espace caraïbe*-k babesturik. Adin desberdinetako ikerle edo idazleen mintzaldiak biltzen dira hemen eta bi atal nagusitan zatiturik aurkezten dira. Izan ere, eta berez gertaturiko zerbait da, ohartu baikara bi testu motaren aurrean gaudela. Batetik «belaunaldi» kontzeptuaren beraren inguruko gogoeta epistemologiko bat proposatzen dutenak leudeke. Bestetik, kontzeptua zuzenki epaitu ala haztatu barik bere balio-garritasuna adibide konkretu baten bitartez frogan jarzen dutenak.

Lehen zatian, bada, Paulo Iztuetak belaunaldiaren kontzeptuak tradizio soziologikoan izan duen harrera aztertzen du, zientifikoki zehaztuezina izan arren ikerle labealdi bakoitzak bere definizio proposamena egiteari ezin izan diola eutsi erakutsiz. Fito Rodriguezek, ikuspegi funtzionalista batetik, kontzeptuak duen finalitate pedagogikoa hartzen du aintzat, begirada kritikoak duelarik azken hitza: irakurketak ekintza askea izan beharko lukeenean berau baldintzatzen duen aurreirakurketa litzateke belaunaldi literarioa. Jon Kortazarrek espainiar tradizioan belaunaldi literarioaren ideiak izan duen arrakasta eta ondorengo gainbehera darabiltza bere balio-gabetasuna azaldu eta idazleen sailkatze lan estetiko bat hobesteko. Iratxe Retolazak, berriz, bere lana liburu honen bi zatien arteko zubian aurkitzen delarik, belaunal-

diak nola inkontzienteki genero literario batekin asimilatu ohi ditugun aztertzen du, bere ikerle esperientzia pertsonalean oinarrituz.

Bigarren zatia irekiz, Iban Zalduaren testu hibrido bat aurkituko da, zeinetan gogoeta teorikoa, fikzioa, autoanalisi sarkastiko-ironikoa eta beste hainbat osagai nahasten diren «Sandwich» belaunaldiaren portreta egiterakoan. «Zientzia fikzioa», beraz, baina hitzaren zentzu benetakoa, alegia jakintza fikzioaren bitartez garatua. Modu berean, Txomin Peillenek berea ere baden belaunaldi heterodoxoaren erretratoa proposatzen du, baina modu klasikoago batean, oroitzapena duelarik gidari. Ibon Egañak Lubaki bandaren «belaunalditasuna» galdezkatzen du literaturaren ikuspegi sistemikoa darabilelarik bandaren estrategia existentziala aztertzerakoan. Jon Casenavek Iparraldeko prosa tradizioan hainbesteko garrantzia izan zuen belaunaldi bat belaunaldiari eskuarki egozten zaizkion ezaugarri teknikoen galbahetik pasatzen du, talde horren homogeneitatea agerian utziz. Lourdes Otaegik belaunaldi izena merezi izan zuen lehen idazle taldea du hizpide, gerraurreko olerkariena. Belaunaldi izendapenaren genesiaren berri ematen digu bere egokitasunaz hausnartzearekin batera. Azkenik, Aurelia Arkotxak euskal testu zaharren irakurketa kritiko berri bat aldarrikatzen du –kritika literarioan ere «belaunaldi» berri baten beharra aldeztuz–. Oihenartek bere aurreko euskal poetei buruz zuen iritzia erlatibizatu beharreko belaunaldi edo eskola estetiko ezberdinen arteko talka bezala irakurri behar dela erakusten du eta ez epai absoluto gisa. Oihenarten testuaren azterketa genetiko zehatz eta arretatsua eginez ezartzen ditu ikuspegi aldaketa horren oinarriak.

Ur Apalategi Idirin, UPPA

1. BELAUNALDI LITERARIOAZ

Belaunaldiaren kontzeptua tradizio soziologikoan

Paulo Iztueta Armendariz, E.H.U.

1. Sarrera

Aldika, trumoi haserretuaren antzera, idazle-multzo baten deiadarrak entzuten dira gizartean beren lekua eskatuz. Normalean gazteak izaten dira berritasun zerbaiten ekarle sentitzen direnak eta beren ahotsa entzuna eta aintzakotzat hartua izatea errebindikatzen dutenak.

Euskal kulturaren mundutxoan, azkenaldion, literatur sailetik jalgi da galdera, batzuetan ozenki, besteetan zalantzaz beteta egina: belaunaldi berri baten aurrean ote gaude? Eta hala bagaude, zein ote dira hori baieztatu ahal izateko arrazoiak? Badirudi, asmoetan bederen, euskal letren zohardian izarrez aldatzeko tenorea iritsia dela.

Harritzekoa ere bada belaunaldien kontuak horrelako burrunba ateratzea, kontzeptu hori kritikak aspalditxotik auzitan jarria, hila edo erdi-hila zelakoan baikeunden. Baina bai zera! Literaturatik haragoko beste sailetan ere, edozein kultur gertakari dela eta, noiznahi agertzen da hitz hori, bereziki hedabideetan, liburuak

aurkezten direnean, norbait elkarrizketatua denean, eta horrelakoetan. Bestalde, hitz horri ematen zaion zentzua ere ez da beti berdina izaten, segun nork, nola eta non, aldatu egiten baita.

Oraindik orain, eguneroko prentsan¹, Sarrionandiaren *Akordatzan* oroitzapen-liburuaren aurkezpenaren kariatz, izenburuan “belaunaldi oso baten bizipenen isla” dela irakurtzen genuen. *Argia* astekariak Harkaitz Cano, Juan Luis Zabala eta Iban Zaldúa idazleen arteko elkarrizketa zekarren eta hor, Mikel Asurmendiren galderei erantzunez², egungo euskal literaturaren esparruan belaunaldien arazoaz beren aburuak agertzen zituzten³. Elkarrizketa batean, belaunaldi-aldaketa ematen dela esaten zuen Andres Urrutia euskaltzainburu berriak: “Belaunaldiz aldatu dugun neurrian aldatu ditugu bestelako kontuak ere, euskara kaletarra bihurtu den neurrian gu ere egoera horren lekuko gara”⁴. Aldatzen dena, beste ezer baino gehiago, adinarena da, euskaltzain berriaren 50 urtetik Jean Haritxelhar euskaltzainburu ohiaren 81 urtera tarte nabaria baitago. Data bereko egunkari berean, Mitxel Ezquiagak idatzitako *101 vascos y medio. Bestiario portátil* liburuaren aurkezpena zela medio, honako izenburua irakur zitekeen 54. orrialdean: “*101 vascos y medio*, intento por retratar una generación”. Eta goiko argazkian, adin guztietako pertsonaiak agertzen ziren, berrogei urtetik beherakoak bezala hirurogeita hamarretik gorakoak. Eta kolore guztietakoak. Martin eta Xabier Etxeberria anaien *Itxoidazu Café de Passy-n* eleberriaren aur-

¹ *Gara*, 2004-12-2, 59 or.

² Asurmendi, Mikel (2004): “Literatur belaunaldiak” (Elkarrizketa Iban Zaldúa, Juan Luis Zabala eta Harkaitz Canorekin), *Argia*, 1.968, 2004-11-28, 22-24 orr.

³ *Argia*, 1.968 zk., 2004-11-28, 20-31 orr.

⁴ *Gara*, 2004-12-18, 51 or.

kezpen-pasarte batean⁵, orobat, “dezepzioak elkartzen dituen belaunaldi bi” irakurtzen da izenburuan. Bi belaunaldi hauek Burgosko epaiaren inguruan sortutako mugimendu zabalarekin identifikatzen den Parisko unibertsitate-ikasleek eta orduko gazteen seme-alabek osatzen dituzte. Beraz, hemen ere, adin biologikoa da neurria.

Beste batzuetan, ordea, zentzu sozialean erabiltzen dute beste batzuek, hala nola Pako Sudupek⁶ (2002, 23) 1950eko hamarkadan gertatzen diren tirabirez jarduten duenean. *Euzko-Gogoa* aldizkariak ari dela, belaunaldi berekoen artean bi joera nabarmentzen ditu, batzuk euskara kultuaren aldekoak (Zaitegi, Orixe, Ibinagabeitia) eta beste batzuk, berriz, euskara populistaren aldekoak (Iparraldean *Herria* astekarikoak, Lafitte eta Salaberri, eta Mokoroa eta Etxaniz Hegoaldean).

Zernahiri deitzeko balio du, beraz, belaunaldiaren kontzeptuak. Erabilera egokia ala desegokia izango da, baina belaunaldiaren gaia bizirik dago. Alderdi hauxe jarri nahi genuen mahai-gainean.

Gero zehatzago ikusiko den bezala, euskal literaturaren eboluzioa historiatzeko erabili diren kategoriak mendez mendeko edo urtealdiz urtealdiko sailkapenetan oinarrituak izan dira eta oraindik ere, neurri handi batean, irizpide kronologiko berarekin segitzen dugu, kultur gertakariak epealdi jakin baten barruan kokatuz, baina zergatik horrela kokatzen diren arrazonatu gabe. Eta epealdi horien baitako kultur aldaketen prozesua adierazteko, orobat, beste hainbat kontzeptu irakur daitezke historiako testu horietan, noiz kultur mugimenduak, noiz literatur korronteak, noiz eskolak, noiz taldeak, noiz lagunarteak, noiz belaunaldiak, *et sequatur*.

⁵ *Argia*, 1.971 zk., 2004-12-19, 39 or.

⁶ Sudupe, Pako, “Belaunaldi tirabirak 50eko hamarkadan”, *Egan*, LIV-2001, Lasarte-Oria, 19-38 orr.

Inoiz horietako bakoitzaren edukia zehaztu gabe, baina orokorrean horien artean nolabaiteko kidetasun semantiko agertuz. Euskal kulturaren sailean, Joan Mari Torrealdei⁷ izan da belaunaldiaren kontzeptuaz modu aski sistematiko batez baliatu izan dena, oinarriztat hogei urteko zikloa hartuz: “Hogei urteko ziklo berri baten azterketari ekiten diogu orain. Ziklo hauxe da hain zuzen liburu honek deskribatu eta kontatu nahi duena. Propioki ziklo gisa hartzen dut epealdi hau”. Baina autore honen baitan ere bada nahasketarik, belaunaldiarekin batera, eta alboan, beste kontzeptu batzuk ere erabiltzen baititu, hala nola hazaldia eta labealdia, baina bakoitzarena mugatu gabe. Honek guztiak, noski, belaunaldiaren kontzeptua argitzea eskatzen du eta horretarako ezinbestekoa egiten zaigu tradizio soziologikoan nola ulertua izan den jakitea.

Euskal literaturatik aparte, XIX. mende-bukaerako euskal arteaz jardutean ere belaunaldien kontua agertzen da, zehazki “98ko belaunaldiaz” hitz egiten denean (Kortadi, 1985, 343), hor sartuz korronte desberdinetako autoreak: inpresionistak, modernistak eta sinbolistak. Era berean, ekonomiaren sailean ere, euskal mugimendu kooperatibistaren berri emateko orduan (Gorroño, 1985, 114), belaunaldiaren kontzeptua agertzen da lanaren izenburuan bertan, zeina Jose Maria Arizmendiarrietarekin Arrasaten 1943ko urrian hasten den lagun-taldearekin identifikatzen baita. Ekonomian ez ezik, Soziologia, Pedagogia eta Historia sailletako zenbait argitalpenetako izenburuetan ere agertzen da kontzeptu hau, adibidez, J. I. Ruiz Olabuenaga⁸, Ander

⁷ Torrealdei, Joan Mari, *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*, Jakin, Donostia, 1997, 159.or.

⁸ Ruiz Olabuenaga, J. I., *Vida cotidiana y nuevas generaciones*, Universidad de Deusto, Bilbao, 1996 eta Ruiz Olabuenaga, J. I.; Sabater, Carmen (1991): *Narcobábito de segunda generación (el caso vasco)*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria.

Arrieta Landeta⁹, Adriana Puigrós¹⁰ eta J. A. Portuondoren¹¹ ikerlanetan.

Honekin esan nahi dena da, belaunaldiaren kontzeptu hau, literaturari buruzko azalpenetik harago, beste sailetan ere erabilia izan dela eta guk ere, erabilera hori aintzat hartuz, literatura hutsetik harago zabaltzen den kulturaren esparrutik abiatuz azalduko dugula belaunaldiari buruzkoa, nahiz eta, hemengo jarduna, gehienbat, idatzizko testuari atxikia egon. Honela egitean, edozein motatako sorkuntza –literarioa nahiz pentsamenduzkoa– barne-hartzea lortzen dugu, zenbait kritikari mioperen ergelkeriari baizik ez baitaia zor, idazleen belaunaldiaz jardutean, kontzeptu hori soilki literaturaren esparrura mugatzeko mania. Hainbaten irizpideak ontzat hartu beharko balira, Axular batek nekez luke sarbiderik EIEEn, nola eta haren saiakerari ez zaion aitortzen literatur prosaren kategoria.

Sarrera honen bukaeran berriro hasierara itzuliko gara, eta galdezka. Euskal letretan egiazki belaunaldi berri baten aurrean aurkitzen ote gara? Baina belaunaldiaren kontzeptuak operatiboa izaten segitzen al du abiapuntuan ezartzen den kultur eta literatur aldaketa horren prozesua adierazteko? Egokia al da, noiz eta gaur, euskal letren baitako belaunaldien zenbatgarrenaz galdetzea?

2. Tradizio soziologikoaren iturrietan

Belaunaldiaren nozioa aipatzearekin batera, bizitza, heriotza eta giza erreproduktzioa datozkigu gogora. Izan

⁹ Arrieta Landeta, Ander, *La desconstrucción de la verdad grupal: sociología generacional de una heterodoxia abertzale*, Servicio Editorial de la UNP, Pamplona, 1998.

¹⁰ Puigrós, Adriana, *Universidad, proyecto generacional y el imaginario pedagógico*, Paidós, Buenos Aires/Barcelona, 1993.

¹¹ Portuondo, J. A., *La historia y las generaciones*, Letras Cubanas, La Habana, 1981.

ere, giza espezieak, beti bere mugekin eta bere betikotasunaren egarriarekin borrokan, horiek ditu bere betiko arazo nagusiak. Horregatik, belaunaldiaren kontzeptua, Soziologian lantzen hasi baino lehen ere erabilia izan zen, Greziako literaturan bezala Egiptokoan, Biblian eta semiten literaturako hainbat dokumentutan, orokorrean zentzu biotikoan ulertuta. Giza espeziari dagokionez, berriz, gurasoen eta bere ondorengoen arteko denbortarte adieraztera mugatzen da soilki. Erabilera murriztu du, beraz.

Belaunaldiaren fenomenoaren zentzu hertsiki soziologikoan hartuta, ordea, XIX. mendeko lehen hamarkadetan hasten da garatzen, modernitateari sorrera ematen dioten orduko giro intelektual eta politikoak eraginda. Geroztik, gogoeta soziologikoan gero eta arreta gehiago eskaini ahala, kontzeptu hori gizarteko errealitate-mota desberdinak aztertzeke erabiliko da, hala nola eraldakuntza sozialak, politikoak, ekonomikoak, edota, berdin, sorkuntza intelektual eta artistiko berriak, edo literarioak. Belaunaldi baten zapiak ezkututzen duena, kolektibo baten obrak noiz-nongo jakinetan kokatze hutsa baino harago doan zerbait da. Zer den? Hauxe azaltzea da, hain zuzen, gure gogoeta-gaia.

Goian esan bezala, belaunaldiaren kontzeptua giza bizitzaren errealitateari atxikirik baitator, ezin du bere esanahi osoa hartu ez bada bere testuinguruan, ezin da ulertu haren esanahia ez bada egitasmo historiko batean kokatzen. Egitasmo historiko hauek aldatuz etorri dira egile eta garai desberdinen arabera, garai bakoitzak bere arazo bereziak baititu. Horregatik, belaunaldiaren kontzeptuak, beste hainbat kontzepturen antzera, bere eboluzio historikoa izan du eta, XIX. mendetik hona, pentsamendu soziologikoan agertuz eta garatuz etorri diren teoria edo eskola desberdinen arabera, kontzeptu hori buruzko ikuspegi desberdinak landu izan dira. Guk geure

ibilbide honetan lau eskola aipatuko ditugu, besteak beste, honako hauek: eskola positibista –hasieran bere erroak bereziki Frantzian dituen, nahiz geroago jarraipena teknofuntzionalismoak emango dion Estatu Batuetan–; eskola historiko-erromantikoa eta eskola historiko-soziala –biok gehienbat Alemanian landu izan direnak eta zeharka Espainian–, eta, azkenik, eskola etnologiko-antropologikoa, azken hau nagusiki European eta Estatu Batuetan ingeles jatorriko tradizioan finkatu eta errotu izan dena.

Belaunaldiaren kontzeptuari buruz, bada, egiazko genesi baten aurrean aurkitzen gara eta komeni zaigu, gaurko egoera argitzeko, aurrekoen eta gaurkoen ekarpenak ezagutzea.

2. 1. Eskola positibista

Eskola honen zuhaitzak, arestian esan bezala, bere erroak Frantzian botatzen dituen arren, batez ere, Dromel, Soulavie, Comte eta Mentre-rekin, haren adarrak European zehar ere barreiatuko dira, hala nola Italian Ferrari-rekin, Austrian O. Lorenz-ekin, Ingalaterran J. S. Mill-ekin eta Alemanian G. Rümelin-ekin.

Justin Dromelek¹² “belaunaldi politikoaren” kontzeptua lantzen du, aztergaitzat hartuz politikagintza aktiboan dagoen 25-65 urte-bitarteko gizon baten epealdia. Abiapuntutzat hartuta eboluzio soziohistorikoaren motorra segidako belaunaldien arteko oposizioan datzala, aldaketen legeak eta erritmoak oinarri demografikoen baitan ezartzen ditu. Politikagintzaren bizi-iraupena bi arotan zatitzen du: bata goranzkoa da, beheranzkoa bestea, hurrenez hurren, segidako belaunaldiei dagozkienak.

¹² Dromel, J., *La loi des révolutions, les générations, les nationalités, les dynasties, les religions*, Ed. Didier & Cie, 1862.

Frantziako populazioaren 1856ko datuak hartuta eta, batez beste, bi belaunaldiak banatzen dituen muga 41 urtekoa dela aurrez emanda, ageri da goranzko belaunaldiak hamasei urte irauten duela, eta hortik aurrera segidako belaunaldia datorkiola bere jokabideak kritikatu.

Auguste Comterentzat¹³, populazio-mugimenduak, hauen hazkunde eta dentsitateak giza espirituaren hobekuntzan duten eraginaren adierazle diren bezala, belaunaldien berrikuntza-erritmoak aurrerapen-erritmoaren neurria ematen du. Gizateriaren bata bestearen segidako urratsek gizakien etengabeko eta mailaz mailako berrikuntza suposatzen dute, eta hau belaunaldi bakoitzak hurrengoarengan duen eraginaren ondorioz gertatzen da. Aurrerapenaren erritmoa aldatzen denaren eta irauten duenaren arteko oreka zuzenak markatzen du. Gazteek berrikuntzarako agertzen duten indarrak dakar aurrerapena, helduek, zahartzen doazen heinean, kontserbatismorako joera erakusten baitute. Comtek belaunaldiei eta hauek gizarte-aurrerapenean jokatzen duten egitekoari buruz duen ikuspegia, haren historiaren filosofian eta zientzien teorian kokatu behar da. Segidako belaunaldien jarraitasuna azpimarratzen du, eta ikuspegi hori historiaren filosofian sartzen da, zeinaren arabera armoniaren printzipioa aplikatzen baita pentsamendua-ren historiaren, zientzien historiaren eta gizarteen historia orokorraren artean. Belaunaldi baten bizi-etapak gizarte-aurrerapenaren antzekoak –analogoak– zaizkio: haurtzarora feudalitatearekin berdintzen du, gaztarora iraultzarekin, heldutasuna positibismoarekin. Giza historia giza izaeraren garapenarekin nahasten da. Historia honek zentzu bat du, eta hori aurrerapena da, eta honek

¹³ Comte, Auguste, *Cours de philosophie positive*, IV, Schleicher, Paris (1. arg. 1880), 1908.

nahitaezko lege batzuei obeditzen die. Lege hauek jatorri biologiko eta enbriologikoa dutenak dira.

Harenean zer kritikaturik baden arren, asko dira haren teoriatik zenbait elementu jaso eta landu dituztenak, horien artean Simmel eta Durkheim. Azken honek¹⁴ ere belaunaldien kontzeptua erabiltzen du hezkuntza definitzerakoan, esanez berori “belaunaldi helduek oraindik gizarte-bizitzarako beharrezko den heldutasun-maila lortu ez dutenengan duten eragina” dela. Gazteek horrela jasotzen dituzte, belaunez belaun, zaharragoen ondare intelektual eta moralak, gizarteak eskatzen dizkienak bere ingurune espezifikoan txertatuz joan daitezten.

A. A. Cournot-en¹⁵ historiari buruzko ikuspegiak urrats garrantzitsua suposatzen du metodo historikoaren eboluzioan. Ohartzen da erromatarrentzat, adibidez, mendearen kontzeptua, ez datazio eta kronologia metriko bati, baizik, batez ere, egiazko eten bati dagokiona dela. Cournotek, XIX. mendeko errealitate demografikoa oinarritzat hartuta, hiru belaunaldi bereizten ditu, orduan lauok ez baitziren ohikoak. Comtek jarraitasuna aurrerapenean baloratzen duen bezala, Cournotek aldaketak azpimarratzen ditu.

François Mentrek¹⁶, bere aldetik, belaunaldien hamar urteko ibilaldia proposatzen du. Beraz, hamar urtetik hamar urtera agertuko litzateke belaunaldi berria eta hogeita hamar urte iraungo luke bakoitzak, zeinaren ondorioz, une jakin batean, belaunaldi bat baino gehiago koexistituko bailirateke. Hogeita hamar urteko irau-

¹⁴ Durkheim, Emile, *Hezkuntza eta soziologia*, Klasikoak, Bilbao, 1993, 45.or. (P. Iztuetak itzulia; jatorrizkoa, *Education et sociologie*, PUF, Paris, 1973).

¹⁵ Cournot, A.A., *Oeuvres complètes*, IV: *Considérations sur la marche des idées*, Ed. Virin, Paris, 1973 (1. arg., 1872).

¹⁶ Mentré, F., *Les générations sociales*, Ed. Bossard, Paris, 1920.

pena duen epealdi soziala aurkezten du berak, 30-60 urte-bitartekoek osatzen dutena. Famili aroarekin eta familiaren baitan segidako bi belaunaldikoak banatzen dituen tartearekin batera datorren epealdia da. “Belaunaldi historikoaz” ere hitz egiten du, horrekin aditzera emanez sorkuntzako aroak, loraldikoak –gizon-emakume ospetsu ugari sortzen direnekoak, nolabait esateko–; belaunaldi bateko gidariak, heroiak edo profetak dira horiek. Baina badira, horiek ez bezala, antzuak eta, hein batean, sakrifikatuak diren aroak ere. Hauek trantsizio-koak genituzke, epealdi ilun eta nahasiak, bi belaunaldi historikoen artean bitartekariena egiten dutenak. Aro batzuetan, gizon-emakume handi hauek taldeka agertzen dira, Cournot eta Diltheyk ere esan bezala.

G. Ferrarik¹⁷, Frantzian bizitako italiar egileak, historiako bi mila urteko epealdia aztertzea hartzen du xedetzat, eta horretarako epeak belaunaldien arabera banatzen ditu. Belaunaldi baten iraupena hogeita hamar urtera mugatzen du, bere ustez, denbora-tarte hori nahikoa delako egiazko gizarte-aldaketak gerta daitezten. Lau belaunaldi bateratuz osatuko litzateke ziklo historiko bat, ez hiru Cournotek egin bezala. Honela, bideak irekiz datozen aitzindarien ondoren, iraultzaileak letozke, gero erreakzionarioak eta, azkenik, erabakitzaileak. Lau belaunaldi hauek bateratuta, ondorioz ateratzen da historiaren ehuna ehun eta hogeita bost urteko epealdi etengabekoaren errotan doala hariltzen. Nabarmentzekoa baita puntu hau, zehaztu behar da, autore honen ustez, gizartean ematen diren aldaketak oro –filosofikoak, zientifikoak, literarioak, artistikoak– faktore politikoei darizkienak direla. Politika da, beraz, historiaren trenari eragiten diona.

¹⁷ Ferrari, Giuseppe, *Teoria dei periodi politici*, Ed. Hoepli, Milan, 1874.

Autore positibisten kezka, orotara hartuta, mugimendu historikoak neurtzeko obsesioa da, eta horretarako, “historiaren metro” gisa, itsu-itsuan belaunaldiaren kontzeptuaz baliatzen dira. Attias-Donfut egileak¹⁸ ohartarazten duen bezala, belaunaldiaz ematen dituzten definizioetan ahaidetasunezko jatorria eta gizakiak duen bizi-iraupen mugatuaren alderdi biologikoa, alderdi biok bateratu edo nahasten dituzte, edota soilki azken datu horretan oinarritzen dira. Kasurik gehienetan ez dute kontuan hartzen belaunaldi biotikoa eta soziala ez direla gauza bera, edota ez datozela beti batera. Garapen sozio-historikoaren erritmoa gizakiaren adin biologikoaren arabera mugatzen da. Horrela, gizartean gertatzen diren aldaketak oro, nola kulturalak hala soziopolitikoak, faktore biotikoetan oinarrituta interpretatzen dira. Aurrerapenaren neurri-batasuna eta beronen mailak belaunaldien ideian aurkituko dituzte. Aurrerapenari buruzko ikusmolde hori, gainera, lerro bakarrekoa izango da, belaunaldien joan-etorrian garatuz datorrena. Dromel, Soulavie eta Benloew-en ustez, orokorrean, hamabost edo hamasei urteko aldiak adieraz dezake belaunaldi baten iraupena; Gustav Rümelinek¹⁹, aldiz, hogeita hamahiru urtetik hogeita hemeretzi urte bitarteko iraupena ezarriko du. Bada alderik.

2. 2. *Eskola historiko-erromantikoa*

Eskola hau Alemanian sortu zen gutxi gora-behera aurrekoaren garai bertsean. Esan daiteke ia puntu guztietan frantses positibisten kontrakoa dela. Positibistek uste

¹⁸ Attias-Donfut, Claudie (1988): *Sociologie des générations. L’empreinte du temps*, PUF, Paris, 43. or.

¹⁹ Rümelin, G., *Problèmes d’économie politique et de statistique*, Paris, 1896, 285-305 or.

zutenaren kontra, eskola honetakoak garapen historikoa ez dela lerro bakarrekoa agertzen ahaleginduko dira. Hauentzat belaunaldia modu kualitatibo batez bizi daitekeen zerbait da, barne-denborari dagokion kontzeptuz hartu behar den zerbait. Belaunaldien eduki historikoa azpimarratuko dute.

Eskola honen buru nagusia Wilhelm Dilthey²⁰ da. Honen metodo historikoa gizakia historiarekin harremanean jartzean datza, ideien garapena gizakien arteko harremanen eta beren inguruaren argitan irakurtzean, alegia. Honentzat, giza bizitza eta honi datzekion belaunaldien kontzeptua dira zientzia moral eta politikoen historia eraikitzeko bitarteko teorikoak. Belaunaldiak gizabanakoen garaikidetasuna adierazten du. Hau batetik, baina bestetik, batik bat, belaunaldi bereko partaideak elkarrekin dituen kualitatibozko loturan ezartzen du bere arreta, ohartzen baita eragin eta egoera bertsuak elkarrekin bizi izan dituztenak batzuk besteengandik hurbilago daudela. Hauek izango dira, bada, belaunaldi bera osatuko dutenak. Belaunaldi baten produkzio intelektualean eragina duten baldintzek —belaunaldi bat eratzen den unean aurkezten diren horiek, alegia—, parte hartzen dute belaunaldi baten osaketan, berak “kultura intelektualaren aktiboa” deitzen dienak. Baldintza hauen ondortik, beste bigarren batzuk datoz, hala nola ingurunea, gizarte-zirkunstantziak, politikoak eta bestelakoak, bereziki, gertaera intelektual berriak. Baldintza hauen gutzietan barruan, hauen eraginpean sortu eta eratzen da gizabanakoen multzoa edo talde koherentea, homogeneoa, elkarri atxikiak irauten baitute aurrean dauzkaten gertaera eta aldaketa handien artean.

²⁰ Dilthey, W., *Le monde de l'esprit*, I: *Histoire des sciences humaines*, Aubier-Montaigne, Paris, 1947.

Beraz, harena laburtuz, belaunaldiaren kontzeptuak bi alderdi barne hartzen ditu: positibisten kasuan bezala, ez bide du adierazten soilki denbora-iraupena edota giza bizitzaren barne-neurria, baizik eta, aldi berean, adin bertuko gizabanakoek beren heziketa-garaian dituzten eraginaren eta harremanen multzoa ere. Honela, eskola honetakoei belaunaldi baten baitan hiru elementu bateratzen dituzte: lehenik, lehen ikuspegi genealogikoaren arabera, hogeita hamar urteko zikloa ezartzea, bigarrenik, garaikidetasunaren eta adinkidetasunaren kontzeptuak areago zehaztea eta, azkenik, belaunaldien arazoa giza bizitzarekin elkartzea.

Hiru alderdi horiek argitzea beren alde doan zerbait da; baina ez dituzte aintzakotzat hartuko ez alderdi biotikoak ez faktore sozialak, hauek ere bere zerikusia dute-nak belaunaldien kontzeptuarekin. Maila biotikoa, soziala eta mentala nahastu izana, beraz, beren kontra doan zerbait da. Eskola positibistak sobera nabarmendu zuen bezala belaunaldien fenomenoaren alderdi biotikoa, eskola historiko-erromantikoak bere arreta osoa alderdi historiko-kulturalean ezartzen du, soilki hor. Zentzu batean urrats garrantzitsua ematen badu ere, Jansenek²¹ dakarrenez, ez da iritsiko belaunaldiak zein testuinguru jakinetan agertzen diren zehaztera, haren ikuspegia gizabanakoen bizitzan edo, gehienez ere, gizabanakoen arteko koexistentzian oinarritua dagoelako, hain zuzen.

2.3. Eskola historiko-soziala

Ikuspegi hau, aurreratuena eta, metodologiaren aldetik, soziologian sonatuena, XX. mendeko bigarren eta

²¹ Jansen, Nerina (1977): *La teoría de las generaciones y el cambio social*, Espasa-Calpe, Madrid, 23-26. or.

hirugarren hamarkadetan lantzen da. Pentsamendu filosofiko eta soziologikoan aurreko teoria biotikoa zein historikoa gainditu eta, gizartearen, Historiaren eta giza bizitzaren azterketari lehentasuna ematen zaionean, orduan bakarrik garatu ahal izango da eskola honen ikuspuntua, Soziologian Mannheim-ekin, eta Filosofian Jose Ortega y Gasset eta honen jarraitzaile Julián Maríasekin.

Mannheimek²² belaunaldiaren kontzeptura hurbiltzeko bi joera bereizten ditu: batean positibistak aurkitzen dira, historiaren erritmoak aztertzeko orduan arazoa ikuspegi kuantitatibora murrizten dutenak, eta bestean erromantiko-historikoak, neurketa matematikoari uko eginez, aintzakotzat soilki barne-denbora hartzen dutenak ikuspegi kualitatiboari lehentasuna emanaz. Honek, bere aldetik, belaunaldien arazoa historizismoan eta ezagutzaren soziologian oinarrituta planteatzen du eta, zentzu honetan, bai F. Mentre bai Ortegarekin baditu hainbat puntu batera. Baina berak beste bide bat hartzen du, bi puntu hauetan bederen besteengandik urruntzera daramana. Lehenik, erritmo historikoak eta segidako belaunaldienak disoziatu egiten ditu, bere ustez belaunaldiaren errealitatea ez baita historian zehar epealdi erregularren arabera ematen omen diren belaunaldien erritmoaren esanekoa; bigarrenik, belaunaldiaren kontzeptuak, zeina gizarte-aldaketa ulertzeko oinarritzkoa baita, gizarte-prozesuak eta fenomeno hori egituratzen duten gizarteko elkarrekintzak ikertzea eskatzen du eta, hala egitean, ildo soziologikoari heltzen dio.

Belaunaldiaren nozioa ulertzeko hurbilketa urratsez urrats egiten du eta, azkenean, lau belaunaldi-multzo bereizten ditu, elkarren osagarri direnak: hasieran soilki potentziala den belaunaldia, “belaunaldi eraginkorra”

²² Mannheim, K., “The problem of generations”, in *Essays on the Sociology of Culture*, Routledge and Kegan Paul, Londres, (1. arg., 1928) 1972, 276-322 or.

izatean gauzatzen den azpi-multzo bilakatzen da; eta honek, aldi berean, “belaunaldi-unitateak” sortzen ditu eta hauen baitan, azkenik, “talde konkretuak” aurkitzen dira. Belaunaldi batetik bestera pasatzea gizarte-prozesuek baldintzatzen dute, tartean sartzen direlarik gizarte-aldaketak eta gizarteko elkarrekintzak. Hara nola gertatzen den hori guztia zehaztasunez azaldua. Lehena: belaunaldi “potentzialekoa” izatea erritmo biologikoan oinarritzen da, iraupena mugatua du eta zahartu egiten da; erro biologiko horretatik, ordea, ezin dira ondorioak atera. Bigarrena: ezin da hitz egin “belaunaldi eraginkorraz”, belaunaldi bateko partaideen artean lotura bat sortzen den neurrian ez bada. Eta lotura hori sortu, desestabilizazioak eragindako prozesu dinamikoaren zantzu sozial eta intelektualak agertzen direnean sortzen da. Honek esan nahi du beharrezkoa dela aldaketak egotea belaunaldi eraginkor baten lotura sortzaileak gauza daitezen. Hirugarrena: belaunaldi eraginkor bakoitzean, hainbat unitate desberdinu eta antagonista kausitzen dira, “belaunaldi-unitateak” deitzen zaienak. Eta unitate hauetako partaideak elkarri lotuak daude funtsean integratzaileak eta gizartean sozializazio-indarren printzipio gidariak diren jarrerren bidez. Nolabait esateko, komunitate espiritual moduko bat osatzen dute eta, nahiz eta lekuz banandurik egon, nolabaiteko kidesasuna erakusten dute beren bizipenetan. Laugarrena: jarrera integratzaileak –ideologiak–, talde konkretuetan sortzen dira, elkarren eraginean eta, honela, unitate zabalago baten indar eratzailea izatera iristen dira. Azken batean, aldaketa-prozesua –eta hau da Manneheimek lantzen duen oinarritzko kontzeptua–, adin-talde berriak etengabe sortzetik –metatutako kultur ondarearekin “harreman berria” izatetik–, datorrena da. Ideiak, balioak, portaerak belaunaldien bidez aldatuz joaten dira, hots, gizarteko eszenategian partaide berriak sartu eta zaharrak desagertzearen ondorioz. Bi faktore hauek dira gizartearen etengabeko “gaztetzea”

ziurtatzen dutenak, kultur transmisioan hautaketa ohar-tua eta oharkabea egiten dutenak. Garrantzitsuena bere ikuspuntuan, belaunaldi bakoitzak zer-nolako gizarte-posizioa daukan jakin eta zehaztea da.

Espainian José Ortega y Gasset eta Julián Marías dira eskola honetan nagusitzen direnak, bakarka azalduko ditugunak, lehen aipatuaren kasuan arreta berezi batez, eta hau bi arrarrazoi hauengatik: batetik, espainiar nazionalismoaren eraikuntzan haren pentsamendua oinarritzkoa delako, eta, bestetik, gure garaikoek haren lanak asko irakurri dituztelako. Horregatik, zuzenean ez bada zeharka, harenak izan du gurean eraginik. Dena den, jakitekoa da haren pentsamendua zein neurritan den bere-berea, edota oinarritzkoena, neurri handi batean, beste iturri batzuetatik edana duen. Kritikak argitu duenez, “raziobitalismoa” izeneko haren teoria, neurri handi batean, Alemaniako filosofiatik –bereziki, Dilthey eta Heideggerrengandik– jasota landua da. Espainiar nazionalismoaren kasuan, Pruden Gartzia *Argia*-n egoki dioen bezala²³, funtsean Menéndez Pidal jarraitzen dio, nahiz Gartzia berak²⁴ bere doktore-tesian dakarren bezala, beren desadostasunak badituzten gaztelaniaren sorreraren gainean.

Belaunaldiaren kontzeptua, zeina oinarritzkoa baita historia ulertzeko Ortegak, batez ere, *En torno a Galileo. Esquema de las crisis*²⁵ eta *El tema de nuestro tiempo*²⁶

²³ Gartzia, Pruden, “Elkarrizketa Pruden Gartziarekin”, *Argia*, 1.956 zk., 2004-09-5, 51-53 orr.

²⁴ Gartzia, Pruden, *La España metafísica*, Euskaltzaindia, Iker-16, Bilbao, 2004, 218-452 or.

²⁵ Ortega y Gasset, José, *En torno a Galileo. Esquema de las crisis*, Alianza, Madrid, 1982 (1. arg. 1959).

²⁶ Ortega y Gasset, *El tema de nuestro tiempo*, 3. arg., Alianza, Madrid, 1987 (1. arg. 1981).

idazlanetan garatzen du. Azken liburu honetan badator artikulu labur bat, “La idea de las generaciones” deitua, zeinetan lehen urratsak ematen baititu kontzeptu horretaz. Bere asmoa da metodo historiko bat sortzea, zeina, aldi berean, onartua izango baita halabeharrez. Iragana eta etorkizuna lotu nahi ditu eta belaunaldiaren kontzeptua, hain zuzen ere, etorkizuna aurreikusteko lantzen du. Bere ustez, etorkizuna aurreikus daiteke, denbora historikoa ziklikoa delako. Ortegarentzat, belaunaldi bakoitzak bere errepertorio organikoa du, bere bokazio propioa, bere eginkizun historikoa, eta, aldez aurretik finkatutako egitekoa duen aldetik, inperatibo zorrotzaren legera jokatzen du. Honi guztiari boluntarismo espiritualista baten usaina dario, “destino-batasuna uni-bertsalean” esaldi falangista haren oso airekoa. Ez al da, bada, egia Ortegarengan inspiratu zela J. A. Primo de Rivera? Jakina, hau esatean, hemen Ortegaren hizkuntza idealistaz ari gara, zeina Espainiako diskurtso liberal-kontserbadorean sustraitua baitzegoen.

En torno a Galileo izenekoan, Madrileko Complutense-n 1933an emandako lau hitzaldi biltzen dira, lehen aldiz 1947an argitaratu zirenak, eta horietako bitan itzultzen da berriro belaunaldiaren kontzeptua aztertu eta sakontzera. Lehen hitzaldian, “La idea de generación” deituan, ageri da belaunaldiaren kontzeptua ez dela haren pentsamendu filosofikoan zerbait isolatua, haren filosofiaren oinarritzko elementua den “bizi-arrazoiarekin” harreman hertsian dagoen zerbait baizik, zeinaren bidez lotura antzeko bat egiten baitu bizitza historikoaren eta kulturaren artean. “Bizi-arrazoi” (*razón vital*) da ezagutzaren giltza, “arrazoi hutsaren”, hots, fisiko-matematikoren gainetik dagoena. Eta hala da, bizitza bera halaxe delako. Eta nola giza bizitza historikoa den, “bizi-arrazoi” ere historikoa da. Ortegarentzat, bada, belaunaldia kronologia historikoaren unitatea da. Historiak belau-

naldien bidez egiten du aurrera. Belaunaldi bateko gizon-emakumeen arteko kidetasuna etorri, forma bera, ikusmolde-sistema bera (*sistema de vigencias*) duen mundu batean bizi beharra izatetik datorrena da. Hemendik dator, hain zuzen, Ortegak, belaunaldiaz ari dela, garai-kidetasunaren eta adinkidetasunaren artean ezartzen duen bereizketa. Lehenengoak denbora berean bizi diren guztien errealitatea adierazten du, hor sartuz adin-mota desberdinak, hots, gaztaroa, helduaroa eta zahartzaroa. Bigarrenak, aldiz, adin berekoena adierazten du. Guztiok mundu berean eta aldi berean bizi gara, baina, gertatzez, adinkideen artean bakarrik ematen da adostasuna. Bi horien arteko kalapitak dakar, hain zuzen, berak “historiaren oinarrizko anakronismoa” deitzen dion hori, eten hori baita bizitzan aldaketak dakartzana. Beraz, Ortegaren baitan²⁷, belaunaldiak bi ezaugarri hauek ditu: batetik, adin bera izatea (denbora-dimentsioa) eta, bestetik, bizitzarekin harremanean egotea (espazio-dimentsioa). Bestalde, gizon-emakumeen bizitza hiru adin-multzotan banatzen du: lehen adin-multzoa 30 urte bitartekoa da, zeinetan gizakiak mundua zer den ikasten baitu; bigarren adin-multzoa, 35-45 urte bitartekoa da, eta hor berak aurkitutakoaren aurka jaikitzen da, ideia berriak asmatzen ditu eta zabaltzen, bere sorkuntzak bere adinkideekin partekatzen; hirugarren adin-multzoa, 45-60 urte-bitartekoa da, eta hor berak sortutako munduari eusten dio, zuzentzen du, gobernatzen eta defendatzen. Beraz, gizaki historikoa bigarren eta hirugarren adin-multzokoei dagokiena da, zeinak 30-60 bitarteko urteak hartzen baititu. Bi adin-multzoo hauek batzuek belaunaldi baten barruan sartu izan dituzte, baina, Ortegaren

²⁷ Ortega y Gasset, José, *En torno a Galileo. Esquema de las crisis*, Alianza, Madrid, 1982 (1. arg. 1959), 45-46. or.

ustez²⁸, oker. Bi etapa desberdin dira, hamabost urtekoa bakoitza, eta berdin gertatzen da zientzian nahiz artean eta politikan.

Ortegaren jarraitzailea den Julián Maríasek *El método histórico de las generaciones* liburuan²⁹ lantzen du gai hau, geroago *Generaciones y constelaciones* liburuan (1989) eguneratuta berrargitaratu zena. Hau ere, Ortega bezala, belaunaldiaz jardutean, ikuspegi biologista ezeztatuz hasten da. Bere asmoa belaunaldiei buruzko teoria bat eskaintzea da, hura metodo historiko bati dagokion kontzeptu eta printzipio gisa hartuta. Hasierako bere azalpen historikoan, Dilthey, Mentré, Piner, Wechsler, eta beste batzuen teoriak kritikatzeko ditu, esanez ez direla gauza izan kontzeptu hori, esparru indibidualetik atera eta sozialean txertatzeko. Bereizketa horretan oinarritzen da bere ikuspegia, berak egia aprioristikotzat daukana. Ortegarentzat bezala Maríasentzat³⁰, belaunaldiak ez dira teoria bat, errealitate bat baizik. Dena den, belaunaldien arazoaz luze jarduten badu ere, ez dakar berritasunik. Maisuaren itzala albotik ezin kendu duelako, agian.

Belaunaldiak zer diren esan ondoren, historian zehar nola funtzionatzen duten esplikatzen pasatzen da eta, hemen, kontzeptu horrek barne-hartzen dituen lau elementu aipatzen ditu³¹. 1) Belaunaldiek gizarteari zein historiari dagozkien egituretan parte hartzen dute. Testuinguru hau da matrizea. Honek adina mugatzea dakar, adin bera dutenen noiz-nongoa identifikatzea, belaunaldi jakin baten lekua gizarte-egituretan kokatzea

²⁸ Ibid., 45-50.

²⁹ Marías, Julián *El método histórico de las generaciones*, in *Obras Completas*, VI, Revista de Occidente, Madrid, 1970 (1. arg. 1967).

³⁰ Marías, Julián, *Generaciones y constelaciones*, Alianza, Madrid, 1989, 164.or.

³¹ Ibid., 28-29. or.

eta belaunaldiaren egitura zertzea. 2) Edozein une historikotan garai berean bizi diren belaunaldien presentzia esplikatuz behar da, eta honek, bidenabar, garaikidetasuna eta adinkidetasuna kontuan hartzea eskatzen du eta horien arteko harremanak aztertzea. 3) Belaunaldiak dira historiari eragiten dioten indar emaileak eta funtsean historikoa den gizartearen egiturak, azken batean, koexistituz eta gainjarriz doazen belaunaldi desberdinen arabera funtzionatzen du. Honela esplikatzen da historian zehar aldaketak, berrikuntzak, jarraitasuna, desjarraitasuna, komunikazioa, inkomunikazioa, krisiak, etab. izatea; 4) Belaunaldi baten iraupenaz kalkulu finko eta zehatzik egitea ezinezkoa den arren, hamabost urteko zikloa unitate aski eragingarria izan daiteke, garapen soziohistorikoan aldagai gisa, giza bizitzaren azterketa estrukturala egin ahal izateko. Une historiko jakin batean hirurogeita hamabost urteko epealdia hartu eta hori hamabost urteko ziklotan zatituz, ondorioz ateratzen da bost belaunaldi koexistitzen direla gizarte-egituran, honela banatuta: haurtzaroa (1-15); gaztaroa (15-30); inimizazioa (30-45); nagusitasuna (45-60); zahartzaroa (60-75). Hauetako bakoitzak dauzka bere ezaugarriak. Inimizazioari dagokion belaunaldia da gorantz doana eta bere aurreko kontserbadurismoarekin gatazkan sartzen dena. Prozesu hau gaztaroan hasten da, baina areagotu egiten da hirugarren bizi-ziklo honetan. Gizartean agintzen dutenak, ordea, laugarren belaunaldikoak dira.

Nolanahi ere, bere ustez³², belaunaldia eman dadin, hiru baldintza hauek bederen bete behar dira:

Lehenik, denboraldi jakin batekoak izatea. Berez, belaunaldi bateko partaideak garai bertsukoak dira, baina honek ez du esan nahi garai berean bizi diren guztiek belaunaldi bat osatzen dutenik, ez baitira adin

³² Ibid., 32-45. or.

berekoak. Gazteak eta helduak koexistitzen dira. Mannheimek ezarri bezala³³, abiapuntutzat hartuko balitz adinkidetasuna –urte berekoak izatea–, orduan sekulako anabasa sortuko litzateke, urtero-urtero belaunaldi berri bat agertuko bailitzateke, eta horrela *ad infinitum*. Halere, adin biotikoa ezin da ahaztu, azken batean jaiotza baita adina mugatzen duena. Baina hemen nabarmendu nahi dena da –oinarrizko oharra hau–, faktore biotikoe-tatik ezin dela ondorioz atera belaunaldien fenomenoak. Horregatik, faktore biotikoez gain, datu soziologikoa ere kontuan hartzekoa da, zeinaren arabera koexistitzen diren belaunaldi desberdinen artean aldi berean bizi direnak –garaikideak– eta adin berekoak direnak eta bizitzeko estilo bertsua dutenak –adinkideak– berezi beharra baitago. Belaunaldi bat, beraz, nahitaez adinkideez osatua dago.

Bigarrenik, testuinguru historiko jakin bati atxikirik egotea. Honek esan nahi du adinkideak testuinguru jakin baten barruan bizi direla. Adinkideak beren inguruko zirkunstantzien sarean sartuta daude eta zirkunstantzia horiek etengabe interpretatzen ari dira. Belaunaldi berri bat agertuko da, hain zuzen, adinkide jakin batzuek, beren zirkunstantziak interpretatzeko orduan, ikuspegi bera edo antzekoa erakusten dutenean edo, bestela esanda, mundu-ikuspegi bertsua daukatenean. Horregatik, adinkideek beren mundua modu partikular eta jakin batez ikusiko dute. Ikuspegi komunak dituzte.

Lehen esan da garai bereko belaunaldiak “gainjarrita” daudela; baina neurri batean bakarrik, zeren, nahiz eta hala egon, sineste absolutu berberak baitituzte eta sakonean beren ikuspegiak ez baitira desberdinak.

³³ Mannheim, K., *Essays on the Sociology of Knowledge*, Routledge and Kegan Paul, Londres, 1964, 290. or.

Hirugarrenik, bizi-estilo jakin bat izatea. Hau, batik bat, kultura sailean islatzen da, arteetan, berrikuntza tekniko eta zientifikoetan, eta horrelakoetan. Bizi-estilo hauxe da, hain zuzen, belaunaldi berri baten sorrera gehien zertzen duena.

Baldintza edo elementu hauek osatuz gero, posible da belaunaldiaren kontzeptua definitzea, berak honela egiten duena: “Belaunaldia da zirkunstantzia berberak bizi dituzten adinkideek garatutako ikuspegien gizarte-multzo jakina”.

Ikuspegi horiek –bereziki Ortegarenak–, bere kritikak jaso dituzte. Ez gutxi eta ez makalak, gainera. Eduardo Mateo Gambartek ondoko sei objektzio potolo hauek egiten dizkie³⁴: 1) Errore bat da pentsatzea historiak belaunaldien bidez egiten duela aurrera, zeren ezin baita ondorioz atera, suposizio faltsua delako, bizitza indibiduala modu indibidualez transmititzen den bezala, bizitza kolektiboa ere modu kolektiboz transmititzen dela. Harremanean jartzen diren bi errealitate horiek –gizon-emakumeen dimentsio indibiduala eta kolektiboa–, ez dira inola ere ez maila berekoak ez homogeneoak. 2) Belaunaldien izaera formala dela esatean, orobat, ez dabil zuzen, zeren, gizarte-errealitatearen edukia ahazteak idealismora eramaten baitu, nahiz berak besterik aitortu edo nahi izan. 3) Hizkuntza subjektibista honek balio dezake dibulgazioko artikulua batean argitaratzeko, baina ez da batere zientifikoa ikasgela batean azaltzeko, eta gutxiago oraindik historiaren ikerketarako oinarri sendoak botatzeko asmoak dauzkan batentzat. Laburki esanda, bizitzari buruzko ikuspegi organizista agertzen du belaunaldiaz jardutean, zeinaren arabera, jadanik aldeztu aurretik hala ezarrita, belaunaldi bakoitzak bere egitekoa betetzen

³⁴ Mateo Gambarte, Eduardo *El concepto de generación literaria*, Síntesis, Madrid, 1996, 65-81. or.

baitu. 4) Bestalde, adina “sentitzeko modu bat” dela esanez definitzen du, eta hala egitean adina sentimendua dela esaten ari da, eta hau, noski, erabat irrazionala da. 5) Belaunaldi bat hamabost urte besarkatzen dituen “daten zona” bat dela, dio, eta denboraldi honetan zehar, giza bizitzak –izan dadila hau indibiduala, bitala, soziala edo hostorrikoa–, nolabaiteko egonkortasun bati eusten diola, eta, bidenabar, denboraldi hori indarrean dauden iritzi, balorazio eta arauak osatzen dutela. Eta belaunaldiz aldatzean, indarrean zegoen iritzi, balorazio eta arauen sistema hori ere aldatu egiten dela. Baina gertatzen dena da, belaunaldiak aldatzen direnean, iritzi, ideia eta asmoak aldatzen direla, bai, baina sinesteen sistemak lehengoan segitzen duela. Hala segitzen du, Ortegak aldarrikatzen duen ikusmolde-sistema hori azalekoa eta aldakorra den bitartean, sinesteena sakona eta iraunkorra delako. Beraz, hemendik ondorioz ateratzen dena da belaunaldien metodoak azalekoari bakarrik begiratzen diola, aldatzen denari bakarrik; hurbilekoa; gizartean sakonekoa dena, balioez eta sinesteez osatua den sistema hori, ordea, azaltzeke geratzen da. 6) Bestalde, belaunaldiak adin-multzoen harira sailkatzeko orduan, ez data jakin bat, baizik data-zona bat hartu behar omen da kontuan. Baina ez da esaten data-zona horren muga zehatzak non dauden. Apriorismo bat predikatzen du, egiaztatzeko metodo objektiborik ez baitu erakusten. Esaten du, baita ere, adin-multzok zehazteko, ezin dela abiapuntutzat gizabakoa hartu, horren izaera soziala baizik. Ederki, baina bere metodoa aplikatzerakoan, Descartes-ek 30 urte bete zitueneko urte-muga bilatzen du, zeina baita 1626. urtea. Eta Descartes, noski, izaki indibiduala da, ez soziala, eta horrela jokatzear, bistakoa denez, bere postulatu guztiak hankaz gora doaz.

Orokorrean esan daitekeena da, Ortegak belaunaldiak zehazteko darabilen metodo hori, Descartesengandik

abiatuz geroztiko urte-mugatze hori, erabat azientifikoa dela, erabat arbitrarioa eta fideista; data-zonarena, orobat, erabat teorikoa da; belaunaldien definizioa sentimendua bezalako kontzeptu ez-zientifikoa oinarritzen da. Ortegak belaunaldiez egindako irakurketa biologizista da, indibidualista, ikuspegi subjektiboa eta pribatuan oinarritzen dena. Azken batean, idealista da, eta hori zentzu bikoitzean ulertuta: batetik, errealitatea ideiatzat hartzen duelako eta, bestetik, ezagutzari buruzkoa egiazta ezin daitekeen ikuspegi batean oinarritzen duelako. Belaunaldiaz erakusten duen idealismoa, besteak beste, errealitateari kanpokoa zaion elementu batean zehazten da; okerra datza, hain zuzen, hura modu orokor batean antolatzen duela eta, gainera, esanahi intrintsekoa ematen diola. Honela jabetzen gara haren belaunaldiari buruzkoa zerbait artifizialki sortua dela, ezarria, kanpokoa, eta ez prozesuari berari barrutik datxekiona.

2. 4. Eskola etnologiko-antropologikoa

Gizarte-zientzietan belaunaldiaren kontzeptura hurbiltzeko bidean ikuspegi bat baino daudela ikusiz gatoz. Ikuspegi estatistikoa nagusitzen den lanetan, datu zehatzak, neurgarriak, alegia, erabiltzen dira, eta sarritan kohortearen kontzeptua agertzen da belaunaldiaren ordez, harekin adieraziz denbora-tarte berean jaioak direnen multzoa. Ikuspegi soziologikoan, ordea, belaunaldiaren kontzeptua ez da ez kuantifikagarria, ez kodifikagarria; aitzitik, badirudi bere ohiko erabilera nagusian, “espiritualtzat” jo daitekeen komunitate bat adierazten duela. Beste modu batera esanda, bizipenak, ideiak, pentsaerak, munduari eta gizarteari buruzko ikuspuntuak, hauek oro, batera izateari deitzen dio horrela. Historia sozialari eta pentsaeraren munduari atxikirik dago, batik bat; adinaren noziotik at dago.

Azkenaldion, 1950eko hamarkadatik aurrera, belaunaldien arazoak jakin-min berriak sortu ditu han eta hemen, norabide guztietara hedatzen direnak. XIX. mendeko eta XX. mende-hasierako eztabaidak itzali bezala egiten dira eta, historiaren arazoa hobeto ezagutzen joan ahala, belaunaldiari buruzko ikuspuntuak ere finduz etorri direla esan behar da. Gaur, lehengo ikuspegi orohartzaileen lekuan, ikerketa-eremu mugatuagoak hartzen dira aztergaitzat, anbizio teorikoak ere apalagoak dira. Terminologiaren aldetik aldaketarik nabariena, belaunaldiaren kontzeptutik adinarenera ematen den lerrakuntzan datza, batez ere, ikerketa enpirikoetan islatzen dena. Iturri etnologikoen, zehazki, adina eta belaunaldiaren nozioak batera, elkarri hertsiki lotuta, azaltzen dituzte. Hala egiten dute, adibidez, Lowie³⁵, Radcliffe-Brown³⁶ (1929), Margaret Mead³⁷ (1928) eta Balandier-ek³⁸. Iturri honek, esaten denez, adina zein belaunaldiaren nozioak garbitzea omen dakar, beharrezkoa dena, nahasketa handia omen dagoelako nola Historian hala Soziologian. Afrikan egindako ikerketek ematen dute adinari buruzko kontzeptua zehazteko aski argitasun, han komunitate asko baitira adin-moten zein belaunaldi-moten inguruan eraikitako sistema-modu desberdinak aurkezten dituztenak. Nolanahi ere, esan beharra dago, bi kontzeptu horiek ez daudela disoziatuta. Orokorrean esanda, belaunaldi-sistemek, batez ere, belaunaldien segida eta ordezkapena erregulatzeko modu bezala funtzionatzen dute.

³⁵ Lowie, R. H., *Traité de sociologie primitive*, Payot, Paris, 1936.

³⁶ Radcliffe-Brown, Alfred R. *Age organisation terminology*, Nan, 1929.

³⁷ Mead, M., *Cultura y compromiso*, 2. arg., Gedisa, Barcelona, 1990 (jatorrizkoa, *Culture and Commitment: A Study of the Generation Gap*, Bodley Head, New York, 1970).

³⁸ Balandier, Georges *Antropo-logiques*, PUF, Paris, 1974.

Belaunaldia hemen seme-alabatasunarekin berdintzen da eta horien sailkatze-lanarekin. Adin-moten sistemak, aldiz, xede bera izanik, menerapen-mota iraunkorrak inplikatzeko dituzten hierarkiazko maila osagarriak ziurtatzen ditu. Adinak hemen gizartean haurrak, gazteak, helduak eta zaharrak nola antolatuta dauden erakusten du. Paradigma etnologiko-antropologikoan, batik bat, gizarte-antolaketaren azterketari ematen zaio lehentasuna, bi maila horiek batera hartuz, hots: belaunaldiarena eta adinarena.

Attias-Donfut egileari jarraiki³⁹, orokorrean esan dezakeguna da eskola honetan adostasuna ematen dela belaunaldia, adin-mota eta adin-maila kontzeptu-kideak zehazteko orduan. Belaunaldia erabiltzen da zentzu genealogikoan, gurasoei begira; adin-motak, adin-maila betetzen dutenak adierazten ditu eta normalean adin-taldearekin berdintzen da. Eskola honek bere eragina izan du Soziologian eta gaur egun, batzuetan, definizio etnologikoak ere erreferentzia bezala agertzen dira hiztegi soziologikoan, baina ez belaunaldia zentzu genealogikoan soilki erabiltzen denean. Batzuek adin-mota, kohortea eta belaunaldia bereizten dituzte, irizpidetzat urte-tarteak hartuz: adin-motan, batetik aurrerakoa; kohortean, hamarrekkoa; belaunaldian, hamabostetik hogeikoa.

Eskola honek kontzeptukide horien zehaztapenean aurrerapausoak eman baditu ere, geratzen dira oraindik behar adina argitu gabeko puntuak. Egia da, Etnologiak eredu erakargarria eskaintzen du, gizartea adinaren arabera nola antolatua dagoen azalduz, gazteen eta zaharren munduan murgilduz. Baina aldi berean esan beharra dago, baita ere, Etnologiak –izan dadila hau funtzionalista, formalista edo marxista–, funtsean, ikuspegi esta-

³⁹ Attias-Donfut, op.cit., 79-158. or.

tikoa eta ahistorikoa duela eta ez dela belaunaldiaren kontzeptuaz baliatzen. Historiara joaten bada, gizon-emakumeak gizartean nola antolaturik dauden jakiteko xedearekin joango da.

3. Teoriatik praktikara

Teoriak hor daude. Eta horien aplikazioak, zer? Metodo horrekin zer da eginik maila enpirikoan?

Belaunaldiaz aritu diren pentsalariak asko eta izen handikoak izan badira ere, teoria horiek beren idazlanetan aplikatuak agertzen direneko idazlanak gutxi baizik ez dira, gutxi Literaturan eta Artean bezala Historian ere. Guri hurbilenik zaizkigun erreferentziak baino ez ditugu jorratuko, eta hori azaletik.

Frantzian belaunaldiaren kontzeptua Sainte-Beuve-k sartzen du eta M. Henry Peyre-k⁴⁰ bikain asko iruzkitzen gero. Baina Albert Thibaudet⁴¹ izango da metodo hau erabiltzen lehena eta bakarra, bere azalpenean zalutasun eta zabaltasun aski handiz jokatu. Geroztik, beste batzuek ere erabili izan dute, hauen artean Marcel Girard-ek⁴². Ez baita erraza autore guztiak eskolen arabera sailkatzea, azken honek, Frantziako literatura modernoaren azalpena egiterakoan, literatur belaunaldiaren noziora jotzen du, zeina osatzen baitu zirkunstantzia historiko berberetan produzitzen hasten direnen taldeak orokorrean, idazle hauek gutxi gora-behera adin berekoak edo bertsukoak dira, idazten hogei eta hogei eta hamar urte bitartean hasten direnak. Baina ez nahitaez,

⁴⁰ Peyre, H., *Les générations littéraires*, Paris, 1948.

⁴¹ Thibaudet, Albert, *Histoire de la littérature française de 1789 à nos jours*, Stock, 1936.

⁴² Girard, Marcel, *Guide illustré de la littérature française*, 1968.

gerta baitaiteke adin bereko idazleak izanda ere, batek besteak baino eragin handiagoa izaten segitzea ondoko belaunaldiengan. Izan ere, autore batzuek aurrea hartzen diote bere garaiari, beste batzuek, aldiz, uko egiten dioten bitartean. Bestalde, kontuan hartu beharrekoa da noiz hiltzen den, gazterik ala zaharturik. Beraz, elementu guztiok kontuan izanda, belaunaldiaz hitz egiten denean, adierazi nahi dena, hauxe da: mota guztietako gizarte-gertakari berberetan parte hartzen duten eta batera antzeko esperientzia intelektualak bizi dituzten idazleen multzoa dela. Gizarte-gertakariak aipatzean, noski, edozein gizarteren funtzionamenduan eragile nagusiak diren faktoreak sartzen dira, nola soziopolitiko eta ekonomikoak hala kulturalak.

Girardek bere idazlanean dakarrenez, Frantzia eta Alemaniaren arteko gerrak zedarrizten du belaunaldi bakoitzaren muga, eta eskema hori Frantziaren kasuari aplikatuta, hor hiru belaunaldi bereizten ditu: a) 1900ean hogeita hamar urte dituztenena, hots, XX. mendeko lehen belaunaldia; b) 1920ko belaunaldia, hogeita hamar urterekin Lehen Mundu-Gerran parte zutenek osatzen dutelako, "suaren belaunaldia" deitua; c) Bigarren Mundu-Gerrako belaunaldia, 1940an hogeita hamar urte zituztenek osatua, "makien belaunaldia" deitua. Hogeita hamar urteko zikloek osatzen dute, beraz, belaunaldi berri baten sorrera, historiako garai jakin bat modu batera edo bestera ezaugarritzen duten gizarte-gertakarien multzo esanguratsu bati atxikirik etorri ohi dena. Gerta liteke, halere, belaunaldi desberdinetako literatur esparru berbera betetzea. Geroago, ordea, liburu horren laugarren argitaraldia egitean, 1968ko belaunaldia aipatzen du, laugarren belaunaldia, 1939-1945eko gerra hura ezagutu ez zutenek osatzen dutenena, baina bere gaztaroa beste gertakari batzuek markatuta utzi dutenena, hala nola Aljeriako gerra, V. Errepublikaren sorrera, SESBren deses-

talinizazioa, Txinako kultur iraultza, Viet-Nango gerra, etab.

Espanian literatur belaunaldiaz luze aritu den beste autorea, Guillermo de Torre da *Del 98 al Barroco* liburuan⁴³ eta “Una generación literaria más amplia” lanean⁴⁴. Honentzat belaunaldiak egiaztagarriak dira literaturaren historian, baina horiek eman daitezten kointzidentzia hutsa baino zerbait gehiago behar da. Bestalde, hamabost urteko adin-tartearekin (15, 30 eta 45ekoarekin) sortutakoak oro ez dira belaunaldi historikoak, biologikoak baizik; ez dute arrasto berezirik uzten historian; badira, beraz, belaunaldi hutsak ere. Belaunaldiaren kontzientzia dutenak bakarrik har daitezke halakotzat, hau da, mugimendu bezala gauzatzen hasten direnean, ikuspuntu batzuk baieztatuz eta beste batzuk ezeztatuz. Ageri denez, Torrek, belaunaldiaren kontzeptua egoera oso jakin batzuetara bakarrik mugatzean, haren erabilera asko murrizten du. Jaiotze-data ez da erabakigarria; garrantzitsuena historian nabarmentzen hasten deneko urte-data da, obra nagusia sortzen dueneko, hots: adin espirituala. Modu zabalago batean esanda: gazte-komunitateak bere ikuspegiak modu kolektibo batez agertzen dituenekoa da, edo liburu baten, edo aldizkari baten, edo manifestu baten bidez. Berarentzat oso belaunaldi gutxi daude: aleman erromantizismoa, frantses erromantizismoa, 98ko belaunaldia, modernismoa Hispanoamerikan, eta ezer gutxi gehiago. Beste gauza bat dira literatur mugimenduak, hauek ez baitute ezein zehaztasun matematikorik eskatzen sortze-datei dagokienez, edo estiloen edo ismoen kontuan. Jokabide aski zuhurra berea.

⁴³ Torre, Guillermo de, *Del 98 al Barroco*, Gredos, Madrid, 1969.

⁴⁴ Torre, G., “Una generación literaria más amplia”, in Francisco RICO (coord.): *Historia y Crítica de la Literatura Española*, 7, Crítica, Barcelona, 1984.

Baina gaur egun, literatur belaunaldiaren kontzeptuaz dagoen bibliografiari erreparatuta, ohartzeko gara Espainiako literaturaren historian belaunaldi-kopurua handia dagoela, urte-data jakinez puztua. Bibliografian ikus daitekeen bezala, lan monografikoetan aipatuak datoz hainbat belaunaldi, hala nola 1898koa, 1914koa, 1927koa, 1936koa, 1950ekoa, 1956koa, 1960koa, 1970ekoa, eta besterik, kasu batzuetan zerrenda luzearekin.

Eta euskal letretan, zer? Honek beste ekinaldi bat eskatzen du, gure oraingo egitekoa ez dena.

4. Bukatuz

Egia da, lehen zatian azaldu bezala, tradizio soziologikoan sostengu teoriko luze eta sendoa izan duela belaunaldiaren kontzeptuak eta, kronologiaren aldetik, eredu positibistatik etnografiarako desplazamendu moduko bat egon dela. Azkenaldion, kontzeptu hori ikerketa etnografikoetan erabiltzen da, baina zentzu genealogikoan hartuta.

Bere garaian eskola historiko-soziala arrakasta handia izandakoa da, batez ere Espainian, 1920-1930eko hamarkadetan eta frankismo-garaian, orduan argitaratzen baitira belaunaldiei buruzko obra gehienak, Ortega y Gasseten eta honen inguruko zirkulukoekin —batez ere, Julián Marías eta Laín Entralgo-ren⁴⁵— eraginez. Intelektual horien oihartzunak Hego Amerikan ere —bereziki Argentinan—, entzungo dira, lurralde haietan gaztelaniak eta kultura espainolak erreproduzitzen duten espainolisazioaren ondorioz. Hispanoamerika esanda, mundu guz-

⁴⁵ Laín Entralgo, Pedro, *Las generaciones en la historia*, Instituto de Estudios Políticos, Madrid, 1945.

tiak daki zein geografiaz ari garen. Badira, era berean, literatura espainolaren orde, gaztelaniaz egindako literaturaz hitz egitea egokiagotzat jotzen dutenak, horien artean Mateo Gambarte bera⁴⁶. Honek garbi dauka hizkuntza dela literaturaren mugak zedarritzen dituen, gaztelaniaren kasuan Atlantikoa ere aise zeharkatzen duena. Atzerriko kritikariengandik horrelako ahotsa entzuten ari garen bitartean, harritzekoa bada ere, Euskal Herrian modan jartzen ari da, ez euskal literaturaz, baizik euskaldunen literaturez –pluralean– hitz egitea, erdaraz egindakoa ere hor sartuz⁴⁷. Itxura batean ez badirudi ere, hizkuntzaren arazo honek zerikusi zuzena du belaunaldiarekin, gurea bezalako gizarte elebidun batean areago oraindik, Euskal Herriko idazleen artean mota bat baino gehiagotako idazleak aurkitzen baitira: nor euskal idazle soilki –gutxi, halere–, nor idazle eleaniztun –gehiago horrelakoak–, nor erdal idazle soilki –gehienak. Arazoa egiazkoa da, arras sakona, eta honen hegoak, aspaldikoak eta lanbrotsuak izateaz gain, alderdi askotara zabaltzen dira eta, luzatzen utzi gabe, noizbait argitu beharrekoak.

Belaunaldiaren paradigma, eredu teoriko eta metodologiko gisa, kasu gutxi batzuetan aplikatu izan bada ere literaturaren historian, egun gainditua dago gizarte-zientzietan eta ez da erabiltzen. Zergatik? Funtsean, ilusiozkoak diren bi premisa ontzat hartzen dituelako: bata da historiak badituela bere legeak erritmoen edo belau-naldien arabera funtzionatzen dutenak, eta bestea ideien mundua nagusitzen dela historiaren bilakaeran. Historian ematen dira erregulartasunak, baina horiek adieraz-

⁴⁶ Mateo Gambarte, op. cit., 24.

⁴⁷ Lasagabaster, Jesus Maria, *Las literaturas de los vascos*, Universidad de Deusto, San Sebastián, 2002, 24-25. or. Aipamenak azken iturri honetatik.

teko egokiagoa litzateke aldiuz mintzatzea eta ez belau-naldiaz. Espiritualismoari, berriz, aspaldi ezarri zizkioten beren objektzioak marxismoak eta positibismoak. Gaur egun, berriz, informazioaren aro honetan gizarte-eraldaketak izugarri azkar ari baitira gertatzen, gizarte-belau-naldi berriak bost urtetik bost urtera aldatzen direla esaten da⁴⁸.

Eta galderak pilatzen doazke. Gizarte-eraldaketen kate historikoan zein faktoreri eman behar zaie lehentasuna? Eta abiapuntua zein datatan ezartzen da? Zein autoreren erreferentzian?

Belaunaldiaren kontzeptuak adierazi nahi zuen gizarte-errealitateak, ordea –izan dadila kultur edo literatur gertakari bat, ala bestelako zernahi–, hor dirau gizarte-fenomeno gisa, beste paradigma alternatibo batek zehaztasunez atzi dezan. “Taldearena” egokiagoa dela? Izan liteke. Baina orduan Escarpitek ematen duen definiziotik harago, kontzeptu horrek har ditzakeen beste eduki batzuk ere kontuan izan beharko dira, zehazki teoria konfliktualistaren ildotik doazkeenak. Baina honek beste urrats batzuk ematea eskatzen du. Orain arte esandakoak arazoaren konplexutasunaz jabetzeko balio dezala.

⁴⁸ Urkola, Mikel, *Soziologia kritikoatik hezkuntza orokorrera*, Lasarte-Oria, 2003, 243. or.

Bibliografia

- ARRIETA LANDETA, Ander, *La desconstrucción de la verdad grupal: sociología generacional de una heterodoxia aberzale*, Servicio Editorial de la UNP, Pamplona, 1998.
- ASURMENDI, Mikel, “Literatur belaunaldiak” (Elkarrizketa Iban Zaldúa, Juan Luis Zabala eta Harkaitz Cano-ekin), *Argia*, 1.968, 2004-11-28, 22-24 or.
- ATTIAS-DONFUT, Claudie, *Sociologie des générations. L’empreinte du temps*, PUF, Paris, 1988.
- BALANDIER, Georges, *Antropo-logiques*, PUF, Paris, 1974.
- BARTHES, Roland, *Critique et vérité*, Paris, 1966.
- COMTE, Auguste, *Cours de philosophie positive*, IV, Schleicher, Paris, 1908 (1. arg. 1880).
- COURNOT, A.A., *Oeuvres complètes*, IV: *Considérations sur la marche des idées*, Ed. Virin, Paris, 1973 (1. arg., 1872).
- DILTHEY, W., *Le monde de l’esprit*, I: *Histoire des sciences humaines*, Aubier-Montaigne, Paris, 1947.
- DROMEL, J., *La loi des révolutions, les générations, les nationalités, les dynasties, les religions*, Ed. Didier & Cie., 1862.
- DURKHEIM, Emile, *De la division du travail social*, PUF, Paris, 1978 (10. arg.).

- Hezkuntza eta soziologia*, Bilbao, Klasikoak, 1993 (P. Iz-tuetak itzulia, jatorrizkoa, *Education et sociologie*, PUF, Paris, 1973).
- ESCARPIT, Roger, *Historia de la literatura francesa*, FCE, México.
- Le littéraire et le social*, Flammarion, Paris, 1970.
- Sociología de la literatura*, Oikós-Tau, Barcelona, 1971.
- Teoría general de la información y de la comunicación*, Icaria, Barcelona, 1974.
- ESCARPIT, Roger, et al., *Hacia una sociología del hecho literario*, Edicusa, Madrid, 1974.
- FEBVRE, Lucien, “Génération”, *Projets d’articles du vocabulaire historique*, Buletin du Centre International de Synthèse, 7, juin 1928, 37-43 or.
- FERRARI, Giuseppe, *Teoria dei periodi politici*, Ed. Hoepli, Milan, 1874.
- GARTZIA, Pruden, “Elkarrizketa Pruden Gartziarekin”, *Argia*, 1.956 zk., 2004-09-5, 51-53 or.
- La España metafísica*, Euskaltzaindia, Iker-16, Bilbao, 2004b.
- GIRARD, Marcel, *Guide illustré de la littérature française*, 1968.
- JANSEN, Nerina, *La teoría de las generaciones y el cambio social*, Espasa-Calpe, Madrid, 1977.
- LAÍN ENTRALGO, Pedro, *Las generaciones en la historia*, Instituto de Estudios Políticos, Madrid, 1945.
- LASAGABASTER, Jesus María, *Las literaturas de los vascos*, Universidad de Deusto, San Sebastián, 2002.
- LORENZ, O., *Leopold von Ranke, die Generationen lehre und der Geschichtsunterricht*, Berlin, 1891.
- LOWIE, R. H., *Traité de sociologie primitive*, Payot, Paris, 1936.

- MANNHEIM, K., "The problem of generations", in *Essays on the Sociology of Culture*, Routledge and Kegan Paul, Londres, 1972 (1. arg., 1928).
- Freedom, Power and Democratic Planning*, Routledge and Kegan Paul, Londres, 1951.
- Essays on the Sociology of Knowledge*, Routledge and Kegan Paul, Londres, 1964.
- MARÍAS, Julián (1970): *El método histórico de las generaciones*, in *Obras Completas*, VI, Revista de Occidente, Madrid; 1. arg. 1967.
- Literatura y generaciones*, Espasa-Calpe, Madrid, 1975.
- Generaciones y constelaciones*, Alianza, Madrid, 1989.
- MATEO GAMBARTE, Eduardo, *El concepto de generación literaria*, Síntesis, Madrid, 1996.
- MEAD, M., *Cultura y compromiso*, 2. arg., Gedisa, Barcelona, 1990 (jatorrizkoa, *Culture and Commitment: A Study of the Generation Gap*, Bodley Head, New York, 1970).
- MENTRÉ, F., *Les générations sociales*, Ed. Bossard, Paris, 1920.
- ORTEGA Y GASSET, José *En torno a Galileo. Esquema de las crisis*, Alianza, Madrid, 1982 (1. arg. 1959).
- El tema de nuestro tiempo*, 3. arg., Alianza, Madrid, 1987 (1. arg. 1981).
- Generaciones y constelaciones*, Alianza, Madrid, 1989.
- Ideas y creencias*, Alianza, Madrid, 1993.
- PEYRE, H., *Les générations littéraires*, Paris, 1948.
- PORTUONDO, J. A., *La historia y las generaciones*, Letras Cubanas, La Habana, 1981.
- PUIGRÓS, Adriana, *Universidad, proyecto generacional y el imaginario pedagógico*, Paidós, Buenos Aires/Barcelona, 1993.

- RADCLIFFE-BROWN, Alfred R., *Age organisation terminology*, Nan, 1929.
- RUIZ OLABUENAGA, J. I., *Vida cotidiana y nuevas generaciones*, Universidad de Deusto, Bilbao 1996.
- RUIZ OLABUENAGA, J. I.; SABATER, Carmen, *Narcohábito de segunda generación (el caso vasco)*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria, 1991.
- RÜMELIN, G., *Problèmes d'économie politique et de statistique*, Paris, 1896.
- SUDUPE, Pako “Belaunaldi tirabirak 50eko hamarkadan”, *Egan*, LIV, Lasarte-Oria, 2001.
- THIBAUDET, Albert, *Histoire de la littérature française de 1789 à nos jours*, Stock, 1936.
- TORRE, Guillermo de, *Del 98 al Barroco*, Gredos, Madrid, 1969.
- “Una generación literaria más amplia”, in Francisco RICO (coord.): *Historia y Crítica de la Literatura Española*, 7, Crítica, Barcelona, 1984.
- TORREALDAI, Joan Mari, *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*, Jakin, Donostia, 1997.
- URKOLA, Mikel, *Soziologia kritikoatik hezkuntza orokorrera*, Lasarte-Oria, 2003.

Belaunaldiak edo eskolak? Euskal literaturaren pedagogizatzea eta haren ondorioei buruzko gogoeta

Fito Rodriguez, E.H.U.

“Pedagogiak ezaguera ikasgai bihurtzen du”

(Miguel Unamuno)

Belaunaldiei buruz M.Mead antropologoak dioena (“egungo belaunaldien artean ez dago loturarik erabateko haustura baizik”)⁴⁹ kultura garaikidearen funtsezko ezaugarria iruditzen bazaigu ere⁵⁰, ez du argitzen zergatik erabiltzen den oraindik “belaunaldi” kontzeptua Gizarte Zientzietan, Artean, Eskolan zein Literaturan.

Soziologoek diotenaren arabera, berriz, gaurko gazteek ingurukoei erreparatzen omen diete gehiago beren gurasoen jarrerai baino, beren bizitza kudeatzerakoan. Beraz, alor horretako adituen ikuspuntutik, belaunaldi

⁴⁹ Mead, M., *Educación y cultura*. Paidós, 1972.

⁵⁰ Mendel, G., *La rebelión contra el padre*. Península, 1975.

kontzeptua baliagarria litzateke, gizartea ikertzeko behintzat⁵¹.

Etimologikoki, generoa *genusetik* dator, eta, leinuaren erreferentzia ez ezik, mota edo gaia, hau da, sailkapenerako kontzeptua ere bere baitan dakar, berez⁵².

Dena den, gai honetaz niri interesatzen zaidana zera da, nola eta zertarako darabilen eskolarizazioak⁵³. Hots, eskolakuntzak zer-nolako kultura gizarteratzen duen, eta gure kasuan, zer nolako euskal literaturaren antolaketa eskolaratzen duen bereziki.

Diogenes Laertzio zenak (III.mendean) sailkatu omen zituen filosofo greziarren “eskolak” testuliburuetan, eta handik aurrera hasi ziren eskolaratzen “heraklitozaleak”, “aristotelezaleak” eta gainerako izendapenak... Nahiz eta garai hartarako ere sailkapen hura hala-moduzkoa izan, orain arte irautea lortu du, jakintza “eskolatzera-ko” erabilia izan baita etengabe.

Gurera itzuliz, literatura eskolaratzeko erabili izan ohi diren prozeduretan, eta usadiozko metodo haiek garatze bidean sorturiko testu-liburu nahiz proposamen didaktikoetan ere, egileak eta idazkiak antolatu, erakutsi eta irakasteko, kronologia izan du oinarri hautatu izan den sistemak. Askotan, aipaturiko ikuspegi historikoak us-tezko belaunaldiak hartu izan ditu bere jarioaren neurritzat. Bestetan, berriz, garaia edota “eskola” kontzeptuak erabili izan dira, literaturaz jakin beharrekoa balizko jarraipen batean-edo eratu nahian. Helburua, kronologia makulu, literaturari buruzko etenik gabeko diskurtso ortodoxo bat finkatu beharra izan da beti, non haustura

⁵¹ Boudon, R., *Dictionnaire de la sociologie*. Larousse, 1993.

⁵² Corominas, J., *Diccionario etimológico*. Gredos, 2000, 296 or.

⁵³ Lozano, C., *La escolarización: Historia de la enseñanza*. Montesinos, 1980.

hondamendiarekin parekatzeraino iristen baita eta, idazkera desberdinak zein bere hartan ezagutu ordez, idazki guztiak elkarren arteko ustezko eraginaren arabera kokatzen baitira literaturaren historian, beronen “aurrerakuntzaren aldeko” eragile gisa aurkeztuz.

P. Bourdieu zenak honetaz guztiaz argi ohartarazi zigun arren⁵⁴, testu bakoitzaren berezitasunari antzematea galarazten digun Historiaren erabilera hori jadanik Nietzschere genealogiatik hasi eta Heideggeren “Mintzaira-ene” raino aurki daiteke, baita Horkheimer, Adorno, Arendt⁵⁵, Foucault, Gadamer edo Ricoeuren izkribuetan ere⁵⁶. Horietan guztietan Platonengandik Hegelengana onarturiko binomio hura –hau da, historia progresoarekiko indentifikazioa aldarrikatzen duena– unean uneko bakantasuna eta gizadiaren funtsezko irrazionaltasuna ezkutatzeko erabili den aurreiritzi faltsua besterik ez da⁵⁷, eta huts epistemologiko⁵⁸ nabarmen baten erakusgarri. Hezkuntzak, platonismoaren egikaritzea izateagatik hain zuzen ere modernitatearen zeregina denez gero, curricula eratzerakoan historiari eman dion garrantzia begibistakoa dugu⁵⁹; horregatik, literaturaren arloan ere, belaunaldiak, garaiak edo eskolak aipaturik, kronologiaren bidezko hautu historizista argia da oso⁶⁰ irakaskuntzan ere.

⁵⁴ Bourdieu, P., “ Les sciences sociales et la philosophie”, in *Actes de la Recherche en Sciences Sociales* 47/48, 1983, 45-52. or.

⁵⁵ Guariglia, O., “Para una metahistoria del narrativismo”, in *Individuo, Modernidad, Historia*. Tecnos, 1993, 173-188. or.

⁵⁶ Pampillo, G., “Narración y experiencia humana”, in *Una araña en el zapato: la narración, teoría, lecturas, investigación y propuestas de escritura*, Libros de la Araucaria, 2004, 111-165. or.

⁵⁷ Vattimo, G., *En torno a la postmodernidad*. Anthropos, 1990.

⁵⁸ Popper, K., *La sociedad abierta y sus enemigos*, Paidós, 1982.

⁵⁹ Terren, E., *Educación y modernidad*, Anthropos, 1999.

⁶⁰ García Calvo, A. (1983) *Historia contra tradición*. Lucina.

Platonen aurreko sofistek erabili zituzten izkribuak (*paradeigmatak*) kronologia jakin batetik at izan omen ziren erabiliak. Helburua, beraz, eskolaz kanpoko esapi-deak irakaskuntzara eramatea zen. Hots, idatz-ereduak helaraztea⁶¹.

Aristotelek egindako testuen artean, ordea, batzuk bere pentsamenduak gizarteratzeko egin zituen bitartean (exoterikoak), besteak, berriz, Lizeoko bere irakaskuntzan aritzeko prestatu omen zituen (esoterikoak). Azken hauexek dira, ziur aski Aristotelek idatzi ez zituenak hain juxtu, egun ezagutzen diren bakarrak, exoteriko guztiak galdu egin baitira⁶². Haietan ere ez omen zegoen ordenu kronologikorik, taxonomikoa baizik.

Diogenes Laertiok III. mendean irakaskuntzarako bereziki paraturiko "*Filosofo ospetsuen bizitza eta iritziak*" izeneko hamar liburukietan azaldu zituen lehen-lehenik "pentsamendu eskolak" ikuspegi historikoaz. Berak bereiztu zituen betirako *estoikoak* eta *epikureoak*, *eszeptikoak*, *gnostikoak* edota *hermetikoak*. Lehenengo testuliburu historikoa izan zen hura, historiaren arabera kontzeptuak zein egileak aipaturiko eskoletan banatzen zituena, ustez irizpide pedagogikoaren onerako. Eta sistema horrek sekulako eragina eduki izan duenez, etengabe errepikatua izan da ordutik hona, nahiz eta, sistema hori dela medio, adibidez, sokrateurrekotzat izendaturiko filosofo batzuk Sokrate bera baino geroagokoak izan...

Ildo beretik etorri ziren VI. mendeko Sevillako Isidororen hogeitabi liburukien Etimologiak (*Originum sive*

⁶¹ Sanchez, J.M., "Usos bibliográficos y producción escolar del pensamiento", in *Educación y Sociología en España*. Akal. 606. or., 1987.

⁶² Ibidem 608. or.

Etymologiorum libri), *Trivium* eta *Cuadrivium*, hau da, geroko unibertsitateetan irakatsiko zen oinarrizko jakintza, kronologiaren arabera antolatzeko.

Antolaketa didaktiko-kronologiko hauen funtsak, goian adierazi bezala, platonismotik heredaturiko jakintzaren sakralizazioa eta koherentzia finkatzea zuen helburutzat.

Belaunaldiei dagokienez, Eduardo Gil Berak aztertu du hitz horren etorkia⁶³. Hots, *cneodan* anglosaxoieraz; *goné*: belauna indoeuropeoz; *genos*: grekoz; *genu*: latinez; *belauna*: euskaraz... hau da, aitak jendaurrean semea ezagutarazten duenean belaunen gainean erakusten duen keinua (*genusetik* generazioa, alegia...). Aitonensemearen seinalea. Gizasemearen genealogiaren bidezko onarpen publikoa eta legitimazioa.

Izan ere, belaunaldi jakin batekoa izateak ematen baitu giza zilegitasuna. Leinu, jatorri jakin batekoa ez dena ez baitago gizartean onarturik.

Euskal literaturaren historia definitzerakoan funtsezkoa izan zen Luis Villasanteren liburuan belaunaldi kontzeptua, adibidez, honela erabilia: “Larramendiren belaunaldiak hamalau idazle biltzen ditu”. Beste batzuetan “eskola” hitza aukeratzen da idatz-tankerak bereizteko eta taxutzeko (Sarako eskola..., esate baterako)⁶⁴. Ahozko produkzioa azaltzerakoan “garaika” antolatzen dira bertsolariak (Fernando Amezketarraren garaia, Etxahunen garaia, Xenpelarrena...etab)⁶⁵, edozein modutara ere, eta goian adierazi bezala, kronologia harturik ardatz⁶⁶.

⁶³ Gil Bera, E., *Historia de las malas ideas*, Destino, 2003.

⁶⁴ Nahiz eta zenbait adituren ustez, Patxi Salaberri kasu, eskola hitza erabiltzea gehiegizkoa izan...

⁶⁵ Dorronsoro J., *Bertsotan*. GIE, 1981.

⁶⁶ Isasi, X./ Erriondo, L., “Testuliburuak aukeran” in *Jakin* 93/94, 1996, 133-152. or.

Sainte Beuvek zioena parafraseatuz, “*liburuen ordenua ezagutzeak liburuak irakurtzetik salbuesten duelako*”, eskola curriculumak historiak ezarritako hurrenkera erabili ohi du belaunaldiz belaunaldi besterenganatu behar den jakintza zilegia era pedagogikoaz antolatzeko.

Honela, modu berean, gizarte jakin bati dagokion ezagueraren eraketak egitura narratibo bezain genealogikoa (literarioa) eskatuko duen bitartean⁶⁷, literatura irakaskuntzarako pedagogizatzeke asmoz idazkera bera literaturaren historia izatera mugatuko da norberaren literatur hautematearen garrantzia galduz⁶⁸.

Prozedura ardatz honetan erabiltzen da literatur belaunaldiaren kontzeptua eskola jardunean. Alde batetik, gizarte egoera iraunaraziko duen Historia ikuspegi jakin bat beste edozeinen gainetik helarazi nahian⁶⁹, eta bestetik, gizabanakoen eskarmentu literario askea galarazteko⁷⁰.

Idaztea edo irakurtzea... norberak amets egitearen antzerakoa baita.

Egun, berriz, literatura kultura eskolarraren ondorio gisa ikertu ohi da Soziologian, eta horren arabera egiten dira arloko ikerketak: eskolatuek zer erosten duten, nor nahiago duen eleberria aukeratu olerkia baino, eta abar...

Datu horiek guztiek, zifrek, ezin izango digute adierazi, ordea, aipaturiko olerki edo nobela horrek norbanakoarengan zer-nolako bizipenak sortu dituen. Zeren idazketa edo irakurketa, oinarrian, bakoitzaren eskar-

⁶⁷ White, H., *El contenido y la forma: narrativa, discurso y representación histórica*. Paidós, 1992.

⁶⁸ Lahire, B., “Formes de la lecture étudiante et catégories de l’entendement lectoral” in *Sociétés contemporaines* 48, 2002, 87-107. or.

⁶⁹ Walia, Sh., *Edward Said y la historiografía*, Gedisa, 2004.

⁷⁰ Jachimowicz, M.P., “Lectures pratiquées et lectures déclarées”, in *Sociétés contemporaines* .11-12, 1993, 221-226. or.

mentuarekin lotuta doazen proposamenak baitira, bereziki. Hau da, irakurlea ameslari bihurtzen da liburu baten lerroetatik igaro-ahala. Bere bizitzatik ateratako bizipenak liburuaren egileak proposatzen dizkion eredu desberdinekin alderatzerakoan, esperientzia berriak ari da bizitzen. Honi *daydreams* deitu izan zaio ingelesez, edo, gurera ekarrita, iratzarraldiko ametsak, eta haietan biltzen dira irakurlearen edo ikuslearen beren bizitzaz hausnartzerakoan darabiltzaten jarrerak⁷¹.

Aipaturiko ametsak, aurrera begira (*anticipatory daydreaming*) edo atzera begirakoak (*retrospective daydreams*) izan daitezke. Lehenengoetan, istorio txikien harira, norberak gerta daitekeenari buruzko gogoeta eta balizko irtenbideak asmatzen ditu. Bigarrenak, berriz, bizitutakoa birmoldatzeko baliagarriak suertatzen dira. Mota horretako ametsak dira literaturak eragiten dituenak. Irakurtzea, norbanakoaren biziera den neurrian, ez baita denbora-pasa, bizitzarako prestakuntza baizik⁷².

Honen aurka, halere, bi irakurketa tankera daudela esan ohi da: etikoa eta estetikoa⁷³.

Irakurle etikoak liburuaren edukiari kasu egingo lioke ustezko ikuspegi pertsonal eta mugatu batetik formak eskaintzerik duena baztertuz. Inplikaturak geratuko litzateke, beraz, istorioarekin bat eginik.

Irakurle eskolatua bezain estetikoak, berriz, bere aldetik, testuaren egiturari zein literaturaren historian duen kokapenari erreparatuko lieke istorioari berari

⁷¹ Wunder, D.F., "Dreams as empirical data: siblings' dreams and fantasies about their disabled sisters and brothers" in *Symbolic Interaction*. 16-12, 1993.

⁷² B.B.A.A "Les intellectuels/ la pensée anticipatrice", in *Arguments*, 9, 1958.

⁷³ Grignon, C /Passeron, J.C., *Le savant et le populaire. Misérabilisme et populisme en sociologie et en littérature*, Gallimard, 1989.

baino gehiago. Harekin gozatuz edo haserretuz, baina argumentuak besterenganatzen dituen esperientzietatik harago betiere.

Ohiko antinomia honetan, beraz, irakurle arrunta etikoa litzateke eta aditua, aldiz, estetikoa.

Dena den, arteari buruzko idazkietan kulturaren soziologia irauli zuen P. Bourdieuk dioskunez⁷⁴, –kultur arloan interes bereziak borrokatu behar dituzten langileak besterik ez direnez– irakurle estetiko direlakoan ohitura nahiz praktika guztietan ere badauka, eduki, eragina eta inplikazioa, noski, irakurketak, irakurle arruntengan bezalaxe, hori bai, norbere eskarmentu zein bizi-penen arabera. Goian esan bezala, denok gara, non-bait, liburuaren aurrean ameslari, baina eskolatuak, agian, irakurle xumeak baino gutxiago⁷⁵.

Eta literaturaren pedagogizatzeak, belaunaldien erabilera dela medio, elikatzen duen jardun haxe dugu, hain juxtu, soziologiak ikertu nahi izan duen bakarra, norbanakoari dagokion testuen irakurketa bereziari behar bezalako arreta ezarri gabe.

Wilhelm Dilthey dugu, ordea, ohiko literaturaren eskolaratzeak erabilitako hala formalismotik, historizismotik nola estrukturalismotik at arituriko aitzindari bakanetako bat⁷⁶. Bere aburuz, XX. mendearen hastapen-tan zioskunez, “adierazpenaren bidezko hautemate prozedurari ezaguera deritzogu”. Hau da, testuei buruzko ikasgaien gaintik (idazle bakoitza zer-nolako belau-nalditakoa den barne...) adierazpideak giza ezagutzaren oinarriak direla aldarrikatzeak eta testu hutsak nor-

⁷⁴ Bourdieu, P., *La Distinction* Minit, 1988.

⁷⁵ Bergamín, J., “La decadencia del analfabetismo” in *La importancia del demonio*, Siruela, 2000.

⁷⁶ Dilthey, W., “Origine et développement de l’herméneutique” in *Le Monde de l’esprit*, 1947.

banakoaren esperientziarekin alderatzeak literaturaren babilioaz hausnarketa berri bati hasiera eman zioten: hermeneutikari, hain zuzen.

Hermeneutika hau, baina, ez litzateke izango, Aitzinarotik Erromantizismora bitarte ulertu izan den bezala, testuen esanahia eskuratu ahal izateko haien azalpena soilik bizitzaren ulermenerako testu argipenaren metodologia darabilen gogoeta bidea baizik. Hau da, testuen ikerketarako bidea baino gehiago ontologia aztertzeko modu filosofikoa, eta bereziki, literaturaren bidez giza bizitza ulertarazten lagunduko digun ekimena. Honen arabera, historia nahiz hezkuntzaren menpean zeuden literatur iruzkinak, beren jakintza arlo berezituari kasu eginez, berezko esparrua ezartzea lortu dute⁷⁷.

Ilido horretan Paul Ricoeuren ekarpenak⁷⁸ garatuko du Diltheyen proposamena, eta eskoletan irakurketa, idazketa zein testu iruzkinak lantzeko bide berria lantzeko aukera irekiko du. Garapen honetan aurkituko dugu, besteak beste, ohiko kronologiaz harago, literatur genero desberdinak eskolan landu ahal izateko Euskal Idazleen Elkarteak sorturiko materiala⁷⁹, zeinetan testuaren sorkuntza eta honek ikasleriarengan eragiten duen esperientzia baititugu ardatz. Idazkeraren jarduna birmoldatze bidean, mota honetako ariketek literatura arloan historiaren bidez heredaturiko ikuspegi akademiko historizistak gairiditzearen egindako ahaleginak esker-tzekoak dira. Izan ere, Ricoeur-ek berak esango lukeen gisara, “istorioak kontaktzen ditugu giza bizitzaz aritzea

⁷⁷ Man, P., *La resistencia a la Teoría*, Visor, 1990.

⁷⁸ Ricoeur, P., *Del texto a la acción*, Fondo de Cultura Económica, 2000.

⁷⁹ BBAA, 1.-Zer egin dezake nire ikasle batek liburu batekin?; 2.-Poesia lantzeko gida; 3.-Eskola antzerkirako gida; 4.- Ipuina lantzeko gida. EIE, 2003-4).

merezi baitu. Honek, berebiziko garrantzia du garaituen oroimena berreskuratu nahi izaten dugunean. Sufrikarioren historiak mendekua behar du eta literaturaren bidez eskatzen digu.”⁸⁰

Literaturak, istorioen esparrua, bada, garaileen Historiak, genealogiatik belaunaldietaraino, eraiki ohi duen ezaguera zilegia kolokan jartzeko premia dauka, mundua ez baita azaldu behar soilik, ulertu eta aldatu baizik, eta jardun horretarako, orain arte bederen, Pedagogian tokirik izan ez duen adimen narratiboa gaitzea⁸¹ ezinbestekoa suertatuko zaigu.

⁸⁰ Ricoeur, P., “La ficcionalización de la historia” in *Tiempo y narración*, Siglo XXI, 1995, 902-912. or.

⁸¹ BBAA, *Erresistentziaren pentsamendua*, Besatari, 1998.

Belaunaldi literarioa. Kontzeptu ahistorikoa

Jon Kortazar, E.H.U.,
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketa Saila.

1. Kontzeptua

Belaunaldi literarioa kontzeptua periodizazio literarioaren ulermenarekin loturik agertzen da. Literaturaren periodizazioak baditu bere arau propioak, arazo propioak dituen bezala. Guztiek dute zerikusi nabarmena literaturaren izaerarekin. Denok definitzen dugu literatura historiaren gainetik mantentzen den “tasuna” bezala, eta bere baitan alde desberdin oso nabarmenak ikusten ditugu. Alde batetik baieztatzen da literatura historian kokatzen dela, eta historiaren seme edo alaba dela, baina beste alde batetik, historiaren mugetatik at mugitzen da literariotasuna, badu zerbait historiatik kanpo irauten duena. Denontzat da agerikoa historiako ezaugarririk nabarmenenak agertzen direla bigarren mailako idazleengan, eta jenioak oso zail mugatzen ditugula historian, eta mendeetan zehar mantentzen dela haien itzala. Beraz, historikoa eta ahistorikoa era berean, da literaturaren izaera.

Periodizazioa dela eta, bada beste arazo bat kontuan hartu beharko genukeena. Literaturaren historia beti historia horren egileak hartzen duen ikuspegitik idazten da, horrela historia bat baino gehiago egile desberdinek izan dituzten harreraren historia izango litzateke literaturaren historia. Azken batean literaturaren historia egitea ez baita formen historia egitea soilik, esanahiak oso garrantzitsuak dira literaturan alde batera uzteko eta aipatu gabe baztertzeko.

Arazo guztion aurrean, Espainian XX. mendearen hasieran, Juan Ruiz, Azorin (98ko belaunaldi literarioaren asmatzailea neurri batean) idazlearen bidez eta Ortega y Gasset filosofoak egiten duen azterketaren bidez zabaltzen da Espainiako literaturaren historian belaunaldi literarioaren kontzeptua.

Belaunaldi kontzeptua biologikoa da, eta ondoren soziologikoa eta esparru horretan ibili izan da. Arazoak, batzuk baitira, sortzen dira esparru horietatik literatura igarotzen denean kontzeptua, eta literaturan zabaltzen denean. Espainiako literaturaren barnean aipatu da kontzeptua nagusiki, zeren literatur historia horretatik kanpo oso urri erabili baita (eta memoria eginda soilik gogoratzen ditut Estatu Batuetako Lost Generation, edo Beat Generation).

Arazo gehiago badaude, baina bere ahistorikotasuna puntu horretatik datorkio, hain zuzen ere esparru arteko aldaketa horretatik, soziologikoa zena literaturara igarotzerakoan, batetik bestera egindako bidaian.

Eduardo Mateo Gambartek (1996) azaltzen duenez bere tesi nagusian:

“Debe advertirse que en los recientes tratados de historiografía (que es de donde proviene el término) ni se cita para nada. En los estudios históricos está absolutamente obsoleto y desacreditado; en Sociología, también; en buena medida por su futilidad, por

su inaprensibilidad y por la dificultad absoluta de determinación. El problema surge cuando dicho concepto se desnaturaliza y se quiere llenar de contenido literario. Ahí es donde surgen los problemas, las ambigüedades, falsificaciones y la ausencia de realidad del mismo por pura obviedad”.

Tesi hau irakurriaz, badirudi kontzeptua onartu egiten dela eta kritikatzin dela bere erabilera. Baina ez da horrela, zeren kontzeptuaren aldaketa –eta ez soilik ize-narena– proposatzen du egile horrek hurrengo paragrafoan: Escarpitek erabilitako “ekipa” hitza eta esanahia proposatzen baititu.

“Define al equipo como el grupo de escritores de todas las edades (aunque de una edad dominante), que, con ocasión de un cierto acontecimiento toma la palabra, ocupa la escena literaria y, conscientemente o no, bloquea su acceso durante un cierto tiempo, dificultando a las nuevas vocaciones su plena realización”. (1996, 21).

2. Erabilerak

Kontzeptuaren erabilera aztertzen badugu ikusiko dugu arazoak, eta hainbat, ematen dituela, mesede egin ordez.

1) Has gaitzen adieraziz batez ere Espainiako literaturan erabili izan dela, eta filosofoak (Ortega eta bere ikasle izan den Marías-ek tratatu zuten arazoa eta definitu) izan zirela kontzeptuaz arduratu zirenak. Badago kontrajarpen bat nahiko nabaria haien lanean, belaunaldi kontzeptua ez baitzuten erabili euren esparruan, esan nahi da filosofian. Absurdua litzateke filosofian belaunaldi kontzeptua erabiltzea eta ez da erabiltzen, aldiz literaturarako nahi dute bere buruarentzat nahi ez dutena.

2) Hasiera hasieratik belaunaldi literario kontzeptua arazoekin jaio zen Espainian. Juan Ruiz, Azorín-ek 98ko belaunaldi literarioa deskribatzen duenean, badira idazle batzuk bat-batean bere burua taldetik kentzen dituztenak, Barojak adibidez garbi idatzi zuen bera ez zela belaunaldi literario bateko partaidea.

3) Hain zuzen ere, Espainian egiten den gaurko historiografia literarioan 98ko belaunaldi literarioarekin gertatutakoak bultzatu du “belaunaldi literario” kontzeptuaren gutxiestea. Hain zuzen ere, 1898ko belaunaldiaz hitz egiterakoan, beti kontrajarri da Modernismoarekin. Alde batean ziren modernistak –esan nahi da sinbolistak–, eta beste aldean 98koak. Batzuk poesia landuz, eta besteak prosa, batzuk exotismoa eta Paris maitatuz, besteak Gaztelarantz begiak zuzenduz. Gaur eguneko historiografiak, aldiz, proposatzen du mugimendu biak Modernismoaren –esan nahi da Sinbolismoaren– adar bi besterik ez direla. Belaunaldi literarioaren kontzeptuak egia den hori ilundu eta desitxuratu du guztiz, eta beraz, garbi geratu zaie zenbait ikerlariri belaunaldi literarioetan pentsatzen jarraitzeak kaltea dakarrela mesedearen ordez. Bide batez, belaunaldi literario horren izena eta izana guztiz aldatu izan zen une haietan. Hitza Ortegak asmatu zuen bere garaiari aplikatu nahiz, esan nahi da 1913. urtekoentzako erabili nahiez. Ondoren Azorínek jaso zuen, baina hasieran ez zen 98koa, 96koa baizik, eta inoiz 97koa ere bai. Eta guzti horrek garbi azaltzen du zein zehaztasun zabarrez erabili izan den kontzeptua.

4) XX. mendeko literatura periodizatzeke bai erabili izan dela kontzeptua, eta baliagarria bada zergatik ez da erabili lehenagoko idazleekin? Bada, agian, urrutian zirelako eta urrutikoak estetikaz azaldu ditzakegulako. Baina estetika periodizazioak lan handiagoa eskatzen badu ere, batez ere garaiko literatura aztertzeke edo adierazteke

orduan, garbi dago lan hori egin beharra dagoela, eta, nire iritziz “belaunaldi literarioa” kontzeptua baztertu beharko genuke, eta gainera, nire aholkua izango litzateke beste garai batzuetara ez eramatea. Nik behintzat ez dut inoiz erabiltzen euskal literaturaren periodizazioa aztertzeko orduan.

5) Egia da Espainian jarraitu egin dela belaunaldi literarioa kontzeptua erabiltzen historiografia literarioan. 98ko belaunaldi literarioaren ondoren etorri zen 14ko belaunaldi literarioa, 27ko belaunaldia, eta ondoren, 36koa, 50ekoa, 60koa edo mende erdikoa, eta ondoren desagertu egiten da eta hamarkadako joera agertzen da. Kontua da lehen biak izan ezik, ia beste guztiak batez ere poesiarren periodizazioa egiteko erabili izan direla Espainian, eta ez nobelarena adibidez (salbuespenak bada, hala ere). 60koaren ondoren, hamarkadako joera dago. Novísimoak agertzen dira 70ean eta haien estetika jarraituz eta esleituz etorri ziren ondorengoak, 80koak, han zuzen ere haien estetika aldatzera etorri zirelako, askoz ere poesia arruntagoa, narratiboagoa eginez, novísimoen estetizismoaren aurrean. Jada ez da erabiltzen 90ekoen aipamenik ez eta ere 2000koenik. Askotxo bada ere belaunaldiak XX. mendeko Espainiako literaturan eta horrenbeste egoteak, beste barik, mesfidati jarri behar luke ikerlaria.

6) Eta are kerragoa da banan-banan aztertuz gero ateratzen den ondorioa. Mateo Gambartek (1996, 165-227) horixe egin du eta bakoitzaren barnean aztertzaileek agertzen dituzten duda-mudak ikaragarriak dira: zalantzak idazleen nominak eratzeko orduan (zein den partaide eta zein ez), ezaugarriak deskribatzeko garaia (ezaugarri oso desberdinak), datak aipatzeko unean (ez da zehazten noiz hasten den eta noiz buka aldia)...

7) Garbi dago belaunaldi literarioaren kontzeptuak bizitza ederra daramala pedagogian eta baduela erraztasun

pedagogiko nabaria, baina nik uste, ezin da erabili intelektualen historian, non lehen-lehenik pertsona bakaren obra irakurri behar den, eta kontrakoa badirudi ere, belaunaldi literarioaren kontzeptua erabiliz inoiz lortu izan dena ez irakurtzea izan da, eta talde nagusiaren mugetan ziren idazleak ahaztea.

3. Ondorioa

Ondorio bakarra sorrerara itzultzea litzateke. Zergatik sortu zuen edo literaturara aplikatu zuen Ortegak belaunaldi literarioaren kontzeptua? Azken batean kontrajarpen bat ikusten zuelako idazlearen bakarreko lanaren eta bere adierazpenaren artean. Kontrajarpen baten artean aurkitu zuen bere burua, hasieran-hasieran jarri dugun bidean: literaturaren lana bakarrekoa da, idazleak bakartasunean egiten duena, baina egia da proiektzioa ez dela bakarkakoa, gizartean txertatzen dela bere lana. Ortegari gertatu zitzaiona zera izan zen ez zuela konfiantza handirik bakarreko lanean, eta beraz, aurkitu nahi izan zuela bakarkako eta gizarteko den lan horren alde bion arteko lotura bat eta belaunaldi literarioaren kontzeptua erabili zuela horretako.

Nire iritzia zera litzateke: bakarkako lanak ongi irakurtzera berriro itzuli behar dugula, eta hori egitea nahiko erraza da euskal literaturaren kasuan, zeinetan oraindik irakurle batek (eta zer esanik ez ikerlari batek) argitaratzen den literatura guztia (haur literatura alde batera utzita noski) irakurtzeko gai den, beste literatura batzuetan gertatzen denaren aurka, eta areago da erraza literatura hori generoka hartzen bada, hau da ikerlariak poesia soilik, kontraera edo nobela soilik aztertzen badu.

Begirada gizakiarengan jartzen badugu, bere alde soziala alde batera uzten dugu. Egia da hori. Baina niri

iritziz badira oraindik bakarkakoa eta gizartekoa lotzeko moduak:

- Lehena, estetikaren historian arreta jartzea da. Alde batetik, XX. mendeko literatura heldu arte horixe zen egiten zena.
- Bigarrena, ideien historiaren laguntzan gehiago sinestu beharko genuke.
- Hirugarrenez, soziologiaren laguntzan pentsatuz gero, azken batean belaunaldi literarioaren metodologia proposatu zutenek horixe baitzuten buruan, baditugu gaur egun, batez ere Pierre Bourdieu-ren lana ongi ezagutu eta erabiliz gero, nahiko tresna literaturaren soziologian aritzeko eta bakarkakoaren eta gizartekoaren artean dagoen muga gainditzeko.

Belaunaldi literario kontzeptua erabiliz jarraitzen badugu Mateo Gambartek adierazten duenez (1996, 290) alferkeria historiografikoak jota gaudelako da:

“El método crítico de estudio de la historia de la literatura por medio de las generaciones es en esencia la ausencia y la negación de la crítica. Cualquier formulación de crítica literaria [...] o cualquier manual de crítica literaria , es más aconsejable que el uso del método generacional, pandemia ésta que parece que querer presentarse como el remedio universal de encontrar la unidad de los opuestos. La cuadratura del círculo, presentando el hexágono como resultado de la misma, paradójicamente por supuesto. Si el concepto de generación es perverso para la historia es funesto para la crítica. La generación es, concluyendo, la operación ideológica que bajo la apariencia de objetividad instaura una visión conservadora y tradicionalista en la configuración de la historia y que, entre otras cosas, realiza una sustitución del yo por un nosotros arbitrario”.

Agian hitzak ozenago esan ditzakegu, baina ez argia-
go.

Lan hau BBK Fundazioak laguntzen duen 9 UPV
00113130-15332/2003 Ikerketa proiektuaren barnean
kokatzen da.

Literatur generoak eta belaunaldiak

Iratxe Retolaza Gutierrez, E.H.U.

Ziur asko, nire saioa abiatzeko aukeratu dudan izenburuak berak “Literatur generoak eta belaunaldiak” hausnarketagaiaren nondik norakoaz ezer gutxi zehazten du, anbigua bezain zabala da-eta. Are hotzagoa. Baina, hizketaldi hau galderak plazaratzeko asmoarekin abiatzen dut, eta ez erantzunak eman edo bilatzeko, ezta mugak, zehaztapen eta deskribapenak zirriborrazeko. “Literatur generoak eta belaunaldiak” lelope zurrun eta hotz hau, bidaia pertsonalera biltzeko ahalegina egin nahiko nuke, literatur teoriak ohikoa duen tratamendu urrun eta hotzari ihes egiteko. Hartara, ekitaldi honetan parte hartzeko gonbidapena jaso nuenetik gaur egunera arteko ibilbide pertsonalaren bidaia izango da aurkeztera natorkizuena. Gogoetagaia proposatu zitzaidan egun hartatik, hainbat urrats aurrera eta atzera ibili baitituzte neure gogo, asmo eta zalantzek. Urrats batzuk luzexeagoak izan dira, besteak laburxeagoak. Urratsez urrats, galderaz galdera eginiko ibilbidea izango da, eta bidaia honen norabideak bere izaera pertsonalari zintzoki uztartzeko neure jarrera eta joeren inguruko gogoetak izango ditut abiapuntu –“Neure golkora begira eginiko bidaia” atalean–, eta pixkanaka, nigan

erroturik zeuden jarrera eta joerak, beste kritikari batzuen erabilera eta proposamenekin elkarrizketara eramango ditut, neure jarrera eta joerak ezbaian jarri asmoz (galderak bilatu asmoz) –“Urkoari begira eginiko bidaia” atalean–.

Baina, literatur teoriaren ohiko diskurtso batean jorra zitekeen gaia hizpide izateko, barrutik kanporanzko ibilbide hau proposatzera zerk bultzatu ote nau? Besteak beste, honako bi egoerek:

a) Literatur teoria garatzen duten diskurtso gehienek normalki ezkutuan igaroarazten dute norbanako esperientziaren dimentsioa. Teorilariak norbanako gisa bizi duen esperientzia horren garrantzia azalarazteko beharrak bideratu nau gaurkoan honako diskurtsoan barna murgiltzera.

b) Bilkura honetan parte hartzeko gonbidapena jaso nuenetik gaur arteko hitzaldi honen prestaketa, zer edo zer izatekotan, bidaia pertsonala izan da. Horrexegatik, bada, entzuleei, zuoi, zintzo mintzatzea erabaki dut, eta hilabete hauetan barna nire gogoak eta kezkek eginiko bidaia aurkeztea. Halaber, plazaratuko ditudan hainbat galderen iturria edo abiapuntua ulertu ahal izateko, batzar honetan parte hartzera eraman nauten gogo eta ezinegona azaltzea beharrezkoa zela pentsatu dut.

Galderen bila egindako ibilaldi hau azaltzeko 7 galdialdi edo urratsetan pausatu dut hitza, zalantza. Lehen hiru urratsak neure golkora begira eginikoak dira, eta hurrengo lauak beste kritikariekin eta beste batzuen erabilera eta joerekin proposaturiko elkarrizketatxoak dira.

1. Neure golkora begira eginiko bidaia

Lehen urratsa: belaunaldi literarioen inguruko kezkarik ote nigan?

Bilkura honetan parte hartzeko gonbidapena jaso nuenean, sentimendu kontrajarri batek bildu ninduen.

Lehen unetik, ezin ukatu, Baionan solasaldi batean hizlari izateko irrika piztu zen nigan. Gaurko saioaren aurretik ere Unibertsitate honetako hainbat kiderekin lan egin, hitz egin eta iritziak elkartrukatzeko aukera izan badut ere, honakoa da bertan eta bertakoek antolatutako ekitaldi batean parte hartzeko izan dudana lehen aukera. Eta gonbidapena eskuratu nuenean, nola muzin egin horrelako eskaintza bati? Gogotsu abiatu nintzen, bada, elkarretaratze honetan mintzagai izango nuen gaiaren bila. Eta une horretantxe irrikaz pizturiko sentimendua moldaraziz joan zen, irrikarekin batera (huraxe geldiezina baitzirudien) kezkarik gurutatu, gainjarri eta nahaspilatuz. Zalantza bizi batek bildu ninduen: ba al nuen belaunaldi literarioen inguruan esateko zer edo zer? Ba al nuen gai honen inguruko iritzirik? Izan ere, gai honen inguruan gogoetatzeraz abiatu ahala honakoaz jabetu nintzen: belaunaldi literarioaren kontzeptua pasiboki baitaturik nuen. Are gehiago, kontzeptu hau nolabait bereganaturik banuen ere, oso ezkorra nintzen (eta banaiz) haren erabilgarritasunari dagokionez. Aldi berean, literaturaren ikaskuntzan jasotako kontzeptua nuen, bai ikastolan, bai institutuan bai unibertsitatean, baina behin ere gogoetabide edo kritika-bide izan ez zuena. Hartara, zalantza puztuz zihoan: ordura arte hausnarketagai izan ez zutenak, sor al zezakeen nigan jakinminik, kezkarik, galderarik? Bilaketa honetan pasiboki neureganaturiko kontzeptu hori nigan nola errotu zen aztertzea izan zen lehen urratsa. Horretarako, neure gogoan (birusez jositako CD-rom honetan) euskal literaturaren belaunaldi literarioak bilatzeari ekin nion. Hara! Neure gogoak ustekabeko ariketa batean murgildu ninduen: belaunaldiak irudikatzen ahalegina egitean, literatur generoka bilatzeari ekiten zion. Hau da, belaunaldiak literatur genero jakinekin lotzera jotzen nuela ohartu nintzen: “poesiaren belaunaldiak”, “narratibaren belaunaldiak”, “bertsolari-

tzaren belaunaldiak”, “antzerkiaren belaunaldiak”, “saia-keraren belaunaldiak”, eta abar. “Literatur generoak” karpeta zabalena balitz bezala, eta bertan, generoz genero izendaturiko karpeta txiki bakoitzaren barruan belau-naldiz belaunaldi antolaturiko artxiboak egongo bailiran. Ezusteko aurkikuntza izan zen honakoa hau. Pasiboki geureganaturiko ezagutza ororekin gertatu bezala, eza-gutza honen alderdi ugari isilpean igaro ohi zaigu, eta baliabide eta tresna baliagarri zitzaiguna beste izpi batez islatuz gero, argi-itzalen norabidea aldatuz doa, eta balia-garritasun hura auzitan jartzera garamatza.

Bigarren urratsa: belaunaldi literarioak eta litera-tur generoak solasean hausnar al nitzake?

Aurkikuntza honekin batera, bilkura honetara ekarri nauen galdera eta ezinegona sortu zitzaidan (zorionez, proposamenak nigan jakinmina sorrarazi zuen, eta gaur hizlari izateko desira bete): zer dela-eta belaunaldiak eta literatur generoak elkarloturik aurkezteko neure joera hori? Banuen gogoetarako eta galderen bilaketarako izpi berria, foko berria: literatur generoak eta belaunaldiak solasean jarriz gogoetatzea. Gogoeta hauetan buru belarri murgilduta nintzela (ez atzera, ez aurrera. Ordurako jada nire hausnarketagaia okerra ote zen ere banerabilen bu-ruan), gainera, gaurko bilkura honetako egitaraua esku-ratu nuen. Eta neure susmoak eta ezinegonak beste zen-bait hizlarik gaiak hautatzerako uanean egindako bi-dearekin indartu egin ziren. Izan ere, belaunaldi jakin baten inguruko mintzagaia hautatu zuten gehienek be-launaldi hori genero batekin lotzen zuten, baita hitzal-diaren izenburutik bertatik: “Oihenarten *L’Art Poétique basque*”, “Gerra aurreko belaunaldia: Olerkariak”, “Poe-tak lubakietan” eta abar. Ordurako jada galderak tropelka zetozkidan burura: idazle baten hainbat generotako

sorkuntzek belaunaldi berean bildu izan dira? Idazleak belaunaldika sailkatzean generoa kontuan hartu al da?

Naturaltasunez neureganaturikoa auzitan jartzeko beharra areagotuz zihoan. Lehen intuizio orokor batean honako hau zetorkidan burura: generoa literaturlanak sailkatzeko lanabesa dugu, eta belaunaldiak sortzaileak sailkatzeko lanabesa. Sailkatzeko bi irizpide. Baina, nola harreman daitezke irizpideok beraien artean?

Bestalde, belaunaldi literarioen inguruko gogoetek are ezkorrago izatera ninderamaten. Batetik, kontzeptuaren erabilgarritasunak ezbaika ninduen, ezka gehiago baika baino; bestetik, kontzeptuak zalantzez betetzen baintinduen ere, ziur nintzen bai hizketaldietan bai idatzietan erabilia nuela. Eta horrek neure erabileren inguruan gogoetatzer a eraman ninduen.

Hirugarren urratsa: zein harremanen arabera uztartu izan ditut neure azterketetan literatur generoak eta belaunaldiak?

Aipaturiko galdera eta ezinegona neure gogoari galdetuz eta neure baitara bilduz sortua zenez, euskal literaturaren eremuan emaniko joeraren inguruan hausnarketa egin baino lehen, egokia iruditu zitzaidan, neure buruan irudikaturiko lotura hori orain arteko neure lan idatzietan islatzen ote zen aztertzea (nire hizketaldiak aztertuz gero, nire oroimenak orduko hautemateak egungo interesetara makur zitzakeen eta). Hau da, belaunaldi eta literatur generoen arteko harremanaren inguruan kontzienteki gogoetatzer a jo aurretik, zein joera ezkututzen zen neure lan idatzien lerroetan barna? Noizbait erabili al nuen belaunaldi kontzeptua? Eta baieztatuz gero, literatur generoekiko harreman jakin baten arabera ote zen erabiler a? Lan jakin batek eman zizkidan neure erabileraren inguruko datu esanguratsuenak: *90eko hamarkadako narratiba*

berria: Literatur kritika (2000). Liburu honen idazle izae-
ratik aldentzeko ahalegina egin nuen, eta irakurle kritikoa-
ren jardunari heldu nion, baita beldurrez heldu ere. Pape-
reraturiko norberaren lanarekin berriro ere topo egitea ez
da eroso izaten, batik bat hurbilketa horretan distantzia
eta jarrera kritikoa lagun izan nahi badira. Baina, neure
jarrera eta erabileretara hurbiltzeko saio hori, nire ezine-
gon berriari aurre egin eta putzu zurrunbilotsu horretan
lehen sartu-irtena egitea, ezinbestekoa iruditu zitzaidan.

Liburu honen irakurleari izenburuan bertan litera-
tur sorkuntza aztertzeko egindako zenbait murriztapen
azalarazten zaizkio: literatur genero baten inguruko az-
terketa da (narratiba) eta garai jakin batekoa (90eko
hamarkada). Noski, biak ala biak murriztapen eta zedarr
arbitrarioak. Egia esateko, orduan sailkapen hau eskura
nituen tresna erabilgarri eta errazenen bitartez marraztu
nuen, sailkapen-tresnen inguruko gogoetei ekin gabe.
Egun, oso esanguratsua iruditzen zait orduan harturiko
bidea. Are gehiago, Unibertsitatean neureganaturiko
sailkapen-tresnak direlako susmoa dut. Literatur kriti-
karen eremuan eginiko nire ibilbideari begiratuz gero,
honakoa adieraz nezake. Egun, literatur kritika akade-
mikoan genero jakinetan espezializatzeraz jotzeko ohitura
dago. Noski, joera honek, ezinbestean, literaturaren
inguruan egiten diren irakurketak, idazleen artean ezarri-
tako harremanak, eta literaturaren historian ere zedarr-
tuko diren belaunaldiak generoen ikuskeraren itzalpean
garatzera bultzatzen du literatur kritikaria. Literatur gene-
roen eta belaunaldi literarioen inguruko gogoeta hau
egungo espezializazioaren baldintza honetatik haratago
eraman beharra dagoela iruditzen bazait ere, egun kriti-
kariengan batik bat genero bakarrean jarduteko gailen-
tzen den joera gogoan izatea garrantzitsua iruditzen zait,
euskal literaturan literatur lanak sailkatzeko erabilitako
bideez gogoetatzeko.

Baina, hori ez dugu gaurko mintzagai eta jarrai dezagun ibilalditxo. Ziur asko, liburu honen aztergaiaren aurrean irakurleari piztuko zaion lehen kezka honako hau da: zeri deritzo “narratiba berria”? “Berria” tasuna narratibarekin lotzean, genero honen zein alderdirekin lotu nahi da? Hau da, garai berria (izan ere, liburua 2000. urtean argitaratu zenez, 90eko hamarkada, amaitu berri zen hamarkada) ala narrazio-idazle berriak ditu hizpide? Izenburuak argitzen ez duen aztergaiaren inguruko kezka hau liburuko “Sarrera”n (Retolaza 2000: 11-16) zehazten da: “Nolabaiteko muga bat jartzearen, 90. urtearen ondoren lehen narratiba lanak argitaratu dituzten idazleak bakarrik izango ditugu hizpide, sarritan idazle ezagunagoen lanek idazle berri hauen lanak isilpean igaroarazi baitituzte. Izan ere, gure asmoa narratiba berria aztertzea denez, hamarkada honetan argitaraturiko lan guztiak aintzat hartzea zabalegia iruditu zaigu, eta beraz, egokiagoztat jo dugu esparrua murriztu eta lan jakin batzuei buruzko bilduma osatzea. (...) Hala ere, 90eko hamarkada baino lehen narratiba lanik argitaratu ez dutenak ere hartu ditugu kontuan: honela hurrengo zerrendan 90. urtea baino lehen beste genero batean ariuriko hainbat idazleren izenak ikusi ahal izango dira: hala nola, Luis Mari Mujika, Iñigo Aranbarri, Edorta Jimenez, Xabier Montoia, Jose Luis Otamendi, Manu Erzilla. Hauek guztiek 90. urterako jada poesiako lanak argitaraturik bazituzten ere, beraien lehen hitz lauuko lana urte honen ondoren argitaratu izanagatik jaso ditugu zerrenda honetan” (11).

Beraz, aztergaia murriztu eta sailkatzeko garaian nik neuk erabilitako bidea honako hau izan zen: lehenik, genero bat hautatu; bigarrenik, garai bat edo denborartarte jakin bat; hirugarrenik, idazleen artean ere muga bat ezarri. Ondorioz, idazleak biltzeko bide honetan, idazle-taldeak generoaren sailkapenaren menpe zehaztu

ziren. Liburutxo honetan, beraz, bi idazle-talde iradokizten ote dira?: “idazle-zaharrak”, 90. urtea baino lehen argitaratu zutenak, eta “idazle-berriak”, 90. urtearen ondoren argitaratu zutenak. Bai, sailkapen zeharo arbitrarioa, 89. urtean edo 90. urtean argitaratzeak ez baitu egiten idazle bat halako edo bestelako. Ez gaitzen garai eta urteen murriztapen arbitrario hauekin itsutu eta jarrai dezagun azterketa. Urteen aukeraketa arbitrarioa izanda ere, joera honek irizpide bat agerian uzten du: denboraneurri gisa argitarapen urtea kontuan hartu da, hau da, literatur lana gizarteratzen deneko unea. Noski, lan hura egin nuenean liburutxoaren edukiak azalaratzen zuen banaketa eta sailkapen honen kontzientziarik ez nuen. Eta honako hau da azterketa honekin adierazi nahi izan dudana: kritikariok zeharo kontziente eta nahita ez bada ere, literatur lanak sailkatu, mailakatu eta izendatzeko beharrak ziztatu ohi gaitu sarri, eta errealtate konplexu bat izendatzeko erabilitako zehaztapen murriztaile eta eskasak direla jakinda ere, aztergaiak “literatur genero” eta “belaunaldi literario” isilpeko kontzeptuen bitartez mugatzen ditugu. Ziur, entzule, honako galdera hau darabilzula buruan: belaunaldien inguruan hitz egiten al zenuen lan hartan? Galdera horrek ere ni neu zirikatu ninduen, eta liburuko orrietan zehar belaunaldien inguruko baieztapenak bilatzeari ekin nion. “Azken oharrak” (Retolaza 2000: 162) atalean topatu nituen belaunaldien inguruko baieztapenak. Bertan, idazleen arteko sailkape-nak zehazteko gogo nabari da. Batetik, 90. urtearen aurretik beste generoren batean argitaratzen hasi zirenak plazaratu berri ziren idazleetatik bereizten dira. Hona hemen, berriro ere, gizarteratzea neurri gisa belaunaldiak zehazterakoan. Bestetik, 90. hamarkadan argitaratzen hasi zirenen artean ere nolabaiteko sailkapenak edo taldeak egiten ditut: “Ondoren, 90eko hamarkada honetan argitaratzen hasi direnak izango ditugu hizpide.

Idazle berriek belaunaldi aldaketa ekarri dutela pentsatzekoa den arren, ez dugu horrelakorik ikusi. Izan ere, hamarkada honetan narratiba lanak argitaratzen hasi direnen artean, lau besterik ez baitira 70eko hamarkadan jaiotakoak: Harkaitz Cano, Ur Apalategi, Jasone Osoro eta Unai Iturriaga. Are gehiago, hauetatik batek bakarrik zedarritu du norabide jakin bat (Harkaitz Canok), besteek oraingoz liburu bakarra argitaratu baitute. Bestalde idazle berri gehienak 60ko hamarkadan jaio dira: hala nola, Jon Arretxe, Yolanda Arrieta, Joxe Belmonte, Arantxa Iturbe, Karlos Linazasoro, Jabier Muguruza, Jokin Muñoz. Ondorioz, ez da belaunaldi berrikuntza berezirik sumatzen. Badira, gainera, 50eko hamarkadan (Iñaki Irazabalbeitia, Edorta Jimenez) eta 40ko hamarkadan (M.A. Mintegi) jaiotako zenbait idazle ere.” (163). Hortaz, orduko nire irizpideen arabera, jaiotze-datak balioztatzen du belaunaldi berrikuntza edo belaunaldi aldaketa, eta ez beste irizpide batek (esaterako, ez dut neurritzat kasu honetan “literatur lana gizartera erditu deneko unea”). Irizpide honek belaunaldi literarioak mugatzeko noizbait ikasi edo irakurritako ezaugarriak ekarri zizkidan gogora. Eta galderak borborka: irizpiderik al da belaunaldiak mugatzeko? Eta izatekotan zein harreman dute genero kontzeptuarekin? Orduantxe, neure golkoari begiratzeari utzi, eta beste kritikariekin elkarrizketari ekiteko unea zela ohartu nintzen.

2. Urkoari begira eginiko bidaia

Laugarren urratsa: belaunaldi literarioak mugatzeko irizpiderik ote?

Liburuetan gora eta behera ibili ondoren, hortxe topatu nituen oroimenaren txokoren batean lausoki gor-

deriko irizpideak. Zehazki, Julius Petersen-ek (1984) garatu eta proposaturiko zazpi irizpideak, gerora, hainbat literaturatan belaunaldi literarioak mugatzeko gogoan izan direnak⁸² (Jespersen 1984: 164-188):

1. Jaiotze-data (“Fecha de nacimiento”)
2. Ikasketa eta hezkuntza (“Elementos educativos”)
3. Hartu-emanak (“Comunidad personal”)
4. Belaunaldiaren bizipenak (“Experiencias de la generación”)
5. Gidaria (“El guía”)
6. Belaunaldiaren hizkera (“El lenguaje de la generación”)
7. Aurreko belaunaldiaren zaharkitzea (“Anquilosamiento de la vieja generación”)

Hurrengo urratsa, beraz, zazpi irizpide hauek eta euskal literaturan belaunaldiak mugatzeko erabili izan diren irizpideak alderatzea litzatekeela pentsatu nuen. Belaunaldi literario bat izendatu eta mugatzeko gogoan nuen lehenengo ahalegina Jokin Zaitegirena zen, eta hartara, Jokin Zaitegik (1950) “Aitzol’en gizaldia” deiturikoa mugatzeko erabilitako irizpideak eta Jespersenek proposaturiko zazpi horiek alderatu nituen. Ondoren, Zaitegik idatzirikoa aipatuko dut, eta bere hitzak bertaratu ahala darabiltzan irizpideak izendatuko ditut (□ artean adieraziko dut irizpide bakoitza): “Orain arte euskerak izan ditun olerkari garaienak eta bikañenak Aitzol’en baranoan loratu ziran, nonbait. Alegia, 1930 g. urtetik 1936 g. urtearte. Nik uste, zazpi urteok betirako goragarri izango dirala Eusko-Olertiaren edestian. Ori dala-ta, nolabait sailkatu ta izendatu bear-eta, aldi ori “Aitzol’en gizaldia” izendatu dezakegu. Aitzol izan bai-

⁸² Irizpide bakoitzaren aldamenen erabili dudan gaztelerazko itzulpena gehitu dut, Jespersenek irizpidea nola izendatzen zuen argia-
go ikusteko.

genun guziok eragille ta zirikatzaile, nolarebait [*gidaria*]. (...) Olerkari ta idazle guzitsuok 1890garren urtea ezkeror yayoak dira [*jaiotze-data*]. Guziok gizon ikasiak dituzu [*Ikasketa eta hezkuntza*]. Nondik naiko idaztiak irakurtzeko itoak geientsuenak. Parantze, Germani, Ingalaterra ta Itali'ko olerkarien idaztiak irauli genitun. Españi'koak ez orrenbeste. Guziok elkaturik giñan eskutitzez, beintzat [*hartu-emanak*]. (...) Aitzol'ek sorturiko "Yakintza" aldizkari ederraren bidez ere elkaturik giñan. (...) Arana-Goiri'k beraren idaztiz, esanez ta eriotzez abertzaletasuna ereiñik zun Euzkadi osoan [*belaualdiaren esperientzia*]. (...) Orixe zan gure elburu: euskera orraztu, apaindu ta txukunean olerkiak eusko-gogoz egin. Beraz, gure auzi ta asmakizuna Euzkadi zan barne-muiñez: Euzkadi'ren gogoasmatu ta azaldu. Ta gure erantzuna: Europe'k aizatutako Euzkadi. Ortarako, ahapaldi berri ta zarberrietan, edontzi txanbeliñetan iduri, gure edari zarberria euskaldunei eskeñi genien [*aurrreko belaualdia zaharkiturik*]. Azkue'ren iztegi andian arki genun gure arrillobia [*belaualdiaren hizkera*"]". (Zaitegi 1950: 5-6).

Ikusi bezala, paralelismoa erabatekoa da. Jespersenen artikulu hau zuzenean ezagutzeko aukerarik izan ez bazuen ere, ziur asko beste literaturatako kritikariek jasotakoa ezagutuko zuela pentsatzekoa da. Dena den, ez zaigu axola gaurkoan zazpi irizpide hauek ezagutu ote zituen, haietan oinarritu ote zen, eta halako zehaztapenak. Bestalde, bada bereziki interesgarria iruditzen zaidan Zaitegiren baieztapen bat: "Alegia, 1930 g. urtetik 1936 g. urtearte. Nik uste, zazpi urteok betirako goragarri izango dirala Eusko-Olertiaren edestian." (Zaitegi 1950: 5). Baieztapen honetan agerian geratzen diren bi alderdi aipatu nahi ditut. (1) Nire hausnarketagaian arreta jarriz gero, Zaitegik ere bere gogoetak genero batera mugatzen dituela dakusagu ("Eusko-Olertiaren edestian"). (2) Belaualdi hau ezaugarritzeko beste irizpide bat ere aipatzen du: literatur lanen argitaratze, plazaratze-data,

hau da, hauen gizarteratze-data. Hortaz, berak egindako sailkapena nik neuk aipaturiko liburuan egindakoarekin alderatuz gero honako hau dakusagu. Zaitegik irizpide-kate bat eskaintzen du belaunaldi bat sailkatzeko, eta irizpide guztion gurutzebideak emango lioke belaunaldi izaera eta/edo/ala izendapena. Nik neuk, berriz, lehenik argitaratze-dataren araberrako sailkapenera bildu ditut idazleak, eta bigarren mailako sailkapen batean, jaiotze-dataren araberrako sailkapena egin dut. Baina, Zaitegiren eta neure sailkapenaren arteko ezberdintasunik nabarmenena honako honetan datza: Zaitegik sailkapena egiterakoan “Eusko-Olertiaren edestia” du gogoan, hau da, literatur historia du gogoan. Neronek, aldiz, literatur kritikara mugatu dut nire azterlana (liburuaren izenburuan bertan adierazi bezala). Honela, Zaitegik “Aitzol’en gizaldia” bezalako izendapena proposatzean, Jespersenek artikulua idaztean gogoan zuen helburuari begira dago: literatur historian koka daitekeen belaunaldi batez mintzatzea, literaturaren bilakaeraren katebegi bat osatuko lukeena.

Gogoeten une honetan, beste galdera bat sortu zitzaidan.

Bosgarren urratsa: euskal literaturan “belaunaldi literario” kontzeptua literatur historiarrako sailkapen-tresna gisa erabili al da?

Euskal literaturaren historien garapena eta bilakae-rari begiratzuz gero belaunaldia egituraketa neurri izan ez dela jakina eta ezaguna da. Hala ere, belaunaldia egituraketa-baliabide nagusi gisa erabili ez bada ere, euskal literaturaren historiek han hemenka “belaunaldi” kontzeptua erabiltzera jo dute. Beraz, historia aldizkatzeko unitate gisa gure artean egokitzen jo ez bada ere, hala-beharrez kritikariak tarteka belaunaldiez hitz egiteko

beharra du. Baina, noski, kritikaria belaunaldiaz mintzo denean, aldizkatze unitate bat finkatzeko helbururik ez du, baizik eta unean uneko kezka bati erantzutea, unean uneko aztergai zabal baten irudia egitea. Hau da, kritikariak ezinbestean bere aztergaia mugatu beharra du, eta literaturaren eremu zabalean murriztapenak egiteko modurik egokiena sailkapenak egitean datza: generoka, denbora-tarteka, ... Are gehiago, murriztapen-zaku hauetariko bakoitzeko lan anitzak aztertzeraz jotzen dugunean, sailkatu beharrak ziztatzen gaitu. Ondorio egoki posibleak sailkapenak eta koadroak bailiran. Eta horregatik, belaunaldia bezalako kontzeptu iheskorra ihesbide erraza izan ohi da, eta kontzeptuan gehiegi hausnartu gabe, berau erabiltzeraz jotzen dugu.

Baina jakinminak pizturik zirauenez, euskal literaturaren hainbat historiatan (edo azterlanetan, beti ez baita argia historia izendapena) belaunaldi kontzeptua erabili ote zen, eta erabiltzekotan generoarekin nola harreman- du zen ikusteko irrika sortu zitzaidan. Eskura nituen euskal literaturaren historiei gainbegiratu azkarra eman ondoren, bi erabilera deigarri topatu nituen, eta horiek iruditu zitzaizkidan gaurko ibilalditxo honetan aipatzeko egokienak. Bata, Mari Jose Olaziregik *Euskal eleberriaren historia* (2002) liburuan eginikoa erabilera jakin bat da, eta bestea, Jon Kortazarrek *Euskal literatura XX. mendean* eginiko erabilera jakin bat (azken azterlan honetako izenburuan bertan eta baita sarreran ere historia izateko asmoari uko egiten bazaio ere, hainbat irakurlek historia modura irakurri dutelakoan nago-eta).

Olaziregiren lanak izenburutik bertatik adierazten digu sailkapenerako lehen irizpidea generoarena izan dela. Are gehiago, liburuan zehar bereizten diren hainbat atal ere azpigeneroka aipatzen dira. Bestalde, azpigeneroak atalkatu ondoren ere, beste sailkapen bat eskaintzen du: belaunaldien araberakoa. Honela, "subjektibitatea ardatz

duten eleberriak” biltzen dituen azpiatalaren barruan, bide batez, beste sailkapen edo atalkatze bat egiten du. Bertan hainbat izen aurkeztu ondoren, azken bi ataltxoetan honako hauek aurkezten dizkigu: “Lourdes Oñederra (1958)” (Olaziregi 2002: 125) eta “Bukatze: izen berriak” (Olaziregi 2002: 127). Beraz, “izen berriak” azpigenero batean idatziriko izenak genituzke soilik. Generoaren sailkapen irizpidearen nagusitasun erabatekoa. Hona hemen “Bukatze: izen berriak” ataltxo honen hasiera: “Atal honen hasieran genioenez, asko dira azken urteotan subjektibitatea ardatz duten eleberriak kaleratu dituzten egileak. Horietako batzuk lehendik ere ezagutzen genituen beste genero edo arlo batzuetan argitara emandako lanengatik (I. Aranbarri, Y. Arrieta, M.A. Mintegi, M. Erzilla ...), baina badira bere lehen lana eleberriaren arloan kaleratu duten idazle gazteak ere. Azken hauen artean, Ixiar Rozas (1972) eta Unai Elorriaga (1973) nabarmendu nahiko genituzke, lehenengoa *Edo zu, edo ni* (Erein, 2000) eta bigarrenaren *Sprako tranbia* (Elkar, 2001) eleberrei guztiz aipagarriak baiteritzegu” (Olaziregi 200: 127).

Sailkapena are esanguratsuagoa da aurreko ataltxoia “Lourdes Oñederra (1958)” izenburupean mugatu duela ikusiz gero. Izan ere, aurkibideari begiratzea besterik ez dago sailkapen irizpide batzuren berri izateko: argi eta garbi dago izen berriak adinez berri direnak adierazteko erabiltzen duela, hau da, belaunaldi berria izendatzeko jaiotze-data darabilela irizpide, eta ez argitaratze-data. Bestela, Lourdes Oñederra hauen talde berean bilduko bailuke.

Baina, hemen, berriro ere beste galdera bat joka buruan: jaiotze-datari soilik begiratzea posible ote delaunaldi bat mugatzeko? Hamarkada berean jaiotzeak ez ditu idazleak ezaugarri bereko bilakatu beharrik, are gutxiago geurea bezalako gizarte batean, ikuskera anitz biltzen

dituena, hezkuntza sistema anitz biltzen dituena, hizkuntzarekiko –euskararekiko– harreman mota askoari-koa izanik (ama hizkuntza, eskolako hizkuntza, lagunarteko hizkuntza ...), eta abar (gaur egun, behintzat). Horregatik, jaiotze-data baino honako intuizioaren alde egiten zuen neura gogoak: haustura da belaunaldi berri batez hitz egin ahal izateko beharrezko irizpidea (Eta Ibon Egañaren hitzaldiaren abiaburuko izenburua buruan kolpeka: “Lubaki Banda eta poesiagintza: etenaren ala jarraipenaren belaunaldia?”). Baina zerren haustura?

Hau une ezin egokiagoa Jon Kortazarrek atonduriko azterlanean belaunaldiaren inguruan ageri diren zenbait adierazpen bertaratzeko. Batik bat, atal baten izendape-nak eta bertan esanikoek eskainiriko zantzuei heldu nien. Honako honi: “Gerra ondorena Hego Euskal Herrian. Egan taldea” (Kortazar 2000: 129). Baina, aurkez ditza-dan bere esanak:

“Nik neuk uste dut ezin garela mintzatu *Egan* literatura-belaunaldiaz, besteak beste, aldizkari horre-tan bi literatura-taldek bat egin zutelako: euskal tra-diziozko literatura –eta onar bekigu orrialde hauetan argituko dugun sailkapena behin-behineko izatea– landu zutenak, eta handik gutxira, poesia sozialaren edo existentzialismoaren bidetik tradizio hori antzal-datu eta literatura berria eta modernoa oin hartu zutenak. Gutxienez bi talde zirela, batean zaharragoak eta bestean gazteagoak, ageri-agerian dago aldizkarien emanaldiei behatuz gero. Pentsa daiteke, halere, ze-darria finkatzen duena pentsaera dela eta ez adina (...). Arazo hau argitzeko bada galdera bat –erantzun-ak baino areago– lagungarri izan daitekeena. Egan aldizkariak hastapenean bazuen Espainiako 50eko belaunaldiaren pareko izan zitekeen literatura-mota baten laguntza. Konparazio hori egin daiteke samin-dura adierazpidetzat hartuta, etikaren garrantzia ain-tzat hartuta? Geroago sinbolismorako joera agertu

zen: Mirande eta Aresti; joera soziala: Aresti; joera estetizista; Lasa, Sarasola, Hartzabal, ...

Ez dakit bidezkoa den hain termino orokorrak erabiliz mintzatzea, baina uste dut Egan aldizkarian hasiera-hasieratik bazegoela oso gune trinkoa (Irigarai, Arrue eta Mitxelena, Etxaide eta Erkiagarekin batera) eta gune horren baitako lankidetzaren oso egonkorra izan zela. Esango nuke gune horri 50eko literatura-taldea dei geniezaiokeela” (Kortazar 2000: 129-130).

Adierazpen hauetan honako arazo hauek biltzen dira:

a) Sailkapena egitearen aurrean agertzen duen ezkorrasun eta zalantza (behin-behinekotasun hori aldarrikatuz)

b) Literatura espainiarrean eginiko bideari begiratzeko dio euskal literaturako belaunaldiez gogoetatzeko. Eta joera honek, “Azken hatsa” atalean proposatutako dudan galdera sorrarazi zidan: euskal literaturan sailkapenak egiteko paradigma eta irizpide berezirik bilatzerik posible ote?

c) Hara! Berriro ere belaunaldiaz mintzo dela genero bat du irizpide. Esaterako, Aresti aipatzen du, baina bere poesiarako joeren arabera neurtu eta biltzen du belaunaldira, baina ezaguna denez Arestik antzerkia eta narrazioak ere idatzi zituen.

d) Hasiera batean jaiotze-dataren araberrako irizpidea aipatzen badu ere, gerora “pentsaera”ren alde egiten du. Pentsakera edo ideologian emaniko haustura ere Jose Mari Larreak (1989) erabili zuen 1956ko belaunaldia mugatzeko irizpide gisa. Baina, ezinbestean pensakera hausturak literatur sorkuntzan haustura al dakar? Are gehiago, pensakera hausturak literatur sorkuntza mota guztietan haustura al dakar? Hau da, gerta al liteke pensakera haustura batek genero batean eragina izan bai, baina beste batean ez? Jo dezagun urrats bat haratago.

Seigarren urratsa: haustura edo etena bada egun belaunaldiak mugatzeko gailentzen den irizpidea, posible ote genero ezberdinen arteko haustura neurtzerik?

Galdera honi aurre egiteko harturiko bidea honako hau izan zen. Jespersenen irizpideak kontuan hartu eta belaunaldiekin harremana izan zezaketenak aztertzea jo nuen. Izan ere, “jaiotze-data”, “ikasketa eta hezkuntza”, “hartu-emanak”, “belaunaldiaren bizipenak” eta “gidaria” bezalako irizpideak edozein generoren sortzaileak batera sailkatzeko neurri izan daitezke. Baina, “belaunaldiaren hizkera” eta “aurreko belaunaldiaren zaharkitzea” (edo haiekiko haustura) neur al daiteke zein literatur generoz ari garen adierazi gabe? Hau da, belaunaldiko hizkera hori partitu al dezake eleberrigile zein poetak? Aurreko belaunaldiarekiko haustura ez al da aurreko belaunaldi batek genero jakin batean sorturikoaren arabera neurtu behar? Azken batean, Harkaitz Canoren eleberririk haustura bat suposa lezake, eta poesiak ez, ezta?

Hartara, nire gogoeta gehienek eta beste kritikarien erabilerak generoaren ikuskeraren gailentasunera bideratu naute. Eta une honetan, honako galdera piztu zitzaidan: literatur lanak egun generoen arabera neurtzeko eta balioztatzeko joera hori egokia ote? Generoa sailkapen-irizpide (eta bide batez, irakurketa-irizpide) gisa sailkapenaren maila apalagoetara eraman behar ote genuke?

Zazpigarren urratsa: posible al da generoak sailkapen irizpide nagusitzat ez izatea?

Honen inguruan aritzeko gure artean den Paulo Iztuetaren berrargitarapenari esker ezagutu ahal izan nuen “Euskal literatura’ren atze edo edesti laburra” (Orixe 2002) oso egokia iruditu zait. Bertan, Orixek idazle-taldea du

aldizkatze-baliabide: “Euskeraren literatura, dentxo, iru atal eginen dizut, iru idazle-mordotara biribiltzen dudalarik. Eskualdez edo regioneaz, baita euskalkiz ataltzeare ere utzi eginen diot, ezpaitirudit ain egoki. (...) Beste zoztorrik ere azaldu zait bide onetan: nor-ta dire gure literaturaren iru guraso oriek? Gure mendekoetan zein aukeraturuko dizut buruzagi?” (Orixe 2002: 19). Eta honako hiru “buruzagi” edo gidari hauek aukeratu zituen: Axular, Larramendi eta Arana Goiri. Baina, “idazle-mordotara” biltzeko ahalegin honek ez du zehazki belaunaldiak zedarritzeko gogorik, baizik hiru garai, “biribilki edo ciclo” ezberdin marraztu nahi ditu, bata besteari jarraiki doazenak. Izan ere, belaunaldien kasuan batzuk besteekin elkarbizi direla aipatzekoa da. Dena den, bada Orixeren historia labur honetan alderdi aipagarri bat hizpide dudan gaiari dagokiona. Orixek atalak osatzeko irizpide nagusizat idazle-taldea edo idazle baten inguruko zikloa hartu duenez, generoaren inguruan egiten dituen sailkapenak, noski, sailkapen orokorrago baten azpian eratzen dira. Honen erakusgarri dugu “IX. LARRAMENDI TA BERETARRAK” atalaren azpiatalkatzea: 1. Eliz-idazleak; 2. Mogel ta Iztueta; 3. Lore-jokuak; 4. Bidasoaz emendiko poetak; 5. Alegi edo ipuinak. Azpiatalkatze honetan argi ikusten da adierazi nahi nuena. Gidaritzaren arabera zehazturiko atalkatze orokorraren itzalpean eratzen dira beste sailkapenak. Honako adibide honekin sailkapen eta azpisailkapenerako bideak anitz izan daitezkeela adierazi nahi nuen, eta hartara, sailkapen-irizpideak bezain garrantzitsu dela hautaturiko irizpide horien artean ezartzen den hierarkia.

Bada, Orixeren historia labur honen egituraketan beste datu aipagarriarik. Ikusi bezala, historia labur honen lehen atalean (I. ATAL-GITEA), aipaturiko hiru atal nagusien berri ematen badigu ere, hiru atal hauen aurretik ere beste batzuk eskaintzen ditu: “II. EUSKALDUNAK

ETA EUSKERA; III. POESI HERRITARRA. Eta hirugarren atal hau da aipagarri iruditzen zaiguna: izan ere, lehen historia labor honetatik bertatik literatura herritarra gainerako literaturatik banandurik agertzen da, eta bertolaritzako atalean garaikideak zaizkion bertolariak aipatzen baditu ere (“Enbeita Muxikarra”, kasu), ez ditu garaian garaiko hiru atal horietarikoetan hizpide, baizik literatura herritarraren atal honetan. Beraz, atalkatze honekin ere literaturaren ikuskera bat biltzen da.

Azken hatsa: euskal literaturan sailkapenak egiteko paradigma berezirik bilatzerik posible ote?

Orixeren historia labor horretan proposaturiko sailkapenak literaturaren ikuskera jakin bat iradokitzen duela adierazi dut. Eta ikuskera hori, mendebaldeko kulturak ezarri eta zabalduriko ikuskeraren arabera da. Ikuskera horretan, literaturaren lehen sailkapena herri literatura eta literatura kultoaren artekoa litzateke, gehienetan bata ahozkoarekin lotuz eta bigarrena idatziarekin. Eta sailkapen honen ondoren, azken literatura idatzi hau generoka bereiztera jo ohi da. Beraz, mendebaldeko ikuskera *bakar* honetara makurtzea al da bide bakarra? Izan ere, egindako hausnarketa-bide honetan honako hau ikusi dugu: mendebaldeko literaturaren ikuskera jakin batek (eta mendebaldeko nazio eta kultur adierazpide jakin batzuek, boteretsuek, alegia) ezarritako parametroekin lanean dihardugu. Hizpide izan ditugun “genero” eta “belaunaldi literario” kontzeptuak ere, noski, literaturaren ikuskera horretatik geureganaturiko lanabesak ditugu. Baina, ziur asko, lanabes horiek geureganatzearen arriskua, berauek erabiltzean baino, automatikoki erabiltzean datza. Hau da, beste literatura batzuek aztertzeke garatu dituzten parametro eta sailkapen-bideak geureganatzea, gurean duten baliagarritasunaz go-goetatu eta eztabaidatu gabe, geurera egokitu gabe.

Ez da kasualitatea, nire ustetan, bilkura honetan bertsolaritza hizpide ez izana, eta bertako belaunaldien berri gogoetatu ez izana (hierarkian den lehen sailkapenaren ondorio: herri literatura/literatura kultoa). Baina, ez al genituzke bestelako ondorioak, errealitatearen bestelako irudiak, poesia eta eleberriarentzat irudikaturiko belaunaldiekin batera bertsolaritzarenak alderatuko bagenitu? Hau da, ez al da posible Lubaki Bandako belaunaldiaren jarrera eta jokabidea, belaunaldi bertsuko bertsolarien (Unai Iturriaga, Igor Elortza, Maialen Lujanbio ...) jokabideekin alderatzea? Eta bestalde, belaunaldi batean idazle bat kokatzean eta bertan kokatzearen arrazoiak ematean bere jarduera literarioaren eremu batera soilik mugatu behar al gara (genero batera)? Hau da, Harkaitz Cano Lubaki Bandan kokatuz gero, eta talde haxe belaunaldia ote den erabakitzeke hausturari begiratu behar badiogu, zer nolako hausturari begiratu behar diogu? Harkaitz Canoren poesiagintzan hausturarik egon da, ala bere narraziogintzan hausturarik egon da, ala bi generoei (eta bestelakoei kasuan kasu) erreparatu behar diegu? Edo idazle-jarreran hausturarik izan den ote den aztertu beharko genuke? Ziur aski, horrelako bideetan abiatzeak belaunaldien eta literatur jardueraren inguruko bestelako ondorioak ekarriko lituzke, bestelako ikuskerak (posibletariko beste batzuk).

Ondorioz: honako solasaldi eta bilkura gehiagoren premian gaudelakoan nago, kritikariek erabili ohi ditugun termino hauetaz guztietaz geure artean gogoetatzeko, eta batik bat euskal kritikari gisa, geure kokaleku jakin horretatik hitz egin ahal izateko, eta geure ikuskera beste herri batzuetan garaturiko literatur teoriaren gerizpera ez bortxatzeko.

Bibliografia

- GUTIERREZ RETOLAZA, Iratxe, *90eko hamarkadako narrativa berria: Literatur kritika*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 2000.
- KORTAZAR, Jon, *Euskal literatura XX. mendean*, Prames: Las Tres Sorores, Zaragoza, 2000.
- LARREA, Jose Mari, “1956-eko belaunaldia”, in Askoren artean, *Gerraosteko literatura*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1989.
- OLAZIREGI, Mari Jose, *Euskal eleberriaren historia*, Labayru Ikastegia, Amorebieta, 2002.
- ORIXE, *Euskal literaturaren historia laburra*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2002.
- PETERSEN, Julius, “Las generaciones literarias”, in E. Ermatinger, *Filosofía de la ciencia literaria*, 137-193 or., 1984.
- ZAITEGI, Jokin, “Aitzol’ en gizaldia” in *Euzko gogo* 1, 5-7 or., 1950.

2. BELAUNALDIAK

***Sandwitch*-aren sindromea, edo *Tropela* delakoa azaltzeko ahalegin bat, edo, nahi izanez gero, Dimentsio Paraleloko belaunaldi ikusezinari buruzko zenbait kontu**

Iban Zaldua

0.- Hitzaldi honek eskatzen duen lehenengo gauza desenkusa bat da, edo, hobeto esanda, desenkusa bi. Alde batetik, ez dudalako ezer berririk esango hemen, edo ez bereziki berririk; gaiaren inguruan azkeneko hila-beteotan zehar hausnartu eta, kasu gehienetan, argitaratu izan dudana baino ez dut (bir)azalduko hemen. Bestetik, agian gehiago mintzatuko naizelako beste belaunaldi batzuetaz (eta batez ere gazteenaz), “Tropelaz” baino, hots, ogi-xaflez, erdiko urdaiazpikoaz baino (hau da balizko belaunaldi honen ezaugarrietako bat: ezinezkoa zaiola autoerreferentziala izatea, beti aurrekoaren eta ondorengoarekin konparatuz eskuratzen duela bere izaera). Eta,

bestetik –eta hau bekatu larriagoa iruditzen zait– ez naizelako unibertsitate-mailako literatur kritikaria, jardunaldi hauetan parte hartzen duten gainontzekoak bezala; are gehiago (edo gutxiago), ez daukadalako inolako formaziorik alor horretan, eta hala eta guztiz ere formazio hori izango banu bezala hitz egingo dudalako hemen, inguratzen nauten eruditu eta aditu itzaltsuen ganako errespetu falta handiaz agian. Ez nuke hala izaterik nahi, noski, baina, badaezpada, eta aldez aurretik, barka gaizki esanak.

Izan ere, zerbait izatekotan, alor honi dagokionean, iruzurra naizelako. Kritikari bezala ez banator, agian ipuinlari edo fikziogile bezala aldarrika nezakeen nire presentzia hemen, baina hori ere, laster frogatuko dizuedan bezala, ez da egia. Hitzaldi honen gaia bezala, ni, Iban Zaldia idazlea, ez naizelako existitzen.

1.- Onartu beharra daukat harridura sentitu nuela Ur Apalategik gai honen inguruko hitzaldia emateko gonbita luzatu zidanean. Uste dut iradoki zidala “Tropela” deituriko belaunaldiaz hitz egin nezakeela, eta Jon Alonsok eta nik neuk idatzitako artikulua batzuk ekarri zituela ahotara. Baina kontua da nire artikulua horiek, eta ziurrenik baita Jon Alonsorenak ere, apokrifoa direla: Tropela deituriko belaunaldirik edo literatur talderik existitzen ez dela alegia. Oso konfundituta, eta erratzen ari nintzenaren kontzientzia osoaz, baietz esan nion Urri. Eta hemen nago. Ezerezaz hitz egiteko prest.

Zeren eta, esan bezala, ez dago Tropelik. Demagun, nire apokrifoa hartan asmatzen nuen bezala, hala deitzen diogula egungo literatur panoramaren beste bi talde nagusien artean kokatuko litzatekeen belaunaldiari: hots, Hasier Etxeberriak *Bost idazle...* liburuan kotsakratu zituen idazle taldearen belaunaldiaren, eta Harkaitz Cano, Unai Elorriaga edo Kirmen Uribe eta bere garaikideek osatzen duten “idazle gazteen” taldearen artekoari –horiek

bai errealak, benetakoak. Ba arazoa da hori huts larria dela, bi belaunaldi erreal horien artean ez dagoelako idazle bat ere. Egia da: 1960ko hamarkadan jaio eta 80ko hamarkadan idazten hasi den idazlerik apenas dago euskal letren panoraman. *Deia* egunkariko kazetari batek argi eta garbi utzi zuen bezala, idazle gazteez osatutako taldeari elkarrizketa egitean, “Literatur erreleboa heldu da”:

Han llamado a la puerta y han entrado. Con tien-to, sin prisas, sin pensarlo, se han hecho un hueco en la literatura vasca, y en euskera. La crítica dice aunque ellos disienten que están llamados a tomar el relevo de los grandes: Atxaga, Sarrionandia, Saizarbitoria... Hablamos de Urtzi Urrutikoetxea, Harkaitz Cano, Unai Elorriaga, Julen Gabiria y Kirmen Uribe.

Agian norbaitek pentsa lezake halako arinkeriak argitaratzea kazetarien kontua dela, gaur kultura, bihar kirolak eta etzi ekonomia sailean lan egiten duten ezjakin horietakoren baten ahanzturak direla alegia. Juan Luis Zabalak –eta berak asko daki horretaz– duela gutxi ohar-tarazi zigun bezala: “Gai honen inguruan hitz egitean hedabideak aipatu behar dira ezinbestean. Azken urtee-tan hedabideen zeregina asko zabaldu da, eta idazleak sarritan agertzen gara berauetan, lehen baino askoz sarria-go behintzat. Baina, hedabideetan idazleen lanen irakur-keta nahiko azalekoa egiten da. Neurri batean logikoa dena. Prentsa edo hedabideak ondo ezagutu gabe hur-biltzen dira, kasurik gehienetan, idazlearengana. Neurri batean, idazleen sailkatzea edo bereizketa ez dute egin kritikoez, idazleek edo irakurle finek, kazetariak baizik. Kazetaria naiz eta ezagutzen dut dena sailkatzeko gure joera, gauzak bere tokian jarri beharra. Orduan, idazleak bere tokian jarri nahi edo behar hori hedabideetatik etorri dela esango nuke”.

Baina kasu honetan oker dabil Zabala, *Deia*-ko ka-zetariak ondo baino hobeto dakielako zertaz ari den: ez

dute engainatuko hortik zehar dabiltzan lauzpabost testu apokrifok. *Deia*-ko kazetariak badaki Atxaga eta Uriberen artean ez dagoela ez idazlerik ezta talde edo belaunaldi izenik merezi duen ezer, basamortu literarioa baizik.

Izan ere, konstatazio hori ez da kazetari edo bekadun ezaxolatiengatik kontu soila: “kritikoeak, idazleak eta irakurle fin batzuk” ere bat datoz gure literaturaren historia hurbilaren ikuspegi horrekin. *Quimera* aldizkariko euskal literaturari buruzko 2003. urteko zenbakia, zenbait aditu agurgarrik ondua, horren lekuko bikaina da, eleberrigileei eskainitako monografiei dagokienean behintzat: Saizarbitoria, Atxaga eta Lertxundirengandik zuzenean egiten da salto Cano, Rozas eta Elorriagarengana. Epaltza batek, Montoia batek edo Zabalak berak ez zuten merezi, antza, aparteko azterketarik (besteak beste).

Edo begiratu bestela nola karakterizatzen dituen Iñaki Aldekoa irakasleak gerraosteko belaunaldiak, berriki egin dioten elkarriketa batean:

[Lizardi, Lauaxeta eta Orixeren] Ondoren Gabriel Aresti, Jon Mirande, Txillardegi eta Ramon Saizarbitoriarengana salto egingo nuke, horiek ekarri baitzuten modernitatea euskal literaturara, poesian eta eleberrian. Gero, azken belaunaldietara pasatuko ginateke: Bernardo Atxaga eta Ramon Sarrionandia. Eta amaitzeko, Harkaitz Cano, Kirmen Uribe eta bestelako gazteak.

Punto. Beraz, *Deia*-ko kazetariak arrazoi. Heldu da erreleboa. Eta erdian ez da ezertxo ere egon. Tira, norbaitek ihardetsi diezadake Iñaki Aldekoak, berriki argitaratu duen bere euskal literaturaren historian, hitz egiten duela erdian egongo lirartekeen idazle horiez, eta halaxe da. Baina nobelak saiakera eta saiakerak nobela bihurtzen ari diren garai postmoderno hauetan, fidatu al gaitezke saiakera bezala aurkezten zaizkigun liburu guztien edukien zehaztasunaz? Agian, atal horietan, fikzio dosi bat,

emozio pixka bat txertatu nahi izan dio Aldekoak bere eskuliburuari, eta literatur belaunaldi oso bat txisteratik atera, Jon Alonsok *Katebegi galdua* nobelan Xabierko Frantziskori euskarazko eskuizkribu apokrifo bat egotziz bezala, edo Ur Apalategik *Gure Gauzak S.A.*-n Gaston Berrizar idazlea asmatu zuen antzera.

Hala da, bai. Ez nuke inoren ilusiorik zapuztu nahi, baina Xabier Mendiguren Elizegik ez du bere izenarekin liburu bat ere argitaratu, Elkar argitaletxeko editorea bada ere, OHOKo eskuliburuen sailean baina; Juan Luis Zabala ez da *Galdu arte* nobelaren egilea, *Berria*-ko kirolsaileko kazetaria baizik, txirindularitzan aditua; Aingeru Epaltzaren luma fina Boletín Oficial de Navarrako legeen itzulpen zintzora mugatzen da; Edorta Jimenez marinel gisa aritzen da Panamako banderapeko garraiontzi batean, tropiko aldeko itsas-bideetan; Itxaro Borda historiako katedraduna da Sorbonako unibertsitatean, eta nobela poliziakoak ez ditu batere gustuko; Pako Aristi, ordea, fraidea da Arantzazun, eta batzuetan, Pello Zabala gaixorik dagoenean, eguraldiaren iragarpena egiten du Euskadi Irratian.

Eta abar. Belaunaldi horretako inork ez du idatzi poema, ipuin, nobela, saio edo antzerki-lanik. Tropela, hasieran esan dizuet, fikzio handi bat da, iruzurra, Borgesek eta bere garaikideek literatura argentinarraren orrialdeetara pasatzeko makinatu zuten “Boedo” eta “Florida” talde literarioen arteko gatazkarena baino potoloagoa, zeren eta eztabaida fiktizio hartan, besterik ez bazen, idazleek bazuten izana eta izena (haien izena txikia zen arren, oraindik), eta halakorik ez da gertatzen gure belaunaldi fantasmaren kasuan.

2.- Baina, jardunaldi hauetara etortzea onartu nuenez gero, demagun aipatu ditudan idazle horiek guztiak izan direla, dimentsio edo unibertso honetan ez bada, agian ondoko dimentsio paralelo batean. Eta, beste

jauzi kontzeptual bat emanaz, jo dezagun badagoela haien arteko kidetasunen bat, belaunaldi batez hitz egitea ahalbideratuko ligukena. Desberdintasunak ere egongo dira, noski, agian kidetasunak baino handiagoak, baina goazen gauza komunak bilatzera; azken batean pentsatzea, eta baita idaztea ere, orokortze-ariketak dira berez, Borgesek –berriro Borgesek– esaten zuen bezala, genero literarioen erabilgarritasunari buruz ari zela: giza-pentsamendua ezinezkoa litzateke, sinplifikaziorik eta orokortzerik gabe.

Eta lehenengo zailtasuna, idazle talde imajinario horri dagokionean, da nola izendatu. Izendapen bat baino gehiago jaso baitu aipatu dizkizuedan testu apokriforietan guztietan: orain arte haizatu dudana Tropelearena, Xabier Mendigureni bururatu omen zitzaion “63ko uzta”-rena, “belaunaldi galdua” (besteak beste Edorta Jimenezek, Felipe Juaristik edo Karlos Linazasorok erabilitakoa), edo nik neuk inoiz proposatu dudana “Frustrazioaren belaunaldia”-rena.

Denek daukate, ez bairik gabe, arazoak: ez dute egoki edo guztiz islatzen deskribatu nahi dugun objektua, arazo bat dena zientzia egin nahi denean, are literatura kritika bezain esoterikoa izatera hel daitekeen “zientzia” baten kasuan. “63ko uzta” denominazioa (zehazten hasi beharko dugu laster, XXI. mendea aurrera doa eta: “1963ko uzta”) erredukzionistegia da, argi baitago, egotekotan, talde horretan sartuko liratekeela, baita ere, 1962an edo 1964an edo inguruko beste urte batzuetan jaio arazitako idazle fiktizioak; gainera, 1963 ez da oso zenbaki polita, zer egingo diogu; 68koa balitz, edo 69koa sikiera...

Bestalde, “belaunaldi galdua” erromantikoagoa da, zalantzarik gabe, eta literaturzale orori ekartzen dizkio Hemingway, Scott Fitzgerald eta enparauen belaunaldiak jaso zuen izendapenaren oihartzun gozoak. Ba hain

zuzen ere horregatik iruditzen zait ez dela zilegi kasu honetan erabiltzea, auzo-lotsagatik edo; gainera, “belaunaldi galdu” bat baino gehiago dagoela ematen du, are euskal literaturaren barruan ere, hala esaten baitzuen Jon Juaristik aspaldi egin zioten elkarrizketa batean, bere gustu literarioei buruz hitz egitean: “Gero badago belaunaldi galdua, asko gustatzen zaidana, Mikel Lasa, Aran-txa Urretavizcaya, Ibon Sarasola...”.

Beste alde batetik, “Frustrazioaren belaunaldia”-renak, nire uztakoa denak, haserrarazi du, antza, beste dimentsio horretako idazle batzuk, haien ustez ez baitaude inolaz ere frustratuta (askoren adierazpenek, egia esan, beste zerbait adierazten badute ere); baina agian arrazoi daukate, eta kortesia falta handikoa da belaunaldi bateko ezaugarri nagusizat hartzea etsipena bezalako sentimendu itsusi bat (gure merkatu ekonomietan, gainera, nekez suertatzen dena salgarri). Jon Alonsok esan bezala, “gauza gutxi dago itsusiagorik eta patekikoki irrigarriagorik irakurtzen ez diotelako edo aski famatua ez delako negarrez ari den idazlea baino”.

Eta, bide batez, Tropela izendapenak, hitzaldi hone-tarako aukeratu dudanak, azkenik, badauzka arazoak ere. Zeren eta Jon Alonsok bere artikulu famatu hartan modu orokorrago batean erabiltzen baitzuen “tropelaren” kontzeptua, belaunaldi jakin batekin lotu gabe (“ez gara ez belaunaldi bat, ez bi; ez gara talde batekoak, ez dugu talde-sen berezirik. Ez gara ezaugarri baten moduan sailkatzeko modukoak”), nahiz eta erreferentzia nagusia “31 eta 49 arteko idazleak” izan, eta horrek erraztu zuen, ondorioz, Tropelaren identifikazio generazionala. Baina kontua da, denborarekin, belaunaldi guztiek garatzen dituztela beren tropelak, guztietan daudela, idazle iruñearrak idatzi bezala, “behi sakratura iritsi ez eta lasterketa zaldia izateko sasoirik ez duten idazleak (mandoak?), edo, are, Jethro Tull-eko Ian Andersonek aspaldi

kantatzen zuenez, zaharregiak rockanrolerako eta gaztee-
giak hiltzeko”; nola sailkatuko genituzke bestela, “trope-
len” batean ez bada (eta adibide gutxi batzuk jartzearren),
Txomin Peillen, Joxe Agustin Arrieta edo Luis Mari Mu-
jika bezalako jendea? Tropelean, noski: haien belaunaldi-
diaren tropel kasik ahaztuan.

Dena dela, onartu behar dut gustatzen zaidala Tro-
pelaren izendapena, horrela, letra larriz, hitzaldi honen
gaia omen den belaunaldi jakin hori izendatzeko: sinte-
tikoa delako, adierazkorra delako eta, batez ere, txirrin-
dularitza bezalako kirol batekin parekatzen duelako lite-
ratura, oso ariketa sana eta oxigenagarria iruditzen zai-
dana. Eta historialari askok onartzen dutenez Barrokoa
artearen aldi jakin bat izateaz gain artearen mugimendu
guztiek izaten dute beren fase barrokoa. Hortaz guk ere
onar genezakeen, agian, Tropel handi bat dagoela, letra
larriz, gutxi gora-behera 1960ko hamarkadan jaio omen
ziren idazle ustezko horiek osatuta, eta belaunaldi ba-
oitzak baduela “tropela”, minuskulaz, historiaren, kriti-
karen, merkatuaren eta (nola ez) injustiziaren indarrak
baztertutako idazle frustratuen kupoa alegia.

3.- Demagun, beraz, hipotesi gisa sikiera ere, badela,
unibertso paralelo batean, halako euskal idazleen belau-
naldi bat, egun 35 eta 49 urte bitartean egongo lirate-
keenak (edo 31 eta 49 artean, Jon Alonsoren proposa-
menari jarraituz gero; Juan Luis Zabalak, bestalde, muga
estuagoak proposatzen ditu belaunaldi horrentzako:
1963, 64 eta 65ean jaiotakoak), eta idazle horiek, oro
har, 1980ko hamarkadan zehar hasi zirela idazten, edo
1990koaren hasieran. Eta frustratu samar dabiltzala, ez
dutelako ez Letren Parnasoa ezta are gutxiago Olinpoa
erdietsi. Horren frogak ez dira faltako, *ad hoc* prestatuko
ditugun hainbat testu apokrifoek ondo baino hobeto fro-
gatuko duten bezala. Hala, Aingeru Epaltzak, adibidez,
hauxe esan zuen dimentsio paralelo horretako egunkari

batean *Rock'n'roll* nobelaren harrerari buruz: “Nire kasuan ia lau urtez aritu nintzen liburuarekin; nik halako espektatiba batzuk nituen, eta esan daiteke ez direla bete. (...) Ez zen oso liburu komertziala eta uste dut sekula santan ez dudala liburu komertzialik idatzi. Baina, harritu ninduena kritikaren erantzuna izan zen. Oharkabean pasatu zen liburua orain bi urte argitaratu zenean”. Edo Jokin Muñozek, bere azkeneko ipuin liburuaren aurkezpenean, harengatik Mundu Paraleloko Euskadi Saria eman ziezaioketenik susmatzerik ere ez zuenean: “Aha- legin latza egin nuen nobela hura [*Joan zaretenean*] idaztean eta, egia esateko, izan zuen baino oihartzun handiagoa espero nuen. Dena dela, nik afizioagatik idazten dut... [Bestalde, *Atlantidara biajia* nire liburuari] batzuek egin zioten harrerarekin harriturik gelditu nintzen; deskubritu nuen ze joera eskasa daukagun autokritikarako”. Edo Pako Aristik, erresumina apenas estaltzen dion tonu ironiko samarrarekin: “13 urte pasatu dira *El Diario Vasco*-n azken elkarrizketa egin zidatenetik, 1990ean izan zen. Geroztik 17 liburu berri atera ditut, Rikardo Arregi saria bi aldiz irabazi dut, Espainiako Kritika Saria eman didate, baina ez dut gustu hori izan. (...) 18 urte daramatzat liburuak argitaratzen, 28 guztira, baina 18 urte hauetan ETB2an ez naiz behin ere azaldu nire liburu bati buruz hitz egiten. Ezta behin ere 18 urtean”. Eta abar.

Zergatik egoera hau, halakorik badago behintzat? Azalpen monokausalak, jakina, ez dira nahikoak fenomeno hau azaltzeko, ezta unibertso paralelo batean ere. Nik zenbait hipotesi planteatuko ditut hemen. Lehenengoa hauxe da: gaur egungo euskal literaturan, kasik lehenengo aldiz, beste literaturetan ohikoagoa izan den fenomeno bat gauzatuko zela, hots, elkarrekin bizitzen izan ditzakegula (gutxienez) hiru literatur belaunaldi, *nagusiena* (“Hasier Etxeberriaren bost idazle” haiena hain

zuzen ere, edo, kritikari batzuek erabiltzen duten bezala, “Autonomiarena”), 1960ko hamarkadan jaiotakoona (existitu izan balitz alegia), eta 1970ko hamarkadakoena, 1990koaren bigarren erdialdetik aurrera argitaratzen hasi zireneka (muga hauek guztiak, jakina, gutxi gora-beherakoak dira). Eta, euskal literatura idatziaren historia urratuaren aurreko garaietan ez bezala, belaunaldi heldu berriak (kasu honetan Tropelak) ez zuela aurreko belaunaldia baztertu edo ordezkatu. Eta okerreka da hirugarren uhina (*Deia*-ko kazetariaren “erreleboa”) heldu dela, eta kasu askotan presentzia eta arrakasta nabarmenagoa lortu duela, denbora laburrean, *ogitartekoaren* erdikoak baino, “Autonomiaren belaunaldiko” partaideek beren lekuari tinko eutsi dioten bitartean: izan ere, Atxagak, Saizarbitoriak, Sarrionandiak edo Lertxundik 1990eko eta 2000ko hamarkadetan zehar argitaratu dituzte beren obrarik esanguratsuenak. Hau, jakina, zoritxarra izan da 1960ko belaunaldiarentzat, eta, haietako batzuentzat, baita etsipen iturri ere (eta gogoan hartu, adibidez, Pako Aristi izan zela, aspaldi, Bernardo Atxagaren ustezko “antena parabolikoaren efektuaz” hitz egin zuena, tonu –nire ustez– apur bat erretxinduan ere bai). Ikuspegi horretatik oso esanguratsuak iruditzen zaizkit Felipe Juaristiren hitzak, duela ez horrenbesteko unibertso paralelo horretako egunkari batean argitaratuak: “Baina [*Airezko emakumeak* nire azkeneko nobela] argitaratu nuen momentu berean Bernardo Atxagak bere liburu berria atera zuen eta nirearen berri ez da hainbeste entzun. Hori da euskal literaturaren arazoa; beti izan behar dugu jainko txiki bat. Askotan badirudi beste idazlerik ez dagoela. Ikaragarria da mediatikoki Atxagarekin egiten ari direna. Kezkagarria da hori guztia, literaturaren porrota iruditzen zait”. Iruzkinak soberan daudela iruditzen zait.

Arazoa da belaunaldi hori “Tropel” bihurtzera iritsi izan bada, unibertso paralelo horretan, arrakasta nahikorik

izan ez duela uste badute haren partaide posibleetako askok, agian izan dela horren onak izan ez direlako, orain arte behintzat, eta euskal literatura aldaketa handi baten erdian zegoenean heldu zirelako: jadanik nahikoa ez zenean, inolaz ere, erosketa-zerrenda euskaraz idaztea euskal literaturaren historiaren orrialde geroz eta estuago eta gainpopulatueta pasatzeko (horrek ez du esan nahi “Tropelako” batzuek liburu onak idatzi ez dituztenik, han, existitzen omen diren dimentsio paralelo hartan). Ez, kontua da ez dutela, lehenik eta behin, eta oraingoz behintzat, *Obabakoak*, *Otto Pette*, *Hamaika pauso*, *Non dago Basques' Harbour* edo *Hnuy illa nyha majah yahoo* lanen mailarekin pareka daitekeen ezer idatzi (besteak beste), eta, gainera, bigarrenik, “Tropelako” inori ez diotela Espainiako Sari Nazionalik eman unibertso paralelo horretan; Alonsok zioen bezala, Parnasorik ez, oraingoz behintzat, tropelekoontzat.

4.- Baina hori ez litzateke Tropelaren arazo bakarra, ezta potoloena ere, ziurrenik. Izan ere, 1960 eta 70 artean jaiotakoek beren bizitzak euskarazko literatura egitera bideratu izan balituzte, beste arazo batekin aurkituko ziren: hurrengo belaunaldiarekin, “gazteenarekin” alegia. Horregatik hitz egiten dut balizko “Sandwich-aren sindrome” batez: dinosauroen (hots, “Autonomiaren belaunaldiaren”) eta belaunaldi gazteak osatutako ogi-xafilen artean geldituko direla Tropelariak, sandwich bateko urdaiazpikoaren edo *chopped*-aren antzera, ihes egin ezinik.

Egun hogeita hamar edo, batzuen ustez, hogeita hamabost urtetik behera dutenek osatuko lukete “belaunaldi” hau –Jon Kortazarrek *promozio* izendapena erabili zuen izendatzeko: maltzurki, agian?–. EIEk antolatutako *XXI. mendeko idazle berriak* erakusketa ibiltariak nabarmendu du, nolabait, belaunaldi honen presentzia, idazle gaztearen kategoria horren inguruko nolabaiteko “euskal antologia” bat aurkeztu zuen heinean. Izan ere, erakus-

keta horrena oso esanguratsua iruditzen zait, erakusketak, normalean, gai historiko eta nolabait “fossilizatuen” –eta, beraz, finkatuen– gainean antolatzen baitira. Edonola ere, hogeita hamabost urtetan ipintzean, gartzaroaren mugei buruzko baikortasun nabarmena aitortu behar zaie *XXI. mendeko idazle berriak* erakusketako antolatzaileei (eta, bide batez, auto-antologatzaileei). Gaztetasunaren mugen geometria txit aldakorraz geroago mintzatuko naiz, dena dela.

Zilegi da galdetzea ea promozio “gazte” hori tresna hobegoez hornituta heldu ote den gure literaturaren joko-zelaira, aurrekoa (aurreko balizkoa) baino. Eta nire erantzuna baiezkoa da. Lehenik eta behin, ziurrenik espektatiba “errealistago” batzuekin iritsi dira, euskal literatura lehen baino askoz ere eremu lehiakorragoa dela jabetuta, eta espazioa –gutxienez– beste bi belaunaldirekin konpartitu beharko zutela jakinda; bi hitzetan, literatur sistema normal(duago) batean hartu zuten lur, eta horrek, agian, beste ikusmolde bat eskaini die idazle horiei (beste bi belaunaldikoez izan ez zutena, agian). Beste alde batetik, eta horrekin lotuta, “bost idazleen” belaunaldiak eragindako *iraultza literarioa*, Tropelekoek kasik zuzenean bizi izan zutena –eta osatzen lagundu zutena–, burututa zegoen jadanik, eta hori, literatur hizkuntza baten eraikuntzaren aldetik besterik ez bada, ez zen abantaila makala izan heldu berrientzat, haietako askok –Harkaitz Canok adibidez– azpimarratu duten bezala: lan asko eginda zeuden jada.

Bigarrenik, komunikabideen eta kritikaren abegikortasun orokorra izan du belaunaldi berriak; Juanjo Olasagarrek ondo adierazi zuen bezala: “Zergatik egin du ospeak jauzi Bernardo Atxagatik Kirmen Uriberengaino, tartekoari erreparatu ere egin gabe?”; guk bada-kigu zein den erantzuna: tartean ez zegoelako inor, ezta Juanjo Olasagarre bera ere, sekulan poema edo nobelarik

idatzi ez eta Londresen dena pub baten jabe; baina tira, jarrai dezagun suposatzen Tropela existitu zela... Beste askoren arteko faktore bat baino ez den arren, badirudi komunikabideen gazteekiko lilura gauza orokorra dela gaur egungo gizarte kapitalistetan, eta saiaturiko naiz horren inguruan zantzu batzuk ematen, aurrerago. Eta kritikaz, zer esan? Benetako kritika publikoaren faltaren topikoa aipatzeaz gain, bi gauzek liluratzen dutela kritikari “profesionala”: alde batetik, kanonak (kritikarien konstruktoa berau, hein handi batean) eta, bestetik, (ustezko) nobedadeak (izan ere, eta oro har: zer nobedade eskuragarriagorik, gazte batek argitaratutako obra baino?). Edonola ere, kontuan hartu behar dugun lehenengo gauza, honez hitz egitean, zera da: apenas zegoela, Tropelekoak plazara irten omen zirenean, komunikabiderik edo kritikarik euskal munduan (hots, bazeuden, baina hastapenetan zeuden, eta Tropelekoak izan ziren, aurreko belaunaldikoekin batera, azpiegitura hori guztia martxan jartzen lagundu zutenak, hain zuzen ere –eta paradoxikoki).

Hirugarrenik, literatur promozio gazteak alde izan dituen gauzen artean, esango nuke inguru instituzional “aberatsago” bat kontuan hartzeko zerbait dela. Alde batetik, sari-sare egoki eta finkatu samar batez ari naiz (izan ere, badago idazle-multzo honi “Urruzuno belaunaldia” deitzeko proposamena egin duenik, Jaurilaritzaren gazteentzako sarien mintegi-funtzioa gogoan...). Beste alde batetik, beka eta diru-laguntzen eskaintza handixeagoaz (batzuetan espezifikoa, Igartza sariak bezala). Gainera, agian ez literaturatik, baina bai idaztetik bizitza ateratzeko aukera handiagoak eskaintzen dituen eremu “industrial” txiki bat dago (telebista eta bestelako komunikabideen inguruan), gazteen ekarpenen gose gainera. Eta, azkenik, badugu baita argialetxe-panorama nahiko egonkorra ere, zeinetan gazteenen lanak bultzatzeko (eta are “talentu” berrien arrastoari jarraitzeko) prest dagoen enpresarik ez

baita falta; Xabier Mendiguren Elizegiren ahalegin nekaezinak, alde horretatik, aski ondo ezagunak dira.

Laugarrenik, inpresioa daukat merkatu-kompetentzia handiagoa den testuinguru batean, zeinetan liburuarren eta obraren sustapena gero eta inportanteagoa bihurtzen ari baita, publikoarekin, hots, kontsumitzailearekin zuzenean harremanetan jartzeko eta “konektatzeko” abilezia berezia aurkeztu dutela idazle gazteek, publiko aurreko saioen eta ikusentzunezko medioen erabileran suma daitekeen bezala; aldiz, aurreko belaunaldien (tartean “tropelekoaren”) plaza-tresna nagusienetako bat, literatur aldizkaria, atzerazinezko gainbeheran sartu da...

Gazteak, bestalde, kontzienteago dira idazle gisa irudi bat eraiki beharra dagoela egun, liburuak ez direla bakarrik saltzen; ez dut uste Tropelekoak, literaturaren munduan sartu izan balira, horren iaioak izango zirenik hori egiten. Harkaitz Canok nola posatzen duen edo Kirmen Uribek nola janzten duen ikustea besterik ez dago; Dubravka Ugresic kritikariak azaltzen duen bezala, “Argitalpen-industriak idazleak *hornitzaile asebateak* bezala deskribatzen dituen arren, haien obra hori baino gehiago da. Badira irudi-hornitzaileak ere. Egun, idazleek gero eta gehiago beren liburuen edukietara egokitzen dute irudia, eta liburuen edukia beren irudira”. Eta Tropelekoek, idazle izan balira, inbidia izatea beste erremediorik ez lukete izango. Izan ere, idazle ez banaiz ere, haiekiko inbidia sentitzen dut nik ere, pentsa. Idazle gazte horiek “ekidinezinezko literatur erreferentzia” bihurtu baitira, Dubravka Ugresic-ek terminoa definitzen duen zentzuan:

Ekidinezinezko literatur erreferentzia bihurtzeko hori egunen batean gertatuko denaren sineste osoarekin jaio behar da idazlea. Soilik fede horrek eman diezaioke hazpegi-espresio “hori” eta ibiltzeko era imitaezin “hori” (atzetik dozenaka telebista-kamerak

jarraituko baliote bezala). Hori lortzen da norberarenganako konfiantza-maila jakin baten bitartez. Eta alde guztietan, baita literatur merkatuan ere, konfiantza-maila hori lortzea guduaren erdia irabaztea da.

Tropelekoek, gehienek behintzat, ez dute sekulan konfiantza maila: haien lantu eta kexek argi uzten dute hori. Tropelekoei kostatu izan zaie, askotan, haien burua idazletzat aitortzea, are idazle bezala existitzen diren dimensio paralelo horretan ere. Harkaitz Canok aurreko adibide batera jotzen zuen, baina nik uste dut adierazgarria dela ere Tropeleko askoren kasua azaltzeko (eta, bide batez, belaunaldi “gaztearekin” dagoen desberdintasunetako bat azpimarratzeko): “Ramon Saizarbitoriari bere burua idazletzat onartzea izugarri kostatu zitzaiola entzun izan diogu sarritan. Niri, aldiz, ez zait idazle naizela onartzea kostatu. Saizarbitoriarentzat Marcel Proust zen idazle, eta kito. Eta niretzako ere bai, baina beste asko, txarragoak izanda ere, idazletzat jotzen ditut. Ez ditut idazleak mitifikatzen, niretzat idazlea ez da zer-bait berezia. Idazlea ona, txarra edota erdibidekoa izan daiteke. Nik horregatik ez dut inongo arazorik idazle naizela esateko, idazten dudan unetik naiz idazle. Ez dut hori lotsagabekeriarekin lotzen, inondik ere. Gertatzen dena da orain askoz errazagoa dela esatea ‘ni idazlea naiz’ eta jendeak aurpegi arraroarekin ez begiratzea...”. Dena dela, gero itzuliko naiz puntu honetara, beste bide batetik, idazleen profesionalizazio-mailaz eta hitz egitean.

Zortea ere faktore bat izan da, ezbairik gabe: ezin hori ukatu –eta ez naiz sartuko hemen kalitate kontuetan– Unai Elorriagaren *SPrako tranbia*-k irabazitako Sari Nazionalaz mintzatzean, zeinak idazle promozio horren lana eta presentzia behin-betiko finkatzeko ondorio simbolikoa izan baitu, nahi ala nahi ez, Euskal Herrian, eta baita kanpora begira ere; zortea, diot, gutxienez utzikeria litzatekeelako pentsatzea 1989tik 2001era ez dela argi-

taratu bere meritu propioengatik sari hori eskura zezakeen euskal libururik.

Eta, jakina, ez ditzagun ahaztu, liburuak daude: batzuk onak, beste batzuk txarrak. Baina, iruditzen zait azkeneko urte hauetan irakurlegoaren interesa pizteko gaitasun nabarmena izan dutela liburu horietako batzuek (“Tropelakoen” liburu askok baino gehiago, behintzat... hala gertatu da, behintzat, hitzaldi honen gaitzat hartu dudan unibertso paralelo horretan... nahiz eta, oro har, liburu horiek baino hobeagoak ez izan, gazteenak). Kontsumoko literaturaren adibide on edo ez horren ontzat har daitezkeen beste batzuekin batera, aipagarriak iruditzen zaizkit, ikuspuntu honetatik, Ur Apalategiren *Gauak eta hiriak*, Kirmen Uriberen *Bitartean heldu esku-tik* eta Harkaitz Canoren nobelak, besteak beste.

5.- Edonola ere, eta beste gai batera igaroz, gazte izateak badu egun, nik uste, balio erantsi bat literatur arrakastaren bidean (gazte izateak, edo gazte emateak, zer esanik ez). Eta kazetariak zer edo zer azpimarratzen badute, egile berri baten plazaratzea dela eta, haren adina da... gaztea bada noski. Eta kontrakoa, horren gazte ez izatea, traba bihurtzera hel daiteke, gezurra badirudi ere. Ezbairik gabe, gaztetasuna berezko bertute eta ikur kontsideratzen da gure gizarte kapitalista *globalizatu* edo *postmodernoan*: jakina denez, gazteak merkatu-kontsumoaren segmentu garrantzitsua bilakatu dira, eta gaztetasunaren balore estetikoak goi-goian dago. Denok dakigun bezala, gaztetasunaren goraiipamen hau, artista baten obraren balio erantsi bezala alegia, nahikoa berria da, termino historikoetan. Izan ere, lehenago kontrakoa zen ohikoago: adinak ematen zuen esperientzia azpimarratzea eta gaztetasunaren oinarri ahulak gogor salatzea alegia –Shakespearek esan bezala, “Zaharrak ez dira gazteez fio, gazte izan baitira”–. Egia da joera-aldaketaren sus-traiak Erromantizismoan aurki daitezkeela, nahi izanez

gero, eta badagoela, beraz, XIX. mendetik datorren saka-
da bat, hala literaturan nola arte plastikoen munduan,
gazteen lanak handieste aldera; antzeko bultzada bat
aurki daiteke, logikoa eta ezaguna denez, XX. mende ha-
sierako abangoardien testuinguruan. Baina batez ere 1950
eta 1960ko hamarkadatik indartzen hasten den prozesua
da, Estatu Batuetan duena iturburu, handik mundu
garatu guztira zabalduz: gaztea bihurtzen da helburu edo
jomuga, maila guztietan, baita literarioan ere. Gogoan
hartu behar da aurreneko masa-kontsumoaren gizartea
AEBtan sortzen dela, eta lehenengo aldiz eros-ahalmen
dezenteko gazte-multzo handia finkatzen dela, beraren-
tzat propio eginiko produktuak lortzeko zain. Eta, pro-
dutu kulturalen arloan, zer hobeto, gazteei saltzeko,
gazteek eurek sortutako, idatzitako produktuak baino.
Beat belaunaldia AEBtan, eta *Angry Young Men* delakoak
Britainia Handian testuinguru horretan uler daitezke
(hein batean, noski).

Espainian fenomeno hau, aurrerakin ilustreak izan
arren, 1980ko hamarkadaren amaieran eta 90ekoaren le-
henengo erdialdean hasi zen nabarmentzen (Loriga, Ma-
ñas, Etxebarría, De Prada eta antzekoen irrupzioarekin),
eta pixka bat beranduago Euskal Herrian (baina ez ge-
hiegi, behintzat, gure ondoko literatura “handiaren”
erritmora egokitzen ari garen seinale... hori onerako edo
txarrerako ote den ez dakidan arren). Nire hipotesiaren
arabera aldaketa, gurean, Lubaki Bandarekin ematen
hasten da: lehenago, batez ere, “literatura berriaz”, “idaz-
le berriez” hitz egiten zen –nahiz eta, normala den beza-
la, idazle berri gehienak gazteak izan: baina “gaztetasu-
nak” ez zuen horrenbeste garrantzirik orduan, “berrita-
sunak” baizik–; gainera, gogoratzen hasita, inork ikusi al
zien inoiz gazte itxurarik Inazio Mujika, Xabier Men-
diguren, Edorta Jimenez edo Rikardo Arregi bezalako
jendeari? Dimentsio paraleloaz ari naiz, noski. Kontua da

gazteak izango zirela, bai, baina ez zutela gazte itxurarik, edo ez zutela halakorik “kultibatzen” behintzat; are kontrakoa esango nuke nik. Jakina, Tropelean badaude salbuespenak ikuspuntu horretatik, Jon Arretxerena, Pako Aristirena edo Paddy Rekalderena adibidez, baina –horren inguruan daukadan iritzia alde batera utzita– horixe iruditzen zaizkit, salbuespenak, araua inolaz ere apurtzen ez duten horietakoak.

Edonola ere, kontua da Lubaki Bandaren agerpenarekin (1993), ordea, “idazle gazteez” edo “belaunaldi gazteaz” hitz egiten hasten dela euskal literaturan. Badaukit Ibon Egaña gure mintzakideak luzeago eta egokiago hitz egingo duela honetaz, baina gai honetaz zer edo zer esan behar dut, nahiz eta ni erratuta egon. Lubaki Banda, gogoratuko denez, idazle *oso* gazteen (18-20 urte bitartekoak) aurkezpen kolektibo bat izan zen, hainbat literatur testu eta, batez ere, manifestu bat zirela medio, *Susa* aldizkariaren bi zenbakiren babespean: lehenengoan Xabier Aldai, Gari Berasaluze, Harkaitz Cano, Eluska Fernandez, Xabier Ganzarain, Josu Goikoetxea, Lierni Ibargutxi, Ibon Iribarren, Arantxa Hirigoien, Ander Izagirre, Saioa Muguruza, Manex Mujika, Mikel Reparaz eta Asier Serranok hartu zuten parte, eta bigarreanean Iñigo Iruetagoiena eta Andoni Salamero gehitu zitzaizkien aurrekoei.

Lubaki Bandarena fenomeno bitxia izan zen. Esan ohi da literatur belaunaldi bakoitzak aurrekoaren aurka altxatu behar duela; egia esan, ez dakit hala izan behar duen, derrigorrez, baina kontua da dimentsio paraleloan Tropelek ez zuela, antza, bere “guraso literarioen” aurkako matxinada-ahalegin handirik bultzatu, ez modu kolektiboan, ezta indibidualki ere. Lubaki Bandak, ordea, halako asmorik iragarri ohi duen manifestu moduko batekin abiarazi zuen bere karrera (“Atzazalez urratzen dugu bidea” zuen izenburu); tira, testu hori oso iluna eta

“poetikoa” zen –adjektibo horren zentzurik txarrean–, eta aitortzen dut nik ez nuela askorik ulertu: izan ere, ez dirudi inoren edo ezer oso konkreturen aurkakoa zenik, baina, estetikoki behintzat –eta hau da garrantzitsuena–, konplitzen zuen literatur belaunaldi berri bati eskatu ohi zaion errebeldia-kuotarekin. Bide batez, manifestu hori eredu bilakatu da: ez dago autoizendapen aski esanguratsuko Póg Mo Thóin Bandak, hots, 2004ko “urruzuntarrek” Irlandarako bidaiia-sarian idatzitako manifestu edo aldarrikapen lirikotea irakurtzea besterik Lubakitarrak eskola egin dutela konturatzeko.

Ez naiz sartuko Lubaki Banda *bluff* bat izan zen ala ez eztabaidatzen: komunikazio honetarako inportantea da ez horrenbeste *berez* suposatu zuenagatik, baizik eta, nire ustez, gure artean sortu edota plazaratu zuelako “idazle gaztearen” kategoria, gaur egun arte iraun duena. Edonola ere, nik uste dut gutxienez oso eskertzekoa eta osasungarria izan zela igartzen zitzaien umorearen zentzua: hala, aldizkariaren bigarren zenbakiaren lehenengo orrialdeetan (“Hau muturreko pila!” zuen izenburu) aurreneko agerraldiaren inguruko erreakzio publikoak bildu zituzten, eta gogoan hartu behar da horietariko asko nahikoa kontrakoak –eta patetikoak– izan zirela (bide batez, agian planteatu daiteke, hipotesi gisa, eta testu horien sinatzaileak zeintzuk izan ziren aztertuz, orduan ereiten hasi zela, Tropelekoen artean, balizko “frustrazio” horren hazia...). Irudi literarioaren eraikuntzaren ikuspuntutik, edonola ere, beren aurreko belaunaldikoak baino hobeto ari dira jokatzeko kartak “Lubakitarrak”, gazteenek pastela jango ote dieten beldurraren zantzu lauso batzuk erakutsi badituzte ere (ikus, adibidez, Igor Estankonaren zutabea gaiari buruz, edo asuntoak eztanda egin baino lehenagoko Jon Benitoren zutabe kuasi-apokaliptikoa), haiekiko paternalismo eta babes-jarrerak izan direlako nagusi, orain arte behintzat: Fernando Morillo eta Julen

Gabiria izan ziren, hain zuzen ere, Irlandarako bidaiari lagundu zietenak 2004ko urruzunotarrei, eta azkeneko horren laudoriozko testuek ondo baino hobeto islatzen dute askoz ere harrera adeitsuagoa egin dietela idazle berriei, Tropelekoek Lubakikoei eskaini zieten baina. Eta, bestalde, urruzunotar hauek (edo Póg Mo Thóin Bandak, nahiago badugu) Lubakitarren belaunaldikoen kontra altxatzeko inolako asmorik dutenik ez dirudienek, agian postulatu daiteke ez dela izango bi belaunaldi hauen arteko eten sakonik, hots, 1970etan jaiotakoei gaztetasun literarioa are gehiago luzatzeko posibilitatea eskainiko diela, agian.

Horrek, gainera, erraztuko lieke euskal literaturaren historialariari Cano, Uribe, Elorriaga eta enparauen belaunaldiari izendapen egoki bat topatzeko edo asmatzeko lana. Zeren eta argi dago “Lubakitarren belaunaldia” izendapenak, abiapuntu bezala onargarria bada ere, nekez biltzen duela 1970eko hamarkadan jaiotakoen aniztasuna (izan ere, oso idazle gutxi “kontsolidatu” da Lubakiko *ubolde* horretatik). Cano eta konpainia eta pasaden urtean Urruzuno saria irabazi zutenen artean belaunaldi-etenik ez dagoela erabakitzen badugu, ordea, zerbitzatuta daukagu “Urruzuno belaunaldia” izendapen nahikoa egoki gisa. Edo, maltzurragoak izan nahi badugu, “Beti-gazte belaunaldia”, martxa honetan ziur bainago berrogeita hamar urte beteta ere gaztetzat jotzen jarraituko dituztela. Eta zein da egungo gizaki kapitalista-postmodernoren eta, beraz, idazle ooren nahia, eternalki gaztetzat hartua izatea baino?

6.- Edonola ere, “dinosaurioak” aurretik, beti forma onean, eta “beti-gazteak” atzetik, kritikaren eta prentsaren adeitasun guztia jasotzen, konklusio honetara hel gaitetzke: Tropelak hobe izan duela ez existitzea. Izan ere, gure artean lan egiten ezagutu izan bagenu, susmoa daukat belaunaldi hori beti krisian egongo litzatekeela,

eta hala gertatzen da, hain zuzen ere, existitzen omen den dimentsio paralelo horretan. Are gehiago esatera ausartuko nintzateke: belaunaldi horren ezaugarri nagusiene-tako bat da *betidanik* egon dela krisian. Hala adierazten dute ez soilik Lubakikoen “lurreratze” garaian tropelari batzuek plazaratutako iritziak, beldurraren eta ironiaren artean kokatuak, baizik eta baita “63ko uzta” horren lehenengo karakterizazioetan ere Xabier Mendiguren Elizegik sumatzen zituen zantzuak edo ezaugarriak:

Trikisiaren beste alderdi bat, orain urtebete de-xente aipatua, idazle berrien ustezko falta dugu. 1985 aldean andana plazaratu zen, adore eta berritu gose handiarekin, eta gaur egun kultur panoraman prota-gonismo handiko belaunaldia dugu 30 urte ingu-rukoa. Hala ere, ez gaitezen iya guriak egin du-ka hasi, barregarri izateaz gainera ez baita egia. Lerrook idaztean agertzeke badago ere, kalean azaltzerako plazan eta dantzan ibiliko da Lubaki banda, hoguei urtetik beherako gazte bipilez osatua. Hamar urteko zulo horretan daudenei belaunaldi galdua deitu zien noizbait Edorta Jimenezek, poemak ez baina Egun-karia-ko berriak idazten ari direlako: aintza gutxi irabaziko dute Parnasora igotzeko, baina mila bider zordun gaituzte euskaldun guztiok, egunerokoaren prosa-estandarretik ihes egiteko hura identifikatu beharra zuten literaturgileak barne.

Aurrekoarekin nolabait lotuta, Tropelaren karakteri-zazioan lagun diezagukeen beste ardatz bat idazleen pro-fesionalizazio-mailak aztertzea eta konparatzea da (beti ere kontuan hartuta “idaztetik bizitzea” ez dela “literatu-ratik bizitzearen” baliokidea eta, beraz, eskuarki “idaz-tetik bizitzearekin” identifikatu ohi dela profesionaltzea; bide batez, profesionalizazioari buruzko ariketa honek ez du aditzera eman nahi profesionalizazioaren inguruko inolako juzkurik, ez positiborik ez negatiborik). Hartzen baditugu belaunaldi bakoitzeko bost “puntako” idazleak,

nahikoa argi dago sandwicharen ogi-xafletan profesionalizazio-maila garatuagoa dirudiela Tropelaren *chopped-xerran* baino: Hasier Etxeberriaren “bost idazleetatik” hiru profesionaltzat har daiteke, eta are lau, Joseba Sarrionandiaren kasu berezia (zalantzekin) sartzen badugu; ranking horren inguruan ibiliko litzateke Joan Mari Irigoien, bestalde. Gazteen artean, izebergaren puntan Harkaitz Cano, Unai Elorriaga, Julen Gabiria, Ixiar Rozas eta Kirmen Uribe jarriz gero, antzeko portzentaia edukiko genuke (eta hortik dabilta, inguruan, Urtzi Urrutikoetxea, Jose Luis Padron, Fernando Morillo edo Jon Benito bezalako jendea). Tropelekoen eskuderia nagusia zein den aukeratzea zailagoa dirudi, eta badakit jende asko ez dela bat etorriko hemen esango dudanarekin, besteak beste unibertso paralelo bateko idazleen ranking-ak egitea izugarri nekeza delako, baina, tira, demagun hauek direla serie-buruak: Rikardo Arregi Diaz de Heredia, Aingeru Epaltza, Pello Lizarralde, Xabier Montoia eta Inazio Mujika... ba haiengan profesionalizazio-maila %0koa litzateke. Jakina, norbaitek esan diezadake zerrenda aldatu ezkerro profesional gehiago ager daitezkeela, eta Tropelekoak direla Aitor Arana, Pako Aristi, Jon Arretxe, Felipe Juaristi, Edorta Jimenez edo Patxi Zubizarreta, baina horko izen pare bat puntako balizko bosteko batean kokatzerik ote dagoen eztabaidagarria izan daitekeen arren, uste dut denok etorriko garelako bat seiak sartzea zailxeagoa dela onartzean, eta, edonola ere, ariketa honek frogatzen duela, zabarki bada ere, “profesional” gutxiago dagoela Tropelekoen puntakoen artean.

Tropelekoek, bere aurreko euskal idazleen belaunaldiak bezala bestalde, fronte gehiagotan egin behar izan dute borroka, eta ez da kasualitatea haien artean maila guztietako irakasleak, itzultzaileak (ez preseski literaturakoak, kasu gehienetan) edota kazetariak horren ugariak izatea. Harkaitz Canok egoki adierazi zuen bezala:

[Gure belaunaldiaren] Joko zelaian moldatze hori gure inguruarekin lotuko nuke, gure tresna eta bitartekoekin. Hizkuntzarekin, adibidez. Kakotxen artean betiere, hizkuntza “normalizatuago” bat jaso dugu. Ikastolako umeak gara gehienak. Hedabideen eraginarekin ere lotuko nuke. Lehen hedabideak ez ziren hainbeste, ezta hain ondo artikulatuak ere. Idazleek beren zutabeak edo tribunak dituzte gaur egun. Gutako hainbatek gidoigile bezala lanerako aukera izan dugu, aukera bereziak izan ditugu, alegia. Ez dut uste gu aurrekoak baino zorrotzago garenik, edo lotsaga-beago, eskura baliabide gehiago izan dugula baizik. (...) Garai batean, idazlearen hautua kazetaritzan edo irakaskuntzan zegoen askotan, ogibidea hautatzeko orduan. Guk aukera gehiago eduki dugu. Beste modu batez jardun dugu hedabideetan eta hedabideek ere arreta gehiago jarri dute gudan.

Arestian aipatutakoa, beraz. Idazle-taldeen konkurrentzia kasik darwindar honetan, beraz, lehen esandakoa: Obaba-osteko eszenatokian hautespen naturalak atzapar, letagin eta gihar eraginkorragoek hornitu ditu lubakietatik irtendako ugaztun (jada ez horren) berriak, geratu ziren dinosauroak, gutxi izanik ere, sendo jarraitzen zuten bitartean elikadura-piramidearen gailurrean. “Tropeleko” narratzi txikiei beren txoko ekologikoetan itxarotea geratzen zaie, garai hobegoen eta Euskadi Sariren baten esperoan. Existitzen diren unibertso paraleloan, esan gabe doa.

7.- Izan ere, unibertso paraleloen kontu on bakarra da noizean behin gauzak filtratzen direla batetik bestera; gurean, une hauetan, Internet da komunikazio-zubi horrietako bat, inoiz edo behin Tropelaren albisteak jasotzen dituen. Eta han aurkitu dut, hain zuzen ere, “Tropelaren manifestu” hau, oraingoz sinatu gabe agertzen dena, baina agian etorkizunean hamarnaka atxikimendu jasoko dituen, nork daki:

“TROPELAREN” MANIFESTUA

1. Tropela delako belaunaldiko partaideak, hots, orobat 1960ko hamarkadan jaiotako euskal idazleak, existitzen gara: Teruel, Soria edo Amoroto bezala, baginen, bagara, eta izango gara.

2. Belaunaldi honetako partaideak triste gaude, arras triste. Ez digute kasurik egiten. Gure liburuak ez ditu inork leitzen. Gure iritziak ez du inon ezer ere balio. Modernoenak ginen hasi ginenean, baina postmodernitatea heldu zen, eta gure modernotasuna hutsaren hurrengo bilakatu zen orduan. Eta ez dugu egoera patetiko honetan jarraitu gura.

3. Neurriak hartzen hasteko unea heldu dela uste dugu. Eta lehenengoa argi baino garbiago dugu: gure belaunaldiko idazleok Espainiako Sari Nazional bat nahi dugu –ahal dela Narratiba sailean. Berdin dio gutako nori ematen dioten: kontua bizkor egin beharra dago, arroza pasatzen ari zaigu eta. Alde horretatik Euskaltzaindiari eta inplikaturako erakunde eta pertsona orori dei egiten diegu haien esku dagoen guztia egin dezaten, eroskeria, xantaia eta erahilketa bezalako bideak baztertu gabe. Egoera zinez larria da.

4. Jon Kortazarrek gure belaunaldikoren baten liburu bat izendatuko du gutxienez, kuota gisa, zorrozki kontrolatzen dituen urteko sari horietakoren batean; ez dugu uste kuota horrena eskandalurako kontua izan daitekeenik, beste kritikari batzuei, lasai asko, egilearen sexuaren edo hautu politikoaren araberako kuotak manciatzen uzten zaien heinean.

5. Edonola ere, Espainiako Sari Nazionalen bat jaso arte, euskarazko Euskadi Literatur Sari guztiak gure belaunaldikoei emango zaizkie, salbuespenik gabe; haur eta gazte literaturako gehienak ere bai, baina hemen intrusismo mailaren bat onartzeko prest gaude.

6. Igartza delako idazle gazteentzako beka dauden bezalaxe, gure adinekoontzat beka espezifikoki batzuen eraketa exijitzen dugu. Zestoa edo Urberuaga Saria dei diezaiekegu (bainuetxeengatik diogu: gure egoera existentziala hobekien jasotzen duen metafora), eta, ahal izanez gero, Elkar argialetxeak deitzea nahiko genuke (haiek baitituzte sos gehienak); Elkarrek

nahi izango ez balu, zer egingo zaio, konformatuko gara beste argitaletxeren baten patrozinioarekin.

7. Euskal argitaletxeek beren argitarapen-planen informazio zehatza eskainiko digute une oro: horrela, gure liburuen argitarapena aurreratu edo atzeratu ahal izango dugu, Atxagaren, Sarrionandiaren eta enparauen liburu berrien kaleratze-dataren arabera.

8. Prentsari errespetu gehiago eskatzen diogu: ez da soilik gu eta gure zirkunstantziei espazio gehiago eskaini behar digutela (hori ere bai, nola ez), baizik eta ez dugula nahi, esaterako, Kirmen Uribe komunera doan aldi bakoitzaren berri jasotzen jarraitzea, are gutxiago komuna Pragan, Los Angelesen edo Kyoton kokatuta badago: iraingarria eta are obszenoa da guretzat. Etika gehiago, kazetari jaun-andreak, etika gehiago, eta, batez ere, taktu gehiago.

9. Kokoteraino gaude gure hitzaldietara lau pertsona etortzeaz (gehienez, eta antolatzailea barne). Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Akitaniako Eskualde Kontseiluaren Gizarte-Ongizaterako sailek entzule kautiboak kontratatzea proposatzen dugu, hitzaldia burutuko den zonaldeko langabetuen artean, eta langabezia-asegurua saria galtzeko mehatxupean. Ea horrela...

10. Halaber, eskualde-administrazioek diru-partida berezi bat bideratuko dute erkidegoen aurrekontuetan gure belaunaldiko idazleen irudiaren eta estetikaren berrikuntzarako. Ez gara, jakina, gure idatziez ari (alde horretatik ez daukagu arazorik: onenak gara), gure itxuraz baizik. Argazkietan nola posatu, kamaren aurrean nola ibili, erabili behar ditugun jantziak... alor horiek guztiak hobetzeko urratsak ematera bideratuta egongo dira aipatu programak.

11. Pako Aristi gure garaikideak leialki aldarrikatuta koaren ildotik, euskal idazleen erretratuak tabernetan zintzilik egongo dira dagokion administrazioaren dekretuz; are gehiago, tabernetan ez ezik goi-sukaldaritzako jatetxeetan, hiri-inguruetak merkataritzagune erraldoietan eta *delicatessen*-denda dotorenetan ipiniko dira. Ikuskari ofizialek gainbegiratu dute, lokaletako suitzalgailuen eta higiene-instalazioen neurri berean, ez soilik argazkiak dauden ala ez, baizik eta ea euskal

idazleen belaunaldien presentzia orekatu bat eskaintzen duten. Balaunaldi-portzentaiok *ad hoc* izendatutako idazle-batzorde batek erabakiko ditu.

12. Euskal Idazleen Elkartearen presidentzia soilik gure belaunaldikoon artean banatuko da, sei hilabetetako txandatan: denok dugu autoantologatzeko eta autopromozionatzeko eskubidea, eta gaizki deritzogu hori urte luzeetan zehar pertsona bakar batek egin ahal izateari, orain arte bezala.

13. Azkenik, behin-behineko konponbide gisa erabiltzea zilegi izan daitekeen arren, Tropela izendapena onartzen ez dugula aldarrikatu nahi dugu: zabarregia da, itsusia; ez du egokiro islatzen gure belaunaldiak produzitutako literaturak (oro har) bere baitan daraman sotilezia eta dotoretasuna, ezta idazleonek (gehienon) kultura-maila sublimea. Jon Alonsok bere erruagatik damu publikoa azaldu ondoren, eta erakunde publikoek, Elkarrek, Euskadiko Aurrezki Kutxen Federazioak, Eroskik edo dena delakoak diru-saria zein izango den iragarri bezain laster, izendapen berria asmatzeko ideia-lehiaketa jarriko da abian, zeinetan, jakina, belaunaldikook soilik parte ahal izango baitugu.

8.- Baina, tira, Tropelaren kontu hau guztia ez da existitzen, balizko dimentsio paralelo batean ez bada; beraz, zertarako arduratu?

Bibliografia-edo

- ALDEKOA, Iñaki, *Historia de la literatura vasca*, Donostia, 2004.
- ALONSO, Jon, Tropela, *Argia*, 2003-V-4.
- ALONSO, Jon, “Txirrindularitzaz eta tauromakiaz”, *Argia*, 2003-X-19.
- ASURMENDI, Mikel, “Mahai-ingurua: Literatur belaunaldien arteko harremanaz Harkaitz Cano, Juan Luis Zabalala eta Iban Zalduekin”, *Argia*, 2004-XI-28.
- BENITO, Jon, “Zuoi, bandakooi”, *Berria*, 2003-XI-9.
- BORGES, Jorge Luis, *Borges oral*, Bartzelona, 1979.
- ESTANKONA, Igor, “Erretiroa emango digute”, *Deia*, 2004-IX-25.
- GABIRIA, Julen, “Urruzuno 2004”, *Lagun batek esan dit lagun batek esan diola* J. Gabiriaren blog pertsonala (www.eibar.org/blogak/gabiria), 2005-II-4.
- GOROSTIZU, Ainara, “63ko uzta oparoa”, *Berria*, 2003-XI-25.
- HERNÁNDEZ, Juan A., “Humanitateez jakin beharreko gutxienekoak ez dira betetzen ari”, Iñaki Aldekoarekin elkarrizketa, *El País*, 2005-I-17.
- HERNANDEZ ABAITUA, Mikel, “Belaunaldiak eta sariak”, *Berria*, 2003-X-22 eta 23.

- JUARISTI, Felipe, “Ikaragarria da Atxagarekin egiten ari direna”, *Berria*, 2004-IX-29.
- JUARISTI, Felipe, “Idazle bakarreko literatura ez da literatura; porrota da”, elkarrizketa, *Deia*, 2004-X-20.
- KANDELAKO ERREDAKZIOA, “Jon Juaristi, Pott-en zerebro izkutua”, elkarrizketa, *Kandela*-10, 1984-V.
- KORTAZAR, Jon, “Promozio berriak”, *El País*, 2003-II-24.
- LINAZASORO, Karlos, “Belaunaldi galdua”, *Diario Vasco*, 2003-09-11.
- LUBAKI BANDA, “Hegaberak lubakietan”, *Susa* 31, 1993-XI.
- LUBAKI BANDA, “Hau muturreko pila!”, *Susa* 32, 1994-VII.
- MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier, “Trikrisia – Euskal Kultura 1993”, *Jakin* 79, 1993ko azaroa-abendua.
- OLASAGARRE, Juanjo, “Belaunaldiak”, *Berria*, 2003-IX-11.
- OLASAGARRE, Juanjo, “Geroa”, *Berria*, 2004-VI-9.
- PÓG MO THÓIN BANDA, “Manifestua”, *Berria*, 2004-IX-24.
- RAMOS, Ana, “El relevo literario ha llegado”, *Deia*, 2004-VI-2.
- UGRESIC, Dubravka, *Gracias por no leer*, Madril, 2004.
- ZALDUA, Iban, *Obabatiko tranbia. Zenbait gogoeta azken aldiko euskal literaturaz (1989-2001)*, Irun, 2002.
- ZALDUA, Iban, “Frustrazioaren literatur belaunaldiaz”, *Berria*, 2003-IX-2 eta 3.
- ZALDUA, Iban, “Literatur belaunaldi gazteaz”, *Berria*, 2003-X-9 eta 10.
- ZALDUA, Iban, “Tropalekoa izateko 9 manera”, *Gara*, 2003-XII-26.
- ZENBAIT EGILE, “Literatura vasca actual”, *Quimera* 234, 2003-IX.

Euskal idazle izatea 1950-1960 urteetako hamarkadan. (Hauskuraren belaunaldia)

Txomin Peillen, UPPA

Garai haietako azken fosila izango naiz. Hala diot *Lur* literatura entziklopediak ezpaitu niretzat lerro bat ere, euskaraz idatzi 23 liburu egin ezpanitu bezala, lau literatura sari eduki ez banitu bezala. Berdin egin dute nafartarrekin liburu hortan batik bat baskongadetako idazleak aipatuz, erakutsiz beren buruetan español probintzi mugak bizirik daudela, salbu eta unibertsitatetan eta Euskaltzaindian nagoelarik edo Labayrukoek hitzegitera deitzen nautelarik. Bestalde ere Karmelo Etxenagusiak Iparraldeko euskal idazleez liburu bat idatzi zuen eta sekulan euskaraz libururik idatzi ez zuen kazetalaria bat gorai patzen zen bertan, baita frantsesez idatzi zuen aparatxik ospetsu bat ; orduko euskaraz hamazazpi titulu neuzkan argitaratuak, agian gutxiegi Karmelo harentzat; orain badakit. Beraz badakit horrekin ez naizela ez Iparraldeko ez Hegoaldeko idazlea. Ez Naizela Euskal Herrikoa. Alta nire bekatuaren aitorpena egin beharra

nuen idazle izatearen eta orduko giroaren azalpena hasi baino lehen. Erran behar dut zapalkuntza garaian español muga hori ukatzen genuela. Niri gertatzen zaidan akatsa, agian, gazteegi hasia, hamazazpi urterekin, gazterik ez hila izatea

Maiz esaten da erbestean egin zela orduko euskal literatura guztia, bai eta ez. 1945etik 1950eraino bai. Erbestean idazle asko Paris, Montevideo, Buenos Aires Caracas edo Mexiko aldean zeuden, baina Francopéan eta 50etik gora Hegoaldean garatzen da euskal liburugintza modernoa, gure arteko giro ezinago beroan eta ingurumen ezinago hotzean.

Laburzki gogoratzen dizuet hamarkada hartan euskaraz osoki argitaratu zirela Donostian *Egan*, *Euzko Gogo* Guatemalan, geroxeago *Yakin* Arantzazun eta *Karmele* Zornotzan, *Jaunaren Deia*, *Ezkila* azkenik ere *Anaitasuna*. Bi argitaletxe nagusi ziren liburu bakan batzuk euskaraz eman zituztenak: *Ekin* Buenos Airesen eta beste *Itxaropena* Zarautzen, ia denak euskaraz eman zituen. Arantzazun eta Baionan erlijio liburuak egiten ziren. Baionan astekari bat zegoen euskaraz, *Herria*.

Orduko idazle gehienak apezak ziren, baina ni nire adiskide zirenekin Jon Mirande eta Mitxelenarekin, Irigarai eta Krutwigekin, Aresti eta Ibinagabeitiarekin, Jon Etxaide eta Jon San Martinekin euskal liburugintza desapezten hasiak ginen.

Elizgizon idazleak

Apezek baino gehiago fraidetegiek eman dizkigute, denbora batean, Hegoaldeko eta Iparraldeko luma on batzuk. Frantziskotarren artean eta olerkari handien artean ezar genezake Bitoriano Gandiaga, baina ez dira hain txarrak Salvatore Mitxelena, Hegoaldean eta Manex-Er-

dozaintzi-Etxart Iparraldean. Bai frantsizkotar batzuen lumapean (Gandiaga Madrilez jardun zen) hala nola Erdozaintzi-Etxart baten obran (Parisez idatzi zuen) baserri nostalgiatik urrunduz hiriaren eta gizartearen arazoak dira gai. Geroxeago geroko hamarkadan, *Jakin* eta Joxe Azurmendi frantziskotarrekin abiatzen da euskaraz politika eta filosofia saiakera, urte beretan bide beretik Joan Mari Lekuona.

Montserrat komentua izan zen Katalunian katalan kulturaren bihotza, Arantzazu Euskal Herrian. Han frantziskotarrak beren aldizkarian teologia eta filosofia idazten hasi ziren, gero gai profanoetara igaro baziren ere. Halere, konkordatuaren guardasola urratu zen eta hiru urtez *Jakin* aldizkaria debekatu. Arte horretan liburugintzara eman ziren.

Iparraldean hamarkadaren azken urteetan Piarres Xarriton, Jean Louis Davant eta Manex Pagolarekin, Erdozaintzi Etxart eta beste Nafarroa Beherean *Gazte* aldizkariaren sortzean kide izan ziren. Aldizkari horretan gero idazle izanen direnak trebatu ziren.

Lazkaoko beneditarrek *Jaunaren deia* aldizkaria egiten zuten, baita egutegi bat ere eta Iparraldean Bellokekoek *Ezkila*. Azken horretan baita *Gure Herrian* Iratze der iparraldeko olerkari hoberenetarikoak idazten zuen

Kaputxinoek gerra zibil aurretik argitaratzen zen *Zeruko Argia* beren hegalpean hartu zuten. Pixkanaka gai gehienak profano izan ziren eta albisteekin batean, hor literatura idazki laburrak eta kritikak argitaratzen ziren. Badakigu geroago *zerua* galdu zuela eta gure *Argia* astero argitaratzen dela.

Karmelitek elizgizonen aldizkari zaharrena eman zuten, *Karmele*, orain arte iraun duena, erlijio gaiak gehienbat erabiliz. *Karmeleren* ondoan *Olerti* bilduma argitaratzen zuten. Aldizkari horretan gerra zibil aurreko eskolako olerki garbizaleak ziren agertzen bereziki.

Zornotzako beren leku bihotzean Santi Onaindiak *Mila euskal olerki eder* liburua eman zuen. Besterik ezean loretegi aberatsa genuen, baina askotan olerkiak hobeturik argitaratu zituen.

Jesuiten artean Jokin Zaitegi *Euzko Gogoa*, lehenbiziko literatura aldizkaria erbestean argitaratzen hasi zen. Hor bizpahiru idazle heterodoxok idatzi zuten, Arestik, Mirandek, eta Peillenek. Bestalde Zaitegik euskara unibertsitatean sartuko zela sinesten zuen eta horretarako gure testuen maila goratu nahi zuen. Berak eta bere eskolak Sofoklesen antzerkiak, Shakespeareanak, Platon, Ovidio eta Virgiliorenak hizkuntza aski garbizale eta zailka batean itzuli zituzten.

Orduko euskal literaturan, apez eta fraideen kopuru handia euskal eskola ezaz ulertzekoa da. Iparraldean Jules Ferry legeak 1880ean euskararen erabilera eskolan debekatu zuen, Hegoaldean aspaldiagotik berdin zen eta euskaraz, gutxienik irakurtzen eta batzuetan idazten katiximan, apezgaitegietan, fraidetegietan ikasten zen.

Horago aipatu kalitatezko idazleez kanpo baziren hizkuntza herrikoi batean baina kontzeptu murriztekin kazetari hizkuntzak erabiltzen zituztenak (gipuzkera, nafar-lapurdiara). Literatura horrek dotrina usain handia zuen. Lafittek humorean, ipuinetan kausitzen zuen; ez zaigu ahaztu behar apez zela lehen-lehenik, nahiz bere burua liberal erakutsiz, elizaren zentsuratzaile eta laikoez ere arduratzen. Honela Miranderen poemen kontrako kanpaina abiatu zuen. Eta Etxepare medikuari abortoaz eta ezkontzatik kanpokoaz ziona kenarazi. Bestalde E. Goihenecheren aurkako difamazioak bota zituen, alegia Gestapokoa izan zela.

Aita Larzabalen merezimendua izan zen antzerki mintzaira zuzen batean idazten zekiala eta batzuetan gehiegi landu gabe, antzerkiak egiten txoriek kanta dagiten bezala.

Bestalde ausartzia izan zuen bere antzerkian abertzale-letasunaren sartzeko eta ETAko antifrankisten alde agertzeko. Halare, herrikoï giroaren eraginaz, bere antzertia batzuetan misoginoa da eta ez da beti katixima girotik ateratzen. Daniel Landartek antza berria eta eduki erre-bendikatibo handiagoarekin berritu zigun Iparraldean antzertia.

Pixkanaka Hegoaldean frankismoaren zapalkuntza arindu zen, eta Elizaren babespean ikastolak garatu zirenean, geroztik gertatu laizizatzea abiatu zen: 1950ean euskarazko liburuen % 95 eliza liburu zen eta 2002an alderantziz. Orduan 1950ean prakadunak nagusitzen hasi baziren gure hamarkadaren azkenean baizik ez zuten erdietsi andereek gure literaturan agertzea beren lekuaren hartzeko.

Literatura herrikoia eta arina zen apezten eta kristau onen gogokoa. Halaxen hiru talentu agertu ziren antzerkian Etxahun Iruri, bertsoaritzan Mattin eta Xalbador. Honela ezkerreko zen P. Oihanburu dantzariak ukatzen zuen literatura kultu baten izatea eta beharra euskaraz. Denbora berean erbesteko itzultzaile eskolak gure idazkiari duintasun zerbait eman zion.

Ez nintzen Iparraldeko idazle horiekin harremanetan sartu, paristarra nintzen eta baserrikeriak ez zitzaizkidan agrada. Mirande bezala ez nintzen eta ez naiz kristaua, beraz Hegoaldekoekin neuzkan harremanak. Hamarkada horretan aldizkarietako agerpenak ziren garrantzitsu eta euskaraz gai eta tonu berriak: Gabriel Aresti, bere olerkietan, hiri bizitza eta gizarte arazoak, Antonio Arrue gastronomiarekin, Krutwig Greziako eta Ekialdeko filosofiekin, Jon Mirande erotismoaren, baztertuen, parapsikologiaren eta fantastikoaren bidetik, Luis Mitxelena zinemarekin, Jon San Martin poesia bidez eta prosaz gizarte gaiekin eta artearekin, Martin Ugalde erbestez.

Nola egin nintzen idazle?

Lehen lana izan nuen euskaldun bilakatzea, zeren gerra ondoren 14 urteekin Parisetik Euskal Herrira oporretarako itzuli nintzenean, ez nintzen euskaraz hitzegiteko gai, nahiz egun guztiz etxean entzunik ulerxetan nuen. Euskal ortografia 1950ean ikasi nuen izeba Anak eman Sallaberryren kantu liburuan. Gramatika gabe hitzegiten ikasi nuen. Alboan kantuek frantsesezko itzulpena zeukaten. Jadanik irakurriak nituen euskaldunei buruzko frantseskeria guztiak hala nola Onésime Reclus delako batek ziola 1855ean euskarak ez zuela hogeigarren mendea ikusiko eta Iparraldeko euskaldunek ez bazuten frantsestu nahi aski zutela Hego-Ameriketara joaitea. Eta gaineratzen zuen «cette langue disparaîtra sans littérature et c'est mourir deux fois que de périr sans chef d'œuvres» Hizkuntza hori desagertuko da eta bi bider hiltzea da obra nagusirik eman gabe akabatzea.

Lehen euskal lanak

1948an batxillerato azken urteetan bretoi lagun batek bretoieratik frantsesera itzuli soldado abesti bat euskaraz jarri nuen; bretoi horien bidez nituen Pariseko euskaldunak ezagutu

Orduan Eusko-Jaurlaritzak Pariseko Avenue Marceau bazuen ordezkari bat. Han biltzen ziren kantari, dantzari eta euskal ikasleak. (Etxe hori Mitterand orduko Barne Ministroak Francori eman behar zion, denbora berean *Euzkadi-Irratia* debekatzen zuelarik). Lehen aldian 1948an Andima Ibiñagabeitia ezagutu nuen. Esan nion euskal nazionalismuarekin interesatua nengoela. Harek erantzun euskara lehenik ikas ezazu eta gero ikusiko duzu *abertzale*tuko zaren ala ez, baina ez bilaka *nacionalista* gaztelaniaz baizik hitzegiten

duten horien modukoa. Ibinagabeitia euskararekin maitemindua zen eta Caracaserara joan zenean, hango Euzko Etxean José Antonio Agirre lehendakaria gaztelaniaz bakarrik mintzatu zenean Andima zutitu, goraki esan “ez dezu itzik esan euskeraz ez zera euskaldunen lehendakaria” eta joan zen.

Ipuin idazten

Idazten nituen ipuinak ordea bestelakoak ziren: izan nuen kezka handiena izan zen haurrentzat eta gazteentzat ez zela ipuinik idazten eta hortara eman nintzen. Nire lehen bi ipuinak zubereraz haurrentzat eginak ziren, gero ere asko idatzi nuen haur eta gazteentzat, nire hamar bat narrazio argitaratu ziren hamarkada hartan aldizkarietan ezker eta eskuin; hauekin eta argitara ga-beekin *Hor Dago* argitaletxeak hogeitau bost urteren buruan, 1982an *Hiru haur eta gazte ipuin liburu* argitaratu zizkidan baina Donostian haur literaturaz topaketa egin zenean, ez ninduten abisatu. Ez eta gai hortaz egin liburuak inoiz aipatu.

Helduentzako narrazioak garai hartakoak nituen hala nola 1960ean idatzia Aldjeriako gerraz eta hangotarren kulturaz zatika aldizkarietan erdi emana *Aldjezairia askatuta*. Beste ipuin liburu batean *Altxorra eta Altximia* bilduman orduko misteriozko narrazioak, batzuk *Eganen* argitartuak, bildu nituen. Denak 1982an hogeitau urteren buruan argitaratu ziren Parisen zeuden Hegoaldeko eta Iparraldeko ikasleek nire aldeko protesta bat izenpetu ondoren.

Gu, erbestean bizi eta gure eleberri eta ipuinen gaiak ez ziren baserri mundukoak edo Euskal Herrikoak. Horrek ez du erran nahi bi iturri horietarik ez genuela edaten. Izan gintezen Mirande edo Peillen gure euskaltzaletasunaren berotzeko ez genuen batere harremanik

Iparraldeko orduko literario folkloriko erromantiko kristauekin, indarra berreskuratzeko biek gure oporrak honela banatzen genituen: zati bat gure euskal askazietan, baserrietan, Zuberoako benetako euskaldun artean (eta ez frantsesez hitzegiten zuten Iparraldeko euskaltzale horien artean) gero hizkuntza bainua hartu ondoren, kultura garra Donostian edo Bilbon berriz pizten genuen.

Mirande

1949 urtearen azkenean Andima Ibinagabeitiak anaiari eta bioi, Jon Mirande zuberotar jatorrizko idazle berria ezagutarazi zigun. Haren bizpahiru euskal klase jarraitu nituen; ba omen nekien aski, bakarrik hobetzeko eta Andimak gipuzkeraren ikasteko Bera –Mendizabalen metodoa– eman zidan. Orduan zubereraz hiru ipuin idatzi nituen 1950an Guatemalan lehen euskara hutsezko aldizkarian *Euzko-Gogoan* VI. alean agertu zirenak. Zuberera utzi eta gipuzkera osotua ikasi nuen –Mirandek berak bere obra zahar gehienak hizkera horretan idatzi zituen– eta hizkera hortan bi poema argitaratu zizkidaten *Gernika* Buenos Airesen Isidoro Fagoagak egiten zuen aldizkarian. Bata *Txinar gudari*, Txinako Txen Huo Txang heroi ospetsuaren heriotza kontatzen zuena, Arestik erabiliko duena *Nire aitaren etxea* olerkiaren idazteko.

Laister hilabetero Ibiñagabeitia, Mirande, nire anaia eta lauak bildu ginen arratsaldeetan bataren edo bestearen etxean tertulian. Kafe eta kopa artean elkarri erakusten genizkion, kritikatzin eta zuzentzen gure idazkiak. Garai haietan Mirandek 50etik 53ra irakurri zizkigun gero *Euzko-Gogoan* eta *Gernikan* argitaratu ziren poema guztiak, Gipuzkera osotuan egin zituen gerora baturanzko euskara batean argitaratuko zirenak. Euskaldunen eta Francoren zentsura gatik hogeitaz luza zuten Miranderen olerkien argitalpen hori eta argitaratu

zenean *Orhoituz* bilduma, bere buruaz beste eginik, hila zen.

Mirande ni baino apur bat lehentxeago euskaraz idazten hasi zen eta bere lehenbiziko olerkian bere bi gai nagusi agertu ziren: kristautasunaren aurka izatea eta Heriotz egunaren hautatzea. Honela zion barne errimaz betetako olerkian.

Soneto

*Aspertuaz urturik, txo! neure biotza
bizi ontako neke ta negarrak aztu.
Eriotz samurrak danak eramango ditu:
oetzat izango det biar buztin otza.*

*Gizonok zuen artean nebillen arrotza:
maitatu nituenak ez naute maitatu,
adiskide onenak egon dira mutu
alperretan diet egin zeruei otoitza,*

*Ez abesti latiñik, ur deunik ez, apaiz!
Ez garbairik anaiak, naizenean ilko:
anaiaren garbaia gezurra baita maiz.*

*Lurraren magalean sartu aizeneko
poztu neure gorputza! Bertan egongo naiz
naiz udara, naiz negu, bakean betiko*
(1948ko Martxoaren 9ko Lousteau-Daudineri gutun batean idatzia).

Jon Miranderen olerkia eta prosa euskal letretan gaien aldetikako lehen hauskura, lehen etenaldia izan zen. Arestik berak gure literaturaren moldeak hautsiko dituenak behin esan zidan moduan «ez banu Miranderen lanik irakurri apika ez nuen sekulan euskaraz idatziko» Ongi ulertu zuten Jokin Zaitegi jesuitak, Luis Mitxelena eta Andima Ibiñagabeitiak Mirandek –politika ideiak bazter utzita– zer zekarkion euskal literaturari.

Bai halaxen zebilen hamarkadaren azkenean Jon Mirande bere *Aur Besoetako* gipuzkera osotuan 1959an idatzi zuenean. Ezin publikatuz Francopean Venezuelara igorri; berdin Caracasen Miangolarrak argitaratu nahi izan zuenean protestak izan ziren eta eleberriak Gabriel Aresti haren adiskideak argitaratu arte hamazazpi urte itxaron zuen. Orain badaude gazte batzuk bi urteren buruan eleberria argitaratua ikusten ez badute haserretzen direnak.

Nire *Gauaz ibiltzen dana* 53an idatzia, handik hamahiru urteren buruan 66an liburu gisa ikusi nuen. Lagunentzat idazten genuen eta itxaropentxo bat geneukan egun batez, denbora hobegotan, argitaratuko zirela gure lanak.

Mirande itzultzaile eta panfletari

Haserre garai haietan denetarik egin behar zen eta Mirande ez zen mugatu olerki egitera bertso bakunak, abertzale himno batzuk ere idatzi zituen hala nola *Jeiki Jeiki*, *Lenago bizi zan Euskadi askatasunean*, *Ortziren zaldunen gudu kanta* batzuk aranista kutsuz. Egin zuen testu pollitena *Uztailaren hamalauko* panfletoa frantses festa nazionalaz izan zen, Forel mauletarra gidari eta bi Peillen anai abertzaleok automobileraz ibiliz Zuberoan 300 aleetan banatu genuen. Hementxe daukazue original bat plastikoaren pean.

Ingelertatik eta frantsesetik ere kantuak itzuli zituen, euskarak kantu berrien modernotasunean sartu behar zuelako. Préverten *Les feuilles Mortes*, eta Sartren *Dans la rue des Blancs Manteaux*, Stan Jonesen *Unai zar bat* eta beste batzu 1950 urte haietan idatzi zituen; ez zuen nahi izan bere poemen artean argitara zitezen.

Berea da ingeles musika batekin egin zuen *Ene Maite Kattalin*. Miranderen ipuin eta poemek bizirik diraute kantarien eta Rock talde batzuen ahoetan.

Nazionalistak eta euskara

Egia esan euskal idazle izaten jarraitu dugu Ibiñaga-beitia paregabeak eta Zaitegik bultzaturik; zoritxarrez Andima Venezuelara joan zen 53an baina handik ere akulatu gintuen, beste hamalau urtez, nahiz berak etsipen aldi handiak eduki, hala nola idatzi zidan gaur ere irakasbide behar genukeena. Bere gutuna 1957. ko bagilaren 25ekoa da:

(...)«Txomin, egia esan aspaldi ontan antzu nabilkizu euskal alorrean; ez dut ia ezertxo ere ondu. eta lotsagarria da au benetan, ni bezalako euskaltzale bantentzat, besteak euskal idazketara zirikatzen ibili naizen onentzat. Eta zeri dagokio ene antzualdi au? Ondo dakizunez, Txomin, idazleak ere akullua bear du eta emen ez daukagu iñolako akullurik idazleok. Ez dut lurralde au bañon elkorragorrik ikusi idazlanerako, euskarazkorako batez ere. Emengo eusko ospatuak ez dira begiko zakarraz baiño geiago arduratzen, gure izkeraz.

«Bost axola emengori euskaragatik. Eta orrexek ematen dit, neri beintzat, miñik aundiena. Eta abertzaleak omen dira.. Zer nolako abertzaletasuna da ori geure geurea dan izkerari kasurik ere egiten ez diona? Gaiñez eginda nauka zorioneko abertzaletasun ergel orrek, gure izate guztia erdel uiolean ondatzen ari zai-gun nazionalismu zitel orrek. Ez dut nai ario ortako abertzaletasunik.

«Lotsaz gorrituko ziñake, Txomin, emengo eusko-etxeara igande batez urbilduko baziñake. Ientez beterik, maitxo guziak iokolariz, edalez eta esalez gaiñezka.; eta danak erdaraz, gazteleraz barra-barra.

Ezta Gaztela etxea balitz ere. Eta orrek niri, naska ematen dit, izugarrizko naska eman ere. Eta orretxegatik ez naiz urbidu ere egiten etxe artara ezinbertzean baizik. Badira ia iru illabete etxe artako solairurik, ene oiñez hikutu ez dudala. Naiago dut bakarrean nire etxe barnean ari, ez ango abertzale ergelen artean erdaraz jardun. Zarrak eta gazteak, danak berdinak. Emen sortutako gaztedia ta bei-gorotza berdiñ-berdiñak. Okerrago oraindik gorotzak balio du zerbaitetarako, ongarriztat baño ezpadare, eta ez da gutxi. Emengo gaztediak aldiz, ezertarako ere ez du balio zimaurretarako ere ez. Eta au benetan da deitoragarria. esan bearrik ez, giltzetatik ateratako ezur bat bezalaxe nagoela emen, beti nire zuloan noiz sartuko naizen zai. Nun da gure Europa ederra? Ez dago lurralde ori bezalakorik mundu zabalean. Alper dukete esan Ameriketak, Ameriketak! Naiago dut mila bider gure Europa zaharra bere aje ta eritasun guziekin. Bada oraindik mundu ontan dirua baño garaia-go dan zerbait, ispiritua alegia... Eta emen gaindi ez duzu orko ispiriturik arkituko, eta dirua ere nekez...

«Ala ere etsituta zakust Txomin, orko abertza-leekin. Eta etsitzekoa da izan ere. Euskaraz baño ezin ulertuzko frantses parregarri batean beren konperentziak eman naiago dituzten ergel oriekin. Noiz ikasiko ote dugu geure jabetasuna bear bezala guzien aitzinean erakusten, itsuskeria ta berokerietan ibiltzeke?

«Polita iokoa egin diezuna Txomin, zeure euskal itzaldi orrekin. Ar itzazu ene zorionik kartsuenak eta iarraik aurrerantzean ere bide ortatik.. Ikus dezatela gure izkera ere zerbaiterako badala, eta oitu ditezela euskara entzutera».

Andima Ibiñagabeitiak aipatzen duen gertaera hori izan zen *Eskualzaleen Biltzarrako* hitzaldiak bost urteez frantses hutsean izan zirela eta nik izenburua euskaraz ipiñi eta hiltzaldia euskaraz 1956an eman nuela. Begiru-

nez galdetu nien entzuleei nork ez zuen euskara ulertzen. Denak ixil. Gure jokabide horrek –euskaldunei euskaraz hitzegiteak– Zaitegi, Ibiñagabeitia, Miranderena, fanatiko etiketa ekarri zigun. Euskararen normaltasun hori ez da oraindik Iparraldeko euskal erakasle zaharren gustuko beren artean beti frantsesez ari direlako.

Ez aipa abertzaleak. Oraindikan gaizkiago dabilta. Eta antzina bezala publikoan hitzaldi bat edo beste itxura emateko egiten eta beren artean beti frantsesez politikaz hitzegiten, frantsesez irakurtzen, baita konturatu gabe Pariseko prentsa «zuzenak» banatu ideia «progresistekin» baizik ezin pentsatuz. Bai hizkuntza ez da neutroa.

Francopean euskaldunei euskaraz, eta beren obrak euskaraz ematen etenik gabe jarraitu dutenen artean gai hortaz asko idatzi duena *Txillardeg*i izan da. Kontatu zigun nola Orixe zaharra bisitatzera joan eta bi orduz euskaraz hitzegin zion eta euskal idazle ospetsuak bi orduz gaztelaniaz erantzun.

Egia da Pariseko literatura eskolatxo hortan eta gure garaiko tertulietan ez genuela Txillardegi ikusi, geroago etorri baitzen. Behin saiatu nintzen haren ikusten eta Saint Placide ostatuan ordu bi itxaron ondoren, ez zen hitzordura azaldu. Badakit Txillardegik bisitatu zuela eta probokazioz neronek sekulan entzun ez nituen nazi kantutak entzunarazi.

Halere, niretzat behintzat, Txillardegiren jokabidea, idazle bezala, gustatu zitzaidan eta haren saiakerak baliagarri izan nire desertuko idazle arazo batzuen konpontzeko. Gainera Pariseko *Elgar* aldizkarian bere lehen bi eleberriak aipatu nituen.

Aldizkarien gorabeherak

*Euzko Gogo*a Biarritzera 1956an aldatu zenean Zaitetik sekulako arazoak izan zituen Iparraldean eta nahi zuenaren argitaratzeko askatasuna galdu zuen: hain zuen orduko Miranderen olerkiak eta nire artikuluak ezin zituen publikatu eta aldizkaria gehienbat Salaberri apezaren antzerki arkeoruralista edo antzeko literaturarekin, heraldika saiok bete zuten, ito arte.

Eta hamarkadaren bigarren zatian *Egan* hegaz ongi ibili zenean Mirandek eta biok olerki egitea apur bat bazterturik ipuin idazten hasi ginen gure eleberriak lotan utziz. Miranderen ipuinak fantastiko edo polizia kutsukoak ziren; gainera olerki gutiago egiten zuen, jadanik gipuzkeraz gehienak idatzi zituen, Mirandek zion bezala «*ispiritu irekiko irakurleen zai*».

Ibinagabeitia joan eta akulatzaileak Hegoaldean genituen Irigarai eta Mitxelena, Etxaide eta San Martin. Neronek orduan lan gehienak *Eganen* eman nituen. Iparraldean gehiena frantsesez zen *Gure Herrian* behin idatzi nuen euskaraz. Erdaldunek ordaindu aldizkari erdalzale horretan Iratzeder poetaren obra irakurri nuen, orduko desertu eta iparraldetarren lelokerien eta katiximen artean irakurgarria.

Hizkuntza

Zer euskara erabili genuen. Mirandek eta biok gutienik lau: zuberera gutxitan, gipuzkera osatua, laphurtar klasikoa eta euskara batu itxura zeukan zerbait. Bere hasieran nahikoa garbizalea zen Mirande, Ibinagabeitia ere bai, ni ez, halan ere ez nintzen euskañolez idazten hasi, noiz behinka gaztelania hutsean baizik. Ez nituen hortan segitu eta batik bat aranismo gehienak baztertu nituen. Mitxelena eskolakoa nintzen euskararen barruko ontasanak erabili behar zirela, asmatu gabe, baina nire gipuzkera oso-

tua beti lapurteraz nahasi nuen eta grafian uste dut lehena izan nintzela koiné hortan «h» batzuk erabili nituena.

Argitaratzea

Gaien aldetik ipuinzalea nintzen, halabeharrez ez jakin eleberriak non eta nola argitara. Behin Juan Cruz Igerabidek aurpegiratu zidan ez nintzela ipuin idazle. Nire kontuak egin ditut: orain arte 85 idatzi eta argitaratu ditut, haietatik hogeitahamar gure hamarkada ospetsukoak dira. Bere liburu ezagunean Seve Callejak mundua duela hogeitaz hamar urte hasi balitz bezala, ez zekien oraindik haur ipuinak idatzi nituela, Denbora hartan idatzi nituen *Gauaz ibiltzen dana*, *Itzal Gorria* eleberriak eta *Aldjezairia askatuta* ipuinak luzaro lotan egon behar zutenak.

Congreso Mundiala

Lehenbiziko *Congreso Mundial Vasco* 1956an Parisen egin zenean Mirande eta biok gonbidatu gintuzten. Mirande ez zen joan esanaz ezkerreko ala eskuineko izan espaiolak gure etsaiak zirela eta haien buruen ez ikusteko ez zela joango. Joan nintzen. Hitzegin nuen. Goizean Andoni Urrestarazu Umandi ospetsuak, gaztelaniaz, bi orduz hitzeginaz euskal kultura zer beharko zen izan hitzegin zuen.

Arratsaldean ni nintzen lehen hizlari. Hamar minutuz hitzegin nuen. Hitzalditxo hura galdu nuen, baina ez dakit nondik Pako Sudupe euskaltzaleak haren laburpen gisako bat aurkitu dit. Eta zer nion. Bat, Parisen ez zegoela Francorik eta ez nuela ulertzen zelan abertzaleek ez zuten ikastolarik sortu (txaloak eduki nituen, salaren

hondotik, nonbait hor zegoen Elbira Zipitria donostiar andereñoa).

Denbora berean erran nien eusko abertzale prentsan euskarak leku gehiago behar zukeela. Gero esan nien euskal zinegile Gotzon Elorza lagundu behar zela irudietan ere euskarak sartu behar zuelako.

Bukatzean Jokin Zaitegi ezagutu nuen baita Beñat Posompes euskaltzale, antifrankista eta Sorbonako Zoologia katedratikoa ere. Eztabaida izan genuen Jakintzaren hiztegiari buruz, ezen Zaitegik uste zuen, euskara unibertsitate eta jakintza munduan sartu behar zela, dena euskal iturritik sortu behar zela eta guk erdizka ibili behar genuela. Orduan ezagutu nituen Karmele Errotaxe, Bittor Kapanaga eta andana bat lagun.

Urte hartan, 1956an, idatzi nuen *Itzaropena* olerki etsitua, Mirandek bere gutunetan aipatzen duena eta *Maiatzek* nire *Mende Joanaz* olerki bilduman argitaratu duena.

Filosofia eta saiakera

Miranderi jakintza hiztegiari buruzko kezka hori azaldu nion, eta erantzun zidan filosofia idazteko ez bazuen euskaraz gaitasunik idorotzen, gure hizkuntzan idazteak ez zukeela balio. Orduan saiakera idazten hasi zen bat *Parapsikologiaz*, bestea *Keltiar hizkuntzei buruz* orduan *Eganen* eta *Euzko Gogoan* argitaratu zirenak

Nietchezalea zen Mirande eta aleman filosofo hura orduko Lafitte, Mokoroa eta beste apezentzat deabrua zen. Mirandek filosofia saiakera bat idatzi zuen «Gizagaindikoa Nietschen obran». Laburpen bat igorri zion Andimari Caracaserari, Patri Urkizuk Estibalizko artxi-boan aurkitu duena. Baina irakurri nuen 120 bat orri-

aldetako saiakera ederra, itzuli nion. Esan zidan ezin argitaratuz desegin zuela.

Halere apur baten Mirandek jarraitu zuen idazten, baina 1961an uzteko gogoia zuelarik *Igela* sortu nuen zentsurari ihes egiteko hartan idaz zezan. Eskandalu hutsa izan zen, 35 arpededun eta euli gabez Igela hil. Geroztik, ipurtxuri zaharrentzat anfibio berde horren errua bizkarretik daramat. Pentsa jeltzaleen eta euskaldun zintzoen karikatura egiten ibili ginen, erotikazko gai batzuk eta satirak argitaratu!

Vasconia eta Krutwig

Garai haietan zen Frederik Krutwig bigarren hamar-kadan Parisen agertu eta euskarazko lan bakan batzuen artean *Vasconia* idatzi. Gure tertulietan sartu zen baita lagun egin Raude bretoi abertzalearekin ere, zeinek bretoi abertzaletasuna ikertu zuen. Rauderen arrebarekin adiskide min egin zen eta orduan sortu zitzaion *Vasconiaren* ideia. Rauderen idazkiak eta Miranderen ideiak gaztelaniaz ipini zituen hala nola Jon Mirandek *Gernika* aldizkarian aspaldian, idatzitako hiru artikulu kritikoak erabil ; gero niri eskatu zizkidan nire kongresu oharrak eta *Congreso Mundial Vascotik* bildu nituen dokumentu guztiak: ez zizkidan itzuli ; gero tartean Hervé Glemarec bretoiak Europako guttiengoei buruz egin mapa eta liburuxka (*L'Europe des Ethnies*, Parisen 1955) gaztelaniaz jarri zuen, berak marxismoaren saltsa sartu. Mirandek inprimategia aurkitu. Gero Krutwigek esker onez, nahiz Miranderen beste buruan zen politikaz, eta Euskaltzaindiko giro kontserbadorea aldatzeko gogoz, Jon Mirande urgazle zena euskaltzain oso izendatzea eskaini zuen: Iparraldeko ipurtxuri guztiak politika arrazoien gatik kontra agertu ziren.

Krutwig garai batean Baionan egon zen. Villasanteren Euskaltzaindian sartzean esan zituenak kontutuan harturik, esan zioten hobe zuela joanik; baina Baionan ere, gure etsairik handienak guretarrak direlako, politika nahaszale bezala salatu zuen euskaldun kanoniko batek poliziari eta Euskal Herritik urrundu behar izan zuen Belgikara. *Vasconia* liburuarekin. ETArek sortzailea bezala dela diote, berak niri Euskaltzaindian esana lekukoen artean, «Ni ETArek aita pontekoa nintzen eraz utzi nuen baina Txillardegia odolezko semea du, ezin du arnegatu». Egia da Krutwig aitaren sosarekin lasai bizi zitekeela orduko Bilbon baina buruan zerbait zeukan. Nahiz bide bitxiak hartu, hala nola 1980etik goiti idatzi eleberrietan, hiperhelenismoa eta hiper lapurtarismoa, hasierako olerkietan Ekialdeko filosofietan zebilerarik. Azken batean kristautasunaz purgatzeko moduak ziren. Krutwigek Mirandek eta Arestirekin euskaldunak ederki astindu zituen. Hamar urte lehengo Gernikan Mirandek idatzi *Euskaldungoaren, etsaiak*, EAJren orduko politika kritikatu, *Abertzaletasunaren inguruan*, eta borrokarako deia zen *Euskal gudu zalduntza baten beharkia*

Beharbada Krutwigen ekarpen handiena izan zen, lehenik Euskaltzaindiaren lan tresna zen gaztelaniaren orde euskara idatzian ere sartzea; hori bere buruaren kontra zeren bera errazago eta nahiago zen gaztelaniaz mintzatu; halaber uste dut Mirandek *Gernika* aldizkarian eskaini eta ETAk obratu euskarazko Kultura Frentearen oinarriak *Vasconian* daudela ongi aztertuak.

Krutwigen euskal munduari ekarpen nagusia marxismoaren ideiak sartzea izan zen, nahiz duela hamar urte esan zidan ideologia horrek ez zuela ezertarako balio. Bestalde *Seminario Julio de Urquijoren* sorreran egon zen

Mirandek, proletario seme gisa, sekulan izan ez zuen herri xehearenganako burges mespreztua zeukan Krutwigek. Miranderen gandik hartu zituen ideia nagusiak

elitismoarena eta arrazismoa izan ziren, bere azken urteetan Krutwigek idatziz azalduko dituenak. Frederikek beltzei pentsatzeko gaitasuna ere ukatzen zien. Hau kontatu baino lehen kritikiko zorrotzek hala nola Beltzak ezagutu zuten Miranderen eragin hori, baina beste eraginak ikusi ditut.

Ereduak?

Zer ziren gure irakurgaiak? Mirandek asko irakurri zuen, eta ezagutzen zituen hamabi hizkuntzetatik, bartzuetan itzulpentxoak egin. Aleman eta Ipar amerikar prosa eta filosofia, baita ingeles metrika zituen eredu. Españoletan Lorca, Machado eta Huidobro. Neronek Hego Amerikako prosa nahiago nuen, gaztelaniazko lizentzia egin nuen eta gero ingelesezko umoristak eredu hartu. Euskal literatura gauza serioa da eta sekulan aurkez baze-neza umorezko eleberri bat, niri gertatua agituko litza-izuke, eleberria ez zelako aski serio sari baten ez ematea. Ez naiz horregatik urduritu, jaso nituen beste lau eleberri sari-ak nahikoak ditut. Idatzi nituen bi eleberri umoristikoak ez ditut arnegatuko eta ez naiz horregatik ipuin umoris- tikoek bidetik ateratu. Badaukat ipuin bilduma argitaratua –*Ale Berdeak*– erotomaniaz eta erotofobiaz egina.

Egia da, prakadun lagunak ez bagenu izan, erlijiozko idazkiak nagusi zirela eta niretzat zenbat nahi euskara ona izan Salvatore Mitxelenaren eta Orixeren ideiak beste mundukoak zitzaizkidan eta jarraitzen dute izaten. Gure hasieretan euskal eleberri eredurik zer geneukan? 1948an Buenos-Airesen publikatu Eizagirrenen *Ekaitzpean*, apur bat kostumbristotik eta manikeis- motik urruntzen zena baina gerra aurreko sasi erroman- tizismoaren azken frutua, Gustatua go zitzazkidan Ira- zustaren bi eleberriak *Joanixio* 1946 ekoa eta *Bizia garra- tza da* 1950 ekoa ; gero hutsune bat izan zen.

Telesforo Monzonen liburuak oso berandu arte ez nituen ezagutu. *Urrundik* 1965ean erosi eta irakurri nuen: bazuen hogeitau urte argitaratua zela. Ez zuen gure artean, Parisen, eraginik izan. Halere ezin onartu dezaket kritiko gazte batzuentzat euskal literatura duela hogeitau urte hasi balitz bezala idaztea, Atxaga izan dela lehena politika euskal narratiban sartu duena, nire aurretik eta nik gerra zibilaz *Itzal Gorria* argitaratu baino lehen, Martin Ugaldek, Telesforo Montzonek eta Toribio Etxebarriak gai horietaz idatzi zutelarik.

Esan dezaket, orduan, sekulako eta betirako adiskidantzak genituela politika ideien gainetik. Mirande borroka armatuaren, indarkeriaren alde, eta nazismoaren alde zen, Etxaide eta Ibiñagabeitia, abertzale eta demokristau, Aresti ezkertar eta euskaltzale amorratua, Mixelena errepublikatar, erresistentziako abertzale agnostikoa, Jon San Martin euskaltzale eta sozialista ni aldiz ateo eta indarkeriaren kontrako gandizale abertzalea. Euskarak eta elkarren arteko errespetuak lotu gintuzten. Hamarkada hartako oker bat gora behera, barneko giro goxoa eta kanpoko giro latza ez zaizkit ahaztuko.

Gaur ere euskarazko euskal kultura batetan sinesten dut. Euskal idazleen elkartean, Hegoaldean giro ona aurkitzen dudalako, euskaltzale gazteak euskaraz idazten eta mintzatzen ari direlako, idazten jarraitzen dut.

Hamarkadaren azkenean Gabriel Aresti

Gabriel Aresti, San Martinen bidez, 56an ezagutu nuen eta harekin gutun idazten hasi. Behin, 1959an Aldjeriako gerran Kurutze Gorriarekin nembilela, igorri nizkion gaztelaniaz idatzi lau olerki eta erantzun zidan berebiziko gutun luzeenak gaztelaniaz idatziz. Zati handiak euskaraz itzuliko dizkizuet eta honela dio

«Bilbao 3 de febrero de 1959, 4 y media de la tarde

Mi bigotudo amigo.

(...) Seguramente será la carta más larga que he escrito en mi vida, porque tengo que estar trabajando hasta la 7. Y lo más macanudo es que como no tengo qué decir cosas interesantes, voy a escribir cada sin-sorgada que se va a hundir el universo»

Eta euskaraz jartzen dut nola jarraitzen duen:

«Hemen nadukate ofizinan España grande baten eraikitzen, zeren españolek Inperio borondatea daukagu. Ekoitzi behar da, gure egunaren laurdena, hamar ordu, gorri-separatistek suntsitu nazioaren eraikitzen.»

Aresti eta eleberrigintza

Bere gutunean dio dakiela lau eleberri aurkeztu direla Euskaltzaindiko sarian Erkiagaren *Baraibar zalduna*, Txillardegiren *Peru Leartzako*, Etxepare gaztearen *Ithurraldea* laugarren idazle bat aipatzen du (señor que vive en Burriana provincia de Castellon de la Plana, antiguo reino de Valencia, hoy del Cid). Dio saria emango zaiola txarregi ez denari (Txillardegik eduki zuen).

Aresti eta Euskarazaintza

Arantzazuko erabakiei bihurtzeko Larreako komentuan egin zena honela iruzkintzen du:

«Larreako karmeliten komentuan Zornotzan joan den urrian 1958an euskal estudioen kongresu fantasma bat egin zuten hortikan atera den erabaki bakarra izan da Euskaltzaindiarekin hautsi egitea. Buruan erregadera batek baino txulo gehiago dauka belarri luzeko eta parre zabaleko frai Onaindia Fray Sonrisas.

Uste dut Durangesadoaren ekonomia independentzia aldarrikatuko dutela)..

Santi Onaindiak halere garai hartan argitaratu zuen *Mila eusko olerki*, guretzat baliosa izan zena, nahiz «hobetu» zuen baita bizi zegoeno ere *Olerki*, bildumaz arduratu zen.

Aresti eta Mitxelenaren hiztegia

Bestalde, Mitxelenak material guztiak bildurik hiztegiaren idazten hasi dela dio. Euskaltzaindiaren jabetasuna izango dela eta Azkuerena ahaztuaraziko duela.

Aresti eta aldizkariak. Hona zer idatzi zidan

«*Euzko-Gogoaz* ez daukagu gehiago berririk. Garai heroikoetan Guatemalan agertzen zenean ederki jasotzen genuen, baina Zaitegi argiegi horrek Europara ekarri nahi izan zuen eta atzeko patekin dena suntsitu zioten eta ez da kristorik E.G.a salbatuko duenik»

Bai gorago esan dizuden bezala, euskaldunen zentsurak antzutu zuen Baionan aldizkaria, E.G.ak askatasuna galdu zuen, Aresti, Mirande eta hirurok baztertuak izan ginen. Ondotik kontatzen du nola Mitxelenaren ardurapean Donostiako *Egan* geroago eta hobeago bilakatzen den eta Arantzazuko *Jakinek* astakeria bat egin duela frankisten sindikato bertikala kritikatu, horko fraileak teologia, estampita eta medallitak baino gehiago demokrazia arduratzen direlako eta bukatzen du esanaz: «Para los curas y frailes vascos el Señor deberá formar un paraíso especial más supino que le limbo de los justos»

Aresti eta Blas de Otero

Dio pertsonalki Otero ezagutzen duela, haren anaia-
ren adiskide bat dela eta gaztelaniaz Salinas joan ezker
hizkuntza horretako poeta handiena dela eta beretzat
eredu. Garaiko kulturaren egoeraz hitzegiteko Blas de
Oteroren *Ancia* liburua dela eta honela dio:

«Bilbon 25 ale saldu dira, Otero bilbotarra dela-
ko. Bibliotekak hamar, adiskideek beste hamar, nik
bat, beraz gelditzen dira lau eta 400.000 biztanle
dituen hirian, 100.000tatik batek literaturaren axola
dauka. Alderantziz Igandean Barcelona eta Atlético-
ren arteko futbol ligako partiduan San Mames beterik
izan da. Hamabi pezta balio zuena 125 saldu eta tri-
buna 110 etik 1.000 peztaraino

Motel aintza aintza da! San Mamesek 50.000 jen-
de eduki dezake eta igandean ahal izan bazuten
200.000 sartuko ziren honela bi bilbotaretatik bat
futbolzale da (elbarrituak, niniak eta agure atsoak
konda). Zer bizitza miresgarria!»

Gero jarraitzen du eredu izanen duen Oteroren obra
aipatu eta gorai patuz. Ondotik, euskal mundura itzuliz,
euskal ihardunaldietan Barrutiaren *Gabonetako ikuskizu-
na* gorai patu zuen Joycerekin erkatuz. Gero Manu Ziar-
soloren tranpa salatzen du, nola gizon horrek Barrutiaren
obrari bertso batzuk kenduz besteak «hobetuz» berea
bezala aurkezturik, Julio de Urquijo saria irabazi zuen
Eta faltsua salaturik Arestik lortu zuela «Txinpartak»
taldeak antzerkia eman ez zezan. Jardunaldi berdinetan
goresten du nola Aita Zavalak bertsolaritzaz hitzegin
zuen esanaz «enormemente sensato, tan sensato que no
parece jesuita, ni siquiera cura».

Hurrengo orrialdean dio *Anaitasunaren* argitara-
tzearekin egin duten kolpea baino ederragoa egingo du-
tela euskara Radio Bilbaon sartuz.

Euskarari buruzko aldarrikapen baten egitera saiatu
direla, baina taldea txikiago eta ezin konpondua handia-

go: Etxaide, Irigoyen, Mitxelena, Txillardegi eta Arestiren artean ez dutela lortu batasunaren egitea. Beste gauza asko kontatzen ditu, baina giroaren ezagutzeko nahikoa xehe-xehea txiki-txikia idatzia den gutun horretan. Honekin Arestiren kartarekin bukatzen dut.

Arestiren obra

Hortaz asko idatzi delako nire iritzi orokorra eman-go dizuet. Bere liburugintzan bi aro daude, lehen hamarkadako idazkiak gure eskola berrikoak, gure garaiko pentsamendu laikoaren olerki nagusia *Maldan Behera* delarik; urrengo hamar urteetan 1964an *Harri eta Herri* olerkiarekin eta beste harriekin, *Euskal Harria*, *Harrizko herri hau*, *Azken harria* elizgizon batzuen gisa, hala nola Azurmendi, Erdozaintzi Etxart eta Gandiagak bezala, norabide berria hartzen du: gizartezale poesiarena. Hizkuntza herrikoi diglosikoan idatzi zuen. Orduan jendarteko arrakasta etortzen zaio, nire ustez, euskaldunek ezpaitute euskaraz irakurtzen, ondoan beti ematen zen erdal itzulpena irakurri baitzuten. Bi garai horien artean batasun zerbait aurkitzen da zoritxarrez gutxi ematen diren Arestiren antzerkietan.

Jon Etxaide taldeko adiskidea izan dugu. *Alos Torrea* izan zen gerrate ondoan Hegoaldean argitaratu lehen eleberri historikoa, geroztik besterik idatzi du, baina beti indarkeriaren liluraz. Denbora berean bi gai mota bereizi daitezke herri xehearen axola (Pernado Amezketarra, Etxahun) eta bestetik antzinako giza handikien aipamena (*Hamasei seme Euskal Herriko* saiakera *Begia begi truk* antzerkia... *Gorrotoa lege*-k eleberri Jantsenista baten moduan bekatuaren irudia dauka, baina bere etsipena gaineratuz. Bera, Miranderen gisa, depresiboa zen.

Jon adiskide maite hura ongi ulertu dut aitaz liburu lodia argitaratu zuenean *Etxaide Jauna Gure Aita*, ikusten

baita ingeniari ospetsu eta euskaltzainburu izandako burges horren etxean, Donostian, gazteak kristau integrismoan, gaurko musulman fundamentalistak bezala bizi zirela.

Jon San Martin, fabrika langile izana, autodidakta, oso bestelakoa zen: familiaz sozialista egona, mendigoizale taldeetan Eibarrren *Club deportivo* delakoan euskal kultura sartu zuen eta beste bi obrero Basauri eta Laspiur euskalgintzara bildu. Bere olerkigintza hizkuntzaren aldetik ez da bereizia, baina populismotik eta propagandatik urrun den herri xehearen irudi bat eman zigun. Aresti, Etxaide eta Zaraterekin batean ulertu zuen euskal literatura goibelak umore apur bat behar zukeela (*Zirikadak* 1960).

Luis Mitxelenaz asko idatzi da. Niretzat, erudito handia izateaz kanpo, zirikatzailea, bultzatzailea izan zait. Nire ipuin gehienak irakurri zituen, baloratu eta batzuk *Eganen* argitaratu. Hau izan da Miranderekin nire euskal kritikalarri on bakarra, zergatik zerbait ez zen ongi esaten baitzuen eta ez, oraingoek egin ohi dutenez, perpaus motz batez akusatzen. Bat nentorren bere euskal literaturari duintasuna eta zabaltasuna emateko xedearekin. Bakarrik, Uztaritzen 1970an UEUn lagunartean, eztabaida luzea izan genuen jakintzarako eta unibertsitaterako euskararen gaitasuna zela-eta. Nik baietz nion, hark ezetz, euskara bakarrik literaturarako zela. Gogora dezagun urte haietan Deustuz eta Opusaz kanpo ez zela unibertsitaterik Euskal Herrian eta hasierako *Elhuyar*-ekoekin eztabaida izan zuela Mitxelenak.

Zentsura

Francoren zentsura bazen, baina euskaldunena txarrago. Gogoratzen naiz 1960ean Aldjeriako frantses torturaztaileak aipatzen zituen ipuin bat ez zidatela Pariseko

Elgar-en argitaratu alegia euskaldun gaia ez zela. Aldizkariaren orduko euskaldun zuzendaria Pierre Ibarrondo sozialista alderdikoa mehatxuka ibili zitzaidan eta gurasoei bisita bat egin ere hortaz jarduteko: argitaratzen bazen nire lanpostuaren galtzea arriskatzen nuela. *Eganek*, Francopcean ipuin hori argitaratu zuen.

Halaber Franco hil eta bi urteren buruan Mirandereren prosazko lanen biltzea *Gero*-k eskatu zidanean, gure idazle horren hiru artikulu kritiko kendu zizkidaten. Alta Franco hila zen. Ez ninduten abisatu argitaratu zenean. Liburua urte baten buruan erosi nuen. Liburuaren egilea nintzela ez zen agertzen, bakarrik bi hitzaurreetako baten idazlea nintzela. *Jon Mirandereren lan hautatuak* liburua agertu zen, bai *Gernikan*, *Eganen* eta *Euzko-Gogoan* aspaldian argitaratu artikuluak ere kenduta.

Gero argitaletzeko Xabier Letek tinta gorritz idatzi lau orrialde trinko bidali zizkidan zentsuraren justifikatzeko. Garaiko hiru zentsurak, Francorena, Elizarena eta euskaldunenaz liburu bat abiatu nuen eta disgustuz utzi, euskaltzale handi batzuek beren izenak zikindu zituztelako beste idazle on ziren Artze, Davant, eta Miranderen lanak bahieraziz edo argitaratzea eragotziz.

Oroitu behar dugu gure artean zakurlana egiten ibili zirela Justo Mokorroa, Lafitte eta Chabagno, Mirandereren kontra. Ion Oñatibiak frankisten prentsan, Davant salatu marxista zelako Euskaltzaindian sartu zela. Garai haietan, gure zuberotar euskaltzain hori ez zen lasai Hegoaldera joaten eta idatzi zuen *Euskaldun laborariaren* argitalpena arrazoinik eman gabe, Francoren zentsurak galerazi zuen. Etxaidek bere *Alostorrea* argitaratzeko ezezkoak Gipuzkoan edukiz, Sabin Untzurruntzagak Madrileko zentsore erdaldun baten gandik lortu zuen baimena.

Ez uste Iparraldean, Francorik ez zelarik, gauzak hobeiki joaiten zirenik, apezek euskaraz egin liburuek zen-

tsore euskaltzale handi eta kanonikoa zeukaten obispaduan, *nihil obstat* ukatzeko; zentsore berdinak 1910 idatzi liburua –Etxepare medikuaren *Buruxkak*– ia argitalpen guztietan zentsuratu zuen .

Mirandek Ibiñagabeitiari erantzun zion *Euzkadiko Irratia* klandestinoan, elkarhizketa batean, 1953an bere olerkiak argitaratuko zituela eta batzuk erotikazkoak zirela.

Lafitte kanonigo zentsore “liberalak” alegia pornografia edo lizunkeria izango zela, *Herrian* Miranderen kontra sekulako artikulua idatzi zuen. “Eskuara eta lizunkeriaz” eta idazlearen aurkako kanpaina abiatu. Jon Mirande berak, Ibiñagabeitiak eta Nemesio Etxanizek erantzun zioten. “Aita Mokoroa, dena moko eta orroa”, Bilboko apezpikuaren ikusten ibili zen Miranderen obrak Espainian debekatu behar zirela gazteria ustelduko baitzuten. Obispo argiak erantzun debekatuz izugarriko zabalkundea ezagutuko zuela. Bestalde artikulua hori *Euzko-Deyan* argitaratu baitzen, Chabagno izeneko misiolari basko-frantses batek, frantsesez idatzi gutun batean, aldizkari kristau hori mehatxatu zuen sekulan berriz Mirande aipatzen bazuten Erroma abisatuko zuela Vaticanoko Index-ean irakurgai debekatuen artean *Euzko-Deya* sartua izan zedin (ikus Txema Larrearen *Jon Miranderen idazlan kritikoak*).

Zorionez abade guztiak ez ziren ez Lafitte ez Chabagno ez Mokoroa, bagenituen gure lan bortitz guztien onartzera gerturik zeuden Salbatore Mitxelena, Nemesio Etxaniz eta Jokin Zaitegi. Prakadunen artean ez ziren hobe Orixe eta besteak Txillardegiren kontra geroago gogor egingo dutenak, euskal literaturan, kristau pentsaeraren monopolioa mantendu nahi ukan zutenak.

Nemesio Etxaniz garai hartan, ikusirik dantzalekutan gaztelania baizik ez zela entzuten, rumba, tango eta beste dantzen musika eta hitzekin idazten hasi zen. Esan

gabe doa elizako batzuez oso gaizki ikusia zela euskal literaturari intzentsu usain horren kentzea abade baten ganik baitzeturren. Bizpalau aldiz ikusi eta hitzegin nuen berarekin Euskal herrian Elizaren dogmak zirela-eta: apeza eta fededuna zen, baina ez eklesiastikoa eta esan zidan, behin, Parisen ezin zuela Eliza utzi, nahi baitzen Euskal Herrian egon eta gainera euskaltzale bezanbat abertzale porrokatua genuen Don Nemesio.

Orain beste zentsura dago. Ez publikatzea. Ezagutu egin dut ere beste sistema bat: liburu baten galtzea. Eskutik eskura eman nien eleberri baten laugarren eta azken alea, baita Aberasturik bidali horren erdal itzulpena *Lur*-eko S.-k eta S.-k galdu baitzidaten. Egun hartan andreak esan zidan eleberri hori ez zidatela argitaratuko, garai hartan, marxista ziren haiei ezbaizitzaizkien gustatu Errusia bisitatu berriaz kontatu nizkienak, antisobietiko primarioa nintzela esan zidatelako. Egia esan ez nuen haiek haina marxismoa ezagutzen, baina komunista seme bezala gazteetako ametsen suntsiturik ikusteak ez ninduen alaitu. Ez dakit nola mila deabru 1966an eta 1972an antifrankista ziren bi eleberri *Itzal Gorria* eta *Gatu beltza* idatzi nituen. Hain zuzen *Itzal Gorriak*-en egiazko komunismoaz eta komunista zintzo leial baten bizitza eta heriotza kontatzen ditut.

Itzultzaileak

Giro! giro! ez ginen arrosaz betetako baratzean bizi. Denbora berean erbestean itzulpen politika hasi zen euskara aberastu nahiz, euskara gaitu nahiz. Jadanik gure hamarkada horretan Parisen Ibiñagabeitiak Birgilioren *Unai kantak* eta Ovidioren *Maitabidea* itzuli zituen. Eta Zaitegik, bere *Platonen atarian*, filosofo horren lan guztiak, gero agertuko direnak

Antzerkiak ere itzuli ziren, batik bat Shakespearenak. Bizente Amezagak, Uruguayan zegoelarik, *Hamlet* gipuzkera osotuan eman zuen. Beharbada gatz gehiagorekin bizkaieraz *Larrakoetxea* abadeak Shakespearen bospasei antzerki eman zizkigun, aldizkarietan banatuak. Iparraldeko idazle atzerakoi sasi-populistek horretaz parre egin zuten, pentsatuz zeukaten nekazari hiztegiarekin ezin zela horrelako lanik itzuli.

Halatan ere Narbaitz kanonigoak Pascalen *Gogoetak* euskaraz eman zituen. Egia da itzulpengintza aurrerapen ederrik egin dela. Ez gabiltzala gehiago ez euskañol, ez aranismo garbizalez betetako testuekin ez eta hizkuntza herrikoi baten parafra siekin gauzen esplikatu nahiz, zernahi itzulpen daukagula. Asko irakurriak ote? Iparraldeak oraindik hamar bat urte itxaron behar izan zuen bere lo zorrotik esnatzeko eta beste hamar, 1980ean gazte batzuk utz zetzaten Action Catholiqueko literatura arrosaz idaztea, oraingotar literatura baten egiten has zitezen *Maiatz* aldizkariaren inguruan.

Zerbait esateko liburugintzaz jakingarria da ikustea 1941ko euskarazko lau liburu bakarrak, guztiak Iparraldean agertu zirela baina geroztik beti bizpalauekin gabiltzala. Nik aipatu hamarkadan urtero hegoaldean 10etik 30 liburutara argitaratzen zen euskaraz. Pizkunde baten lehen emaitza urria baina jarraikia. Beste hamarkadan gutti gora behera 50 bat liburu. Franco hil eta gero ehunetik goiti beti.

Iparraldean azken hamarkadan, alfabetatzea eta ikastola garatu arren, ez da liburugintza goiti joan Frantziaren aldetik eta erdi bernes departamendutik ezpaita iñolako diru laguntza seriorik izan. Bestalde euskaltzale gazteek orain euskaraz hitzegiten dute ahal bezala, eta zaharrek (euskara ederki dakitenek) ez dute beren frantses kalakarekin amor eman. Euskara haurrekin eta Hegoaldeko anaiekin hitzegiteko da, zorionez batzuetan

Poetak lubakietan. Periferiatik erdigunerantz

Ibon Egaña, E.H.U.

Lubaki Banda bere manifestuarekin ezagutzera eman zen sasoiari, 1993an, puri-purian zegoen euskal literatura hurbiletik jarraitzen zutenen artean halako kezka bat: ez zela euskal idazle berririk agertzen, ez zutela, behintzat, idazle gazteek idazkirik argitaratzen. Hedatzen ari zen larridura horri emandako erantzuna izan zen, neurri batean, Lubaki Banda. Euskal literaturan erreleborik ez zetorrelako ezinegon Xabier Mendigurenen artikulua baten harira zabaldu zen batik bat euskal letren esparruan. Adierazgarriak gertatzen dira alde horretatik oso Lubaki Bandako kide batek argitaratzen zuen lehen liburuaren kariaz –Xabier Aldairen *Bala zeru urdina*-ren argitalpenaren harira– Jose Luis Otamendik egindako adierazpenak: Aldairen liburuak “euskal poesiaren katea ez etetea” zekarrela eta poza eta lasaitua adierazten zuten poeta azpeitiarraren hitzek. Jon Kortazarrek inoiz azaldu izan duen bezala, katea etetea arriskua angustiaz bizi ohi da gurea bezalako literatura txikietan, erreleborik eza literaturaren eta, ondorioz, hizkuntzaren amaieraren hasieratzat har daitekeelako.

Bestetik, poesia argitalpenak ere bere unerik gozoe-na bizi ez zuen sasoian egin zuen agerraldia Lubakik. Kortazarren⁸³ datuen arabera, poeta bezala ezagutzera eman ziren idazleak urri izan ziren 1990eko hamarkadaren lehen erdian: lau 1990ean, bi 1991an, lau 1993an, hiru 1994an eta lau 1995ean. 1980ko hamarkadarekin alderatuz, 90ekoaren lehen erdian poesia argitalpenek ezagutu zuten beherakadak baluke ikustekorik euskal literatur sisteman poesiak pixkanaka izan zuen prestigio eta protagonismo galerarekin. Iñaki Aldekoaren hitzetan, “de ser el género literario más prestigioso en los años sesenta y setenta, la poesía empezó a ceder en relevancia social mediados ya los ochenta”⁸⁴. Halaber, Mari Jose Olaziregik esana da 1990eko hamarkada nobelarena izan dela euskal literaturan, eta hortaz, Lubaki Bandak 1993an plazara atera zenean, idazle gazte eta berrien gabeziari erantzuteaz bat, poesiaren zokoratzeari ere aurre egin zion, genero hau atzera euskal literaturaren erdigune-rantz erakarriz.

Estetikak eta hizkuntza poetikoak

Ez dagokigu guri hemen *belaunaldi* kontzeptuaz eztabaidatzera sartzea (kontzeptuaren baliagarritasunaz lan interesgarriak badu irakurleak bilduma honexetan) eta soilik esango dugu, oraingoz, Lubaki Bandaren ka-suan egokiago deritzogula *taldeaz* edo *bandaz* mintzatzea eta ez *belaunaldiaz*. Idazle promozioaz, nahiago bada. Izan ere, eta bestelako arrazoibideak geroko utziz, 1975 inguruan jaiotako idazle guztiak ez dira ez Lubakiko kide eta ezta haien estetikaren jarraitzaile ere.

⁸³ Kortazar, J. “La poesía en los años 90”, *Quimera* 234, 2003-09.

⁸⁴ Aldekoa, I. *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia 2004.

Nolanahi ere den, aurreko literaturarekiko eta literatur panoramako gainerako idazleetatik kolektiboki bereizten diren neurrian osatzen dute idazleek belaunaldi bat. Alegia, haustura poetiko bat gertatzen denean. Alde horretatik, Eduardo Mateo Gambartek oroitarazten du haustura poetikoa gerta daitekeen modu bakarra hizkuntzaren erabileran gertatzen dena dela: “en el único ámbito que una ruptura poética puede producirse, en el lenguaje”⁸⁵. Alegia, poetak edo taldeak hizkuntza poetikoa berritzen duen neurrian, tradizio poetikoarekin eten bat egiten duen neurrian hitz egin daiteke eten edo haustura poetikoaz. Gure gaira etorriz, ba al dakar Lubaki Bandak eten poetikorik euskal poesiarara? Ba al da hizkuntza poetikoaren etenik poeta hauen eta aurrekoen artean? Lubaki Bandako kideek 1990eko hamarkadan argitara emandako poema liburuen irakurketatik abiatuz –jakinik ere halabeharrez azkarregi eta azalekoegia izanen dela– galdera horiei erantzutea izango da gure xedea, etena –halakorik bada– zerk dakarren zedarritze aldera. Lubakiki-deek aldizkarietan argitara emandako poemak hurrengo abagune baterako utzi ditugu, poema liburuek egileen poetika garbiago, hizkuntza poetikoa garatuago ikusarazten digutelakoan.

Lau poema liburu eman ziren argitara 1993tik 1997ra bitartean Lubaki Bandako kideek idatziak: Xabier Aldairen *Bala zeru urdina* (1993), Harkaitz Canoren *Kea behelainopean bezala* (1994), Susak argitaratuak, eta Garikoitz Berasaluzeren *Azaro urrunetako intifadak* (1996) eta Asier Serranoren *Bada hiri gorri bat* (1997) Elkarrek Kaiero sailean argitaratuak.

⁸⁵ Mateo Gambarte, E. *El concepto de generación literaria*, Síntesis, Bartzelona 1996.

Harkaitz Canoren lehen poema liburuak hiri bat irudikatu zuen, subjektiboa eta izenik gabea, eta bertan proiektatzen zituen egileak bere barneko ezinegon eta kezak. Keak eta behelainoak estalitako hiri bat zen hura, non heriotzak presentzia obsesiboa zuen. Hiria taxutzerakoan, Canok irudien pilaketa baliatu zuen teknika gisa, surrealismotik datorren teknika. Alegia, polaroid-ak balira bezala, irudi poetiko eta oso bisualak elkarri lotuz doa poeta, finean, hiri subjektibo horren kartografia osatu arte. Badira poema-liburuari batasuna emanaz, etengabe errepikatzen diren sinboloak, maiz nahiko ilunak eta anbiguoak direnak interpretaziorako: zubiak, gereziak, kea, trenak, eta baita zenbakiak ere (1600, esaterako). Canoren hastapeneko poesia honi aurrekariak eta erreferenteak bilatzekotan, nekez ahantz liteke Bernardo Atxagaren izena, eta batez ere, haren *Etiopia* (1978). Abangoardiatik edaten duen hizkuntza poetikoaren erabilera lehenik, bistakoa da *Etiopia*ren itzala: irudi bisualak elkarri josiz osatzen dira poemak, eta batasuna errepikatzen diren sinbolo eta motiboek ematen diote liburuari. Horrez gain, baina, sinbolo zehatzak ere komunean dituzte *Etiopia* eta *Kea behelainoan* liburuak: gereziak, zubiak, basamortua, kalatxoriak... Abiapuntua ere ez dute oso desberdina: Atxagak 70etako Bilbo erretratzen duen bezala, Canok beste hiri bat, kasu honetan izengabea eta subjektiboa irudikatzen du bere poemak bidez. Garaiko elkarrizketetan, bere erreferentzia poetikoez galdetuta, Atxagaz gain Koldo Izagirre eta Iñigo Aranbarri aipatzen zituen Canok, eta poesia "surrealista xamarra" maite duela agertzen. Abangoardien eta surrealismoaren bidetik garatzen du, beraz, Canok bere hastapenetako lengoia poetikoa: irudien pilaketatik abiatzen den poesia lantzen du, Atxagaren bidetik, hark bezala ironia erabiliz eta egunerokotasunera lirikatik hurbilduz.

Antzera, Garikoitz Berasaluzeren *Azaro urrunetako intifadak* poemategiak ere lengoaia poetikoari dagokionean, bide bertsutik jotzen du. Liburu honetan, Berasaluzek irakurketa bikoizdun maitasun bat irudikatzen du: maitaleari eta aldi berean herriari, Euskal Herriari zaion maitasuna. Errealitate politiko eta sozialari etengabeko erreferentziak egiten dizkion poemategian ere abangoardiaren eta surrealismoaren bideari jarraitzen zaio: hari logikorik gabe kateatzen diren lerro eta irudi poetikoak, eta sinbolo errepikatuen bidez eta egitura simetrikoen bitartez bilatzen den batasuna. Borrokaren inguruko sinboloak errepikatuko ditu Berasaluzeren poesiak: balak edo intifada, eta baita bestelakorik ere: hiriak, itsasoa, urte-sasoiak... Hiriak, benetakoak nahiz izengabeak erruz aipatzen dira poemario honetan ere, kartografia pertsonal bat osatzeko ahaleginean. Koldo Izagirre eta Bernardo Atxaga aipatu zituen kritikak⁸⁶ Berasaluzeren iturri gisa. Egileak, nolana ere, Izagirre-rengandik hurbilago ikusten du bere burua, estiloz eta edukiz, Atxagarengandik baino. “Surrealismoaren eta simbolismoaren arteko jokoan”, berriz, Iñigo Aranbarriren poesiaren itzala nabarmendu zuen, bestalde, zenbait kritikok.⁸⁷

Asier Serranoren *Bada hiri gorri bat* poemategiak muturrera eramango du poemak irudien pilaketa gisa egituratzeko joera hau. Batik bat niaren eta gizartearen arteko talka dago poema hauen iturburuan eta talka horrek sortutako ondoeza abiapuntu harturik, planteamendu erromantiko zenbait ere bere egiten ditu Serranok. Lengoaia poetikoari dagokionez, esan bezala, muturrera eraman-

⁸⁶ Zabala, J.L. “Garikoitz Berasaluze: Hasiak gara poesian Negu Gorriak-en herentzia jasotzen”, *Euskaldunon Egunkaria* 1996-12-05.

⁸⁷ Kortazar, J. “1996ko kaiera”, *Hegats* 15/16, 1997-10.

dako planteamendu abangoardista aurkituko dugu. Iru-
diak elkarri josita, eta erritmoa errepikapenek eta parale-
ismoek markatzen dutela. Horrek kritikaren onespenez
eza ekarri zion Serranori: irudien pilaketa kaotikotzat jo-
zuen Javi Rojok⁸⁸, eta surrealismoaren erabilera *déjà vu*
sentsazioarekin hartzen du Jon Kortazarrek⁸⁹. Surrea-
lismoa “liburua ilundu edo zaildu arte” nagusitzen dela
zioen kritikoak. Jose Jabier Fernandezek⁹⁰, bere aldetik,
lengoaia poetikoari baino gehiago edukari erreparatuz,
sinesgarritasunik ez izatea leporatu zion liburuari, jarrera
erradikalari faltsutasuna dariolakoan. Liburuari eginiko
kritikan, Jon Kortazarrek baieztatzen du hiperbolerako
joera dela poesia gaztearen ezaugarrietako bat eta horixe
aurkitzen dugu Serranoren liburuan: Bernardo Atxaga-
engandik edo Iñigo Aranbarrirengandik datorren len-
goaia poetikoa muturreraino eramana, doitasuna galdu
arte tiratua.

Xabier Aldairen *Bala zero urdina* liburuaren hitzau-
rrean Jose Luis Otamendik zioen Arestiz gero euskaraz
egin den poesiarik modernoena dela Aldairena. Gizarte-
aren hipokrisia eta ustelkeria salatzeke asmoa dago *Bala
zero urdina* liburuaren oinarrian, eta aipagarria da Koldo
Izagirrerren *Balilzko erroten erresuma* lanaren itzala.
Koldo Izagirrek⁹¹ berak zioen aurkezpenean “inbidia
pixka bat” sentitu zuela *Bala zero urdina* irakurtzean.

Irakurketa laburregi honen ondoren, beraz, ondo-
riorik ateratzea zilegi balitzaigu, zera esan behar genuke:

⁸⁸ Rojo, J. “Gizartearen aurka”, *El Correo* 1997-10-29

⁸⁹ Kortazar, J. “1997ko kaiera”, *Hegats* 21/22, 1998.

⁹⁰ Fernandez, J.J. “Sinesgarritasuna”, *Euskaldunon Egunkaria* 1997-
06-14.

⁹¹ Ormaetxea, A. “Poeta gazte baten pentsakizunak”, *Euskaldunon
Egunkaria* 1993-11-13.

lengoaia poetikoari dagokionez, Lubaki-ko poetek kano- nikoak ziren poeten bidetik jarraitzen dutela, batik-bat Koldo Izagirre, Bernardo Atxaga eta maila txikiagoan Inigo Aranbarriren poesiaren bidetik. Apurketa eta etena baino, beraz, jarraipena, kontinuismoa erakusten dute hizkuntzaren erabileran, eta gogora dezagun, hizkuntza poetikoan egindako etena da litekeen eten poetiko ba- karra. Egia da, hala ere, ez dela bere horretan mantentzen eredutzat hartzen den hizkuntza poetikoa: kasu batzue- tan muturrera eramaten da ereduzko hizkuntza aban- goardista (Asier Serranok, kasurako). Horrez gain, azpi- marratzekoa da rock musikaren eragina aitortzen dutela, gutxienez, egile hauetako hiruk, eta errepikatzen den erreferentzia dela Negu Gorriak-ena, bai Berasaluze eta bai Canoren kasuan. Bide berean, Xabier Aldairen *Bala zeru urdina* izenburua U2ren kantu baten euskararako itzulpena izatea (*Bullet the blue sky*), anekdota baino haratagoko xehetasuna da. Horiez gain, dena den, bada beste jarrera bat ere aipatu ditugun poetak batzen ditue- na: errealitate sozial eta politikoari erantzun beharra al- darrikatzen dute guztiek ere; poesiak heldu egin behar diola eguneroko errealitate gordinari. Hala, esangura- tsuak dira oso prentsan egile hauek egindako adierazpe- nak, Xabier Aldai (“Poesia mailu bat da eta ezin da bizi den gizartetik banatu”), Harkaitz Cano (“Euskal poesiak abstrakziora jo du azken urteotan, adarretatik ihesi”), edo Garikoitz Berasaluzerenak (“[gure] poesia soziala ba- da, aipatzen ditugun gaiengatik eta esaten ditugun gau- zengatik da”). Hala ere, gai sozialak agertu arren, hiz- kuntza poetikoa urrun dago poesia sozialarenetik, eta, aipatu bezala, tradizio abangoardistari jarraitzen diote nagusienik.

Tradizioarekin apurto ordez, tradizioari jarraitu egi- ten zaio, betiere ñabardurak erantsiz. Etenaren ordez, jarraipenaren bidea hautatzearen arrazoiak bakarrera

ekartzea sinplifikatze gehiegizkoa litzateke ziurrenera; dena den, Jon Kortzarren⁹² azalpenaren arabera, “una ruptura así, si no es imposible, no es conveniente en una literatura pequeña y con grandes tensiones como es la nuestra.” Literatura txikia izatearen ajea izan liteke, beraz, hausturari zaion beldurra. Horren osagarri, bestelako arrazoirik ere argudia liteke, nolana.

Erreferentziak bilatzen hasita, begien bistakoa da *Pott Banda* izan zuela erreferente nagusietakoa Lubaki-k, Harkaitz Canok⁹³ orain gutxi zioen bezala. Banda izena ere, besteak beste, handik hartu bide zuen. Baina, konpara ditzagun une batez Pott eta Lubakiren sasoiak eta testuinguruak. Pott, 1978an sortu, eta 1980an desagertutako banda, Ustela eta beste hainbat aldizkarirekin batera, garaiko esperimentaziorako eta abangoardiarako joeraren ikur izan zen euskal literatur panoraman. Euskal tradizio poetikoan eten garbia markatzen du Pott-en poesiak, izan ere, beren asmo abangoardistetarako ez die balio ordura arteko euskal poesiak, nahiz Arestiren edo Miranderen erreferentziak presente izan, eta ia hutsetik sortu behar dute hizkuntza poetikoa. Erreferentziak atzerriko literaturan bilatu behar dituzte, beraz. Horregatik, besteren gaintetik, hizkuntza poetiko errotik desberdin bat dakar Pott-ek poesiara. Horren lekuko dira oso, Bernardo Atxagak egindako adierazpenok, Kortzarrek⁹⁴ jasoak: “[Atxagak zioen] berak gurago zuela euskaraz idatzi hizkuntza honetan denak ematen zuelako «berri», garai batean, idazten zena idazten zela, originalaren itxura

⁹² Kortazar, J. “La poesía en los años 90”, *Quimera* 234, 2003-09.

⁹³ Asurmendi, M. “Mahai-ingurua: literatur belaunaldien arteko harremanaz Harkaitz Cano, Juan Luis Zabala eta Iban Zalduekin”, *Argia* 1968, 2004-11-28.

⁹⁴ Kortazar, J. *Diglosia eta euskal literatura*, Utruisquae Vasconiae, Donostia 2002.

hartzen zuen, literatura esploratu gabe agertzen zen, eta beraz, sorkuntzarako bideak zabalik agertzen zituen”. Esploratu gabeko bideak, alegia, hizkuntza poetiko berriak asmatu behar zituen Pott taldeak eta bere garaikideek, tradizio baten faltan. Alabaina, Lubaki Banda, hamabost urte beranduago euskal literaturaren plazara iristen deanean, baditu erreferenteak euskal literaturaren barruan, egina du hizkuntza poetiko bat, abangoardiarena, hutsetik asmatu behar ez duena. Horrez gain, atzerriko idazleen erreferentziak ere jasotzen ditu aurreko belaunaldirengandik, Pessoaena, esaterako, Sarrionandiaren bidez gazteengana iristen dena. Harkaitz Canok aitortzen zuen berriki gauza asko “eginda”⁹⁵ zeudela beraiek iristerako. Ildo beretik idazle beraren *Beluna jazz* eleberriaren kariatara, Ur Apalategik⁹⁶ zioen “euskal literatura nahiko azkarra eta zabaldua dagoela gaur egun, bere idazkera estiloa argumentu nagusizat aurkezten duen liburu bati harrera egiteko”. Lubaki Banda plazara irteten denerako, beraz, euskal literaturak badu halako heldutasun bat, batik bat hizkuntza poetiko eta literarioaren garapenari dagokionez.

Aipatu ditugun idazleen artean, apenas dagoen traiektoria luzeko poetarik (Xabier Aldaik narraziogintzara egin zuen jauzi *Bazterrekoakekin*, Garikoitz Berasaluzek haur literaturara *Tulipa gorriakekin*, beste horrenbeste Asier Serranok ere *Mari basajaunaren eremuan* liburuarekin, *Hoteleko kontuak* narrazio-liburu batekin batera), Harkaitz Cano dugu salbuespena, eta horregatik ez dago iragartzerik Lubakik jarauntsiz jasotako hizkuntza poetiko horrek ze garapen izango zukeen denboraren joanean. Izan ere, idazleen gaztetasuna kontuan hartuta, pentsatzekoa da bide propioak eta estetika berriak

⁹⁵ Asurmendi, M. op. cit.

⁹⁶ Apalategi, U. “Estiloaren garrantzia”, *Maiatz* 27, 1996-12.

garatzeko lehen urratsak izan zirela egileon lehen poemategiak. Harkaitz Canoren kasuan, garbia da bi poema liburuen arteko aldea, izan ere, bigarren liburuan (*Norbait dabil sute-eskaileran*, Susa 2001), poesia askoz narratiboagoa landu du idazleak, batik-bat literatura estatubatuarren itzalean (dela Carver, dela Bukowski). Hala, bere poesiak errealismo zikinetik edaten du, eta eguneroko gertakari xumeenei begiratzen die, abangoardiaren eka-riak ahazten ez baditu ere (Maiakovskiren erreferentea ere presente dago bigarren liburu honetan).

Lubaki Bandaren poesia, hizkuntza poetikoari dagokionez kontinuitate agertzen bazaigu ere, antzematen da ez eten garbi bat, baina bai joera berri baten azaleratze geldo bat 1990eko bigarren erditik aurrera. Iban Zalduak⁹⁷ *Obabatiko tranbian* zioen, poesia berri honek “ger-tuagotik hitz egiten” diola irakurleri, eta “hitz lauaren doinu eta baliabideetara” hurbiltzen dela, alegia, poesia narratiboago bat agertzen dela. Zalduak Koldo Izagirreraren *Non dago Basques' Harbour*, Rikardo Arregiren *Kartografia*, Castillo Suarezen *Mugarri estaliak*, eta Kirmen Uriberen *Bitartean heldu eskutik* aipatzen ditu joera berri horren erakusgarri. Jon Kortazarrek⁹⁸, berriz, euskal poesiaren 90eko hamarkadako eten txikien artean aipatzen ditu Rikardo Arregi eta Kirmen Uriberekin batera, Juanjo Olsagarre eta Miren Agur Meaberren lanak. Izen gehiago ere gehitu lekizkioke zerrendari (Canoren bigarren poemarioa, esaterako), eta erreparatuz gero, ohartuko gara balizko zerrenda honetan ageri direnen artean, badirela us-tezko hiru belaunaldietako kideak: Izagirre batetik, Olsagarre, Arregi eta Meabe bestetik, eta Uribe eta Suarez azkenik. Alabaina, Kirmen Uriberen salbuespenarekin,

⁹⁷ Zaldua, I. *Obabatiko tranbia*, Alberdania, Irun (Gipuzkoa), 2002.

⁹⁸ Kortazar, J. “La poesía en los años 90”, *Quimera* 2003-09.

Lubaki Bandak izan zuen oihartzunetik oso urrun dago poeta horien entzutea eta ospea.

Horiek horrela, nekez hitz egin dezakegu Lubaki Bandaren belaunaldiaz, edo Mikel Hernandez Abaituak⁹⁹ izendatu izan duen bezala, “Harkaitz Canoren belaunaldiaz”. Batetik, esan bezala, ez dakartelako proposamen estetiko erabat berritzaileak, bestetik, ez dagoelako ia traiektoria luzeko idazlerik, eta beraz, izatekotan ere 4-5 urte irauten duen belaunaldiaz hitz egin beharko genukeelako, Canoren salbuespenarekin. Kontuan izatekoa da, halaber, Lubakik ez dituela 1975 inguruan jaiotako idazle guztiak biltzen, eta ezagunena izanagatik, ez dela joera bat eta bakarra adin horretako artean. Beraz, Lubakiz hitz egitean, komenigarriagoa da terminoak zehaztu eta Bandaz edo Taldeaz hitz egitea¹⁰⁰. Harkaitz Canok¹⁰¹ berak oraintsu galdera egiten zuen ea benetan ba ote dagoen arrazoi literarioak bere eta aurreko ustezko belaunaldiaren artean eten bat dagoela esateko.

Gerra eta lubakia, boxeoa eta ringa: sistema literarioaren periferiak

Ageriko gauza da, orain artekoak aipatu ondoren, ezin dugula Lubaki Banda eta garai hartan kanonikoak ziren idazleen arteko gatazka proposamen estetikoaren arteko talka bezala ikusi. Halere, ukaezina da tentsio bat

⁹⁹ Hernandez Abaitua, M. “Belaunaldiak eta sariak (eta II)”, *Berria* 2003-10-23.

¹⁰⁰ Bat gatoz honetan Eduardo Mateo Gambartek egindako proposamenarekin: “Mi propuesta es (...) denominar a los diferentes grupos de individuos coetáneos: *Promociones*, o sencillamente *equipos* que los denomina Ecarpit.” in Mateo Gambarte op. cit.

¹⁰¹ Asurmendi, M. op. cit.

izan zela Lubakiko kideen eta lehenagoko belaunaldien artean.

Erabat argigarria da tentsio horien zergatia argitze aldera, Lubakiren eskutik etorri zen Susa aldizkariaren bigarren alea, 1994koa, irakurtzea. “Hau muturreko pila!” izenburupean, Bandari buruz idazle eta zutabegileek esan eta idatzitakoaren (gehienak ez oso laudoriozkoak, bidenabar esanda) lagin bat bildu zuten, bai kanonikoak ziren idazleen nahiz *tropelekoen* iritziak. Horien artean, bereziki esanguratsuak dira Juan Luis Zabalaren¹⁰² hitzok, zutabe batetik jasoak: “Bi gauza erakutsi dizkigute behintzat Lubakikoek (...): idazten badakitela eta beren burua saltzen ere bai. Ez da gutxi, alajaina!” Antzerako iritzia adierazten dute beste idazle askok ere, alegia, Lubaki Bandaren inguruan testua ez den zerbaitek funtzionatzen duela, idazteaz gain *beste zerbait ere* badakitela ongi egiten. Izan ere, Lubakiri egin zitzaizkion kritikak ez dira eskuarki beren testuen kalitateari buruzkoak. Ez du inork ezbaian jartzen (ez bederen zutabe eta iritzi arikuluotan) beren idazkera, estiloa edo hizkuntza poetikoa. Literaturaren mundutxoan beren ahotsa entzunarazteko hautatu dituzten bideei buruzkoak dira kritikak. Hala, Aitor Zuberogoitia¹⁰³ dio “sententzia eta maximak botatzen hasten direnean erridikulorik gorriena egiten dutela”, eta berak haien literatur lanak estimatzen dituela, ez adierazpenok. Karlos Linazasorok¹⁰⁴, agian *tropelaren* jarreraren erakusle, aitortzen du: “jendeak euskal literaturan, baduela nik ez daukadan zerbait, ausardia

¹⁰² Zabala, J. L. “Kezkak, orroak eta lubakiak”, *Euskaldunon Egunkaria* 1994-01-30

¹⁰³ Zuberogoitia, A. “Pitzadura Lubaki izoztuan”, *Euskaldunon Egunkaria* 1994-05-05

¹⁰⁴ Ibargutxi, F. “Karlos Linazasoro: Idaztea behar existentziala da niretzat”, *El Diario Vasco* 1994-04-27.

edo muturra (...) Idaztea, hauxe da nik gustora egiten dudan eginbehar bakarra.”

Adierazpenok beren tesuinguruan kokatzeko, eta Lubakikoen jarrerak ulertzeko, beharrezkoa da, nire ustez, sistema literarioaz hitz egitea. Adierazi dugu lehenago, Lubakiko poetak argitaratzen hasten direnean, euskal literaturak baduela heldutasun bat, hizkuntza poetikoaren garapenaren aldetik. Baina bada beste alde bateko heldutasun bat ere: edozein literatura nazional garapen maila batera iristen denean garatzen den sistema literarioa itxuratzten ari da 1990eko hamarkadan, demagun Pott sortu zenean ez bezala. Mari Jose Olaziregiren iritziz, “1980ko hamarkadan eman ziren garapen literarioa bermatzeko baldintza soziohistoriko egokiak. Argialetxeak ugaldtu, sorkuntza literarioarako diru laguntzak plazaratu eta sariketak bultzatu ziren.”¹⁰⁵ Horrekin eta euskal literatura ikas-tetxeetan irakasgai bezala sartu ostean, euskal literatur sistema sendotzen hasten da. Halaber, bere presentzia mediatikoa handituz doa, besteak beste, 1990etik aurrera, *Euskaldunon Egunkariaren* agerpenarekin, kazeta honek arreta berezia eskainiko baitio sortzetik beretik euskarazko literatur produkzioari. Sistema horren barruan, badago erdigune bat, idazle kanonikoek osatua (garai hartan, Bernardo Atxaga da, Sari Nazionala irabazi ostean, zalantzarik gabe, idazle kanonikoetan kanonikoena), eta baita periferia bat ere, tropeleko belaunaldiak, eta gazteagoek osatua. Ezaguna da edozein eremu literariotan, periferiako eragileak borrokatzen direla erdigunera iristeko; erdiguneakoak hala, desplazatu egiten dira atzera periferiara, eta dialektika etengabe bat sortzen da erdigunearen eta periferiaren artean. Nire iritzian, Lubaki Bandaren sorrera eta

¹⁰⁵ Olaziregi, M. J. *Euskal eleberraren historia*, Labayru ikastegia-Amorebieta-Etxanoko Udala, Bilbo 2002.

garapena euskal literaturaren periferiako eragileak erdigunera iristeko egiten duen mugimendu bezala irakuritzeak hainbat gauza azal ditzake.

1990eko hamarkadaren hasieran, euskal sistema literarioaren erdigunean, *narratiba* lantzen duten idazle *helduak* daude. Esan dugun bezala, poesia bazterreko generoa da, eta gazteak ere sistemaren periferian kokatzen dira. Alabaina, Lubaki Bandarekin, poeta gazteak, euskal literaturaren erdigunera iritsiko dira, *tropeleko* idazleak periferian mantenduko diren artean. Baina zergatik eta nola heltzen da poesia eta idazle gazte talde bat erdigunera?

Pierre Bourdieu¹⁰⁶ soziologoak, bere eremu literarioaren teoria azaltzean, dio eremu literarioaren parte den eragile bakoitzak duela bere posizio zehatza, eta *habitus* bati jarraituz egiten dituela mugimenduak. *Habitus*-a geureganatua dugun joko-arauen multzoa litzateke, eremu literarioan (beste edozein eremutan bezala) mugitzeko beharrezkoa dugun jakinduria inkontzientea. Beraz, gure kasura etorri, Lubaki Banda plazara ateratzen denean, kideek badute eremu literarioan mugitu ahal izateko *habitus*-a, eta kontzienteki ala inkontzienteki, erdiguneranzko mugimenduak hasten dituzte. Jakitun dira horretarako egin behar duen bideaz.

Argigarria eta nahikoa bisuala izan liteke Lubaki Bandak hasieran darabilen terminologiari begiratzea: batetik, Lubaki izenak, borroka batean kokatzen ditu, gerra bateko lubakian. Gerra horretan, baina, ez daude bi hizkuntza poetiko elkarrekin lehian, ezta balizko bi belaunaldi ere. Funtsean, gerra horretan jokoan dagoena botere sinbolikoa da. Eta Lubaki izenak eremu literarioaren *habitus*aren arabera jokatzeko duen talde baten aurrean gaudela adierazten du: kontziente da bere egoera

¹⁰⁶ Bourdieu, P. *Las reglas del arte*, Anagrama, Bartzelona 1997.

periferikoaz, “gerra” egin behar duela erdigunera hel-
tzeko “Hau muturreko pila” izenarekin kaleratutako Susa
aldizkariaren hurrengo alean, boxeoko terminologia
erabiliz, “asaltoaz” eta “ring”-az hitz egiten dute Lubaki
Bandakoek: lehen asalto galdutela baina ez dutela
etsiko. Eta zer da ba ring hori eremu literarioa ez bada?
Eta zer da konbate hori botere sinbolikoa lortzeko borro-
ka ez bada? Bourdieuren teoriaren ekarpen nagusietakoa
da hain zuzen eremu literarioa esparru geldo eta baketsu
barik gatazkaz eta tentsioz beteriko esparru bizi bezala
irudikatzea, non gatazka bera den sistemaren bizita-
sunaren adierazle: “el principio generador y unificador
de este ‘sistema’ es la propia lucha”¹⁰⁷. Gatazka horren
azaleratzearen lekuko dira Lubakikoen eskutik argita-
ratutako Susaren lehen bi aleak

Literatura instituzionalizatuz eta sistema literarioa
indartuz doan heinean, eremu literarioa autonomia in-
dartzat doa, eremu politikoaren aurrean, nagusiki. Hala
ere, erabateko autonomiarik ez du sekula lortzen, bertan
huts-hutsik literarioak ez diren indarrek ere parte hartzen
baitute: eremu ekonomikoak, edo eremu sozialak, esate-
rako. Lubaki Bandaren erdiguneranzko borroka ez da,
esan dugun bezala, eremu literario hutsean jokatzeko, izan
ere, beren lengoaia poetikoa aurreko belaunaldien jarrai-
tzailea da apurtzailea bainoago. Sistema literarioaren erdi-
gunera iristeko bide horretan, botere sinbolikoa batik-
bat hedabideetatik dator, hauek erabakitzen dutelarik
zein den idazle bakoitzari eremu literarioaren barruan
dagokion lekua. Lehenago pisua zeukana testua bazen,
orain presentzia mediatikoak erabakitzen du idazlearen
kokapena eremu literarioan. Jenero Talensen hitzetan
esateko: “Desplazando el punto de articulación desde el

¹⁰⁷ Ib.

discurso poético hacia el dispositivo-autor, y de éste hacia la figura pública que parece otorgarle entidad real, se sustituye la problematicidad de la escritura por la imagen social del escritor. Las leyes que rigen el juego dejan de ser de índole analítica para pasar al terreno del intercambio simbólico.”¹⁰⁸ Beraz, diskurtso poetikoaren azterketak garrantzia galtzen du idazlearen figura publikoaren mesedetan, eta hala, joko-arauak elkar truke sinbolikoak ezartzen ditu. Puntu honekin lotzen dira bere garaian Lubaki Bandari egin zitzaizkion kritika nagusiak. Artikulu haien egileek, ikusirik diskurtso poetikoak eta idazketak garrantzia galtzen zuela, eta idazlearen paper sozialak ordezkaten zuela, testu literarioaren aldeko aldarria egiten dute.

Presentzia mediatikoa bihurtzen da, beraz, balio sinbolikoa eskuratzeko tresna nagusia, eta horretan aldeko izan zituen Lubaki Bandak hedabideak eta literatur sistemako beste eragileak. Iban Zalduak ongi adierazi izan duen bezala, gaztetasuna balio gorenetakotzat duen gizartean, idazle gazteek zabal-zabalik aurkitzen dituzte hedabideetako atak. Lubaki Banda argitara atera zenean, hala, gaztetasuna zen etengabe aipatzen eta goraiatzen zen ezaugarria. Hala, Xabier Aldaik liburua argitaratu zuenean, “Poeta gazte baten pentsakizunak” eta “Poeta gazte baten ikuspegia”¹⁰⁹ izan ziren prentsan argitaratutako bi artikuluren izenburu esanguratsuak. Elkarrizketa batean, berriz, zera galdetzen zioten azpeitiarrari: “zer egiten dute zu bezalako mutil gazteek poesia idazten?” Bestetik, idazle gazteak sustatzeko beren ohiturari jarraituz, Susakoek izen bereko aldizkariaren ardura Lubakiren

¹⁰⁸ Mateo Gambarte, E. op. cit.

¹⁰⁹ *Diario Vasco* (1993-11-13) eta *Euskaldunon Egunkaria* (1993-11-13), hurrenez hurren.

esku utzi zuten 1993tik aurrera, eta Aldai eta Canoren poema liburuak argitaratu. Elkarrek, bere aldetik, 1996an Kaiero jarri zuen martxan, Lubaki Bandaren esku egongo zen literatura saila. Horrez gain, Lubakiko kide asko prentsako kolaboratzaile eta iritzi-emaile bilakatu ziren, eta, baita literatur kritikari ere. Hala, bat baino gehiago izan ziren Lubaki-ko kide batek beste kide baten liburuari egindako literatur kritikak. Gogoratzekoa da, bestalde, Euskaldunon Egunkariak, *Liluratura* sailaren gidaritza Garikoitz Berasaluze Lubaki bandakidearen esku utzi zuela.

1963 inguruan jaiotako eta 1980ko hamarkadan puikatzen hasitako idazle sailak sistema literarioak beharrezkoak zituen plataformak egituratzen lan egin bazuen (Euskaldunon Egunkaria, literatur aldizkariak, argitaletxeak, harreman sareak...), Lubaki bandak plataforma horiek esku-eskura izango ditu bere burua ezagutarazteko eta sistema literarioan lekua egiteko. Hala, periferian zegoen idazle taldea, edo haietako batzuk, botere sinbolikoa irabazten joango dira, eta eremu literarioaren erdigunerantz desplazatzen. Hasieran lubakietako gerra bezala planteteatu zutena, nahikoa bide erraza suertatu zitzairen, Garikoitz Berasaluzek¹¹⁰ aitortu bezala: “Lubakietatik tiroka atera ginenean balizko etsai bati tiroka atera ginen, baina gerora konturatu gara lubakietatik egindako eraso horiek etsaiak baino gehiago lagunak egiteko balio izan digutela. Susak oso laguntza estimagarria eman zigun eta Elkar argitaletxeak oso eskaintza ona egin digu.” Maldarik gabeko bidea da, beraz, lubakikideena, sistema literarioa (hedabideak eta argitale-

¹¹⁰ Zabala, J.L. “Garikoitz Berasaluze: Hasiak gara poesian Negu Gorriak-en herentzia jasotzen”, *Euskaldunon Egunkaria* 1996-12-05

¹¹¹ Segurola, I. “Olerki 93”, *Euskaldunon Egunkaria* 1993-11-07.

txeak, batik bat) idazle gazteen egarriz zeudelako sasoi hartan. Bide horretatik egin zien Iñaki Seguroiak¹¹¹ kritika zera zioenean: “kultura ere gaur egunean nekez bizi litekek bere gazte-sail errebeldekoa gabe”. Literatur sistema prest dago errebeldia puntu bat erakutsiko duen idazle gazteak onartzeko, are gehiago, beharrezko ditu eta ateak zabaltzen dizkio parez pare Lubaki bezalako proposamen bati.

Lubaki Bandak izan zuen oihartzunak zerbait agerian jartzen badu, hori da euskal literatur sisteman dagoeneko ez duela testuak bere kabuz funtzionatzen. Euskal literaturan honezkero, testua bigarren mailara iragan dela eta idazlearen presentzia mediatikoa dela botere simbolikoa lortzeko bidea. Geroztik horren froga garbiak izan ditugu euskal literaturan: ezaguna da Jasone Osororen lanaren gizarteratzean idazlearen mediatizazioak (emakumetasuna eta erotismoa neurrigabe azpimarratuz) izan zuen pisua, edo berrikiago, Kirmen Uriberen lanaren hedapenean jendaurreko emanaldiek izan duten zeresana. Kasu hauetan ere, izan duten entzutea ez da haien testuetatik zuzenean eratorri den zerbait (eta ez da nire asmoa hemen haiek horregatik epaitzea), ezpada sistema literarioaren barruan egindako mugimenduen ondoriozko zerbait. Agian honela azal liteke hainbeste izendapen jaso dituen *tropelaren* belaunaldiaren egoera ere. Baliteke idazle horiek plazaratu ziren garaian, euskal literatur sistema behar bezain garatua ez egotea, edo idazleek Bourdieuk aipatzen duen *habitus* hori bereganatua ez izatea. Lubaki Bandarekin eta ondoren, badirudi idazle gazteek (eta baita argitaletxeek ere, interes komertzialak tarteko) bereganatuak dituztela eremu literarioak bereak dituen arauak, eta haien arabera jokatzeko dutela, periferiatik erdiguneranzko etengabeko lehian.

Belaunaldi literarioak *Eskualduna* astekariaren “gizaldi gaztea” (1877- 1888)

Jon Casenave, Bordeaux III

Sartzea

Zer balio du gizaldi literarioen konzeptuak euskal kulturaren ulertzeko eta haren historiaren egiteko? Galde horri erantzuteko, iparraldean izan ditugun belaunaldietarik menturaz ohargarriena aztertuko dut, hain zuzen *Eskualduna* astekarian, XX. mende hasieran idazten hasi dena. Baionako astekariaren bigarren belaunaldi edo “gizaldi gazte” hortan, J. Barbier, J. Etxepare, P. Lhande, J. Saint-Pierre, Oxobi edo Zerbitzari aurkitzen dira, hots, orduko idazleen artean, izen ezagunenak.

Lehen parte batean, gizaldi bat osatzen dutela ikusiko dugu. Adinaren kriterioa oinarritzat hartuz, azpimarratuko dut ezaugarri frango partekatzen dutela elgarren artean, formakuntza eta maisuak, lehen idazgaiak, hizkuntza eredu berdina, besteak beste. Denbora berean, ohar-tuko gara salbuespen bat edo beste izanen dela beti gure zerrendan, nahiz ez den aldi oroz jende bera besteetarik berex agertzen dena.

Bigarren parte batean, “belaunaldi literarioak” sin-tagmaren bigarren partea aztertuko dut beti jende eta adibide berdinekin. Gizaldi bat osatzen dutela elgarren artean ikusi ondoan, ikertuko dugu zer zuten elgar partekatzen literaturaren aldetik. Aukera estetiko batzu, mugimendu edo eskola bat osatu izan balute bezala? Edo, molde umilago batez, zenbait argitalpen baita ere beren artean harreman sozial soil batzu? Alde hortarik, Pierre Bourdieu¹¹², Pascale Casanova¹¹³ eta Joan-Mari Torrealdairen¹¹⁴ ikerketen ondotik, eremu eta pratika literarioen konzeptualizazio orokor bat behar genuke abiatu XIX eta XX. mendeen arteko junta horri buruz. Ene egungo gogoeta murrizagoa izanen da bainan, literaturaren historia eta soziologiaren bide hortarik doa.

1. *Eskualduna* astekarian gizaldi bat osatzen

1.1. *Gizaldi berria mindegian sortzen*

XX-garren mende hastapenean, *Eskualduna* astekariaren baitan eta inguru hurbilean gizaldi literario bat osatu da. Alde hortarik erran daiteke kazeta mindegi bat izan dela iparraldean, garai hartako idazle gehienak haren baitan egin baitzituzten idazketarako ikasketak eta lehen probak. *Eskualduna* 1887an jaigutzen da lehen aldirako. Louis Etcheverry diputatu gaiak plazaratzen du Baionan, hauteskundeetara bere kontra aurkezten den Martial Berdoly-k, urte bat lehenago *Le Réveil basque*

¹¹² P. Bourdieu, *Les Règles de l'Art*, Ed. Seuil, 1992.

¹¹³ P. Casanova, *La République mondiale des Lettres*, Ed. Seuil, 1999.

¹¹⁴ J.M. Torrealdei, *Euskal idazleak gaur*, Ed. Jakin, 1977; *Euskal Kultura gaur*, Ed. Jakin, 1997.

argitaratu baitu Pauen. Beraz, biek Euskal Herri barneko laborari boz emaileak hunkitu beharrez, tresna berri hori erabiltzen dute, bi hizkuntzetan (euskaraz eta frantsesez) ezartzen dutelarik. Etcheverry jabearen inguruan, idazle eta kazetarien artean, orduko euskalzale eta euskal gaie-tan adituak diren izen handi batzu aurkitzen dira: J.P. Duvoisin, E. Inchauspe, J. Hiriart-Urruty, A. Abbadie, Gratien eta Blaise Adéma, besteak beste.

Horiek lehen gizaldia osatzen dute, maisu edo sus-tatzaileena, bainan euskal kazetaritzaren sortzaile historiko horien ondotik eta ildotik datozen idazleak nahi nituzke aipatu “belaunaldi literarioen” gaian barnatzeko gisa.

1.2. *Aurkezpena: Nor dira?*

Adin bereko jendeek dute ontsalaz gizaldi bat osa-tzen. Bainan, non gelditu behar da? Zein da onar daite-keen arteka garaikide horien artean? Komuzki, hamar bat –hamabost bat urte gutti gora behera– kondatzen ahal da. Gisa hortan, ondoko hauek sar daitezke “*Eskualduna*-ren gizaldi ederrean”:

- Jean Barbier (1875-1931)
- Jean Etchepare (1877-1935)
- Pierre Lhande (1877-1957)
- Jean Elissalde “Zerbitzari” (1883-1961)
- Jean Saint-Pierre (1884-1951)
- Jules Moulier “Oxobi” (1888-1958)

Jende horiek oro, *Eskualduna* astekarian idazten dute XX. mende hastapenetik hara. Ageri den bezala, orduko kolaboratzaileen artean idazle gisa ezagun bilakatu direnak baizik ez ditut altxatu. Ohartuko zarete ere, Oxobi sar arazten dudala zerrendan, Barbier baino hamahiru urtez gazteago izanik ere, bainan Léon-Léon hazpandarra, 1896-an sortua (1896-1962) kanpo uzten dut Lafittekin batean (1901-1984) sailkatzeko. Eta era

berean, Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) eta Pierre Broussain (1859-1920) aintzineko belaunaldian sartzen ditut, dudarik gabe, aipatu gogo dudan gizaldi hartako gazte gehienen bultzatzaileak eta lehenarentzat bederen heien erakaslea izan baita Larresoroko seminarioan.

Periodizazio gai horri arrazoin bat gehiago emateko, oroit gaitezen Jean Etcheparek Hiriart-Urruty, Abbadie eta Blaise Adéma idazkera mailan izan zituen maisuak bezala aurkeztu zituela¹¹⁵. Halaber, adinaren aldetik bere aintzinean zuen lehen gizaldian bilatu zituen maisutzat zeuzkanak P. Lafittek, batez ere Jean Saint-Pierre eta Jean Etchepare¹¹⁶.

1.3. Ezaugarri nagusiak: Zerk ditu elgar biltzen?

1.3.1. Gaztaroa eta formakuntza

Zerk ditu elgar biltzen? Formakuntza eta ikas-etxea dudarik gabe, eta gehienentzat Larresoroko seminario ttipia izan da. Lhande zerrendatik kenduz geroz, beste guztiak Larresorotik pasatu dira eta erakasle berak ukan dituzte. Eta lehenago erran bezala, horietarik batzu maisuak izan dira idazle gaiantzat.

Zergatik ez has etxetik, familiarik edo klase sozialetik aztertzeko zer duten elgar ikusteko? Preseski, egoera sozio ekonomikoaren aldetik, ez dira denak leku beretik heldu. Lhande –familia pobreturik ere– Zalgizeko Appathia jauregian altxatua izan da; J. Etxepare-ren burasoak Ameriketarik etorri ziren Lekornera seme gehienak sei urte eta erdi zituelarik, beraz, Amerikano baten semea

¹¹⁵ Ikus *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak*, «Euskal gaiak»: Hiriart-Urruty kalonjea, Arnaud Abbadie kalonjea, Jean-Blaise Adéma.

¹¹⁶ P. Lafitte, «Notre Maître : M. le Dr Etchepare», in *Gure Herria*, 1932.

zen egoera horrek ekartzen zituen errextasun guziekin, eta beste bat hartzekotan, aipa dezagun Oxobi; hura, guarda baten semea zen eta ondorioz, molde xumeago batez bizi zen. Beraz, ez dugu hortan kriterio bateratzailerik. Halarik ere, Euskal herri barneko herri eta hiri ttipi horietarik heldu ziren gehienak, eta laborariek zuten bizi molde tradizionalari atxikimendu berbera erakutsi dute, ñabar-dura zenbaitekin eta batzuetan arrazoin desberdinengatik.

Ikasketarik landa gizartean beteko duten funtzioaren aldetik ere dira itxura berekoak jende horiek: Barbier, Saint-Pierre, Oxobi eta Elissalde, seminario handira joaten dira Larresorotik jalgitzean eta apezten dira. Lhande, Baionatik kanporatua da eta, Rodez-en Jesusen lagundian sartuko da : ondorioz, Holandan, Ingalaterran, Españan gaindi ibiltzen da bere ikasteketen egiteko eta, dudarik gabe, besteei falta zitzaien idekidura bat aurkituko du bizi hortan. 1910ean apezten da hura ere. Beraz, gehienek Elizaren baitan egin dute beren bizia, Jean Etchepare kanpo utzi eta, hura mediku izan baita.

1.4. Bultzatzaile eta sortzaile

Gaztarotik eta formakuntza garai hortarik jalgi eta, benetazko gizaldi bat bezala, elgarrekin, ari izan dira lanean jende horiek, bai *Eskualduna* astekariaren bizi arazteko, *Eskualzaleen Biltzar*-ean edo, lehen gerlatik landa, *Gure Herria* aldizkariaren sortzeko. Hots, elgarren artean bildu dira urteetan zehar, euskal kultura mailan gauzen bultzatzeko edo sortzeko.

1.4.1. Eskualduna

Eskualduna kazetari esker beren lehen probak egin dituzte idazkera mailan. Jean Hiriart-Urrutyk, erakasle gisa luma trebeenak berehala begistatzen zituen seminario ttipian eta, ondotik bere astekariarentzat behar zituen

berriketariak ikasle ohien artean hautatzen zituen ardura. Hala egin zuen adibidez, Jean Etxepare medikuarekin, Al-dudeko berri emaile bezala egon baita luzaz, bestalde egi-ten zituen kronikak aparte utzirik. *Eskualduna* kazetan ar-gitaratu zituen *Buruchkak* deitu liburuan 1910ean bildu zituen prosazko testuak. Jean Barbierrek ere, bere lehen olerkiak (Lore jokoetan saristatuak izan zirenak) kazeta hortan publikatu zituen eta urteetan zehar, ipuinak eman-nen ditu hortan baita ere berantago *Piarres* eleberriaren parte bat zatika, «feuilleton» gisa. Lhandek ere gauza bera egiten du *L'Emigration basque* (1910) saiakerarekin. Oroitu behar da ere, sortzaile historikoen belaunaldia desagertu eta, Hamalauko gerlatik itzuli ondoan, jende horiek dituzte beren gain hartuko *Eskualduna*-ren segida eta geroa, hala nola Jean Saint-Pierrek kazetaren kudeantza.

1.4.2. *Eskualzaleen biltzarra*

1902an sortu zen –nekez sortu J. Etxepareren araberan– Hondarribian, *Eskualzaleen biltzarra*. Gora behera frango ezagutu ditu Hamalauko gerla baino lehen, bainan, ez da sekulan bilakatu sortzaileek amesten zuten instituzio bateratzaile indartsua. Euskaltzaindiaren sortzea igurikatu behar da, 1919an eta 1920ean, akademia baten ikusteko euskararen alorrean. Halarik ere, euskalzale gisa, Etxepare, Saint-Pierre eta besteek instituzio ahula sustengatzen dute. Gerlatik itzuli eta, 1922an hain zuzen, Jean Etxeparek, *Eskualzaleen biltzarra*-ren lehen-dakaritza hartzen du eta, berrikuntza asko proposatzen ditu bizi kultural baten sortzeko euskararen inguruan. Decrept president ohiaren ideiak berritz hartuz eta barnatuz, eskoletako ikasleen artean lehiaketa batzu antolatu ditu, baita ere seminaristen artean. Funtsean horrela ezagutu du ondoko urteetan adiskide handi beharra zuen Piarres Lafitte. Hots, jende horiek indarrak neurtu gabe,

gogo eta fede onez ari izan dira orduko euskal kultura sustatzen eta aintzina bultzatzen.

1.4.3. *Gure Herria*

Eremu kultural hortan, sortzaile izan dira ere garai berean. *Eskualduna* astekaria desagertzetik begiratu eta, *Gure Herria* aldizkaria sortu dute 1921ean. Jean Saint-Pierrek eta Jean Barbierrek uste zuten entrebaleko tresna bat falta zela euskal kultura mailan. *Eskualduna* kazeta, denentzat egina zen, erran nahi baita, berri emaile gisa ez ziela sorkuntzari edo euskal gaietoki handiegia emaiten ahal. Kulturaren beste muturrean, *Riev* deitzen zen goi mailako agerkari zientifikoa bazen; hortan, euskarari buruz edo euskal literaturaren gainean egiten ziren aurkikuntzak edo ikerketak emaiten ziren gehienetan erdaraz, euskal gaien saileko orduko adituen artean zabaltzen baitzen, Europa mailan. Hots, bi aldizkari guziz desberdin horien artean, hilabetekari kultural baten beharra bazela uste zuten gure gizaldiaren idazle gehienek eta, abantxu bigarren munduko gerla arte, *Gure Herria* argitaratu dute kulturaren alde gehienei toki bat eginez.

1.5. *Hizkuntza literario baten garatzaileak*

Orain arte ikusi dugu elgarrekin ari izan direla lanean euskal kultura mailan gauzen sortzeko edo bultzatzeko. Bainan, idazle ziren ber, hizkuntza mailan ere zerbait ekarri dute elgarren artean, hizkuntz eredu bat hain zuzen.

1.5.1. *Eskualduna*-ren hizkuntz ereduak:

Zein da hizkuntz eredu hori? *Eskualduna* astekariak urteetan zehar landu eta zabaldu duena hain zuzen¹¹⁷:

¹¹⁷ P. Lafitte, *Grammaire du Navarro-labourdin littéraire*, 1934.

“Aussi la lecture du journal *Eskualduna*, de la revue *Gure Herria*, ou des œuvres de Abbadie, Barbier, Etchepare, Apesteguy, etc. révèle-t-elle la naissance d’une langue littéraire commune à presque tout le Pays basque continental, et que l’on pourrait appeler «néo-labourdine», ou plus précisément «navarro-labourdine».

Ortografiaren aldetik gauzak berehala argitzen dira iturrietara joanez. Aski fite, grafia finkatu bat erabiltzen dute eta, bortxaz ala gogo onez, astekarian idazten hasten diren jende berriek ortografia bera erabiltzen dute –salbu xibereraz idazten dutenentzat. Eta liburu baten egitera ausartzen direlarik, eredu ortografiko bera erabiltzen dute, hor dugu lekuko J.Etxepare, *Buruchkak* jalgitzen duelarik, 1910ean. Bainan, gauza jakina da J. Hiriart-Urruty frango kilika zela euskarari buruz eta hura zela nagusia *Eskualduna*-ren kofoinean. Hizkuntza nahi zuen egin ahala irakur-errexak denek ulertzeko gisan, ez sobera nahasia ez eta ere garbiegia. Haren lan-metodologiari buruz Lafittek kondatzen zituen anekdotak¹¹⁸ ezagunak dira, hala nola idazteko nekeak zituelarik, karrikara jausten zela merkatuko jendeen artean murgiltzeko beharria euskararen mamiaz bete beharrez. Bestalde, Broussainek kondatzen zuen jendeek igorritako artikulua gain behe-bera berrituz antolatzen zituela baita ere berrituz idazten, hizkuntzari berak gisa zeukan euskarazko itzulua eman nahiz.

Larderia handiko maisu horrekin ikasi dute idazten Barbierrek, Etxeparek, Oxobik eta besteek. Gorago aipatu bezala, Jean Etxeparek omenaldi batzutan erran du zenbatetaraino miretsi duen J. Hiriart-Urruty, Arnaud Abbadie eta Blaise Adéma, astekariaren sortzaile historikoen idazteko moldea.

¹¹⁸ P. Lafitte, «Jean Hiriart-Urruty», in P. Urkizu-ren edizioan, *Euskal literaturaz*, Ed. Klasikoak, 1990.

1.5.2. Euskaltzaindian

Aipatu ditugun jende horiek aurkitzen ditugu ere Euskaltzaindiaren lehen urteetan. Pierre Lhande, 1919an eta 1920ean Hernanin bizi zen eta ez badugu sortzaileen arteko lehen bilkuretan aurkitzen, 1920etik goiti, euskaltzain oso bezala agertzen da xiberera euskalkiaren aditu gisa. Bestalde, *Euskera*, Euskaltzaindiaren agerkiariaren lehen idazkaria izan da, lehen bi urteetan. Etxepare ez da euskaltzain oso izan, urgazle bezala izendatua izan da. Bainan, gizaldi bereko beste gehienak, Oxobi, Elissalde eta Jean Saint-Pierre, hastapenean kritiko izanik ere (Oxobi eta Elissalde batez ere), Euskaltzaindian sartzen dira, bakoitza bere aldian. Salbuespen bat behar baita beti: aldi hontan Jean Barbier izanen da.

Euskaltzaindiaren lanetan parte hartzeak erran nahi du batez ere, denek ikusten zutela gogoeta baten beharra hizkuntzari buruz, baita ere euskalkien gainean. Sail hontan ere, adin bereko jende horiek norabide berdina hautatu dute elgarrekin.

2. Gizaldi literario bat ote?

2.1. Idazle talde baten argitalpenak

Aipatzen dugun idazle multxo horrek hainbat testu eta liburu argitaratu du:

Jean Barbierrek, kantuak, kantikak eta Elizako liburua argitaratu ditu eta bestalde hiru liburu, ipuin bilduma bat (*Supazter xokoan*, 1924), eleberrri bat bi partetan (*Piarres*, 1926-1929) eta ipuin bilketa bat (*Légendes du Pays basque d'après la tradition* –1931– erdaraz eta euskaraz).

Jean Etxeparek, artikulu ainitz baditu eginik *Eskualduna* astekariaren eta *Gure Herria*-n, azken urte hauetan

Piarres Charrittonek bost liburuki loditan¹¹⁹ bildu ditu. Bi liburu argitaratu ditu: *Buruchkak* (1910) eta *Beribilez* (1931).

Jean Saint-Pierrek artikulu frango badu eginik bere bizi guzian, literaturari buruz eta hizkuntza sailan ere. Bainan ez du libururik ateratu. Hura hil eta, Piarres Lafittek testu horien hautaketa bat eskaini du «Les Meilleures pages de Monseigneur Saint-Pierre» deitu liburuan. Geroztik, P. Charrittonek beste testu bilduma bat argitaratu du, Gerla Handiaren denborako kronikak biltzen dituena¹²⁰.

Jules Moulier «Oxobi»-k artikuluak egin ditu *Es-kualduna* kazetan eta *Gure Herria* aldizkarian. Bestalde, bost liburutto argitaratu ditu, gehienak neurtitzetan eta ezagunenak dira, dudarik gabe, haren *Alegiak* (1926). Horiek oro bilduak izan dira geroztik liburu batean¹²¹.

Jean Elissalde «Zerbitzari» idazleak bost liburu argitaratu ditu; biga elizako liburuak dira eta itzulpenak. Dourisboure euskal misionestaren liburua itzuli du euskarara, *Bahnar deithu Salbaiak* (1936). Haren idazlan ezagutuena bilketa bat izan da, *Atsotitz, zuhurhitz eta erran zahar* (1936).

Bainan, gizaldi horren jendeen artean, idazle emankorrena Pierre Lhande izan da. Berrogoi bat liburu badu eginik, gizaldi bereko euskal idazle gehienek ez bezala gehien gehienak erdaraz. Bospasei badira euskal gaietarako buruz eginak; hiru saiakera: *Autour d'un foyer basque*

¹¹⁹ P. Charritton-ek paratua., *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak*, Ed. Elkar, 1984-1996.

¹²⁰ P. Charritton-ek paratua., Jean Saint-Pierre «Anxuberro», *14-eko Gerla Handia*, Ed. Klasikoak, 1998.

¹²¹ A. Beola-ren edizioan, Jules Moulier «Oxobi», *Alegiak eta poemak*, Ed. Klasikoak, 1992.

(1908), *L'Emigration basque* (1910), *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1923); hiru eleberri: *Mirentchu* (1914), *Yolanda erdaraz* (1920) *Yolanda* euskaraz (1921), *Bilbilis* (1925). Bestalde, ainitz artikulu egin du eta horietarik zenbait, euskal literaturaren historia mailan. Hori guzia ahantzi gabe haren hiztegia, Lafittek osatu eta bukatu zuena. Orroitarazi behar ere, Pierre Lhande idazle ezaguna izan dela Frantzia mailan. Haren eleberriek arrakasta gaitza ukan dute, bai irkurleagoaren aldetik baita ere kritikari begira. Erabat ahantzia baldin bada ere, bere garaian norbait izan da Lhande, predikari gisa eta idazle bezala; argitaletxe handi batzuetan publikatu zuen: Plon, Beauchesne, etb.

2.2. *Ezaugarri estetikoak?*

Ageri den bezala, iparralde mailan, aintzinekoek baino aise gehiago argitaratu dute jende horiek. Bizkitartean, ez da erraiten ahal ezaugarri bateratzaile handirik aurki daitekeenik obra horien artean. Hasteko, argi da ez dela idazlan horien artean ezaugarri garbirik estetika eta poetika mailan. Lhandek saiekera eta eleberria lantzen ditu batean, baina hark erdaraz idazten du gehien bat, eta euskaraz egiten duelarik gipuzkera hautatzen du. Denbora berean, besteek euskara aukeratzen dute eta iparraldeko euskalkiak, baina nabari da ez direla denak bide beretik ari. Izaitekotz, elgarri hurbil direnak Elissalde eta Oxobi dira menturaz, biek herri literaturan oinarritzen den hizkuntz eredu bat bilatzen baitute, alegia, olerki eta atsotitzen bitartez lantzen dutelarik. Jean Saint-Pierrek, bereziki gerla tokietarik igortzen dituen testuetan, kronika lantzen du, idazle-kazetari baten gisan.

Jean Barbieren obran, kondaketa (diskurtso narrati-boa) da menturaz alde interesgarriena, ipuinetan eleberrian bezala, kondaketa fikzioaren behar eta arauai ple-

gatzen baitu. Bainan, zoritxarrez ekintzari baino karakter edo pertsonaiei ematen die lehentasuna eta haien eredu-garritasunari hobeki errateko, harentzat morala giristinoaren eredia delarik eredu-garriena. Horrela eginez, fikzioari egitasuna eta sinesgarritasuna gal arazten dizkio, Etxeparek *Piarres* eleberriari buruzko kritika batean leporatu zion bezala.

Azken adibidearen aipatzeko, erran daiteke literatura dela hein handi batean helburu nagusia Etxepareren liburuetan. Bainan, *Buruxkak* banatzetik gelditu behar izan du saltzen hasi orduko eta *Beribilez* bidai liburuarentzat, gehienek –Lafitte ez bada– harek egin gogo zuenaren orde, beste zerbait irakurri zuten, hitz batez erraiteko Euskal Herriaren gaindi autoan egindako itzuli goxo bat, besterik ez.

Bururatzeko, ez da erraten ahal belaunaldi horren konzientzia literarioa ezaugarri estetikoetan bilatu behar denik. Ene konklusio ezkorriari nabardura zerbait ekartzeko, kasu bakar bat aipa dezaket: hain zuzen jende horiek gerlaren gainean idatzi dutena. Saint-Pierrek, Etxeparek, Elissaldek eta Barbierrek gerla aipatu dute, izan dadin *Eskualduna* astekarian agertu kroniketan lehen bientzat, agerkeri berean bainan denboraren buruan argitaratu orroitzapenetan Elissalderentzat edo *Piarres* eleberrian Barbierentzat. Hain segur, gehienek Hamalaueko gerlan izigarrikeriak ikusi baitzituzten, denen artean batasun estetiko bat aurkitzen dute gai hortan, egitasun eta sinesgarritasun mailan bereziki. Bainan, nik uste, kasu bakarra da.

2.3. Literaturaren konzientzia

Ez badute literaturaren konzientzia bera ez eta ere beren artean landutako estetika berdina elgarren artean partekatzen, erran daiteke halere, denek badutela

–bakoitzak bere heinean– literaturaren konzientzia. Lehenik, euskara mailan estandar literario berdintsua erabiltzen zutela erran dugu. Hortan batasun zerbait kausitu dute, dudarik gabe, eta ez da gehiago ikusten XIX. mende ondarreko idazkeren arteko diferentzia edo desmaila nabaririk –adibidez, Michel Elissamburu eta Jean Pierre Arbelbideren artean.

Bainan, beste ezaugarri batzu azpimarratu nahi nituzke. Lehenik, literaturaren historiari abiatze bat emaiten diote iparraldeko zenbait idazlek garai hartan eta denak *Eskualduna*-ren bigarren gizaldi hortakoak dira. Etxeparek, lehengo idazleen gordeleku¹²² edo Panthéon gisako zerbait egin gogo du, bere maisuei buruz (Hiriart-Urruty, Abbadie, Adéma osaba-ilobak aipatzen dituelarik. Ezaugarriak estilo mailan finkatzen ditu batez ere, «hizkuntza literario» baten inguruak marrazten ditu pasatzean eta eredu horren oinarritzeko, Duvoisin edo Axular eratzikitzen dizkie. Gainera, Eskualzaleen lehendakari gisa, omenaldiak antolatzen ditu Chourio edo Leizarragaren ohoretan orroit harri batzu ezar araziz edo gogoeta egunak antolatuz, Saran Axularri buruz adibidez.

Gisa berean, kritika literario baten lehen urratsak egiten ditu ere, Barbier, Elissalde, Agirre edo Oxobiren liburuak aipatzen dituelarik bere aste guzietako kronikan, *Eskualduna* astekarian¹²³. Aipamen horietan ez da argitalpenen abisu hutsean gelditzen, mamia eta idazmoldea ere hurbiletik aztertzen ditu, hala nola Barbieri sinesgarritasun falta leporatzen diolarik *Piarres* eleberrian aurkitzen diren bazterren deskribapenetan. Holako, idazlanetan, ez da dudarik literaturaren konzientzia aurki daitekeela.

¹²² Ikus «Euskal Gaiak» antologian aurkitzen diren hainbat artikulua.
Jean Etchepare mirikuaren idazlanak, Ed. Elkar, 1984

¹²³ Ikus «Euskal Gaiak».

Bainan, euskal literaturaren historia bidean jartzearen beharra hobekienik dakusana Pierre Lhande da, du-darik gabe. Harek, *Etudes* Jesuiten agerkariaren kudeantza hartuko du zenbait urte geroxago, kritika literarioa sailean preseski, bainan, Euskal Herrian bizi denean oraindik, hots gerla handitik landa hiruzpalau urtez, urrats handi bat egiten du norabide hortan. *RIEV* eta *Gure Herria* aldizkarietan, funtsezko artikulu batzu publikatzen ditu euskal idazleei buruz: Etxahun-Bar-koxe¹²⁴, Domingo Agirre¹²⁵ aztertzen ditu besteak beste, korpus bat finkatu beharrez. Era berean, klasikoen Pan-théon baten beharra ere ikusten eta aipatzen du, bere moldean *Le Pays basque à vol d'oiseau* deitu liburuan.

Besteak, egia erran ez dira lehen bi horiek bezain aintzinatua edo ez hain ausartak eta hizkuntza mailan gelditzen dira gehienetan; Oxobi eta Elissalderen kasua da adibidez. Pundu honekin bukatzeko, erran dezagun beraz, eremu literario baten konzientzia edo beharra bazela gizaldi horren partaideen artean bainan, ez zen denentzat maila berean.

2.4. Sorkuntzaren mugimendu konplexua

2.4.1. Barneko dinamika.

Orain, literaturaren kezkaekin segitzeko, beste alde bat nahi nuke aipatu. Jende horietarik batzu, sorkuntzan ari izan dira; hiru lagun batez ere: Barbier, Etxepare eta Lhande. Bururatzeko, azter dezagun nondik heldu zitzaaien inspirazioa, non zituzten iturriak eta aipagaiak.

¹²⁴ P. Lhande, «Le barde Etchahoun», in *Gure Herria*, 1923.

¹²⁵ P. Lhande, «Domingo Agirre», in *Revue internationale d'Etudes basques*, 1920.

Hiruek, euskal gaiak erabili dituzte beren sorkuntza lanetan, bakoitzak bere moldean. Lehen ikusi dugun bezala, Lhandek beste gai mota frango landu du bere eleberri eta saiakeretan bainan, *Autour d'un foyer basque*, *L'Émigration basque*, *Mirentchu*, *Yolanda* eta *Bilbilis* deitu liburuetan euskal gaiak barnatu ditu. Etxeparek, jadanik aipatu ditugun *Buruchkak* eta *Beribilez* obretan eta Barbierek *Supazter chokoan* eta *Piarres* kondaketetan.

Iparraldean, haiek diote funtsezko bultzada ematen «euskal gaien» sailari, prosa mailan. XIX. mendean, Agosti Xahok eman zien lehen abiatzea bere liburuetan, *Voyage en Navarre* (1836) eta *Biarritz, entre les Pyrénées et l'Océan* (1855). Ondotik zenbait liburu izan ziren ildo beretik hala nola Pierre Harisperen *Ainhoa* 1893an, «roman de mœurs basques» berak deitu zuena azpi titulu batean. *Atheka gaitzeko oihartzunak* ere hor ditugu, bainan, horiek erdaraz eginak izan dira eta funtzio berezi batekin plazaratuak, ez ditugu hemen aztertuko.

Euskal gaien lantzeko gogoia euskal kulturaren baitako dinamikatik heldu zitzaien dudarik gabe. In-guruko egoera erakargarria zen: Abbadie-k kudeatutako pestek eta Lore jokoek ezagutza publikoa eman zioten euskal kulturari baita ere sorkuntza literario mota bati, ez erabat herrikoia, ez eta ere kultuegia. Kanpoko eta bertako jakintsunen lanek ere kultura argitan ezarri zuten, hizkuntzaren berezitasuna batez ere. Eta, nortasunari buruzko gogoeta eta eztabaiden egiteko parada asko izan zen, hala nola 1897an Donibane Lohitzunen ospatu zen kongresuan¹²⁶ edo, bestenaz *Eskualduna* astekarrian, Frantses Gobernu eta Elizaren arteko gora beheren kariatetan adibidez.

¹²⁶ Ikus jardunaldi horietan eman ziren mintzaldiak in *La Tradition basque* (1901), Ed. Elkar, 1994.

2.4.2. Kanpoko eragina: ispilua eta kontra ereduak

Bainan Euskal Gaien moda edo arrakasta kanpotik heldu zen ere. Ez naiz gai hortan luzatuko, jadanik aipatua baitut bestalde¹²⁷; doi-doia orroit araz dezadan *Ramuntcho* Pierre Lotiren eleberriak ukan zuela aipamen nasaia, Euskal Herrian berean baita ere hemendik kanpo, idazlearen ospereengatik, XX. mende hastapen hastapeanean. Anatole Le Braz¹²⁸ garai hartako kritikari eta ikerle ezagunak erran zuen orduan Euskal Herria sartzen zela literaturaren eremuan eleberri horri esker. Eta Lotiren ondotik, frantsesez idazten zuten eleberrigile frangok «Euskal Herria»ren gaia erabili dute, izan daitezen frantzia mailan ezagunak Francis Jammes¹²⁹ bezala ala hemen gaindi bakarrik preziatuak Mayi Elissague¹³⁰ edo Augustin Fourcaderen¹³¹ gisa.

Bainan, orduko euskal autoreentzat, Barbier eta beste euskal idazle garaikideentzat, garrantzi handikoa izan zen abiatze hori, hari esker ohartu baitziren begien bistan zuten eskualde eta jende horiek gai literarioak izan zitezkeela. Dakizuen bezala, bakoitzak bere moldean erabiliko du gaia, eraginak ondorio desberdinak ukan baitu norberaren nortasunaren arabera. Lhanderentzat Loti aurkako edo lehiakide bat izan da; Barbierentzat aldiz eredu bat eta Etxeparek erreferentzia bezala erabili du *Ramuntcho* testu artekotasan erakargarri baten sortzeko,

¹²⁷ J. Casenave, «*Ramuntcho*: Pierre Loti-ren sartzea Euskal Herrian» IKER 14 (II), Ed. Euskaltzaindia, 2003.

¹²⁸ A. Le Braz, *Ramuntcho*-ren aurkezpena, *Le Journal des Débats* agerkarian, 1897.

¹²⁹ F. Jammes, «Le Mariage basque» in *Cloches pour deux mariages*, 1923 ; *Les Robinsons basques*, 1924.

¹³⁰ P. Apesteguy, *Gachucha*, 1934.

¹³¹ A. Fourcade, *La Nuit étoilée*, 1922.

«Pilota partida»¹³² deitu kondaketan adibidez. Beraz, hiruek ez badituzte euskal gaiak molde berean landu, ez da dudarik hiruek gai nagusi gisa erabili dituztela.

Bururatzeko

Nahiz ez den erraten ahal «belaunaldi literario» bat osatzen zutela, Emile Zolaren inguruan idazle naturalistek bere afari famatuetan talde bat egiten zuten bezala edo Surrealistek Bretonen itzulian, ezaugarri asko partekatzen zuten elgarren artean.

Beraz, ez da erraten ahal *Eskualduna*-ren bigarren gizaldi gazte horrek «belaunaldi literario» bat osatzen duenik, Zolaren inguruan naturalistek egin zuten bezala XIX. mende hondarrean. Ez da erraten ahal ere estrategia bat muntatu zutenik Ramuz eta «Les Cahiers Vaudois»-ko idazle suizarren gisa, gerla handiaren bezperan bildu zirenean, «Raison d'être» testu programatikoaren inguruan bertako edo tokiko literatura sail baten sortzeko eta bultzatzeko¹³³.

Sail hortan, hein bereko konpara gaiak konparatu behar dira eta Joan-Mari Torreldaik bere lanetan erakutsi duen bezala, euskal eremua ez zen auzoan ziren frantses edo espagnol eremuen gisa ez garatua ez eta ere autonomizatua. Eremu literarioa baino, eremu kulturala –literarioa barne– landu dute, eta «gizaldi literarioa» baino “gizaldi kulturala” behar genuke aipatu *Eskualduna*-ren inguruan sortu eta handitu den belaunaldi horrentzat. *Gure Herria* aldizkariari esker eta argitaratu dituzten liburuen bitartez, bizi kultural bat sortu dute euskaraz «Euskal gaien» inguruan.

¹³² J. Etchepare, «Pilota partida» in *Buruchkak*, 1910.

¹³³ C.F. Ramuz, *Raison d'être*, Cahiers Vaudois, 1914.

Gerra aurreko belaunaldia: Olerkariak

Lourdes Otaegi

Mintzaldi honetan gaitzat hartu nahi nuke olerkariak izan zituzten asmo eta ezaugarri erkideak eta, aldi berean, gogoan hartu hain sarritan itsasten zaien belaunaldi izaeraren egokitasunaz hausnartzea.

Belaunaldi kontzeptua literatur historian zentzu zabalean edo estuan erabiltzen den kategorietako bat da, eskola, mendea, aroa, aldia, korronte edo mugimendu hitzekin batean. Kategoria horien funtzioa literatur fenomenoak irizpide bereizle jakin batzuen arabera sailkatu eta hurrenkeran ezarri ahal izatea da eta funtsean, multzokatze modu hori bi irizpide nagusiren arabera egiten da: alde batetik idazleak taldeka biltzea eragiten dutenak (eskola, mugimendu, talde, tertulia...) edota kronologia irizpidea darabiltenak eta aldikatze zabalagoa dakartenak (mendea, aroa, aldia ...). Belaunaldiak bietarik du, ikusiko den bezala, baina lehen sailkatze modutik hurbilago dago.

Historiografia kontua da beraz, belaunaldien auzia, eta euskal literaturaren historien esparruan J. M. Lasagabaster irakasleak egin zuen hausnarketa *La historiografia*

literaria vasca artikuluan (1983). Euskal literaturaren historia-saioak burutu dituzten Francisque-Michel, Nikolas Ormaetxea “Orixe”, Pierre Lafitte, Luis Mitxelena, Luis Villasante, Ibon Sarasola eta S. Onaindiaren historiak aztertu zituen banaka. Historiografia arlo zabala da orokorrean hartzeko, baina –belaunaldiez ari garenez–guri dagokigun gaia aldizkatze-irizpideak dira, eta go-goan hartuko dugu honetaz Lasagabasterrek esanikoa. Lehen historiaren egileak, Francisque-Michelek, ez zuen multzokatzerik egin. Orixek, berriz, *Euskal literaturaren atze edo edesti laburra* (1922) saioan hiru “guraso” hautatu zituen hiru *biribilki* edo ziklo zehaztuz: Axular, Larramendi eta Sabino Aranaren ingurukoak. Lasagabasterrek hiru horien “mugimenduak” ongi hautaturik dau dela dio, euren garrantzia intrintseko eta extrintsekoarengatik lehena, eragin linguistiko nahiz sozio-kultura-lingatik nola politikoengatik azkenak.

Lasagabasterrek euskal historiografian ikusten dituen ezaugarrien artean bi aipatzen ditu zehazki, batetik euskal literaturaren aldiak bereizteko irizpideen hipotesi autonomoa falta dela, eta periodizazioa alderdirik eskasena izaten dela are lanik onenetan ere (Lasagabaster 241); bestetik, azpimarragarria deritzo euskal alderdi literarioa eta linguistikoa lotu-loturik daudela esateari eta ezin banatuzkoak direla gureak bizi duena bezalako hizkuntza-egoeretan, zera baitio: “la escritura literaria esta al servicio de finalidades lingüísticas” (241): literaturaren auto-omiaren auzia beti aipatu beharreko puntua da euskal literaturaren kasuan.

Euskal historiografian, belaunaldi kontzeptua XX mendeko literaturaren aldiak bereizteko baliatu da bereziki eta XX. mendez aurreko idazleak multzokatzean mende eta euskalkien arabera egin izan da (Villasante), edo generoen arabera (Urkizu) edota, inoiz, ziklo edo aldien arabera (Orixe) eta zenbait eskolaren arabera ere

bai (Lafitte). Bereziki gertakari historiko eta politiko nagusien inguruko idazle-multzoak izendatzeko erabili izan da *belaunaldi* kontzeptua: gerra-aurreko belaunaldia edo errepublikako belaunaldia, gerra osteko belaunaldia eta abar.

Belaunaldien kontzeptuaren iturrietara joz gero, XIX mendean L. von Ranke, A. Comte eta W. Diltheyk sortu zutela jakin dezakegu. XX. mendean Soziologian aplikatu zuela K. Mannheimek eta artearen arloan W. Pinderrek. Literaturan J. Petersenen *Las generaciones literarias* (1930) saioan egin zen lehen aplikazio saioa eta haren ondotik heldu dira besteak. Petersenek egin zuen aplikazioan belaunaldia literatura-talde baten osatze-aldia azaltzeko erabil daitekeen kontzeptua da, baina gerora literatur historiaren aldikatze lanetan erabiltzen den kontzeptua da. Petersenek belaunaldi bat osatzen duten faktore edo irizpideak finkatu zituen. Eta gaztelaniaz, Azorinek, P. Salinasek eta J. Ortega y Gasset saiolariek eman zioten garapen zabala, bereziki 98ko belaunaldiaz zihardutela. Gerora “generación del 27” edo J.M. Rozasek “Generación de la Vanguardia” deitu zuena ere aipagarri da, gehienbat “27ko belaunaldia” deritzana (ROZAS, J.M., *La generación del 27 desde dentro. Textos y documentos*. Madril: Alcala, 1974). Aipaturiko bi horiez gain, gaztelaniazko historiografia testuetan sarri aipatzen dira hainbat belaunaldi, hala nola, 1868koa (errealismo eta naturalismoa), 1914koa edo novecentismoa, 1936koa, 1950koa, 1960 eta 1970koa, generacion de la posguerra (36-75)

P. Salinasek (“El concepto de generacion literaria aplicada aplicado a la del 98”, 1970) Jules Petersenen teoriaren aplikazioa eginez, honako irizpide hauek aipatzen zituen belaunaldien eraketarako eta gaiari modu zehatzean heltzeko balio diezagukete:

1. Jaiotze daten hurbiltasuna (Ortegak 15 urteko epea aipatu zuen)

2. Jasotako hezkuntza eredia eta balore-sistema beretsua izatea

3. Bizikidetza edo harreman pertsonalak izatea belaunaldi kideek eta parte hartu izana erakunde, aldizkari eta bestelakoetan

4. Belaunaldi baten partaide gisa bizitzea une historiko adierazgarria, kontzientzia hartzea eta posizio hartzea eragiten diena

5. Taldearen gidari intelektuala izatea

6. Belaunaldiak hizkera berezitua garatzea: adierazteko modu propioa eta sentiberatasun nahiz estilo literario propioa garatzea.

7. Aurreko belaunaldia geratua eta gogortua gelditu izana suertatzea

Belaunaldi kontzeptua oso eztabaidatua izan da, bereziki literatur garapenaren berri eman dezakeen teoria baten irizpide edo sailkatze-elementutzat. Nolanahi ere, eta teoria orokor gisa badaezpadako indarra duela frogatu bada ere, hitza erabili egiten da inertziaz edo zenbait fenomeno, hots, aldi jakin batean sortzen den literatur-produkzio berritzaile baten nondik norakoa argitzeko erakusten duen erosotasunagatik. Guillermo de Torre aipatzen du benetan belaunaldia ezaugarritzen duena, korrante edo mugimendu literario baten adierazgarri diren obren sortze-urtea dela. Gisa berean, R. Escarpitek ere egileen jaiotze-data baino axolan handiagokoa dela dela deritzo egile horiek literatura bizitzara sartutako data. Ikus dezagun, beraz, modu teorikoan azaldu diren irizpide horiez zer baliatu den euskaraz gerra-aurreko belaunaldia edo Olerkarien belaunaldia ezaugarritzeko.

Euskaltzaleak erakundeak eraturiko Eusko Oleriti jai, Olerkariantzako bilera eta sariketen inguruan sorturiko mugimenduari, modu orokorrean, *Olerkarien mugimendua* edo *Euskal Pizkundea* deitu izan zaio, garai hartakoek behin eta berriro erabiltzen zuten deitura eta

kontzeptuari jarraiki. Beren buruari Olerkariak zeritzen idazleen multzoari, generazio literario gisa nortasuna emateko lehen ahalegina Jokin Zaitetik egin zuen 1950an. “Aitzolen belaunaldia” izeneko artikuluan, guda aurreko olerkarien multzoa generazio gisa definitu zuen¹³⁴. Jokin Zaitetik izendatu zuen idazle multzo hura Aitzolen belaunaldia, baina ez zuen harrezkero formulazio horretan jarraitzailerik izan. Nola nahi ere, belaunaldi kontzeptuak iraun du, Aitzolen deitura formulaziotik jausi bada ere. Jokin Zaitetik belaunalditzat izendatzeko ematen dituen arrazoiak honako hauek dira: “Orain arte euskarak izan ditun olerkari garaienak eta bikañenak Aitzol’ en baranoan loratu ziran, nonbait. Alegia, 1930garren urtetik 1936arte. Zazpi urteok, benetan, arrigarriak izan zenitun euskel olerkarien onerako. Nik uste, zazpi urteok betirako goragarri izango dirala, Eusko-Olertiaren edestian. Ori dala-ta, nolabait izendatu eta sailkatu bear eta, aldi ori “Aitzol’ en gizaldia” izendatu dezakegu. Aitzol izan bai-genun guziok eragille eta zirikatzaile, nolarebait. Ta beraren zaiñetako odolez edertu baitzigun guzion euskeltzaletasuna”¹³⁵.

Jokin Zaitetik Aitzolen izenaz bataiatu-riko belaunaldiaren azterketa aipagarria egiten du. Aitzolenen inguruan “loratua” eta “guzien eragile to zirikatzaile” izateagatik ematen dio Pizkunde garaiko belaunaldi horri haren izena. Modu laburrean aritzeko, Petersenen zazpi irizpideetan bosgarrenari ematen dio lehentasuna: gidari intelektuala izan zenaren deiturak ematen baitio belaunaldiari izena. Baina horretarako ematen dituen arrazoietan omenaldi eta leialtasun adierazpena ere egiten du

¹³⁴ Zaitegi, J., “ETXETXO” “Aitzolen gizaldia” in *Eusko Gogoia*, I., 1950, 5-7. or.

¹³⁵ Zaitegi, J. *Ibidem*, 5. or.

Zaitegik: aberriaren alde bizia eman zuen J. Ariztimuño “Aitzoli” ohore egin nahi dio.

Sakonki aztertuz gero, aldiz, badirudi Jokin Zaitegirentzat belaunaldi horrek dituen hainbat ezaugarri erkidek ematen diola idazle sail horri belaunaldizat aitortzeko arrazoibidea, eta hitzaldia aztertuz joan ahala ikusiko da ezaugarri erkide horiek Aitzolen eraginaren ondorio ez direla. Haren gidaritzapean *Euskaltzaleak* erakundeak antolaturiko ekintzetara bildu ziren idazleetako batzuk 1930 baino lehenagotik ezagunak ziren (Orixe, Jautarkol...), gehienak prentsa idatzian argitaratzen ari ziren eta euren ezaugarri komunetan oinarritzen da Zaitegi belaunaldi gisa zituzten ezaugarriak nabarmentzeko.

1926-36 urteetan plazaraturiko idazle-taldea ugaria da izan. E. Urkiaga “Lauaxeta”, J. M. Agirre “Xabier Lizardi”, eta Nikolas Ormaetxea “Orixe”, lehenik eta ondoren L. Jauregi “Jautarkol”, J de Bedoya (Loramendi) eta A. Tapia-Perurena soilik aipatzen ditu Zaitegik. K. Mitxelenak eginiko zerrenda aldiz zabalagoa da eta *Euskaltzaleaken* aktibitateetan parte harturiko guztiak hartzen ditu. Zaitegik aipaturikoez gain, F. de Etxeberria, Eusebio Erkiaga, I. Goikoetxea “Gaztelu”, Txomin Jaka-Kortajarena, Fabian Loidi, Felix Markiegi, aita Onaindia, A. Tapia-Perurena, Jokin Zaitegi. Idazleok biltzen dira Olerkarien multzoan, baina zein sailkatze-deitura datxekie ongien?

Izan ere, Jokin Zaitegik berak esaten duenez, edozein literatur historiatan edo “elerti-edestietan” olerkari eta idazleak sailka bildu ohi dira, eta beraz, aztergai duen belaunaldiaren ezaugarri erkideak aipatzeari ekiten dio. Ohi den moduan, belaunaldiko partaideak garai-kideak izaten dira, hain zuzen ere idazle gehientsuenok 1890 urteaz geroztik jaiokoak ziren, salbuespena Orixe (1888). Bigarrenik, belaunaldi hartako idazleek *kultura maila jaso* zuten, ikasiak izatearen ezaugarria zegokien:

“Nondik naiko idaztiak irakurtzeko itoak giñan geientsuenak. Batez ere olerti-idaztiak. Parantze, Germani, Ingalaterra to Itali’ko olerkarien idaztiak irauli genitun. Españikoak ez orrenbeste”¹³⁶. Zaitegik indar bereziz azpimarratzen du beren irakurketak Espainiako literaturaren mugak gainditzen zituela, nazioarteko literaturaren eraginpeko sorkuntza egiten zuten idazleak zirela. Zer ukaturik ez formazio europarra zutela partaideetako batzuk Gasteizko apaiztegian (Aitzol nahiz Jauregi) Barandiaran eta Lekuonaren ikasle zirelako eta jesuiten ikastegietan (Orixe, Lauaxeta, Aitzol, Zaitegi, Ibiñagabeitia) Aita Estefaniaren gidaritzapean Europako garaiko literaturaren irakurle kritiko izan zirelako. Lizardik eta A. M. Labaien “Ayanbe”k aldiz, unibertsitate-ikasketak eginak zituzten. Elkarren arteko harremanetan literatura frantseseko testuen aipamenak izan zuten garrantzi gehien eta itzulpenak ere egin zituzten. Lizardi eta Orixeren arteko harremanetan, aldiz, euskal idazle klasikoak nahiz Antzinate greko-erromatarreko testuek izan zuten garrantzia handiagoa. Bestalde, Lizardi eta Aita Estefaniaren arteko harremanak ere oso hurbilekoak izan ziren eta horren lekuko dira 1931-32 arteko gutunak.

Zaitegiren argudioetako hirugarrenaren arabera, belaunaldiaren partaide ziren idazleok elkarren artean harremanak zituzten, gutun bidezko harremanak, eta bestalde, gehientsuenak *Yakintza* aldizkarian idaztearen ondoriozko harremana ere bazuten. Belaunaldien sailkapenaren arloan ezaugarri edo faktorerik aipatuenetakoa izan ohi da idazleek elkarren artean izaniko harreman pertsonalen argudio hau. Pizkundeko idazleek elkarren artean izaten zituzten gutun bidezko harremanen lekukotza oso da zehatza. “Aitzolen belaunaldia” deitu-

¹³⁶ *Ibidem*, 5 or.

riko artikulua honetan Jokin Zaitetik dioen bezala: “Amaika idazki eder eskuratu nitun Aitzol, Lizardi, Orixe, Lauaxeta to Etxeberria’k neroni idatziak, beintzat. Idazkiok maitez bildurik ditut oraindik”¹³⁷ Hain zuzen ere, gutun pertsonal horiek artikulua honetan bildurik izan zituenaren lekukotza baliotsuak dira Lizardiren gutunak, ene tesiaren eranskintzat jasoak daudenak eta Interneten ere eskura daitezkeenak (*Lizardiren eskutitzak*).

Bestalde, *Yakintza* aldizkariaren lankide zirenekoari erantsi geniezaioke ia denok izan zirela, horretaz gain, *Euskaltzaleak* erakundearen zereginetan partaide eta, beraz, hainbat ekintza kulturalen eratzaille, antolatzaile eta sustatzaile, modu batean edo bestean. Frogagarri gisa, esaterako, erakundearen beraren sorketan eta ekintza nagusietan agertzen diren izen-zerrendak eta zehazki, Euskaltzaleak taldeak eratutako Eusko Olerti Jaietako partaidetza zerrendak ikustea aski litzateke beren arteko harremanaren lekukotzat. Zalantzarik gabe, kronologikoarekin batean elkarren arteko harremanen intentsitateari buruzko irizpide hau aipa litezke belaunaldi gisa karakterizatzeke garrantzitsuentzat.

Laugarren ezaugarritzat ezein alderdi politikori loturik ez egotea aipatzen du Zaitetik. Sabino Arana Goiriren eragin nagusia azpimarratu ondoren: “Iruzpalau ez beste ez giñan iñongo alderdiko, euskaldun eta euskaltzale baizik. Ori bai euskaldun bakar-bakarririk”. Deigarria da argudio hau belaunaldi literario bat ezaugarritzeko aipatzea. Ez dirudi behintzat Petersen, Salinas edo Or-

¹³⁷ Argibide gisa, Gipuzkoako Aldundiak “Euskaltzaleak” erakundeari ematen zion dirulaguntza xumea erretiratzeko saioa egin zuenean, *El Día*, 1934-11-29.ko “Que es y cuanto ha hecho por la cultura vasca la Sociedad Euskaltzaleak” artikuluan Aitzolek gogora arazten du berak “no interviene, ni ha intervenido jamás en política”.

tega y Gasset-en teorietatik eratorria denik. Zatitxo hau irakurriz, eta noizkoa den pentsaturik, batek izan lezake irudipena Zaitetik gerraren ondoriozko egoeraren eraginpean idatzia dela. Aitzolen guda aurreko zenbait artikulu aintzat hartuz gero, ordea, behin eta berriro ikusiko dugu azpimarraturik ezein alderdi politikori ez atxiki nahi izateko borondate hori, ez bere pertsona bera, ez Euskaltzaleak erakundea, ez *El Dia* edo *Yakintza*.

Manuel Lekuonak ere “La época de Aitzol” izeneko irratsaioan ideia bera jasotzen du: “La visión certera de Aitzol organizó por entonces la Asociación de “Euskaltzaleak” una institución modelo a base de una neutralidad política total. La mayoría de los socios eran nacionalistas, pero dada su orientación de neutralidad política, contaba también con un buen número de socios de significación tradicionalista o monárquica”¹³⁸. Antonio Elorza ere bat dator Lekuonaren baieztapen honekin Aitzolek Euskaltzaleak erakundearen lerro nagusiari, kultura arloari zegokionari atxikitzea nahiago zuela esatean, euskararen aldezen eta sustatze lanari politikariek gabeko zentzu euskaltzalea ematea zuela helburutzat, gizartemugimendu euskaltzalea eragin nahi zuela funtsean¹³⁹.

Lekuko guztien arabera, Aitzolek berak eta *Euskaltzaleak* taldeak ere bai, kolore politikoz ez kutsatzea berariazko erabakia zuten, *Euskaltzaleak* taldeak partaide izan zitezkeen askori atea zabalago uzteagatik. Beraz, lehen begiraturaz, guda osteko justifikapen edo gisako zerbaite dirudiena, guda aurretik ongi zedarriturik zegoen

¹³⁸ Lekuona, M. “La época de Aitzol” in *Idazlan guztiak*, VIII, Kardaberaz bilduma-29, Gasteiz, 1984, 362. or.

¹³⁹ Elorza, A. *Las ideologías del nacionalismo vasco*, Haranburu-Al tuna, Donostia, 1978, in UGALDE, M.; “Biografía de Aitzol” in *Aitzol*, *Idazlan Guztiak*, I, 59. or.

eta garrantzia ematen zitzaion puntua zen. *Euskaltzaleak* erakundeak ekintza kultural guztietan kolore politiko jakin batetik aldendurik egon nahi izan zuen.

Bateratzen zituena ekintza politikoa izan beharrean, beren *lanaren helburua* zela baieztatzen du Zaitegik bosgarren argudioan: “euskeraz orraztu, apaindu to txukunean olerkiak eusko-gogoz egin. Euskadiren gogoaz asmatu eta azaldu”. Zaitegik aipatzen duen helburu baterakor honetan hizkuntzaren aldetik Azkueren hiztegiak izan zuen eragin garrantzitsua ohartarazten du, haien harrobia izan zela dio, eta literatura gaietan “Orixe”ren euskel-lanak zirela irakasgaiak: “Berau genun gure otsemalle to irakasle nolarebait”. Zaitegik aipatzen duen euskal arimaren bilaketa, Euskadiren gogoaz asmatu eta azaldu nahi horrek garrantzi berezia duela esan behar da, bereziki Orixeren lanetan eta Lizardiri dagokionez, mintzaira poetikoaren moldaketan funtsezko xedeetako bat da, eta Lauaxetarena ere bai herri-literaturarantz egiten duen hurbilketan¹⁴⁰.

Olerkarien belaunaldi osora itzuliz, “eusko-gogoz idaztea”ren arloan aipagarria den aipamen bat egiten du Zaitegik, beren olerkigintzan arima hori bilatu nahiz eman zuten erantzuna “Europek aizatutako Euzkadi” izan zela, alegia. Hau da, Europako kulturari irekiriko, hango idazlanak irakurtzetik itsatsiriko izpiritua bereganatuz ari zirela, ez zeudela Espainiari begira huts-hutsik, edo euren zilborrari itsatsirik, baizik eta euskaren benetako arima berria European zetzala, eta hura zela idazleok bereganatu nahi zutena. Bigarren puntuan aipatu duena bermatzera dator beraz, munduan barrena sortzen denaren berri jakin nahi handia zutela, kultura unibertsalari irekiak. Honen frogagarri aipa daitezke,

¹⁴⁰ Zaitegi, J. op. cit., 5 or.

gutxi batzuk baizik ez aipatzearren, Lauaxetaren *Euzkadi* egunkariko idazlanak Europako literaturako hainbat literaturagile eta kultur gertakari eta protagonistei buruz, bai eta Aitzolen artikuluek eta liburuek adierazten duten Europako kultura minoritario nahiz nagusien ezagutza eta kultura zabala.

Faktore biografiko eta eragin literario eta ideologikoen aipamenaren ondoren, Zaitetik literaturaren beraren langai edo ekaiari heltzen dio: hizkuntza. Joera garbizaleen indarra azpimarratzen du puntu honetara heltzean. Pizkunde aro horren hasieran zegoen egoera azaltzen du. Hiztegiaren aldetik, euskal hitz asko ahazturik, zokoraturik egotearen arazoa aurkezten du, “ugarra yarioan eta sitsak yanda zokondoan geundurik”. Hau da, gaurko hitzetan esanik, euskal jatorrizko hitz ugari bazterturik eta erdal maileguz josiriko hizkuntza erabiltzen ari direneko irudipena dute garaiko idazleek, bi *garbizale* joerarik nagusien eraginpean baitaude, Sabino Arana alde batetik, eta Azkuerena bestetik. Hirugarren joera garbizale bat ere irudika daiteke, iparraldeko idazle garaikideek (Hiriart-Urruti, Etxepare, Barbier), harturikoa hitz-elkarketa eta eratorketaren bidea ustiatzea, interpretazio edo perifrasiatarra jotzea eta zalantzarik ez honi dagokionez, Orixe eta Lizardi hirugarren joera honen ezagutzaile eta egokitzaile sutsuak izan zirela euren sortze-lanetan.

Garbi dago, hemen Zaitetik dioenarengatik, Azkueren joera onesten zutela gehienbat eta berrezarpen lexikala zela aipatzen duen irteera egokia: sakabanaturik, Euskal Herriko zokoetan gorde diren hitzak berreskuratuta eta idazle zaharren idaztietan gorderiko idazlanen berreskuratzearen bidez zuzendu nahi duela ordura arteko zabarkeria: “Beraz alik eta itz berri gutxienik asmatuta, Azkueren iztegiko itz yatorrak bildu, ta, erabilliarren erabilliz garbitu, soildu to egutera ekarri zituten. Orrela,

ordurarteko olerkietan erabiltzen zen itz-eli urritxoia ugaldu zan”¹⁴¹.

Belaunaldi bat ezaugarritzen duen hizkuntza literarioaren berrikuntzaren gai guztiz emankor hori oraingoz alde batera utzirik, jo dezagun ikerleen arabera, garrantzi handikoa den beste alor nagusi batera, metrikarenera, alegia, “euskel-itz-neurtizketarena”. Alde honetatik ere euskal olerkigintzak eragozpen handia zuen, “geientsuenik amar silabadun itz-neurtizkera lo-argaria erabilli oi zan”¹⁴².

Estrofa moldeen urritasunagatiko kezka hau islatzen da olerkarien lanetan, eta froga zehatzak ematerakoan, olerkariak erabilitako ahapaldi berrien ugaritasunari errepara lekiok, baina aski da Eusko Olerti Jaietako obrak edota garai hartan Lizardik, Lauaxetak, Orixek eta Zaitegik erabilitako ahapaldien bariatateari ohartzea belaunaldi honetako idazleek egindako berriztatze-ahallegina sumatzeko.

Ahapaldiez gain, errima egiterakoan, hiztegi urritasunak eta bestalde ohizko errima erraz eta baldanen errepikapen amaigabeak salatu zituen Zaitegik: “Beraz, itz-neurtizkera eraberritu bear zuten”¹⁴³. Metrikaren

¹⁴¹ Zaitegi, J.; op. cit., 6 or.

¹⁴² Ibidem. Aipamen honek Orixek hainbat aldiz egindako baieztapena gogora arazten du, alegia zortziko nagusia oso ahapaldi mota zurruna, luzea eta aspergarria zen oihartzuna dirudi. Ikus Ormaetxea, N.; “Oraindanoko euskal neurtitzak” in *Lenengo Euskal Egunetako Itzaldiak*, IV, Bilbo, 1930.

“Oraindaño egin diranetan, neurri berezia edo bakoitza dutenak irakurri-uste ditut em ozta-ozta ageri da aukera aundirik, zortziko aundia eta txikia lekutzen baditugu. Batez ere zortziko aundi lo-argari ori, sartu zaigu ezurretaraño, kantan euskaldunena baldin bada ere”. *Nikolas Ormaetxea “Orixe”. Idadan Guztiak*, Etor, 1991, III, 328. or.

¹⁴³ Zaitegi, J.; op. cit., 6. or.

berrikuntza, errima edo “itz-erorkera”ri dagokionez, hiztegi ugalketatik etor zitekeen, eta berak dioenez, “itz erorkerari garrantzi aundia ematen zioten eta itz-erorkera zail, bakan eta oitu-ezen irrika ari ziran”.

Orokorki mintzaturik, zalantzarik ez dago autore hauen eta aurreko belaunaldietakoen artean ezberdintasun nabaria dagoela metrika gaietan; hain zuzen ere, metrika zaindua poesia landu edo kultuaren adierazgarri nagusienetarikotzat jotzen da, eta, hain zuzen ere, garaiko Europa guztiko olerkariek baloratu zutenaren bide-tik abiatu besterik ez zuten egin: hizkera poetikoaren perfekzio teknikoaren bidea. Metrika aldetiko eraberritze honen frogatzat aipatzen ditu Lizardiren zenbait ahapaldi, zehazki esanik *Baso-Itzal* eta *Izotz-ondoko Iguzki* olerkietatik harturikoak, Lauaxetaren *Maitale Kutuna*, Orixeren *Itzai zekena* eta Zaitegiren beraren *Euskel-kanta atzerrian* eta *Artzaiarena* olerkikoak.

Zaitegik Olerkarien talde, mugimendu edo “belau-naldiak” entitaterik baduela frogatu zuen, ezaugarri eta helburu erkideak bazituztela. Pizkunde aroko garai jakin bateko, 1927-37 arteko hamarkadan ezagutzera eman ziren idazle hauen poetika orokor baten berri ematen du Zaitegik, zenbait puntutan eztabaidagarria gerta badaiteteke ere. Izan ere, Aitzolen gidaritza heldu baino lehen, idazle hauei *Euskaltzaleak* erakundeak 1927-1936 artean garaturiko aktibitateak kohesioa eman izanak garrantzi berezia izan baitzuen.

Jakina denez, 1927-30 bitartean *Euskaltzaleak* elkar-tearen jomugak eta aktibitateak indar eragile handia izan zuten. 1929ko Zumaiako bileran, taldearen oinarrizko zereginak finkatu zituen erakundearen buruzagi zen Xabier Lizardik (*Zumaiako itzaldia* da horren lekuko). Bazkide kopurua 2000raino iristea lortu zuen eta, jakina, azpiegitura hori erabakigarria izan zen 1930etik aurrera Aitzolen gidaritzapean eratuz eta finkatuz joan zen aktibitate kulturalerako eta literariorako.

Zaitegiren 1950eko artikuluz gain, bada, Martin Ugaldek egiten duen erreferentziak baiesten duenez, izenburu berekoa den Zaitegiren beste idatzi bat, eskuizkribu gisa Euskaltzaindian gordetik dagoena. Martin Ugalderean aipamenari esker dakigu, Zaitegik aztergai honi beroni beste tratamendu bat eman ziola eta aurrekoan esaniko zenbait gauzaren inguruko argudio gehiago eskaini dituela. 1950eko artikuluan aurkezturiko sei puntu garrantzitsu haietan belaunaldi bat osatzen zutela ongi zedarriturik zuela onar badaiteke ere, Zaitegiren bigarren artikuluhonek belaunaldiaren deitura *Aitzolen belaunaldia* egoki ote den, jartzen du zalantzan. Olerkariak plazaratzea, eza-gutzerara ematea Euskaltzaleak taldearen zereginari lotua dago zalantzarik gabe, eta 1930 urteaz geroztik, Aitzolen gidaritzari ere bai. Euskaltzaleak erakundeak eman zion proiektzioak bildu zituen belaunaldi batean han eta hemen barreiaturiko testuen egileak: xede euskaltzale, kulturazale eta literario batzuen inguruan iltzatu zituen.

Zaitegiren artikulua berri honetan Koldo Mitxelena-ren *Historia de la literatura vascan*, Aitzolen eta olerkarien arteko harremana azpimarratzen dela aipatzen da bermetzat: “Koldo Mitxelena parece estar de acuerdo cuando dice: “Poesía: La renovación en este campo coincide con la labor de la sociedad “Euskaltzaleak”, dirigida y animada por Jose de Ariztimuño (“Aitzol”) a partir de 1930”. Desde entonces se han dado a conocer: Monzón, Ibiñagabeitia...”¹⁴⁴

Baina Mitxelenak alderdi interesgarriak zehazten ditu idazle-talde hau ezaugarritzeko. Ez du berez *belau-*

¹⁴⁴ “...Habría una generación de poetas en nuestra hermosa lengua que corresponda al liderazgo de Aitzol, o no se trata más que de una ilusión mía?...Yo estoy en que sí. Aitzol creó un buen número de poetas a través de su “Olerti Eguna”, o “Día de la Poesía Vasca”. La mayoría de ellos eran desconocidos, y después están entre los

naldi hitzaren parekorik erabiltzen, eta Euskaltzaleak eta Olerkariak elkar lotzen ditu: Olerkariak deitzen ziren idazleok, poesia soilik idazten zuten idazleok, Euskaltzaleak erakundeak eskainitako plataformari esker eman ziren ezagutzera gehienbat eta olerkigintzaren alorrean berrikuntza nabaria ekarri zuten. Bestalde interesgarria da erreparatzea ez duela epe hori gerraren gertakari historikoarekin amaitu zenik uste. Aitzitik, epea bukatu gabetzat ematen zuen 1960an bere historia idatzi zue-
nean: “La figura más representativa de un periodo de las letras que dura hasta hoy –mucho más que Lizardi, un prodigio solitario– es Nicolas Ormaetxea Orixe. (1960) Beraz ez du gerra aurre / gerraoste banaketarik egiten eta barrenean hartzen du iparraldeko literatura ere: Jules Moulier “Otxobi” ere belaunaldi berritzaile horren partaide da. Bestalde, gerra-aurreko berritapenaren jarraitzailetzat hartzen ditu Salvatore Mitxelena, Fernando Artola Bordari, Valentin Aurre-Apr aiz, Jaime Kerexeta.

1960an bere liburua idazten duen unean aldaketa baten zantzuak nabarmentzen ditu Mitxelenak. Batetik hizkuntza ereduari buruzko bi joera nabarmentzen ditu lehian eta honela deskribatzen ditu: batetik eredu linguistikoko tradizionalista eta ideologia irekia eta aurrera-koia dutenak (Aresti) eta bestetik eredu linguistikoko berritzailea eta ideologia kontserbadorea dutenak (Krutwig, Mirande...) Iparraldean, aldiz, eredu literaturatik ahoz-kora gehiago hurbiltzen ari zen bere iritziz. Ez zegoen norabide bakarreko joera indartsurik eta jakina den moduan, berak egituratu eta lideratu zuen L. Villasanterekin

mejores poetas del país, y no es aventurado decir que florecieron en rededor de Aitzol durante 1930-1936, durante siete años. Habría que llamar de algún modo a este importante grupo de poetas euskaldunes”. Zaitegi, J. “La generación de Aitzol” in Ugalde, M. “Biografía de Aitzol” in Aitzol, *Idazian Guztiak*, I, 67. or.

batean 1968an Arantzazuko bileran mamituko zen eredu: euskara batua. Baina literaturari dagokionez, Mitxelenaren ustez jarrera aldaketa gertatua da dagoeneko eta Orixek hain egokiro ordezkatzan duen aldia amaitzen ari da, bere hitzetan esateko: “la duda, la insatisfacción, la crítica que no perdona” nagusitu dira 1958tik aurrera (154 or.) eta hala iragartzen dute Jon Mirande, Gabriel Aresti, eta Bitoriano Gandiagaren obrek.

Beraz zein dira Mitxelenak *periodo* deritzan horren mugak? Belaunaldikoak baino zabalagoak dira, noski: Pizkundea hartzen du bere baitan: Orixek aipaturiko Sabino Arana biribilki edo zikloaren hasieratik 1900-1957 arte: S. Mitxelenaren *Unamuno etaabendats* nahiz Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* heltzen diren arte eta Miranderen nahiz G. Arestiren obrak mamitu ziren arte.

Zaitetik irekitako ildoari jarraituz, Ibon Sarasola izan da Olerkarien multzoari belaunaldi kalifikazioa eman diona, ohi duen borobiltasunez, bere *Historia social de la literatura vasca* liburuan (1976): “Los olerkaris constituyen la primera generación literaria vasca en el sentido estricto del término. Son los primeros literatos vascos conscientes de serlo, y los primeros poetas que tratan deliberadamente de apartarse de los módulos bersolarísticos, creando una poesía culta y un lenguaje poético nuevo y autónomo. Para dar una dimensión pública a su labor, la sociedad *Euskaltzaleak* comenzó a convocar anualmente un concurso poético, seguido del Día de la poesía vasca, al que se sumo años más tarde y con las mismas características, el concurso teatral y el *Día del teatro vasco*, y el proyectado día de la novela vasca. En el caso de las composiciones poéticas, éstas eran posteriormente publicadas en un libro, precedidas por un estudio crítico de Aitzol. La producción literaria vasca, en especial la poética, alcanzó así un nivel no conocido hasta entonces en toda la historia de la literatura vasca.”

Sarasolak zinetan heltzen dio olerkarien belaunaldiaren ikuspegi honi, izan ere, garai bertsuan idatzi zuen “Euskal abertzaletasunaren argiak eta itzalak: Olerkariak” Gabriel Arestiren obra guztien bildumaren hitzaurrean (1976, 22-29 or.), mugimendu haren ezaugarriak aztertzen ditu xeheki, garaiko giroa, mugimenduaren ezaugarri ideologikoak kulturalak eta literarioak aditzera emanez.

Alde batetik bat dator 1922an Orixek garaiko giroan abertzaletasunak izandako eragina azpimarratzean, baina eragin hori hizkuntzaren normaltze-bidean beharko zukeen aspirazioetan motz geratu izanaren arrazoia ere azaltzen du: “Hegoan batez ere, nazionalismoak euskaldungoan izan zuen eragin dezisiboa azpimarratu behar da. Teoriaren mailan, garbizaletasuna, idea funtsean burgesa, guztiz onuragarria gerta zitekeen euskaldungoaren egoera hartan, hizkuntzaren prestutzea eta trebatzea, erdarekiko kultur aspirazio sekulakoaren suntsidura eta populismoaren gaindiketa suposa zezakeen aldetik. Baina zoritxarrez, euskaldungoaren gidaritza ez zegoen osorik euskal burgesiaren eskuetan, eta honek ezin izan zuen bete puntu honetan zegokion egin-kizuna. Euskal nazionalismo politikoa guztiz burgesa izan ez bazen are gutiago izan zen burgesa euskal abertzaletasun kulturala hizkuntza nazionalari zegokion alorrean.”

Bestalde, Olerkariak 1930 inguruan *Euskaltzaleak* taldearen eraginpera biltzen diren poetak, “euskal poesia anartean inoiz ezagutu ez zuen maila batetara altxatzen” jakin zutela dio eta Lore Joetako poetek ez bezala, bertso-laritzaren eraginpetik aldentzen asmatu zutela: “Mundu poetiko eta hizkuntza poetiko berezia eraikitzea, hots, egiaz landu eta bertso-laritzari buruz autonomo bat lortzea izan zen hain zuzen ere, olerkariak euskal poesiara ekarri zuten berrikuntzarik interesgarriena.”

Sarasolaren iritziz, olerkarien berrikuntzaren alderdi nabarienetakoa metrika da. S. Aranek *Lecciones de orto-*

grafia del euskera bizkainoko “La fonetica en el metro del verso”an proposatzen duen araudia erabiltzen hasi bairen multzo eta garai honetako poetek. Metrikaren arazo teorikoei buruzko kezka honek garrantzia berezia du, Sarasolaren iritziz, euskal literaturgintzan lehen aldiz asmo kolektibo eta konziente bat hartzen dute: literatura egiteko kontzientzia. Jakina, hedatzen hasi den araudi horren aplikazioan eragin nabaria izan zuen Euskaltzaleak erakundeak S. Aranaren metrika arauak ezagutzera emateko eta sariketan parte hartzaileei hura erabiltzea gomendatu izanak. Baina, aldeak daude batzuen eta besteetan praktika metrikoan: Lizardi bera izan zen Aranaren arauen erabiltzaile zorrotzena alde handiz, besteak beste Jauregi, Orixe edo Lauaxetaren olerkiekin konparatuz gero. Baina hori ez da kontu berria, beste horrenbeste esan baitaiteke J. Zaitegik aipaturiko errima eta ahapaldi-egiturak berritzeko ahaleginari dagokionez.

Zaitegirekin bat dator eta belaunaldiaren norabidea eta ezaugarriak finkatzen J. Ariztimuño “Aitzol”ek jokatutako funtzioa erabakiorra izan zela deritzo Sarasolak: “bere eraginaren eta lan kritikoaren zentzuak argi adierazten digunez¹⁴⁵, belaunaldi berri baten bozemaile eta aitzindari bezala agertzen zaigu: euskal hizkuntza kultur-bideetan sartzeko eta literatura egiazko bat tankeratzeko egiten duen ahaleginak gatik aro folklorikoa gainditzeko zorian jartzen den belaunaldiarena”

Matizatu beharrean gertatzen da ordea, eta gidaritza horren aspirazioak moderatu beharra izan zuela, “euskara gauza erraz eta jatorrekin identifikatzen duen giro general honek hartaturik amore eman behar du azkenean”. Egoki bereizten du Sarasolak, Aitzolen joera aldaketak zein atzean uzten dituen “Lizardi handiaren literatur

¹⁴⁵ Zaitegi, J. *Ibidem*, 65. or.

ekintzak eta zenbait artikuluk suposatzen zuten euskaldungoaren problemari buruzko ikusmolde ia iraulariaren garaia pasa da, urte askotarako”. Baina gai hori zabal jorrratu da geroztik, garaiko prentsan garatu ziren eztabaida literarioak aintzat hartuta (Aranbarri&Izagirre, Kortazar eta nik neronek ere bai). Horregatik, saiheska hemen agertzen ari den beste zerbaiti eman nahi genioke lehen-tasuna: belaunaldiaren eraketa faktoreei. Izan ere, gogoan hartu behar baita, lehenago adierazi duguna: Lizardi izan zela *Euskaltzaleak* taldearen eratzaila eta Errenteriako Olerti Jaiaren antolatzaile sutsua. 1927-1931 arteko Lizardiren artikuluek lidergo baten argitasuna eta suhartasuna adierazten dute. Prentsa debateetan ere ideia garbiak eta ardua aitortuak dituenaren larderiak mintzatu zen. Esate baterako, Mistralen eredura euskal arima adieraziko duen “olerki gurena” Orixerri egiteko eskatzea aski burugabea dela agertzen du eta hala adierazten du “Olermen irakite” artikuluan, zeina, ez halabeharrez noski, “Aitzol`dar J`ri eskeñia” den: “... gu euskoak, ete gaude olerkari gurena eldu-giroan? Etzetz uste det. Baña, bai etorriko dala, txikien olermenari su emanez gero. Nork daki jaioa eztegun? ()Garau eze hori, bada bear-garaiez goza eta ondu dedin, euskel olermena irakin-araz dezagun, ta oler-zaletu-araz dezagun erria.” (Klasikoak, 1995, 116 or.)

Lizardik 1930ko ekainean idatzia da eta bere planteamentua zein den agertzen du, geroago eztabaida giroan Aitzolen jarrerarekin kontrajarriko duena, hain zuzen. Olerti jaien jomuga agertzera dator artikulua, giroa berotzea, olerkarietara aitza apurñoa eskaintzera eta motibatuzera lanean saiatu eta lanak apaintzen egin ahala egin dezaten eta jakina irakurleagoa interesatzera obra berri horietan. Baina artikulua berean Lizardik Aitzolen buruzagitzara iragartzen du: “Eragille bizkorra aiz, adiskide on, ta abagunearen sena dek argi: Euskal Olerti Jaien etorkizunean aitatu bearra zegok ire izena, Iri bada,

eskeñi nai dizkiat itz motz auek, “Euskaltzaleak”-en eraberrigin ta suspertzalle berdiñaka.” Baina aski da hurrengo urteetan hartu ziren jokabideak ikustea antz emateko Lizardik eta besteek ere amore eman eta isildu egin behar izan zutela Aitzolen gidaritza agian tinkoegiari amore emanaz.

Nolanahi ere den, eta 1930-36 arteko buruzagitza hori aitorturik ere, historiografo guztiek seinalatu dituzte literatur-sistemari dagokionez, mendearen lehen here-nean gertaturiko aldaketa nagusiak: literatura liburuen argitalpena arautu zen, aldizkari espezialduak garatu ziren eta, J. Kortazarren hitzetan esateko, “tradizio literario bat” sortu zen; hala, idazleak frankotiratzaile izateari utzi eta egile talde egonkor samarra bihurtu ziren eta gerraosteko aldizkariak eutsi egin zioten nekez bada ere, egitura horri. Kortazarren ustez ez dago tradizioaz hitz egiterik 1930 aurretik, egileak elkarrekin harremanak bazituzten eta argitaratzen zuten aldizkarien bidez, baina ez dira osotasun baten partaide agertzen.

Euskal sistema literarioa indartze horretan zeregin handia bete zuten aldizkariak (*RIEV, Euskalerrriaren alde, Euskal Esnalea...*), nahiz prentsa euskaltzaleak (*El Dia* (1930-37) *Yakintza* (1933-36), *Antzerti...*), erakundeek (Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza...) eta hauen eraginpeko argitalpenek (*Euzkadi* egunkaria (1913-37) eta *Euzkerea* (1929-30)). Bestalde, ikastegi erlijiosoek izan zuten eragina ere azpimarragarria da (Gasteizko apaiztegia, Larresoro, Belloc, Jesuitetako zenbait sektorek...) eta euren zenbait argitalpenek euskal literaturari eta kritikari eskaini zioten tartea. Hala nola *Argia* (1921-36), *Jesusen Biotzaren Deya* (1917-36), *Zeruko Argia* (1919-36)...

J. Kortazarrek *XX. Mendeko Euskal Literatura* izenburua ipini dio titulua bere liburuari, historia ezartzeak dakartzan aldikatze eta bilakaera azaltzeko konpromisoei alde egin nahirik. Nolanahi ere mendea bi arotan

banatzen du: lehenik 1900-1936 arteko epea eta, bestetik, 1936tik mende amaiera artekoa. Faktore historikoak politikoak eta ideologikoak aipatzen ditu eten hori finkatzeko. Hortaz, gerrak eragin zuen eten historikoari ematen dio lehentasuna eta gerraostean abertzaletasun monolitikoa bitan zatitu egin izana eta ideologikoki etorri ziren aldaketak eragin zuten aldaketari, bigarrenik. Kortazarren ustez, XX. mendeko euskal produkzioaren lotura haria literatura eraikitze ahalegin horixe bera da, J. Juaristik modernotasunera iristeko ahalegin frakasatutzat kalifikatzen duen ahalegin horixe bera (*Historia de la literatura vasca*, Taurus, 1987, 87 or.).

Gainerakoan, Kortazarrek euskal literaturan mugimendu eta korrante estetikoek izaniko eraginaren berri ematen du. Hala, mende hasiera erromantizismo kontserbadorearen itzalean abiatu bazen ere, sinbolismoa heldu zen 1930ean, sentsibiltate europarrarekin bat egiteko ahaleginaz eta euskal giroan abertzaletasunaren indarrak bat egin zuelarik. Hala, “Euskal lirikoaren taldea” formulaz baliatzen da Olerkariak izendatzeko eta modernismoari zegokion moduan kultura berriztatu nahia egotzen die: adierazpide moderno, nazional eta kosmopolita bihurtu nahi dute. Industriaurreko bizimoldea gainditu beharra nabarmentzen dute, jarrera kontserbadoreak atzera utzi beharra irauteko: Lizardik esan bezala “Un ensayo de modernidad” egin behar dute: Modernitatea iristeko saioa da eurena, Lizardik bere liburua inguratzen zuen bitolan inprimarazi zuen bezala.

Iñaki Aldekoa (*Historia del a literatura vasca*, 2004) aurreko historiografo guztiekin dator bat abertzaletasunaren eragin handia azpimarratzean. Bestalde, Kortazarrek bezala, sistema literarioaren eraikuntza mendearen lehen herenean garatu zela diosku, zehazki Aitzolen eraginez: “Aitzol fue el artífice de un periodo fundamental de la poesía vasca. Por primera vez la literatura mo-

derna en euskera contaba con un incipiente grado de sistematización social en cuanto a producción, difusión y lectura”. Sarasolak bezala, olerkariak bertsolarien estilo tradizionaletik askatzeko eginiko ahaleginari ematen dio garrantzia eta, Kortazarrek ez bezala, belaunaldi kontzeptuaz baliatzen da, “La generación poética de la República” formula darabil idazle-multzoa izendatzeko.

Euskaltzaleak erakundearen partaideak honakoak ziren 1930ean Aitzolek taldearen gidaritza hartu zuenean Altzeta, (Carlos Linazasoro), Aberri (), Mendilauta, (Txomin Arruti), Atarrene, (), Otarra (), Udalamendi, (), Luzear (Ander Arzelus), Ayanbe (A. M. Labayen) eta Lizardi bera “que modela su alma y dirige su acción”¹⁴⁶ Aitzolen hitzetan esanda. Abertzaletasunari eta garaiko kazetaritzari loturiko izenak gehienak ere. Hortik egunkariaren asmoak, noski. Lizardiren proiektuan idazleek zeregin nagusia zuten Aitzolenean bezala, baina literaturaren bilakaeraz duten ikuspegia eta funtzionalitatea guztiz ezberdinak dira. Lizardik idazleen elkarte sortu nahi zuen, haientzat bizibidea izango zen euskal egunkaria sortu, euskal irakurle goa zabaltzeko eta idazleak trebatzeko. Horretarako sari eta ospakizunen antolakuntzak. Literaturaren garapenerako oinarriak sortzeaz arduratzen zen, Eusko Ikaskuntzaren ekintzaren bidez euskararen normalkuntzaren beste hainbat arlotan jardun zuela dakigun gisa berean: ikastolak sortzeaz, alfabetatzeaz, testuliburuak euskaratzeaz, irakasleak prestatzeaz, euskal ikuskizun eta komunikabideak garatzeaz... Baina eztabaidetan Aitzolen irizpidea eta autoritatea gailendu ahala, I. Sarasolak esan bezala, “Lizardi handiaren literatur ekintzak eta zenbait artikuluk suposatzen zuten euskaldun-

¹⁴⁶ Aitzol, “Optimismo y actividad” in *Euzkadi*, 1930-2-19; in *Idazlan Guztiak*, V, 7. or.

goaren problemari buruzko ikusmolde ia iraulariaren garaia pasa da, urte askotarako” (Olerkariak, 1976)

Aski da gogoratzea Aitzolek argitaratu zuen lehen artikuluetako bat Frederi Mistrali eskainitakoa izan zela: *Mistral y los poetas vascos* izenekoa. Frederi Mistralen eta hark eginiko Probentzako herriaren aldarrikapena, bereziki eragingarriak izan ziren bai Aitzolentzat (lau artikulua idatzi zituen Mistralen omenez otsaila eta apirilaren bitartean) eta bai Lizardirentzat (ikus *Olermen irakite* artikulua, Euzkadi, 1930-VII-1) eta bai Lauaxetarentzat (*Mistralen Mireio euskeraz*, Euzkadi 1930-XII-30). Izan ere, belaunaldiaren sorrerarako ondo gogoan izan behar den gertakari kultural konpartitua Mistralen jaioturrearen mendeurrena 1930ean bete izana da. Zalantzarik ez da, Errepublikaren garaiko euskal idazle hauen gogoetan, XX. mendeko lehen herenean zehar eragile izandako bestelako faktore politiko-sozialen eta kulturalekin baita, Mistralen mendeurrena ospatzeak eta haren inguruko omenaldiek su-pindar erabakigarria piztu zutela olerkariaren gogoan. Oihartzun horren lekuko izan ziren noski Olerti Jaiei ospakuntzak, *Mireioren* itzulpena (1929) eta Orixeren *Euskaldunak* poema.

Izan ere J. K. Igarabidek (*Herri poesia eta gerraurreko lirika: Lizardi, Lauaxeta, Orixe*, EHU, Gasteiz, 1990. Argitaragabea), J. Kortazarrek (*XX mendeko euskal literatura 1998*) eta berriki Iñaki Aldekoak (*Historia de la literatura vasca* (2004) idealismoaren eraginpeko belaunalditzat jotzen dute. Azken honek dioen moduan, “Aitzol estaba imbuido de romanticismo cultural. Había estudiado el papel que había desempeñado la literatura en la recuperación de la conciencia nacional, la lengua y la cultura en diversas minorías dentro de Europa. El poema nacional debía despertar la conciencia cultural de país, suscitar el aplauso y el reconocimiento de los países más modernos.”

Aitzolek asmatu egin euskarazko kulturarentzako plataforma eraikitzen. Euskal kultura eta literatura bilakatu zituen *Euskaltzaleaken* helburu nagusi eta haren zerbitzuan jarri zituen egiturak, erakundeak, baliabideak: sariak, ospakuntzak, omenaldiak, argitalpenak, kritika eta propaganda, dirulaguntzak. Literatur sistemaren funtzionamendua ezagutu eta eragin nahi zuen. Honela eman zion euskal ekoizpenari hedakuntza eta irakurleenganako irispidea. Olerri egunetan garatu zen literatura kultura eta berritzailea hezten eta berbideratzen ahalegin du bazen ere, garaian bizi zuten modernitatearen krisiari erantzun positiboa emateko ahalegin ausarta egin zuten. Benetan modernoa ote zen eztabaida genezake Lasagabasterren zalantzak eta Juaristiren ukoa gogoan harturik, baina Olerkarien ahalegin horrek emaitza duina ekarri zuen euskal literaturarentzat: hiru liriko handiren emaitza. Bere garaian oso eztabaidatua eta polemika sutsuen eragile izan bazen ere, euskal literaturaren mugarri nagusienetako bat da.

Oihenarten L'Art Poetique basque¹⁴⁷

Aurelia Arkotxa, Bordeaux III

IKER-UMR 5478

Aunq otra cosa no respondiessemos para provar que la poesia consista en arte: bastava el juyzio de los clarissimos autores que intitularon de arte poetica los libros que desta facultad escrivieron. y quien sera tan fuera de razon / que llamando se arte el oficio de texer oberreria / o hazer vasijas de barro o cosas semejantes: piense la poesia y el trobar aver venido sin arte en tanta dinidad. (Juan de Encina, “Cap.ii de como consiste en arte la posia y el trobar», *Cancionero Salamanca* 1496)

Zergatik Arnalde Oihenarten arte poetikoa hartu ote dugu gai nagusitzat gizaldi literarioez ari den kolokio honetan? Lekuz kanpo ote gara? Egia erran testua, bere materialtasunean, bere mugikortasunean, ez da gaur egun

¹⁴⁷ Ene esker onenak Michel Barbaste mediku zenari, 2005eko otsailean eta martxoan bere Donapaleuko etxean esku zabalik errezebitu baikin duen *LAPB*-en etsaminatzeko, argazkien hartze-ko eta argitaratzeko baimena emanez.

“ikusten” den zerbait euskal literatur kritikaren panoraman. Egoera paradoxal horren ondorioz ez daiteke problematika berririk sort testuaren inguruan euskal alorrean. Alde batetik pentsatzen baita testu klasikoari dagokionez alor hori filologoarena dela bakarrik, ez literatur kritikoarena. Bertzaldetik, testu garaikidearendako ez baita batere baloratzen testuaren finkatzea: azken 30 urte hauetan nazioarteko esparruan genesi testualak eta kritika genetikoak egin dituzten ekarrera iraultzaileak ignoratuz.

Kontzientzia falta horrek ondorio kezagarri frango badakarzki euskal testu literarioaren edizioaren munduan.

Alta, testuaren inguruko problematika ez dute beti ignoratu izan euskal esparruko literatur kritikoek. Pierre Lafitte ildo horretan koka dezakegu, baloratu behar direlarik, besteak beste, *Gure Herria* aldizkarian frantsesez idatzi izan zituen lanak. 1967an Oihenarten arte poetikoaz egin zuen transkribaketa etsenplu ona dugu. Zehazki eta metodologikoki, ahal bezain zientifikoki, Eugène Goyheneche bezalako paleografo artxibisten laguntzarekin egina izan baitzen transkripzioa.

Gure ekarrera Laffiteren lanaren goresteko modu bat da izan dadila alde batetik, eta bestetik haren ikuspegiaren berritzeko modu bat. Garaiak eta ikuspegi estetikoak aldatu baitira azkarki berrogei urtez. Genesi testuala, kritika testuala eta Genette, bereziki, hortik iragan baitzaizkigu, testuaz genuen begirada irauliz.

* * * * *

Arnalde Oihenarteren *L'art Poétique basque, Indiquee dans une Lettre Escrite a un Cure du pays de Labour au moy de may 1665* deitzen den testuaren ezagutza euskal letretan 1967 urtean Lafittek *Gure Herria*-n agertu zuen transkripzioari esker zabaldu zen. Testu oinarrizkoa guretzat, euskal kritikaren historian kokatzen den lehendabiziko gogoeta baita.

Zer den “arte poetikoa” Oihenarten luman? Poesiaz metodo¹⁴⁸ baten azaltzea, erregela¹⁴⁹ prosodikoen finkatzea. Helburua praktikoa da: euskal poesia letratu baten sorkuntza sustatzea¹⁵⁰.

Oihenartendako “arte” hitzaren zentzua artikuluhonen atarian ezarri dugun Juan de Encinak ematen duen definiziotik hurbil zatekeen: “llamandose arte el oficio de texer oberreria o hazer vasijas de barro o cosas semejantes” (Juan de Encina 1496).

Poeta “artista” da, Grezia zaharrean zen zentzuan, testu-artesau bat, testu-egile bat. Oihenartendako, Juan de Encinarendako bezala, poesiaren egiteko “arteak”, edozein ofiziok bezala bere erregelak baditu eta ikasten da. Ondorioz, poeta-artisauak testua sortzen du, ontzi-egileak lurrezko ontzia sortzen duen moduan, ehuntza-leak oihala ehuntzen duen gisan. Poesiaren fabrikatzea

¹⁴⁸ «Vous me demandés de qu'elle *methode* Je me sers en composant de Uers basques», (Oihenart in Lafitte 1967 :15), «Le Père haramburu cordelier Est le seul, Entre ceux qui ont faict publier de rimes basques, qui a eu La bonne *methode* en la paraphrase des sept pseume penitentiaux...» (Oihenart in Lafitte 1967: 35)

¹⁴⁹ «Combien que les Basques ayent assés d'inclination à la Poësie; si est ce qu'ils ont fait si peu d'estat iusqu'icy d'en observer les *Regles*, & mesme de les connoistre...» (Oihenart 1657, «Au Lecteur»); «Ce qui m'a obligé, apres auoir parlé de ces *Regles* en vn autre Ourage...» (Oihenart 1657, in *op. cit.*).

¹⁵⁰ Oihenartek berak gaztaroko poesiak euskaraz inprimarazten dituelarik 1657an, irakurtzaileari eskaintzen dion hitzaurrean bere helburu literarioak argiki agertzen ditu, 1545ean Etxeparek *Linguae vasconum primitiae*-ren hitzaurrean egin zuen gisan. Kasu honetan Oihenartek poesiak sortzen ditu: «... afin qu'il apparaisse, que la pratique de ces Regles n'est pas si mal aisée en nostre Langue, qu'aucuns se sont persuadez, & non point pour autre sujet; Car comme en les composant ie n'auois cherché que mon diuertissement (...) l'ay fait adjouster à la fin quelques rimes pies,

prozeduren, erregelen, aipatzea eta finkatzea da “arte poetikoa”. Prozedura horren barne den funtzio didaktiko-pedagogikoa maisu/ikaslearen arteko dialektikaren bitartez finkatzen delarik.

Oihenarti eremu konparatista beharrezkoa izanen zaio azken ehun urteetan zabaltzen ari den euskarazko poesia garaikidearen ebaluaketaren egiteko. Nola egin euskal poesiaren ebaluaketa? European letratu handiek latinez, italieraz, gazteleraz egin duten poesia eredutzat hartuz, ondotik kriterio berriak euskal poetikarendako sortuz, eta azkenik, kriterio berri horiek markatzen duten matrizeari esker, hierarkiak argiki markatuz “bertsogile arruntetarik” urruntzeko gisan (Oihenart 1656). Zitazioek ilustrazio funtzioa ukanen dute: poesia neolatinoa Galterus Maper, Howeden edo San Bernardoren poemak zatiek ilustratuko dute, besteak beste, poesia italiarra Petrarca, Ariosto eta Sannazarren poemak, poesia espainola Cervantes eta Lope de Vegarenak. Virgilio, Catullo eta Ovidio poeta latino klasikoak aipamenetan gelditzen dira (Oihenart/Lafitte 1967: 31).

Frantses arte poetikoa ez zaio balioko. Haren ustez, frantsesaren sistema euskal sistematik urrunegi zaio¹⁵¹. XVII. erdian oraindik Frantzian estimatuak ziren Des-

pour exciter ceux qui ont plus d'affection & d'aptitude que moy à la Poësie, à en faire de meilleures, & en plus grand nombre.” (Oihenart 1657, in *op.cit.*).

Ordea, 1657ko poesia amodiozkoak «gaztaro»koak ote dira? Oihenartek gaztaroan finkatua ote zuen jadanik euskal arte poetikoaz zuen ideia? Dudak ditugu. Edozein kasutan gaztaroakoak bada dira ere, bermoldatuak izan daitezke bere teoria mamitzen ari zen arabera gero, 1657an, inprimatzeko.

¹⁵¹ Euskal poetendako frantses poesiaren arte poetikoa ez da aplikagarria, bertze arrazoien artean “e” bokal “hetsia edo femeninoak” (“e mutua” ere deitua) gobernatzen duelakotz neurtitzen azken silaba femeninoen kopurua.

portes eta Du Bartas-en poesien irakurlea zatekeen Oihenart, ordea haien aipamen poetikoak ez ditu imitatzeko ematen, urruntzeko baizik. Desportes eta Du Bartas-en poetikek ez dute imitazio-funtziorik, formari dagokionez, euskal poeta letratuendako.

Oihenarten gogoeta ez da *L'Art Poétique basque*-ekin hasten. Lehenago hasia zen, latinez *Notitia utriusque vasconiae*-ren bigarren edizioan (1656, 14. kap.) eta frantsesez *O.ten gaztaroa neurtitzetan*-en atarian den *Au lecteur* hitzaurrean (1657). Ulertu behar da; Oihenarten ikuspegi kritikoa dinamika batean sartu behar da. Liburuz-liburu, testuz-testu egiten den gogoeta dugu.

Oihenartek generazio berriko euskal poeta letratu formatu nahi du. Hirietan urbanizatu dena eta poliglota den euskal poeta bat, italiar ernazimenduko umea dena, Espainiako urrezko aroko idazleak irakurtzen dituen, frantses literaturaren ezagutzailea dena eta kriterio berrien arabera euskal poesia baloratzen badakiena.

Euskal poeta-aprendiz berri horrek neurtitz mota egokiak desegokietarik bereizten jakin behar du. Horretarako, estrofa eta koplak egokien mustrak behar ditu. Neurtitz maskulinoek, femeninoek eta lerrakorrek (*glissans*) duten eginkizuna azpimarratu beharko zaio. Euskaraz egin daitezkeen imitazioak proposatu: neurtitzak azentua-zioaren erregelen aplikazioen arabera nola konda, elisioen¹⁵², eta sineresien inportantzia zein handia den¹⁵³,

¹⁵² «L'elision se fait comme Uous açaués en mangeant ou faisant perdre Le son de l'Une des Uoyelles qui se Rencontrent entre deux mots <cest a dire> comme en ces deux mots, Entre Eux, L'e final du mot Entre se mange et se pert, en prononçant comme sil Estoit Escrit Entr'eux...». (Oihenart, Lafitteren transkrip. 1967: 31)

¹⁵³ «La sinæreze se forme lors qu'en la rencontre de telles Uoyelles La derniere du mot precedant se joint tellement avec la premiere du mot subsequence, en forme de diphtongue, que Les deux Ensemble

euskal hitzen deklinazioen¹⁵⁴ eta sufijazioaren garrantzia zenbatekoa den errima egitean.

Artikulu honen bitartez bi helburu lortu nahi genituzke: 1) Oihenartek euskal arte poetikoaz egiten ari duen gogoeta diakronia batean kokatu, eta 2) *LAPB*-ren estatus testuala zein den analizatu: materialtasuna, parates-
tuak, enuntziatze ekintzak, destinatarioa, planoak.

Azkenik, gehigarri bezala, glosario oihenartiar bat proposatzen dugu, Oihenarten lanetan, Pouvreauren hiztegian eta biak elkarrekin ukan zuten gutunerian diren literatur hitz espezializatu batzuk bilduz. Helburua delarik Oihenartek euskal prosodiaz diona ahal bezain fidelki hartzea.¹⁵⁵

1. Gogoeta poetiko jarraikia

Hipotesi bezala aitzina dezagun *LAPB* Oihenartek arte poetikoaz idatzi dituen testuez ezagutzen dugun

ne font quUne syllabe. En Voicy des Exemples dans les Uers tires de Lope de Vega Carpio, poete Espaignol, au liure Intitulé Peregrino en su patria page 2 [.]

Phimida nunca mi amor
Enternecio tus sentidos

Au premier de ces Uers les mots mi amor ne font que deux syllabes car l'i du mot mi Et l'a du mot amor se ioignent par sinoereze comme sy Les deux n'en faisoient quUn Et que mia feust Une diph-tongue...» (Oihenart, Lafitterren transkrip. 1967: 31).

¹⁵⁴ «... Les Genitifs et les datifs singuliers articulés ont la dernière syllabe breue, Et la penultième longue, Ueu que nous prononçons guiçonáren, Et guiçonári, Et non pas, Guiçonarén ny guiçonarí...» (Oihenart, Lafitterren transkrip. 35. or.). Ikus ere 35. orriari diren bertze oharrak eta ere Etxepare eta Etxeberriren prosodiari buruz ematen dituen kontra etsenpluak.

¹⁵⁵ Artikulu honetan *neurtitz* «verso/vers»-en zentzuan emanen dugu, *bertso* «estrofa/strophe», eta *kopla* «copla/couplet»-en zentzuan, hots, Oihenartek hitz horiei eman zien zentzuari jarraikiz.

azkena daitekeela hari kronologikoan, 1665tik heriotza artean (1667/1668) doan epe batean idatzia. Hipotesia zuzena bada, badira gai berdinez aurretik bertze bi testu, azken testu honekin harreman intertestualean direnak: lehena 1656an latinez idatzia, bigarrena 1657an frantsesez, biak Parisen inprimarazi zituen lanetan txertatuak dira. Kotsidera daiteke 1656ko *Notitiaren*, 14. kapitulu-
luan idatzia dena 1657an anplifikatzen duela.

1657an irakurtzaileari zuzentzen dion testuan has-tapenetik azpimarratu nahi da euskaldun poetek duten ofizio eskasa (erregelak ez dituzte aplikatzen eta ez dituzte ezagutzen ere):

«Combien que les Basques ayent assés d'inclination à la Poësie ; si est ce qu'ils ont fait si peu d'estat iusqu'icy d'en obseruer les Regles, & mesme de les connoistre, qu'en tout ce que nous auons, soit d'imprimé ou de manuscrit de leurs ouurages poëtiques, il y a fort peu de Vers qui soient reguliers; (...) C'est ce qui m'a obligé, apres auoir parlé de ces Regles en vn autre Ouurage, à souffrir que ce peu de Vers, qui m'estoient échappez en mon jeune âge, voye le iour, afin qu'il apparaisse, que la pratique de ces Regles n'est pas si mal aisée en nostre Langue, qu'aucuns se sont persuadez, & non point autre sujet.» (Oihenart 1657 *Au Lecteur*)¹⁵⁶

Zati horretan Oihenartek dio “erregela” horiez ari-zan dela lehenago «bertze lan batean» («apres auoir parlé de ces Regles en vn autre Ouurage»). Lafittek bere dudak ukan zituen pentsatu baitzuen aurreko arte poetiko bat bazuela Oihenartek idatzia. Bertzalde, ohartzen gara ere Lafittek argi duela *LAPB* «zirriborro» bat dela, eta

¹⁵⁶ Zatiaren titulu osoa «O.ten Gastaroa neurthizetan. La Jeunesse d'O. en vers Basques.» (*Les proverbes basques recueillis par le Sr D'Oihenart, plus les poesies Basques du mesme Auteur* (Parise 1657).

datazioaz ere dudak badituela: *LAPB* 1657a baino lehenagoko gogoeta baten bermoldaketa izan ote daiteke? Edo postdatatua den zirriborro zahar bat?

«Cette préface de 1657 fait allusion à un art poétique antérieurement composé. Le manuscrit que nous publions, en est-il une nouvelle mouture entreprise en 1665, ou un vieux brouillon postdaté? Mystère.» (Lafitte 1967: 43)

Lafittek ez zukeen 1656ko *Notitia*-ren 14. kapituluarekin loturarik egin. Oihenartek gogoan duen “bertze lana”, («vn autre ourage»), *Notitia*-ren 2. edizio hori baitateke eta zatia: *De syllabarum quantitate*¹⁵⁷ deitua dena. Euskal prosodiaz dituen ideiak laburzki agertzen ditu Oihenartek latinezko pasarte labur honetan. Zati horretan Oihenarten helburu nagusia «bertsogile arrunten» (*Vulgares versificatores*) eta poeta letratuen artean bereizkuntza hierarkiko baten eraikitzea izanen da bere kriterioen arabera. Nor al dira bertsogile arruntak? Poesiaren erregelak ezagutzen ez dituztenak, “naturalki laburrak diren neurtitzak, luzeak bilakarazten dituztenak ahoskatzen dituztelarik, etsenplo honetan bezala”¹⁵⁸, adibidez:

«Solent vulgares versificatores, vt versus masculinos, quos vocant, faciant, syllabas finales, naturâ breues, producere, vt in hoc exemplo.”):

¹⁵⁷ *Notitia*-ren 1656ko bigarren edizioiko 14. kapituluan, hizkuntzaz egiten dituen gogoetetan (*Singularia quadam lingua Vasca, deque vocabulorum Vascorum declinandi & coniugandi ratione*) sartu behar dira silaben kantitateari buruzko Oihenarten oharra, “De syllabarum quantitate” sailean. (Parise, 1656: 72-73). Oihenartek 14. kapituluan euskal gramatikaz egiten dituen oharrez ikus Beñat Oihartzabal: “Oihenart, euskal gramatikarien aitzindaria” (Oihartzabal 1994).

¹⁵⁸ Itzulpena gurea da.

*Vstasu*¹⁵⁹ *hurrenzerá*¹⁶⁰ *amore maité*,¹⁶¹
*Orá*¹⁶² *partizeco*¹⁶³ *damu ginaté*.¹⁶⁴

Garaiko euskaldun letratuek errexki ezagut zitza-keten *Amorosen disputa*-tik hartua zela pasarteá¹⁶⁵ beraz «bertsogile arrunta» kasu horretan Bernard Etxepare zela. Oihenarten aipamena osoki aipatzen badugu ohartuko gara *LAPBen* diren ideia guztiak hor direla jadanik, poeta italiar eta espainolen erreferentzia beharrezkoa, silaben kondaketan sineresien eta elisioen erregelen errespetatzeak duen inportantzia etb.:

Author horum versuum ambas syllabas, *te*, finales, naturâ suâ breues, longas fecit; quod vitium est in carmine non ferendum. Male faciunt etiam qui elisionem & synæresim negligunt, quarum vsus, non minus huic linguæ conuenit quam Italicæ atque Hispanicæ, in quibus est receptissimus fit autem synæresis cum vltima syllaba vocis, quæ in vocalem definit, ita miscetur cum primâ syllaba vocis fequentis à vo-

159 *Vstaçu* (Etxepare 1545).

160 *hurrancera* (Etxepare 1545).

161 *amore mayte* (Etxepare 1545).

162 *Oray* (Etxepare 1545).

163 *particeco* (Etxepare 1545).

164 *guiniate*. (Etxepare 1545).

165 Ikus aurreko notetan (13a, 14a, 15a, 16a, 17a, 18an) barianteak. Ohartzen gara azkeneko *-té* azentu “maskulinoaz” gain Oihenartek bere kabuz ezarriak dituzkeela bariante ortografikoak eta puntuaziokoak (“*mayté*”-ren ondotik jatorrian existitzen ez zen kakotxa agertzen baita *Notitia*-n). Ez dut uste Rouen-eko galdua den bigarren ediziotik hartua duela distikoa, Oihenartek ez baitu batere estimatzen edizio hori (*fort Incorrecte*). (ikus *LAPB* in Lafitte 1967: 34-37).

Hona Etxepareren 1545eko bertsioa: “*Vstaçu hurrancera amore mayte / Oray particeco damu guiniate.*”

cali incipienti, vt ambæ in vnam syllabam contrahantur, vt fi h? du? voces *sartu eta*, coniunctim per tres tantum syllabas pronuncientur, vocalibus, *u* ac *e*, in diphtongum coalescentibus.» (Oihenart [1656] 1992: bis] 589 bis)¹⁶⁶

Oihenartek Isastik bere 1625/1626ko eskuizkribuan Etxepareren poesiez egin zituen laudorioak¹⁶⁷, lau kopla zituzten zituela, neurritatu nahi ote ditu? Oihenartek Isasti irakurria zukeen *Notitia*-rendako. Nahiz 1850 arte ez inprimatua izan, badakigu Isastiren *Compendioren* kopia ezberdinak kurri bazebiltzela letratuen arten 1782ko nota batek dion bezala (Zavala in Isasti 1850: 19). Halere, hipotesi hutsean gabilta hor; Ricardo Ciervidek ez du Isasti aipatzen Oihenarteren iturrietan¹⁶⁸, bertzalde, Oihenartek zaindu izan zuen Gramont liburutegiko zerrendan ere iduriz ez da Isastiren *Compendioren* kopiarik¹⁶⁹.

¹⁶⁶ “Bertsogile arruntak dira, naturalki laburrak diren neurtitzak, luzeak bilakarazten dituztenak ahoskatzen dituztelarik, etsenplo honetan bezala

Vstasu hurrenzera amore maité,

Orai partizeco damu ginaté.

Autore honek naturalki laburrak diren bukaerazko *te*-ak luzeak bilakarazten ditu; bizio hori poesian ezin onartua da. Gaizki egiten dute ere elisioa eta sinaeresia baleka gabetzat uzten dutenek, hizkuntza honetan erabiltzea komeni delarik, italiarrean eta espainolean bezenbat, non ohidura den azken ahotsaren silaba bokala delarik eta ondotik heldu dena ere bokala delarik, bi silabetarik bat egitea, adibidez *sartu eta*, bi hitzak, hiru silabetan ahoskatuko dira, *u* eta *e* bokalak diptongoan batuz.» (itzulpena A. Arkotxa).

¹⁶⁷ “Muchos años ha que M. Echapare dela Navarra la baja compuso un libro en esta lengua à lo divino...”(Isasti [1625/26]1850: 165-166).

¹⁶⁸ Oihenart 1656 [1992] : 45-99; Ciervide 1994: 575-612.

¹⁶⁹ Iker8 1994: 529-573.

Kontsidera daiteke beraz *De syllabarum quantitate* eta *Au Lacteur* testuek bertze aurre-testu batzuk ukan dizaketela. Oihenarten gogoeta poetikoa *a minima* 1656tik 1667/68ra, heriotza arte, hamar bat urtez hedatzen dena da. *A maxima*, kontsidera dezakegu 1638tik (*Notitiaren* 1. edizio urtetik) 1667/68arte, 20 urtez, hedatu dela gogoeta hori.

LAPB eskuizkribua kontinuitate intertestual batean ulertu behar dugu, ez testu isolatu moduan.

2. Zirriborroaren estatus testualaz

1. *Testuaren aurkitzeaz*: *LAPB* Michel Barbaste medikuak, Oihenarteren ondoko zuzena denak, Lafitteri eza-gutzera eman zion lehen aldikotz 1964ean¹⁷⁰. Pierre Lafittek kondatzen digu nola gertatu zen:

«Il y a deux ans¹⁷¹, après une réunion qui se tenait à Saint-Palais entre amis des études régionales, M. le Dr. Michel Barbaste nous révéla qu'il avait chez lui deux documents qui pouvaient avoir quelque importance pour l'histoire de la littérature basque, et il nous proposa de les examiner. Il courut à son domicile et nous apporta deux manuscrits réunis dans une petite chemise (...)» (Lafitte 1967: 9)

Lafittek bizpahiru urtez, 1964tik 1967 arte¹⁷², atxiki zuen dokumentu originala transkribatzeko gisan; zailtasun handiak ikusi zituen, dokumentua hondatua ze-

¹⁷⁰ Lafittek Barbasteri bi gutun idatzi zizkion gaiaren inguruan, bat 1964ean, bertzea 1967an. Ikus *Lapurdum* 9 aldizkaria.

¹⁷¹ 1964an.

¹⁷² Michel Barbaste-k eman didan xehetasuna 2005eko otsailaren 20ean.

lakotz, Oihenarten grafiaren dezifratzea zaila delakotz batzutan, barratzeek eta gehiagarriek anitz zailtzen dute lakotz irakurketa¹⁷³.

2. *Testuaren materialtasunaz eta nortasun agiritiaz.* Lafittek 1967an zirriborroaz egiten duen deskribapenean ongi agertzen da dokumentua arras estatu txarrean dela:

«Le manuscrit se présente comme un cahier de 32 pages mesurant 35 sur 20 centimètres. Les deux premières et les deux dernières servent de couverture, mais sont du même papier que les feuilles intérieures. Entre la seizième page et la dix-septième, une demi-feuille épinglée porte au recto la mise au propre d'un supplément peu lisible qui est dans une marge de la dix-septième page: ce texte n'est pas de la même écriture que le reste du manuscrit. Le cahier ne porte pas de foliotage, les diverses parties ne sont pas indiquées par des sous-titres, des traits ou des astérisques.

L'état du manuscrit n'est pas brillant: l'encre s'est rouillée et a attaqué çà et là le papier qui offre des lacerations et des trous: le bas a été grignoté par des souris.»¹⁷⁴ (Lafitte 1967: 9-10)

¹⁷³ Eskuizkribuaren lehen orriaren erreproduzio txar bat ikus daiteke 1967ko Lafitteren artikuluan. Lafittek dio Jean Haritschelharrek *LAPB*-ren argazkiak eginarazi zituela Euskal Erakustokian uzteko, baina Euskal Erakustokian ez daude. Gehiago dena, Jean Haritschelharrek berak, garai hartan Baionako Euskal Erakustokiaren buruzagia zenak, erran digu Lafittek ez zizkiola Euskal Erakustokian utzi. Pentsatzekoa da Haritschelharri utzi beharrean Lafittek Mitxelenari utzi ziola paperen «fotokopia» (Mitxelena, *FLV* 1973). Behar bada Mitxelenaren funtsetik datozkio Urkizuri eskuetan dituen *LAPB*en argazkiak: «Eskuizkribuaren fotografiak erabili ditugu gure euskal itzulpena egiterakoan» (Urkizu 1992, 35), baina iturririk ez du ematen.

¹⁷⁴ Michel Barbasteren ustez liztorrek dute eskuizkribua hondatu, liztor ohandze bat baitzen dokumentua altxatua zegoen armarioan.

Lafittek paperaren egoeraz, grafiaren berezitasunez, barratze eta gehitzei buruz ohar zehatzak egiten ditu, testuaren materialtasunari anitz lerro eskainiz:

«C'est que, en effet les ratures sont nombreuses, et peut-être ce cahier n'était-il qu'un premier jet: on y relève des ajouts en marge, des hésitations, des répétitions, des développements illogiquement placés, comme, par exemple, le problème des monosyllabes perdu dans la critique d'Haramburu. L'étude d'ensemble s'achève brusquement par quelques bonnes paroles en faveur d'Etcheberri de Ciboure, sans conclusion générale.» (Lafitte 1967: 10)

Ikusten da Lafitten oharrak eta egin zuen transribaketa¹⁷⁵ zehaztasunez egina dela, garai hartan kontutan hartzen ziren irizpide zientifikoen arabera. Halere, testuaz dituen zenbait balorapen zaharkituak direnez berraipatze-koak dira, bereziki kritika genetikoak «zirriborroen zientzian» azken 30 urteetan egin dituen ekarpenen ondotik.

Lafittek zirriborroaz duen ikuspegia teleologikoa da: zirriborrea heldua ez den testua bezala ikusten du, perfektionarean (=inprimatzearen) bidean dena. Horrek esplikatzeko zergatik zirriborroak dituen tatxatze eta barratzeak «azolagabekeriak» (*négligences*) diren Lafittentzat. Guretzat argi da testuak ez duela “azolagabekeria-rik”: barratze eta gehitzeak bukatua ez den testuaz mintzo zaizkigu. Gainera ez dezakegu modu isolatuan begiratu, *LAPB* 1656 eta 1657ko aurre-testu inprimatuekin eta ezagutzen ez ditugun zirriborroek markatzen dituzten hutsekin harremanetan da. Hitz batez, jadanik azpimarratu dugun bezala, intertestuala den prozedura dinamiko eta ireki batean kokatzen da *LAPB*.

¹⁷⁵ Michel Barbasteren iritziz Ecole des Chartes-eko norbaitekin egin zuen (Eugène Goyhenechekin?) (Lafitte 1967: 11).

Gainera Lafittek testuaren zenbait berezitasun ez zituen transkribatu balio gabekoak zirela iruditzen zitziolakotz. Ondoko hiru puntuak, adibidez, ez zituen kontuan hartu:

– *LAPB* kahier baten itxurarekin presentatzen da baina bertze kaier handiago batean zatekeen. Argiki ikusten da “estalitzat” den lehen folio zuriaren aurkia baino lehen bertze orri batzuk bazirela aitzurrez moztu zitezkeenak, eta gainera idatziak zirela kendu diren orri horiek zenbait lekutan hitz muturrak tintaz idatziak agertzen baitira (Oihenartek?); gauza beraz ohar gaitezke azken folioaren infrentzu zuriaren ondotik. Hor ere ikusten da orri batzuk moztu zirela eta idatziak zirela. Ez daiteke ordea erran ez nork, ez partikulazki noiz. Gauza segurua: Morbieuk 1921ko otsailaren 20ean dokumentua aurkitu zuelarik¹⁷⁶, kaiera orain den bezala zela. Orri horiek aspaldi moztuak izanak daitezke, beharbada Oihenartek berak moztu zituen bere euskal arte poetikoari buruz diren gogoetak liburuxka moduan biltzeko edo Oihenarten hurbileko batek.

– Lehen folioaren infrentzuan, *versus*-ean, Lafittek aipatzen ez dituen bi titulu badira emanak orriaren gaineko partean¹⁷⁷.

– Azken folioan, aurkian, (31. orrian), Lafittek bere transkripzioan kontutan hartu ez zituen Lope de Vegaren neurtitz batzuen fragmentoak badira espainolez, orriaren

¹⁷⁶ Morbieuk Oihenarten liburutegikoak zitezkeen bi dokumentuak dozier batean ezarri zituen 1921ko otsailaren 20ean: *LAPB* eta Oihenarti 1661ean Moret kanonigoak Oihenarti igorri zion gutun bat. Dozierrari ohar hauek ezarri zizkion: “2 pièces très importantes/1) L’Art Poétique Basque d’Arnaud d’Oihenart 1665/2) Lettre en latin du chanoine Moret de Pampelune à Arnaud d’Oihenart 1661.» (Barbaste funtsa).

¹⁷⁷ Ikus I.3.

gaineko aldean, hitz horiek dira LAPB-ren azken hitzak eta ez, Lafitte-ren transkripzioak agertzen duen bezala, Etxeberri Ziburukoaz diren lerroak.

3. *Paratestuez*. Dokumentuak hiru titulu ditu.

–Titulu 1: Lafitten transkripzioak dakarrena da eta luma Oihenartena dateke: *L'art Poétique basque, Indiquée dans une Lettre Escrite a un Cure du pays de Labour au moy de may 1665*.

–Titulu 2 eta 3: lehen folio zuriaren infrentzuan agertzen dira biak eta Lafittek ez zituen aipatu gorago erran dugun bezala. Orriaren gaineko aldean, agertzen dira eta bi esku ezberdinek idatziak dituzkete: titulu 2, *Art (poétique)*¹⁷⁸ *basque*. Titulu 3, *L'art poétique basque (de monsieur)*¹⁷⁹ *Doihenart*. Gainerako dokumentuan baino geroagokoak dirudi hirugarren tituluak bederen; biak titulu originalaren (Titulu 1) arabera eginak dira eta bi momentu ezberdinetan idatziak. Hirugarren titulua-ren lekua oinarrizkoa da Oihenarten izena baitakar, LAPBren autorea zertifikatzen duen aipamen bakarra da Oihenarteren izena ez baita bertze nehon agertzen.

Titulu 1-aren inguruan izanen dira gure gainerako oharrek, horrek badakarzki bertze informazio inportanteak testuaz (zertaz ari da? zein bertze testurekin harremanetan da?...). Gure hipotesia da bi moduz ulert daitekeela tituluaren erranahia: «...aipatua izan den arte poetikoa», edo «...aipatu dudana arte poetikoa», azken kasu honetan autorea inplikatzeko delarik zuzenki (*L'art Poétique basque, [qui a été; que j'ai] Indiquée*¹⁸⁰...). Testuak berak dituen zeinuak bilduz hauek bildu behar geni-

¹⁷⁸ Parentesiaren artean guk ezarria irakurketaz ez garelakotz segur.

¹⁷⁹ Parentesiaren artean guk ezarria irakurketaz ez garelakotz segur.

¹⁸⁰ *Art* subjektua frantsesez femeninoz emana da 17garren mendeko frantsesak onart zezakeen moduan latinez den bezala (*ars, artis*),

tuzke: 1. gutunaren generoan sartzen den aurre-testu baten existentzia; 2. hartaz den datazioa (urtea eta hilabetea) emana zaigula; 3. haren destinatarioaz informazioak badirela. Zeinuak auktorialak dira, Oihenartek berak ezarriak. Hortik atera ditzakegun bi ondorio nabarmenak dira lehenik, *LAPB* aurreko gutun horrekin harremanetan dela edo gutun horretan inspiratu den testu bat dela, hitz batez hipertestu bat (Genette). Aurre-testua 1665eko maiatzean (*au moy de may 1665*) idatzia izan dena; bigarrenik, aurre-testu hori da datatua dena, ez *LAPB* bera, kritikoez orain arte uste izan duten bezala. *LAPB*en datazioaz espekula genezake baina titulu horrek ez digu informaziorik ematen hortaz. Aldiz, aurre-testua 1665ekoa dela, tituluak dion bezala, *LAPB*en irakurketan den denbora-zeinu batek konfirmatzen du: Oihenartek Etxepare poeta aipatzen duelarik 120 urte lehenago idazten zuela dio («qui Escrivoit Il y a six Uingts ans»). Ondorioz, 1545 *Linguae vasconum primitiae*-ren lehen inprimatze-datari 120 urte gehitzen badizkiogu, 1665 urtea kausitzen dugu. Zuzen-zuzen Oihenartek berak *LAPB*-eko tituluan markatzen duen data. Bertzalde, *LAPB* idaztean Oihenartek Etxeparez idatzia duen denbora-erreferentzia zuzentzen ez duenez, pentsa genezake 1665ean berean, egin zuela kopia: 1666an edo 1667an idatzi izan balu Etxepare eta bere artean den epea aldatuko zuen, kasu horretan epea 121, 122 urtekoa izanen baitzen.

Kondua ez da *LAPB* ea egiazko ala fikziozko gutuna den (Lasagabaster 2003:182), *LAPB* ez baita gutun bat.

Tituluak agertu digu *LAPB*ren atzean badela bertze testu bat. Orain bertze galdera moten egitea komeni

ulertzen da horrela zergatik akordatzen den partizipioa feminoaren markarekin den: indiquee». Gaur frantsesez “art” maskulinoa denez, ez da berdin akordatzen.

litzateke: modelotik kopiara aldakuntzak izan ote dira? gutun bati dagozkion epistola-kodeen presentziak *LAPB*-en nola agertzen ote dira: *LAPB*, bere modelo bezala «gutun» bat ote da? Edo gutunaren generotik bertze genero batera lerratu den zerbait?

4. *Enuntziatze ekintzez*. Epistolaren kodean sartzen den bigarren pertsonaren erabilpena, igorleak destinatarioarekin mantentzen duen harreman-marka, anitz aurkitzen da testuan zehar («comme il Uous a apparu, Vous en verrés la preuve, comme Uous scavés...»). Halere, bertze gutunaren marka tipikoak ahulduak edo desagertuak dira: data, adibidez, titulu esplikatioaren esaldi indirektoaren bitartez agertzen da, ez hipotestuan¹⁸¹ agert litzatekeen moduan; egilea nor den, nondik eta noiz idazten duen ez dakigu ez ere eta ez ere destinatarioa nor den (gutun baten informazio beharrezkoenak direlarik hauek...); destinatarioaren funtzioa eta funtzio-lekua (edo etorkia) emanak zaizkigu (*a un Cure du pays de Labour*) baina ez haren izenik eta funtzio-lekuaren izenik ere¹⁸²; sartzeko formulak eta bukatzeko formulak falta dira, zigiluaren seinalerik ez da.

Aldiz, *LAPB* irakurriz konturatzen gara hipotestua (Genette) dialogo batetik sortu dela eta dialogo hori destinatarioak duela hasi galdera/erantzun moduan, Oihenarti galderak eginez («Uous me demandés, je uous Respons»).

¹⁸¹ Hipotestua hemen aurre-testua litzateke, erran nahi da gutuna.

¹⁸² Pariseko Liburutegi nazionalen diren Oihenarten gutunetan ohiturazko epistola kodeak aurki ditzakegu: ezkozko zigilua, destinatarioaren izen eta helbideak (Duchesne anaiak, edo Dupuy Parisen, adibidez Parisen) gutuna arazorik gabe hel dadin postaz, igorlea beraren nortasuna sinaduraren bidez edo bertze bide batez, non den idazten duelarik (Donapaleun adibidez), sartzeko eta bukatzeko kortesiazko formulak badaude.

Konklusio bezala erran dezakegu *LAPB*-ek bere gutunaren generoari dagozkion seinaleetan enuntziatze ekintza duela bereziki atxiki, autorea errepresentatzen duen «niaren» eta destinatarioa errepresentatzen duen «zuaren» arteko dialektikaren bitartez. Baina, *LAPB* ez da soilik gutun hipotestualaren «kopia» bat, bertze zer-baitetan, bertze genero batean uzkalitzen ari da, euskal arte poetikoari buruzko dizertazioa edo saiakera deit daitekeen zer-baitetan. Gutunaren «kopiatzea» gogoetaren mamitzeko parada eta diskurtsoaren zabaltzeko okasioa izan balitz bezala. Horrek esplika litzake barratze, tatxatze, gehigarriak. Ez baita ja hor aurreko erantzun gutunean Oihenartek berak idatzi zuenaren kopiatzerik bakarrik, gogoetak segitzen duenez.

Azkenik, prozedura horretan hipotestuz aldatu gara ere, erreferentzia ez da gehiago 1665ean bidali izan den gutuna baizik eta poesiaz lehenago egin dituen gogoetak. Hipotestu berria gure ignoratziaren arabera –bertze Oihenarten testu zaharragorik ezagutzen ez dugunez– arte poetikoaz Oihenartek egin izan dituen gogoeta zaharrena dugu : 1656ko *De syllabarum quantitate*. *LAPB* zirriborroak Oihenart arte poetikoaz formulatzen ari den dinamikan dela erakusten du. Jadanik azpimarratu dugu gogoeta airean, estruktura irekian geldituko dela Oihenartek ez baitu, eritasunarengatik behar bada eta heriotzarengatik seguruenek bukatua.

Gure hipotesia da aurre-testu bezala funtzionatzen duen gutuna existitu izan dela, Oihenart, destinatario batek eskaturik, euskal arte poetikoaz arizan dela idazten 1665 maiatzeko gutun batean zinez arte poetikoaz. Hitz batez, Titulu 1ean ematen dituen informazioak ziurtagarriak direla. Ondorioz, ondoko pasartean altxatuko ditugun hipotesiak destinatarioaren nortasunaz izanen dira.

4. 1665ko maiatzeko destinatarioaz. Zein klerigo zatekeen aski jakintsuna Lapurdin 1665ko urtean prosodiaz

interesatzeko, frantses poesiaz gain, gai zena latinezko, espainolezko, italierazko eta euskarazko poesiaren irakurtzeko eta apreziatzeko? XVII. mendeko bi pertsonaia ikusten ditugu, Silvain Pouvreau eta Bernardo Gasteluçar.

*Silvain Pouvreau*¹⁸³. Bourges-en sortua, Baionako Duvergier de Hauranne (abbé de Saint-Cyran)-en etxean luzaz egona, Bidarteko erretor ere izana, euskaraz modu bikainean ari zena (Lafitte 1931: 43). Itzultzaile ere bazen. *Guiristinoaren Doctrina* (Parise, 1656), Richelieu kardenalak idatzi lana eta *Philotea* (Parise, 1664), Sales-eko San Frantsesek idatzia frantsesetik euskarara itzuli zituen. Bertzalde, Scúpolik 1585ean italieraz argitaratu zuen lana italieratik euskaratu zuen *Gudu Espirituala* titulupean eta Parisen agertu 1665ean (Vinson 1921: 222; Villasante 1961: 84-85). Eruditoa, poliglota, frantsesaz gain, latinez, espainolez, italieraz, hebraieraz, euskaraz zekiena zen¹⁸⁴.

Liburuzalea ere bazen, liburutegi inportante baten jabe eta XVII. mendean euskaraz idazten ziren liburu biltzailea. Vinsonek dio Pariseko Liburutegi nazionalan diren liburu zaharrenak Pouvreau-ren kolekzioetik heldu direla pentsa daitekeela (1921: 220, 224). Lafittek hitzak:

“Bourges herri-aldeko aphez bat zen. Duvergier de Hauranne famatuégiaren idazlari muthil luzaz egona, jakitate handikoa. Nausiaren etchean eskuara

¹⁸³ Pouvreaturen hiztegiari buruz ikus Mari Jose Kerejeta: “Oihenart Silvain Pouvreaturen hiztegian“ (*ASSJU*, XXV-3, 1991); eta Gidor Bilbao: “Pouvreaturen Hiztegi Laukoitza“ (*ASSJU*, XXI-2, 1992).

¹⁸⁴ Ikus Julien Vinson:

«Pouvreau nous apparaît comme un prêtre intelligent, instruit, actif et résolu. Son instruction était très développée, car on trouve dans son dictionnaire des citations de mots hébreux et il a traduit le combat spirituel sur le texte italien original.» (1921: 222).

baitzakiten, berak ere ikasi zuen eta hain ontsa non Bidarteko erretorgoa 1640-an eman baitzioten. Lau urtez atchiki zuen; gero Pariserat joan: laket zitzaikon hargatik noizean behin Eskual-Herrirat itzultzea. Adichkide handiak bazituen hemen gaindi; hala nola Oihenart.“ (Lafitte 1931: 43)

Vinsonek dio Oihenarteren liburuak liburutegian zituela eta bereziki haren poesiak (Vinson 1921: 220). Pariseko Liburutegi nazionalen diren Pouvreauren hiztegiaren bi kopia manuskritoak etsaminatzen baditugu ohartzen gara Oihenarterengandik zuzenki dituen hitz andana luzeak badituela eta bereziki Oihenartek bildu erran zahar anitz agertzen direla Oihenartek ezarri zizkien zenbakiekin, “O.”¹⁸⁵ letraren bidez egina delarik Oihenarti buruzko erreferentzia, baina ez sistematikoki kasu batzutan Pouvreaux ez baitu jatorria ezarri (Kerejeta 1991; Bilbao 1992). Hiztegiaren diren prosodia alorreko euskal hitzak ere Oihenartengandik biltzen ditu Pouvreaux “O.” batez segiaraziz, hala nola:

Hamarcuna, O.: dixain.

Hirurkuna, O.: ternaire.

Laurcuna, O.: quatrain, quaternaire. (Pouvreau, Hizt.)

Silvain Pouvreaux Oihenarti idazten diolarik informazioen eskatzeko, hitz batzuen definizio zehatzen ukateko izaten da. Egoera horrek LAPB-ren aurre-testuaren egituraren kokatzen gaitu, ikusi dugun bezala destinatarioak eskatu duen informazio bati erantzuteko argitzen baitu Oihenartek euskal arte poetikoaz duen ideia. Berdenboran argitzen duelarik ere bere poesien egiteko erabili duen matrizea. 1665ko maiatzean gutun-harremanetan arizan ziren Pouvreau eta Oihenart, Pouvreau bere hiztegiaren moldatzen ari zenez anitz informazioaren be-

¹⁸⁵ Ikus artikulu honen bukaeran den glosarioa.

harretan baitzen. Gutuneria horren parte bat, suertez, kontserbatua izan zaigu.

Ordea, 1665eko maiatzean, bazuen 21 urte Pouvreau ez zela ia Bidarteko erretor, kargua 1640etik eta 1644era arte kunplitu baitzuen (Lafitte 1931: 43; Villasante 1961: 84).

Zer pentsa? Behar bada 1665ean Pouvrearekin ukan zuen korrespondentzian azaldu zizkiola Oihenartek Pouvreauri euskal arte poetikoaz harek eskatzen zizkion berriak. Garai hartan Pouvreau Parisen bizi zen, aspalditik ez zen Lapurdin apaiz, baina imajina daiteke Oihenartek kargu zaharraren erreferentzia atxikia zuela. Harelere, harritzekoa da Oihenartek ez ematea destinatarioaren izena, Pouvreauri zuzentzen zaiolarik usaian egiten duen bezala “Monsieur Pouvreau” ezarriz.

Bernardo Gasteluçar. Bigarren hipotesi bat azal daiteke: Oihenartek 1665eko maiatzean Pouvreau ez zen bertze korrespondente bati igorri ziola bere gutuna. Nori? Piarres Charrittonen ustez¹⁸⁶, Bernard Gasteluçar (Ziburu 1614/1619-Paue 1701)¹⁸⁷ jesuita izan zitekeen, Jacques d'Oyenard jesuita Oihenarten semearen bitartez¹⁸⁸. Gasteluçarrek 1665ean 55 edo 46 urte dituzke, beraz bizia akabantzan den Oihenart zaharrarekin harremanak ukaten ahal zituen. Are gehiago, kontsideratuz Oihenarterengandik hurbilena den poeta dela Lafitte eta Mitxelenaren iritziz:

“... asko hitz baderabiltza Laphurdiz bertze eskual-herrietakoak. Axular bezain miresgarria zaiku,

¹⁸⁶ Piarres Charrittonek ahoz errana, 2005eko maiatzaren 31n.

¹⁸⁷ Sortze eta heriotz datak Villasanterengandik ditut (Villasante 1961: 90)

¹⁸⁸ Oihenarten semeak *Eguia catholicac...* (1686) liburuaren aprobazione bat idazten dio euskaraz 1686ko martxoaren 2an (Vinson 1891: 134).

non ezten gorago ere ezarri behar, hain baitu eskuara laño, bero, jori eta gurbil. “ (Lafitte 1931: 51)

“Se trata de un poeta fino y delicado y también de un experto innovador en materia de metro, que marcha, quizá sin saberlo, por el mismo camino que Oihenart. Sus versos, a pesar de su finalidad didáctica y popular, son cultos por su variada versificación y por su ropaje mitológico, aunque no introduzca más éste que para desecharlo. Así en los primeros versos del libro:

Urrun hadi Parnasseco
Musa çahar profanoa
Eta çu çato ceruco
Musa berri divinoa” (Michelena 1960: 77).

5. *LAPBren egitura edo planoaz*. Lehenik testuaren marka genetikoak bil ditzagun.

– *LAPB* zirriborroa da, epistolaren kode batzuen markak dituenak baina genero hortarik urrundu dena XVII. mendean anitz praktikatuko den saiakeraren funtzioa duen dizertazio argumentatibo baten itxura hartuz;

– Testuari so egiten badiogu konturatzen gara, testu gainean den titulu esplikatioak (Titulu 1) lanaren norabidea azaltzen duela baina ondotik datorren solasaldian plano argirik ez dela agertzen, ez azpi titulurik ez foliotatzerik, harrigarria delarik hori Oihenartek, bere korrespondentzian bederen, orriak zenbakitzen baititu¹⁸⁹. Baina pentsa daiteke, ikusiz jadanik josia den kaier batean idazten ari dela, ez duela orrien markatze beharrik, aldiz Pouvreauri idazten diolarik, orriak solteak izanez, pentsa daiteke foliotatzea beharrezkoa zaiola, ez nahasteko gisan;

– Ikusten da bertzalde, Etxepareri doakion zatia luma ukaldi bortitzez barratua dela diagonalean, eta

¹⁸⁹ Ikus ere Pouvreauri igorri gutunak, FCB 7 eta 8.

urrunago grafia argi eta garbian berriz kopiatua dela zati berbera; edo bazterrean kopiatua den aipamen bat, ulertezina dena, orri soltean berkopiatua dela garbiki;

– Testua ez da bukatua, konklusiorik ez du, eta Etcheberri Ziburukoaz den aipamenaren ondotik bada bertze orrian nota baten hastapena Lope de Vegaren zitazio batekin; ondorioz, gure ustez Oihenarteren *LAPB*-ren planoaz ez daiteke mintza zirriborroaren analisi genetikoa kontuan hartu gabe, bertzenaz Oihenarten testuan izan diren mugimenduak ez baitira hartzen. Hori da gertatzen Lafittek 1967an *Gure Herrian* agertzeraz ematen duen *LAPB*-i buruzko planoan. Hona, Lafittek dakarren planoan agertzen dena:

«B. Situation de la poésie basque

1° Louanges:

au cordelier Haramburu pour ses combinaisons de vers glissants, et féminins ; mais réserves et tout un excursus sur les monosyllabes et les mots de deux syllabes en fin de vers;

à un poème populaire.

2° Critiques qui visent:

Bernard Dechepare;

Jean d'Etchegaray;

Arnaud de Logras;

Joannes Etcheberri de Ciboure.» (Lafitte 1967: 12).

Baina *LAPB*-n diren mugimenduei so egiten badiegu, ikusten dugu Lafittek hor ikusten duen plana Oihenarteren azken hautuan finkatzen dena dela. Ez ditu kontuan hartu Oihenartek planoan sarrarazi zituen aldakuntzak. Lafittek B sailean ezartzen duena Oihenarten bigarren idatzaldiaren arabera egina baita, ez lehen idatzaldiaren arabera. Oihenartek, lehen idatzaldian, Bernat Etxepareri buruzko erreferentziarekin hastea erabakia zuen (Lafitterendako : «B. 2°a»), eta gero Haranbururenarekin segitzea (Lafitterendako: «B. 1°a»). Zertako? Kopiatzen ari den gutunean ordena horretan kokatu zituelakotz

bi autoreak ? Iturria falta denez, ezin da erantzun. Dena den, ja bigarren idatzaldian erabakitzen du alderantziz egitea kritika ezezkoak alde batetik bilduz eta baiezkoak bertze aldetik. Behar bada arazoi erretorikoengatik. Gisa guziz, guretzat aldakuntza horren azpimarratzea erranahikorra da Oihenarten pentsamoldearen eboluzioa hurbiletik erakustera ematen baitu. Eta azkenean, frogatzen baitu *LAPB* arte poetikoaz den saiakera izateko bidetan den testu amaigabea dela, bere hipotestutik, aurre-testua zen 1665eko maiatzeko gutunetik, urrundua.

* * * * *

Lan honen helburua euskal kritikan ezagutuztat eta definituztat ematen zen testu batean bidaiatzea izan da. Oihenarten *LAPB*-ez zen bisioea aldatu beharra zen, XX. mendearen azken hamarkadetan testuaz sortu diren bisio berriak kontuan hartuz. Postmodernitatean inarrusi eta erori diren segurtasunekin batera testuaz ziren ikuspegi anitz irauli baitira. Testua ez da gehiago estruktura monolitiko bat, ez da finko, ez da zerratua, ez teleologikoa. Ez dezakegu gehiago, Lafittek ikusten zuen bezala ikus *LAPB*. Begirada da aldatu dena. Perfekzioan ez da gehiago sinesten, ez ere autorearen sakralizazioan. Kreaioa mugimendu da. Segurtasunik gabeko mugimendu. Oihenarten arte poetikoaren «textura», materialtasuna, galduak genituen. Testua mututua zitzai-gun. Saiatu gara ikuspegiaren berritzen, Oihenarten arte poetikoa bilakaera diakroniko batean kokatuz. Segurtasunik ez duen hari batean. Testuak duen solasaldia ez baita bukatua, ez ere lineala. Anitz aurreratzez, atzeratzez egina baita, anitz gune-tenporalez. Eta anitz ixil-guneez. Denboraren dentsitatea testuaren hariak dituen “zuloe-tan”, hiatus eta hausturetan sartua baita osoki.

Bukatzeko, gehi dezagun euskal arte poetiko hau bere autorearen ikuspegi estetikoaren miraila dela. XVI.

bigarren erdiko eta XVII. lehen erdiko euskal poetez ditugun iritziak Oihenartez mintzo zaizkigu, aipatzen dituen autoreez bezainbat. Perpektiba horretarik irakurri behar dira, gure ustez, Etxeparez, Etxeberri Ziburukoaz eta bertze euskal poeta garaikideez Oihenartek egiten dituen oharrak. Hor ere generazio literario problematika bat zaigu azaldua: ez adinean, baizik eta estetika ikuspegieta oinarritzen dena. Oihenart gizaldi estetiko berri horren errepresentante bakarra izan ote zen euskal letratan XVII. mendearen erdian? *LAPB* bakarrizketa izan ote zen? Ez dakigu. Halere, *LAPB* baino lehenagoko eza gutzen ditugun 1656 eta 1657ko inprimatuzko aurretuek seinalatzen dute harrera mota zerbait existitu izan zitekeela, irakurtzaileak izan zirela euskal letratuen artean. Nahiz ez dezakegun jakin zein neurrikoa zen harrera hori. Bernard Gasteluçar poetak egin zituen hautu estetikoek aditzera ematen digute Oihenarten ideiak ez zirela arras *lettre morte* gelditu.

Glosarioa

Oharra

Gure helburua zen XVII. mendean, euskaraz, prosodiaz, batzuetan erretorikaz erabili izan ziren hitzetarik gelditzen zitzaizkigun batzuen biltzea. Horretarako Oihenart eta Pouvreuren lan hauek erabili ditugu:

Oihenarten 1657ko Pariseko edizioa¹⁹⁰, 1657 eta Baionako alean datarik gabe den poema berrien puska zatia (ikus Bibliografia).

¹⁹⁰ O.ten Gastaroa...: in Les proverbes basques recueillis par le Sr d'Oihenart, plus les poesies Basques du mesme Auteur (Paris 1657).

Pouvreuren hiztegi eskuizkribuzko bi aleak 1663-1665 urteetan moldatuak (ikus Bibliografia).

Denetara 35 hitz bildu ditugu. Gaurko irakurleak iturri testualak errexki aurki ditzan 2003ko Oihenarten lanen edizioara (Altuna-Mujika)¹⁹¹ bidaltzen dugu parentesien artean.

Erran gabe doa, ez dela glosario hau bukatzat emana, alde batetik aipatu iturrietan ahaztu zitzaizkigunak izan daitezke, eta bertzetik iruditzen zaigu, lan honen helburuaren betetzeko XVI eta XVII.eko euskal autoreen eskuizkribu eta inprimatuzko edizioetan prosodiaz eta erretorikaz diren hitz espezializatuak bildu behar liratekeela.

Laburdurak:

– O.: Oihenart

– PH: Pouvreuren Hiztegia.

AHARANTÇA ARROTCEZ MINÇATCEA: parler les langues. (PH)

AHARANTÇA, MINÇOA: eloquence, façon de parler, langage. (PH)

CANTA: «Nunc dimitis, &c. *Simeonen canta*,» (*O.ten Gastaroa...* 1657: 63; 2003: 471)

CANTA: chant, chanson. (PH)

CANTALOTS: “Cantalotses serrazanac;” (*O.ten Gastaroa...* 1657: 65; 2003: 476)

CANTARIA, CANTATÇAILLEA: chanteur, chanteur. (PH)

CANTOREA : lettrein d’Eglise, pupitre. (PH)

CANTUA: chant. (PH)

¹⁹¹ Oihenart, A. [2003]: *Euskal atsotitzak eta neurtitzak-Proverbes et Poésies basques-Proverbios y poesías vascas.*, Iker 15, Euskaltzaindia, Bilbo.

CANTUCA LAUDATCEA, COPLATCEA: loüier par chansons, <loüier en vers>. (PH)

COBLA, COPLA: «... Guretu, et' eman hec Euscara/Cobla honsalen esuegara.» (*O.ten Gastaroa...* 1657: 47; 2003: 434); «Eske iar cobl' edo kantore,» (*O.ten Gastaroa...* 1657: 52; 2003: 438); «Eguberri-coplac» (*O.ten Gastaroa...* 1657: 54; 2003: 455); «Torralen coblac.» (O., Baionako alean den zati puskan¹⁹²: 14; 2003: 518)

COPLA : couplet, chanson en vers. (PH)

COPLACA MINÇATCEA: parler en vers. (PH)

COPLATCEA: loüier par chansons. «Loüier en vers». (PH)

ERASTEIA, EDASTEIA: «*Erasteia, ou edasteia*, S. Discourir, faire quelque recit ou narration; c'est de la qu'on appelle *Eressiac*, les vieilles chansons qui contiennent quelque histoire, ou narration.» (*O.ten Gastaroa...* “Nevtitz havtaco hiz bekanen adigarria” pasartean, 1657: 71; 2003: 524)

ERESSIA: «Lavr karbarien eressia. * Recit¹⁹³». (O., Baionako alean den zati puskan: 5; 2003: 495)

GAL-KECHUA : plainte sur une perte. (PH)

GALKEXUA, HILKEXUA: «*Galkexua*: «*Maitenaren galkexua*, plainte pour la perte de la maistresse» (O. *O.ten Gastaroa...* “Nevtitz havtaco hiz bekanen adigarria” pasartean, 1657: 70; 2003: 523). Ikus «*Maitenaren gal-kexua*. Complainte de la perte de la Maistresse» (O., *O.ten Gastaroa...* 1657: 18; 2003: 353)

HAMALAUROCUNA: «Hamalavrcvna. *quatorzain, ou Sönet¹⁹⁴. (O. Baionako alean den zati puskan: 13; 2003: 513)

¹⁹² Datarik ez da. Ikus Bibliografia.

¹⁹³ Frantsesezko azalpena in margine (Oihenart 1665: 7).

¹⁹⁴ Frantsesezko azalpena in margine (Oihenart 1665: 13).

HAMARCUNA: «*Hamarcuna*, dizain: Il peut estre emplyé aussi pour le Decalogue. (O., *O.ten Gastaroa...*, 1657: 72; 2003: 525). Ikus «Hamarcuna. Edo Iaincoaren hamar manüac.» (O., *O.ten Gastaroa...*, 1657: 53; 2003: 447)

HAMARCUNA, O.: dixain. (PH)

IAUQUISARREA: «Iauquisarrea (...) *L'attaque» (Baionako alean den zati puskan)¹⁹⁵

ILHARTITZA: «Ilhartitza. * Epitaphe» (Baionako alean den zati puskan)¹⁹⁶.

HILHOTSA, O.: complainte sur la mort de quelqu'un. (PH)

HIL-KECHUA: complainte sur la mort de quelqu'un. (PH)

HIL-KEXUA: «*Hil-kexua*, complainte pour la mort de quelqu'un (O. *O.ten Gastaroa...* "Nevtitz havtaco hiz bekanen adigarria" pasartean, 1657: 47; 70; 2003: 434; 523).

HIRURCUNA: «*Hirurcuna*, S. Ternaire, (comme laurcuna, quaternaire), on s'en peut seruir pour designer la Trinité.» (O., *O.ten Gastaroa...* "Nevtitz havtaco hiz bekanen adigarria" pasartean, 1657: 72; 2003: 525)

HIRURKUNA, O.: ternaire. (PH)

HIRURKUNATCEA. (PH)

HITCEZ EDO ESPATAZ ACOMETA-IHARDE-TSCA HARITCEA: escrimer de paroles ou d'épée. (PH)

HIZ NEURTU: «Hiz neurtutan gau's emanac» (O., *O.ten Gastaroa...*, 1657: 65; 2003: 476)

HONZEA COBLA: «*Honzea cobla*, Composer des vers. S.» (O. *O.ten Gastaroa...* "Nevrtitz havtaco hiz bekanen adigarria" zatian, 1657: 72)

¹⁹⁵ Frantsesezko azalpena in margine (Oihenart 1665: 14).

¹⁹⁶ Frantsesezko azalpena in margine (Oihenart 1665: 14).

ILHOTSA: «*Ilhotsa*, Complainte ou regret pour sur mort de quelqu'un. (O. 1657: 73; 2003: 525). Ikus bertanco ilhots havr gastaroan eguina es isanagati, eritsi dut ezaoqueela hemen gaizqui.» (O., *O.ten Gastaroa...*, 1657: 47; 434)

LAURCUNA, O.: quatrain, quaternaire. (PH).¹⁹⁷

LELOA. Gueroa alferraren leloa, pr. 189¹⁹⁸: a demain c'est du faintant le refrain. Bortz virginen leloa. (PH)

NEURTIZ: «*Neurtiz*, Vers, de *Neurtu hiz*, mots mesurez. (O.*O.ten Gastaroa...*, «Nevrtiz havtaco hiz bekanen adigarria» zatian, 1657: 74; 2003: 526). Ikus titulu nagusia: *O.ten Gastaroa nevtizetan. La Jeunesse d'O. En vers Basques*» (O., *O.ten Gastaroa...*, 1657; 2003: 299); «Iaincoasco nevtitzac. Vers de Déuotion» (O., *O.ten Gastaroa...*, 1657: 53; 2003: 447); «Nevrtiz havtaco hiz bekanen adigarria. Explication des mots rares qui se rencontrent parmi ces Vers.» (O. 1657: 67; 2003: 519).

¹⁹⁷ *Laurcuna* hitza guk ezagutzen ditugun Oihenarteren poesien edizioetan ez da agertzen, ez eta ere Pouvreauri igorriak zizkion eta atxikiak izan diren gutunetan. Horrek erran nahi luke Oihenarterengandik zuzenki ukana duela hitza, behar bada hitz zerrendak zituen gutun baten bidez, baina ere behar bada LAPB-ren aurre-testuaren (edo testuen) bidez.

¹⁹⁸ Ikus Oihenart 1657.

Bibliografia

- AGIRREAZKUENAGA, J. 1993. "A. Oihenart eta bere garaia", *Jakin* 74, Donostia.
- ALTUNA, P. 1979. "Oihenarten metrika", FLV año XI, Pamplona.
- ALTUNA, P. 1992. "Lapurtarrak Oihenartekin haserre?", *Hegats*, Donostia.
- ARKOTXA, A. 2005. "Les *Linguae vasconum primitiae - Prémices de la langue des Vascons* de Bernard Dechepare (Bordeaux, 1545)", *Lengas*, Montpellier (inprimategian).
- ARKOTXA, A. 1994. "Arnaud Oihenarten amodiozko poesien azterketa konparatiboa", *Euskera*, Bilbo.
- ATUTXA, Isaac, 2001. "Joannes Etxeberriren Manual devotioenezcoa-z", *Lapurdum* n° 6, Baiona.
- BILBAO, Gidor, 1992. "Pouvreuren Hiztegi Laukoitza", ASJU, Donostia-San Sebastián.
1992. *Catalogue des livres de la Bibliothèque de Bidache de Monseigneur le Mareschal de Gramond*, IKER 8, Euskaltzaindia, Bilbo.

- CIERVIDE, R. 1992. *Fuentes histórico documentales de la Notitia utriusque vasconia y papeles inéditos de Arnaud D'Oihenart*, IKER 8, Euskaltzaindia, Bilbo.
- CIERVIDE, R. 1992. "Fuentes historicas de la obra de Arnaud D'Oihenart", in Oihenart A. (d') 1638 / 1656 [1992]. *Notitia Utriusque Vasconiae...* Eusko Legebiltzara-Parlamento Vasco, Vitoria-Gasteiz.
1997. *Correspondre jadis et naguère*. CTHS, Aix en Provence.
- DUBOIS, C.-G. 1999. *La poésie du XVIe siècle*. PUB, Bordele.
- ENCINA, J. [1496] 1928. *Cancionero de Juan de Encina. Primera edicion. 1496. Publicado en facsimile por la Real Academia Española*. Tipografía de la Revista de Archivos, Bibliotecas y Museos, Madrid.
- GENETTE, G. 1982. *Palimpsestes. La littérature au second degré*. Seuil, 1982.
- GOIHENETXE, M. 1993. «A. Oihenart eta bere ingurugiroa.», *Jakin* 74, Donostia.
- ISASTI, Lope (de) [1625/26] 1850. *Compendio historial de Guipúzcoa...*, Baroja, San Sebastián.
- KEREJETA, M. J. 1991. «Oihenart Silvain Pouvreauren hiztegian», *ASJU*, Donostia-San Sebastián.
- LAFITTE, P. 1931. *Eskualdunen Loretegia. XVI garren mendetik hunako liburuetarik bildua. Lehen zathia (1645-1800)*. Lasserre liburutegian salgei, Baiona.
- LAFITTE, P. 1941. *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Conférence donnée au Musée Basque de Bayonne le 3 avril 1941. Collection "Aintzina", Baiona.
- MITXELENA, L. 1953. Arnaut Oihenart, *BLVAP*, año IX, cuaderno 3°.

- OIHARTZABAL, B. 1994. "Oihenart, euskal gramatikariaren aitzindaria", *Iker* 8, Euskaltzaindia, Bilbo.
- OIHENART, (d'), [1657] 1936. 1) *ATSOTIZAC EDO REFRAVAC, Prouerbes, ou Adages Basques. Recueillis par le Sieur d'OIHENART, A PARIS. M. DC. LVII.*; 2) *ATSOTIZEN VRRHENQVINA*. [Ale hau Pauen 1665ean atera zen baina hemen titulua dakarren orria falta da]; 3) *O.TEN GASTAROA NEVRTHIZETAN. La Jeunesse d'O. En vers Basques. A PARIS, M. DC. LVII.*; [3 ale horien faksimilea "Mendizabal'en Irarkolan biga?en aldiz lenengo irarkaldiaren antzera egina. 1936"]; [4] eskuetan dugun faksimilean gehituak da, bertzalde, ere Baionako Liburutegi Muzipalean fragmentu fragmentoa.]
- OIHENART, A. (d') 1638 / 1656 [1992]. *Notitia Utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitanicae, qua praeter situm regionis et alia scitu digna, Navarrae Regum, Gasconiae Principium, caeterarumque, iniis, insignium vetustae et dignitate familiarum stemmata ex probatis Authoribus et vetustis monumentis exhibentur. Accedunt Catalogi Pontificum Vasconiae Aquitanicae, hactenus editis pleniores*. [Noticia de las dos Vasconias, la Ibérica y la Aquitana, en la que se describen, además de la situación de la región y otras cosas dignas de conocerse, la genealogía de los reyes de Navarra, de los principes de Gasuña, y otras familias ilustres por su antigüedad y dignidad, conforme se hallan en los autores antiguos: Se añaden los catálogos de los Prelados de la Vasconia Aquitana, más completos que los publicados hasta ahora...] Etude préliminaire de Ricardo Ciervide, traduction de Javier Gorostazu, Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- OIHENART, A. [1992]: *Proverbes et Poésies basques*. Edition: Orpustan, Izpegi, Saint-Baigorri.

- OIHENART, A. [2003]: *Euskal atsotitzak eta neurritzak-Proverbes et Poésies basques-Proverbios y poesías vascas*. Edition de la Préface, des Proverbes et de leurs notes: Jose Antonio Mujika; édition des Poésies et de leurs notes: Patxi Altuna, *Iker 15*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- OIHENART, A (Sr. D'). 1657 [1936]. *les proverbes basques recueillies par le sr d'oihenart, plus les poesies Basques du mesme Auteur*. Oihenartek Parisen argitaratuaren *fac – similea* J. de Urquijok agerrarazia, Lopez de Mendizabal inprimategian, Tolosa.
- ORPUSTAN, J.-B. 1996: *Précis d'histoire littéraire basque 1545-1950. Cinq siècles de littérature en euskara*. Izpegi éditions, Baigorri.
- ORPUSTAN, J.-B. 1999. "Un type de 'paratexte' dans la littérature basque de la première moitié du XVIIe siècle: les dédicaces", Actes du colloque de Bayonne «Les lettres basques au temps d'Axular», *Lapurdum n°4*, Baiona. 9-37.
- OYHARÇABAL, B. 2002. "De l'usage de l'étrangeté syntaxique: les structures agrammaticales dans le versification basque du 17^{ème} siècle". In *Erramu boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, Xabier Artiagoitia, Patxi Goenaga, Joseba A. Lakarra (arg. / eds.), *ASJU*, Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- OYHARÇABAL, B. 2001. "Statut et évolution des lettres basques durant les XVII^{ème} et XVIII^{ème} siècles", *Lapurdum n° 6*, Baiona. 219-189.
- OYHARÇABAL, B. (?). "Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilkaeraz (XVII-XVIII. mendeak). *Litterae Vasconicae*, Euskeraren Iker Atalak 8.
- OYHARÇABAL, B. 1999. «Les prologues auctoriaux des ouvrages basques des XVI^e et XVII^e siècles», *Lapurdum n°4* Numéro spécial, Baiona. 39-93.

- OYHARÇABAL, B. 1993. “Les premières analyses des particularités morphosyntaxiques du basque au 1^{ème} siècle”, *ASJU*, Donostia-San-Sebastián.
- OYHARÇABAL, B. 1993. “Oihenart eta euskal letrak”, *Jakin 74*, Donostia.
- OYHENART, (d’) A. 1665 [1967]. *L’Art Poétique basque, avec une introduction de Pierre Lafitte. Edition*, Ed. Gure Herria, Baiona.
- SALABERRI, P. 2002. *Iraupena eta lekukotasuna*, Elkar, Donostia.
- TOLEDO, A. Ma 2003. “Maitasun mundutierra Etxepareengan baskoen gaztigua”. *Iker 14*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- URQUIZU, P. 2000. *Historia de la literatura vasca*. Lan kolektiboa, U.N.E.D., Madrid. 237-256.
- VINSON, S. 1921. “La bibliothèque de Silvain Pouvreau”, *Gure Herria*, 1921, Bayonne.
- ZINK, M. 1996: *Le Moyen Age et ses chansons ou un Passé en trompe-l’oeil*. Editions de Fallois? Paris.

* * * * *

Funts pribatu eta liburutegietako funtsetan kontsultatu edizioak:

1. Imprimatuak diren edizio originalak:

OIHENART, (d’), 1657?. [Baionako alea: 1657ko Pariseko erran zaharren edizioa eta 1657ko poemien edizioa biltzen ditu baina orri batzuk falta dira + bertze fragmentu bat datagabea 7 poemekin.] *Proverbes et Poésies* titularekin klasifikatua, Réserve 21, n°3820, Baionako Liburutegia.


OIHENART, (d’), 1657, 1665. [Madrیدهko alea. Erran zaharren edizioak bakarrik biltzen ditu: 1657en Parisen

atera zena eta Pauen 1665ean titulu honekin atera zena:
*ATSOTIZEN VRHENQUINA SUPPLEMENT DES
PROVERBES BASQUES. A PAU. CHEZ IEAN DES-
BARATZ, Marchand Libraire & Imprimeur du Roy.
1665.*], R 5081, Madrideko Liburutegi Nazionala.

POUVREAU, Silvain, 1665-1667. Fonds Celtique & Bas-
que n° 7 & Fonds Celtique & Basque n° 8, Pariseko
Liburutegi Nazionala.

2. Eskuizkribua:

L'Art Poétique basque: Barbaste funts pribatua.



Oihenarten *L'art poétique basque* (eskuizkribua)

Lafitte-Barbaste funtsa

Ezkerretik folio 10 recto (aurkia) Etxeparez den lehen aipamen barratuarekin; eskuinetik folio 11 verso (ifrentzua), Haranburuz den aipamenarekin.

KRITIKA LITERARIOA

bilduma

1. Jon Kortazar: *Diglosia eta euskal literatura*, 2002
2. Iratxe Gutierrez: *Malkoen mintzoa Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza*, 2002
3. Orixe: *Euskal literaturaren historia laburra*, 2002
4. Paulo Iztueta: *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Testu hautatuak euskal estetikaz*, 2002
6. Manu Lopez Gaseni: *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*, 2005
7. Ur Apalategi (arg.): *Belaunaldi literarioak auzitan*, 2005